



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

Soziologia eta Gizarte Langintza Saila

Euskal nazionalismoaren diskurtsoa gaur egungo immigrazioaren aurrean

Doktore Tesia

Egilea: Iker Iraola Arretxe

Zuzendaria: Julen Zabalo Bilbao

Donostia, 2012

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU)
- Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua (UPV/EHU)
- EHU Press (UPV/EHU)
ISBN: 978-84-9860-906-6

Amari, Amaiari, eta Jareri

ESKER ONAK

Bi hitz, besterik ez, Tesi hau egiten lagundu didaten guztiei nire eskerrak emateko. Bereziki, Amaia Agirrerri eskertu nahi diot eskainitako laguntza guztia, lanaren amaiera aldean erabakigarri bilakatu dena. Halaber, Julen Zabaleri ere zuzendari gisa emandako laguntza osoa eskertu nahi diot.

Bestetik, ikerketa hau ezinezkoa litzateke elkarrizketetan eta eztabaida taldeetan parte hartu duten pertsona guztiengatik ez balitz; eta eztabaida taldeak osatzerako garaian, ezinbestekoa izan da Naroa Argoitia, Josean Elorrieta, Irantzu Pastor eta Ibon Sanzek eskainitako laguntza.

Beste hainbat lagunen laguntza ere izan dut, modu batean edo bestean. Guztiei, mila esker!

Lan honek Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzak emandako euskarazko Tesia prestatzeko diru-laguntza izan du, 2011ko urtarriletik 2012ko otsailera arte.

AURKIBIDEA

Sarrera. Ikerketaren aurkezpena	13
--	-----------

LEHENENGO ATALA: NAZIONALISMOA IMMIGRAZIOAREN

AURREAN

1. Nazionalismoaren azterketa teorikoa eta immigrazioa	23
---	-----------

1.1. Nazioak eta nazionalismoa.....	23
1.1.1. Nazionalismoaren izaera eta modernitatea	24
1.1.2. Nazionalismoaren ibilbidea	35
1.1.3. Nazionalismoa, zibikoa ala etnikoa?	39
1.2. Nazionalismoa eta <i>bestetasuna</i>	42
1.3. Nazioa eta etorkinen integrazioa.....	54

2. Nazionalismoa eta etorkinak Hego Euskal Herrian: euskal nazionalismoaren bilakaera	63
--	-----------

2.1. Sarrera	63
2.2. Hasierako euskal nazionalismoa: ezinezko integrazioa	66
2.3. Hasierako euskal nazionalismoa: integrazioarako urratsak	79
2.3.1. Gogoetak Jagi-Jagin.....	84
2.4. Euskal nazionalismo berria: integrazioaren bila	88
2.4.1. Zubi berriak: politika eta kultura	98
2.5. Laburbilduz: euskal nazionalismoaren bilakaera.....	103

BIGARREN ATALA: IMMIGRAZIOA; ETORKINAK ETA HARRERA GIZARTEAK

3. Migrazioen azterketa eta bere auziak 109

- 3.1. Immigrazioaren azterketa eta bilakaera 109
- 3.2. Etorkinen egokitzapena: ereduak eta eztabaidak 117
- 3.3. Multikulturalismoaren auzia 124
 - 3.3.1. Multikulturalismoa eta estaturik gabeko nazionalismoa 127
 - 3.3.2. Multikulturalismoaren mugak 132

4. Hego Euskal Herrirako migrazioak 137

- 4.1. Immigrazio *zaharrak*: Espainiatik iritsitako migrazioak 137
 - 4.1.1. Lehen immigrazio aldia: XIX. mende bukaera 138
 - 4.1.2. Bigarren immigrazio aldia: 1950-1980 142
- 4.2. Gaur egungo immigrazioa 149
 - 4.2.1. Immigrazio berriarekiko jarrerak 157
- 4.3. Laburbilduz: Hego Euskal Herria, immigrazio lurraldea 161

HIRUGARREN ATALA: EUSKAL NAZIONALISMOAREN DISKURTSOA GAUR EGUNGO IMMIGRAZIOAREN AURREAN. IKERKETAREN EMAITZAK

5. Azalpen metodologikoa 167

- 5.1. Aztergaiaren kokapena 168
- 5.2. Erabilitako ikerketa teknikak 176
- 5.3. Landa lanaren ezaugarritzea 177

6. Euskal nazionalismoaren diskurtsoa gaur egungo immigrazioaren aurrean	185
6.1. Kokapena: immigrazioaren irakurketa orokorra	185
6.2. Immigrazio zahar eta berriaren arteko loturak.....	190
6.2.1. “Orduko hartan, denok batera”: irakurketa baikorrek	191
6.2.2. “Las fiestas de los vascos”: irakurketa ezkorrek.....	194
6.2.3. Loturak eta irakaspenak.....	197
6.3. Immigrazioaren eraginak Euskal Herrian: aniztasuna, ekonomia, euskara.....	205
6.3.1. Ekarpen nagusiak: aniztasuna eta lan eskua	207
6.3.2. Euskararen egitekoa eta haren gaineko eragina	210
6.4. Immigrazioari buruzko ardura nagusiak.....	223
6.4.1. Euskal Herriak eskumenik ez izatea	224
6.4.2. Etorkinek espainiar nazionalismoarekin bat egitea	227
6.4.3. Gizartean xenofobia areagotzea	232
6.4.4. Euskararen integrazio funtzioa, zalantzan.....	238
6.5. Kulturari buruzko eztabaida: etorkinen integrazioa	246
6.5.1. Integrazioaren hamaika aurpegiak	246
6.5.2. Kultura aniztasunaren korapiloa	252
6.5.3. Hezkuntza sistemaren arazoak	257
6.5.4. Eta erlijioa, zer?.....	260
6.6. Immigrazioa eta abertzaletasuna: immigrazioa, auzi politikoa	265
6.6.1. Euskal nazionalismoaren jardunaz: autokritika	266
6.6.2. Abertzaletasuna eta immigrazioa, bateragarriak.....	272
6.6.3. Naziotasunaren auzia	276
6.6.4. Zer egin? Abertzaleen egitekoa	281
7. Ondorioak.....	289
7.1. Ondorioak laburbilduz	301
7.2. Azken gogoetak.....	304
Bibliografia	309
Eranskinak.....	329
a. Sakoneko elkarrizketetarako gidoi orokorra	331
b. Fitxa teknikoak	335

TAULA ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. taula: Aniztasun soziokulturala kudeatzeko ereduak.....	119
2. taula: Araba, Bizkai eta Gipuzkoako migrazio saldoak (1861-1893).....	139
3. taula: Bizkaiko eta kanpoko langileak (1887)	140
4. taula: Hego Euskal Herriko migrazio saldoak (1940-1970).....	144
5. taula: Etorrinen jatorri nagusiak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan (1970).....	145
6. taula: Kanpoan jaiotako biztanle gehien dituzten eskualdeak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan (1986).....	147
7. taula: Biztanleriaren osaera jaioterriaren arabera (Ipar Euskal Herria 2008, Hego Euskal Herria 2010).....	154
8. taula: Landa lanaren laburpena	181
1. grafikoa: EAEko atzerritarrak herritartasunaren arabera (2012).....	155
2. grafikoa: Etorrinei buruzko estereotipoak (2010)	158
3. grafikoa: Immigrazio berriaren eragina (2010)	159

SARRERA:

IKERKETAREN AURKEZPENA

Nazionalismoa eta migrazioak gizarteko fenomeno garrantzitsuak dira, eta bakoitzak, bere aldetik, arreta handia jaso du gizarte zientzien aldetik. Nazionalismoa, horrela, gaur egungo munduan funtsezko indarra da, dela estatuen aldetik, edo dela estaturik erdietsi ez duten nazionalismoen eraginaren bidez. Izan ere, nahiz eta batzuek nazioaren –edo *nazio-estatuaren*– gainbehera aurreikusi zuten, nazioa gaintitzen duten erakundeen mesedetan, nazioa, gaur egun, bizitza sozialaren oinarritzko elementua da, aktore sozialen jardunean eragin ukaezina duena. Hori modu argian mahaigaineratzen da estaturik gabeko nazionalismo indartsua dagoenean eta, beraz, estatuko nazionalismoarekiko lehia, nazio gatazka ageriko bilakatzen denean.

Migrazioak ere funtsezko aztergaia dira. Gizakiok betidanik mugitu gara lurralde batetik bestera, arrazoi desberdinak tarteko, eta, Soziologiaren erakundetzeaz geroztik, mota desberdinetako migrazioak (landatik hirira, estatuen barrukoa, kontinenteen artekoa...) gizarte zientzien interes gune izan dira. Gainera, Bigarren Mundu Gerratik aurrera nazioarteko migrazio fluxu garrantzitsuak Europara zuzentzen hastean, harrera gizartearen eta etorkinen arteko harremana funtsezko aztergai bilakatu da. Prozesu horretan, harrera gizartetik immigrazioari zuzendutako begiradan bilakaera argia jazo da, eta, gaur egun, immigrazioari erantzun *asimilazionista* ematea ez da nahikoa. Immigrazioaren *egokitzapena*, *inklusioa* edota *integrazioa* bezalako gaiak, adibidez, berebiziko garrantzia eskuratu dute, eta, ondorioz, immigrazioaren aurrean garatu beharreko politikak azterketa eta eztabaida alor garrantzitsuak dira.

Immigrazioa nazionalismoa ikertzeko errealitate sozial esanguratsua da. Izan ere, immigrazioak nazionalismoari kontraesanak eragin ohi dizkio, naziotzat aldarrikatzen duen lurraldera nazioko kideak ez diren pertsonak iristen diren heinean. Nazioaren definizioa, horrela, zalantzez betetzen dute. Zentzu horretan, nazionalismoak immigrazioaren aurrean sortzen dituen erantzunak oso adierazgarriak dira nazionalismoaren beraren ezaugarriak aztertzeko. Nazionalismoak zedarritzen duen nazioan etorkinei aitortzen –edo ukatzen– dien lekuak, nazionalismo horrek bere nazioaz duen ikuspegia

ezagutzen laguntzen digu, beraz. Gainera, beste aldetik begiratuta, immigrazioak ere lotura handia du nazioarekin, immigrazioari ematen zaion trataera harrera gizartean nagusi diren ikuspegien –tartean, nazioari buruzkoen– arabera baitira. Horrela ulertzen da estatu gehienek immigrante mota jakin batzuk aukeratzea (klase sozialari, prestakuntzari... loturiko ezaugarri batzuen arabera, baina baita arrazoi etniko edota erlijiozkoen loturik ere) edota herritartasuna eskuratzeko prozesuak jatorri nazionalaren arabera izatea.

Edonola ere, nazionalismoa eta immigrazioaren arteko harremana ez da aurreikus daitekeen sakontasunez ikertu, are gehiago estaturik gabeko nazionalismoaren kasuan. Izan ere, nazionalismoa edo migrazioak, bakoitza bere aldetik, ardatz dituzten eremuek ez dute, oro har, elkarren arteko lotura esturik izan. Ikerketa esparru bakoitzak bere bidea jarraitu du, eta nazionalismoari buruzko ikerketetan migrazioak nabarmendu ez diren bezala, migrazio ikerketetan ere bestelako gaiak eskuratu dute arreta handiagoa, nazionalismoaren kaltetan. Estaturik gabeko nazionalismoari dagokionez, halaber, arreta gune garrantzitsuena estaturik gabeko nazionalismoaren eta estatuaren arteko harremanak izan dira; eta azken hamarkadan soilik hasi da estaturik gabeko nazionalismoa eta immigrazioaren arteko hartu-emanak gai esanguratsutzat hartzen. Izan ere, estatu mailan begiraturaz, estatua erdietsi ez duen nazionalismoa ere *gutxiengoa* da, eta horrek immigrazioa eta nazionalismo azpiestatalaren arteko azterketan hainbat bide irekitzen ditu.

Euskal Herriaren kasuan, nazionalismoa eta immigrazioaren arteko harremana euskal nazionalismoaren sorrerari lotuta aztertu da, batez ere. Euskal nazionalismoaren hastapenetan, Sabin Aranaren eskutik, immigrazioak paper garrantzitsua bete zuen, lehen nazionalismo horrek kanpotarrentzako zein immigranteentzako itxia zen nazioaren ideia defendatu zuelako. Gainera, garai hartan, langile etorkin ugari iritsi ziren Espainiatik Bizkaira. Hasiera batean, hortaz, euskal nazionalismoaren eta Hego Euskal Herriko inguru batzuetara iritsitako etorkinen arteko hartu-emanak ezkorrak izan ziren, eta euskal nazionalismoak, ezbairik gabe, etorkinen aurkako jarrera bultzatu zuen.

Aurrerago, bigarren migrazio fluxu bat gertatu zen Espainiatik Hego Euskal Herrira, 1950eko eta 1970eko hamarkaden artean. Giza mugimendu hori aurrekoa baino zabalagoa izan zen kopurutan, eta lurralde gehiagotara hedatu zen. Prozesu horretan oin hartuta, nazionalismoa eta immigrazioa harremanetan jartzen zuten azterketak ere egin dira, eta, oro har, etorkinen integrazioa eta, 1960etik aurrera, euskal nazionalismoak izandako aldaketa aztertu dira. Momentu hartan, abertzaletasunak¹ nazioaren definizio berria proposatu eta immigranteek bere mugimenduarekin bat egin zezatela bilatzera pasa zen, eta hori izan da, nazionalismoaren ikuspegitik, gehien aztertu dena.

1990eko hamarkadaren amaieran, eta 2000koan sartuta, batez ere, immigrazio prozesu berri bati ekin zaio. Fluxu horrek XIX. mende amaieran nahiz 1950 eta 1970eko hamarkadetan heldutakoekin desberdintasun nabarmenak ditu, eta nagusia, gure ustez, jatorria da. Izan ere, *gaur egungo immigrazioa*² ez dator Espainiatik, eta desberdintasun horrek ondorio zuzenak ditu etorkinaren eskubideetan, kokapen sozialean, harrera gizartearekiko desberdintasunetan, immigrazioaren irudi sozialean eta abar luze batean. Horrekin batera, gaur egun, Espainia eta Hego Euskal Herriaren artean elkarren arteko migrazio mugimenduak gertatzen diren arren, ezin dugu, gure ustez, immigrazio prozesu sendo batez hitz egin; eta, gainera, fluxu horri buruz maila sozialean burutzen den irakurketa oso bestelakoa da. Immigrazio berri honi dagokionez, bestalde, ikerketak ugariak badira ere, nazionalismoa eta immigrazioa harremanetan jartzen dutenen ildoak ez da ia garatu. Oro har azalduta, immigrazioaren alderdi sozial eta ekonomikoari buruzko azterketak nagusitzen dira (etorkin batzuek bizi duten egoera sozial gogorrari lotuta,

¹ Lan honetan, *abertzaletasuna* eta *euskal nazionalismoa* sinonimotzat darabilzkigu, kontzeptu berberak ez diren arren. *Abertzaletasuna*, etimologikoki, aberriarekiko zaletasun edo maitasuna da; zentzu zehatzagoan, baina, abertzaletasuna *patriotismoaren* euskal ordaina da. Arazoa abertzaletasunaren eta nazionalismoaren arteko bereizketan datza. Hainbatetan, *patriotismoa nazionalismo zibikoaren* parekidetzat hartzen da, adibidez. Baina, aldi berean, euskal testuinguruan *abertzaletasuna* euskal nazionalismoaren sinonimo gisa erabili ohi da (kasu batzuetan *euskal abertzaletasunaz* hitz egiten bada ere).

² Immigrazio prozesu hori izendatzeko *gaur egungo immigrazioa* edota *immigrazio berria* izenak erabili ditugu. Izan ere, termino horiekin, aztergai duguna Espainiatik iritsitako aurreko migrazio fluxuetatik bereizi dezakegu. *Atzerriko immigrazioa* izenak ez digu balio, euskal nazionalismoak Espainiatik iritsitakoa ere *atzerrikotzat* hartu ohi baitu.

beharbada), eta, beste eremu batean, hezkuntzatik abiatutako azterketek ere garrantzia hartu dute. Edonola ere, abertzaletasuna eta immigrazio berriaren arteko hartu-emanak ikerketa gehiago eskatzen zituen; eta, gure ikuspegitik, beharrekoa zen abertzaletasunak immigrazio horri buruz eraikitzen duen diskurtsoa aztertzea. Izan ere, euskal nazionalismoaren historian, immigrazioa funtsezko elementua izan da; eta, horrez gainera, nazionalismo horrek esangura berezia du Euskal Herriko gizarteari begira: euskal nazionalismoan sakontzea Euskal Herriko gizartearen ezagutzan sakontzea ere bada, beraz.

Nazionalismoa eta immigrazioaren arteko hartu-emanak sortutako interesetik, bada, lan honen helburua euskal nazionalismoa aztertzea da, hau da, Euskal Herria naziotzat hartzen duen mugimendu soziopolitikoa behatzea. Abertzaletasuna fenomeno zabala denez, aztergaia mugatu nahi izan dugu eta, beraz, nazionalismo horrek errealitate sozial garrantzitsu baten aurrean duen ikuspegian zentratu gara. Zehazki, immigrazioak nazionalismoarengan –eta, modu berezian, euskal nazionalismoarengan– izan duen eragina kontuan izanik, abertzaletasunak gaur egungo immigrazioaren aurrean garatzen duen diskurtsoa analizatu dugu. Hau da, abertzaleek, immigrazio berria pentsatzerakoan, sortutako diskurtsoa behatu dugu; izan ere, aktore sozialen praktikak mundu ikuskera jakin batean oin hartzen du, eta, hori ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da praxi horri zentzua ematen dioten diskurtsoak ezagutzea. Zentzu horretan oin hartuta eraikitzen dira praktikak, eta errealitate soziala zentzuz janzten duten aktoreak aztertzea, hortaz, lan soziologiko garrantzitsua da. Horretarako, metodologia kualitatiboa erabili dugu, lortu nahi dugun informazioa eta helburuak kontuan hartuta, ezinbestekoa baita gerturatze horretaz baliatzea. Sakoneko elkarrizketak eta eztabaida taldeen bidez, euskal nazionalismoak gaur egungo immigrazioari buruz eraikitzen duen diskurtsoa aztertu dugu, eta, horren baitan, joera nagusiak bilatu. Elkarrizketak iritziak, balioak, ikuspegiak... hedatzeko eraginkortasun handia duten gizarte eragileekin egin ditugu, alderdi politiko eta sindikatuekin, hain zuzen; eta eztabaida taldeak, berriz, oinarri sozial abertzaleko lagunekin.

Helburu horrekin, gure lana Hego Euskal Herrira mugatu dugu. Errealitate sozial orokorra bezala, abertzaletasunaren errealitatea desberdina da Espainiaren eta Frantziaren eraginpeko lurraldeetan (hauteskundeetako emaitzak, eragileak, horien arteko indar harremanak eta abar), eta immigrazioaren errealitatea ere oso bestelakoa da Ipar Euskal Herrian (immigrazio etapak, etorkinen kopuruak, migratzaileen jatorriak eta abar). Hortaz, gure iritziz, Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako errealitateak berezko azterketa behar du, bere planteamendu zehatzarekin.

Lan hau, bada, hiru atal nagusitan banatzen da. Bi lehenengok ikerlanaren kokapen teorikoa izatea dute helburu, eta hirugarrenean ikerlanaren alde enpirikoa jasotzen da. Lehenengo atalean –*Nazionalismoa immigrazioaren aurrean*–, horrela, nazionalismoan sakondu eta berau migrazioekin harremanetan jartzen da, bi ataletan banatuta. Lehenengo puntuan, nazionalismoaren azterketa teorikoan zein nazionalismoak migrazioekin eta *bestetasunarekin* duen hartu-emanen barneratzen da; eta, bigarrenean, aztergaia Euskal Herrian kokatu, eta euskal nazionalismoak immigrazioarekiko harremanen izandako bilakaera aztertzen da. Bigarren atal horretan, abertzaletasunetik immigrazioarekiko izandako jarreraren bereizi daitezkeen une nagusiak berrikusten dira: hasierako euskal nazionalismotik XX. mendeko bigarren erdiko euskal nazionalismo berrira arte.

Lanaren bigarren atal nagusiak –*Immigrazioa: etorkinak eta harrera gizarteak* izenekoa– arreta immigrazioaren auzian jartzen du, nazionalismoan baino gehiago. Horrela, hirugarren puntuan, etorkinen egokitzapena pentsatzeko modu desberdinak berrikusi (asimilazioa, integrazioa, pluralismo kulturala), eta multikulturalismoan geldiduna egiten da, estaturik gabeko nazionalismoarekin gehien lotu den ereduaren heinean. Ondoren, laugarren atalean, immigrazioaren begirada Hego Euskal Herrira ekarri, eta bertara iritsitako migrazio fluxu nagusien ezaugarriak azaltzen dira.

Ikerlanaren hirugarren atalean –*Euskal nazionalismoaren diskurtsoa gaur egungo immigrazioaren aurrean: Ikerketaren emaitzak*–, azalpen

metodologikoa egin ostean, lan honen helburua den euskal nazionalismoaren diskurtsoa aztertzen da. Horretarako, abertzaletasunaren diskurtsoan, beti ere joera nagusiei erreparatuz, identifikatu ditugun gai nagusiak azaltzen dira: immigrazioaz, fenomeno sozial gisa ulertuta, egiten den irakurketa orokorra; immigrazio zaharrarekiko planteatzen diren harremanak; immigrazioak, abertzaleen aburuz, Euskal Herrian sorrarazten dituen eraginak; immigrazioa dela-eta antzematen diren ardura nagusiak; kulturari loturiko eztabaida; eta immigrazioaren irakurketa politikoa. Amaiera gisa, lan honetatik ateratako ondorio nagusiak ditugu.

Izan ere, lan honetan ikusiko dugunez, euskal nazionalismoak immigrazioari buruz duen jarreran, 1960ko hamarkadan irekitako bidetik jarraitzen du, eta horretan saiatzen da, gainera. Immigrazioaren irakurketa politikoa hobesten da, eta immigrazioari loturiko *arazoak* eta prozesu horrek euskal nazioaren funtsezko ezaugarritzat hartzen direnengan (euskara, adibidez) izan ditzakeen balizko ondorio ezkorrek baino, abertzaleek beren diskurtsoan euskal nazionalismoa eta immigrazioa bateragarria dela azpimarratu nahi dute. Lan honetan argitu denez, abertzaletasuna *nazionalismo etnikoei* egotzi ohi zaien immigrazioarekiko mesfidantzatik urrun mantendu nahi da. Gai batzuk modu *problematikoagoan* bizi ditu, euskararena bezala, baina horri ematen zaion erantzuna nazioaren definizio itxi bat eratzetik aldentzen da.

LEHENENGO ATALA:
NAZIONALISMOA IMMIGRAZIOAREN
AURREAN

1. NAZIONALISMOAREN AZTERKETA TEORIKOA ETA IMMIGRAZIOA

1.1. Nazioak eta nazionalismoa

Ikerketa hau batik bat 1990eko hamarkadatik aurrera gorpuztuz joan den nazionalismoari buruzko ikasketen eremuan –*nationalism studies* izenaz ezagunak– koka daiteke; nazionalismoa ikergai nagusitzat duen gizarte zientzien esparrua, hain zuzen. Nazionalismoari buruzko ardura akademikoa eta ikerlanak, noski, lehenago hasi ziren, eta Bigarren Mundu Gerraren ostean garrantzi berezia hartu zuten gizarte zientzietan. *Nationalism studies* direlakoak diziplinartekotasunak ezaugarriturik daude eta, besteak beste, historia, politika zientzia edo soziologiako ikerketa desberdinetan oin hartzen dute. Jarraian, lan hau kokatu asmoz, nazionalismoaren azterketan nagusi diren ikuspegiak eta, batzuetan, eztabaidak azalduko ditugu.

Horren aurretik, hala ere, eta lan hau nazionalismoari buruzkoa dela kontuan hartuta, nazionalismoa zer den argitzea beharrezkoa da. Nazioaren eta nazionalismoaren definizioa fenomeno horren ikerketen eztabaida gune garrantzitsu eta zabala da, definiziook ugariak baitira eta horiei buruzko tirabira ere, sakona. Lan hau, noski, ez da eztabaida interesgarri horretan sakontzeko leku aproposa eta, hortaz, gure helburuetarako ezinbestekoak diren aspektuak azaltzera mugatuko gara. Bada, azpimarratzekoa da nazionalismoak hainbat esanahi har ditzakeela, kontzeptu polisemikoa dela³. Lan honen helburuetarako, nazionalismoa nazioaren aldarrikapen politikoa burutzen duen mugimendu soziopolitikoa dela baieztatzen mugatuko gara momentuz, nazionalismo jakin batean ipiniko baitugu arreta: euskal nazionalismoan. Hurrengo puntuetan sakonduko dugu nazionalismo zehatz horretan.

³ Anthony D. Smithek (2004: 19-23), adibidez, nazionalismoaren esangura hauek azaltzen ditu: nazionalismoa nazioaren sorrera edo hazkunde prozesu moduan; nazio batekiko pertenezia sentimendua; nazioari loturiko lengoia eta sinbolismoa; nazioa erdigunean duen mugimendu soziopolitikoa; eta nazionalismoa ideologia moduan.

1.1.1. Nazionalismoaren izaera eta modernitatea

Nazionalismoa –eta estaturik gabeko nazionalismoa, batez ere– definizioz errealitate negatiboa bailitzan ulertzen da batzuetan; eta, modu horretan, egitate konplexu horretan sakontzeari uzten zaio, gure ustez. Izan ere, badaude nazionalismoaren zein nazioen existentzia ukatzen dutenak, edota nazionalismoa, definizioz, fenomeno itxi eta bortiztat hartzen dutenak. Edonola ere, modu horretako ikuspegiak gerturatze zientifikoak baino, jarrera politikoen isla dira (ik. Moulines, 2008); eta, lan honetan, nazionalismoa asmo zientifikoekin aztertzen saiatzen diren ikuspegiak behatuko ditugu.

Nazionalismoari buruzko eztabaida nagusien artean, bere izaerari buruzkoa nabarmendu daiteke; hau da, nazionalismoa modernitatearen oinordeko den edo, aitzitik, modernitatearen aurretik jada existitzen den zerbait ote denari buruzko diskusioa⁴. Anthony D. Smithen (2000, 2004) arabera, nazionalismoaren izaera moderno edo aurremodernoari buruzko eztabaida hain da garrantzitsua nazionalismoari buruzko ikerketetan, eztabaida horren araberako paradigmez hitz egin daitekeela⁵. Banaketa teoriko guztietan sakondu gabe, azpimarratzekoa da egile batzuentzat nazionalismoaren oinarriak modernitatea baino lehenagokoak diren bitartean (adibidez, ik. Armstrong, 1982; Smith, 1986; Connor, 1998; Hastings, 2000), beste batzuentzat –gehienentzat, gero aipatuko dugun moduan– nazionalismoa fenomeno guztiz modernoa dela, XVIII. mendetik aurrera sortutakoa (adibidez, ik. Kedourie, 1966; Breuilly, 1990; Anderson, 1993; Hobsbawm, 2004; Gellner, 2008).

Bigarren ikuspegi horren arabera, nazionalismoa modernitatearekin batera gertatutako prozesua da, nazio-estatuaren sorrerarekin hertsiki loturik.

⁴ Nazioa modu esentzialistan ulertzen duen ikuspegia (nazioa *egitate natural* legez ulertzen duena) maila akademikoan gaituztat eman daitekeenez, ez dugu horretan sakonduko. Smithen (2004), esaterako, *nazioen mitoa* deitu dio ikuspegi horri.

⁵ Zehazki, Anthony D. Smithen (2004: 81-108) nazionalismoaren teorian paradigma hauek bereizten ditu: modernismoa, perennialismoa, primordialismoa eta –berak defendatzen duen– etnosinbolismoa.

Azken kontzeptu hori, nazio-estatuarena, funtsezkoa da nazionalismoa egitate modernotzat hartzen dutenentzat. Hobsbawmen (2004: 18) hitzak horren erakusgarri dira:

“[La nación] Pertenece exclusivamente a un periodo concreto y reciente desde el punto de vista histórico. Es una realidad social sólo en la medida en que se refiere a cierta clase de estado territorial moderno, el ‘estado-nación’, y de nada sirve hablar de nación y nacionalidad excepto en la medida en que ambas se refieren a él.”

Nazionalismoa eta fenomeno nazionalak, oro har, gizarte fenomeno *berriak* dira, industrializazioa, sekularizazioa, urbanizazioa eta antzekoekin batera gertatutakoak. Ikuspegiaren ideia zentrala laburbiltzeko, Zabaltzak Gellnerren aipu ezaguna erabiltzen du, eta esaldiaren bigarren zatia maiz ezkutaturik gelditzen dela azpimarratzen du (Gellner, 1964: 68, in Zabaltza, 2006: 16):

“El nacionalismo no es el despertar de las naciones a la conciencia de sí mismas, sino que crea las naciones donde no existen (...) pero necesita algunos hechos diferenciales preexistentes para funcionar.”

Izan ere, gerturatze modernista⁶ horren erreferente moduan Ernest Gellnerren (2008) *Nations and Nationalism* lana hartu ohi da hainbatetan⁷. Oro har, modernistentzat, nazionalismoa ikuspegi politikotik eta arreta eliteen eraginean ipinita aztertu behar da. Nazionalismoa Frantziako Iraultzaren ostean

⁶ Batzuetan, nazionalismoaren teoriaren baitan, modernizazioaren teorien eta *nation-building*aren teorien arteko bereizketa egiten da (hala egiten du, esaterako, Serrano Pascualek [1995]); nahiz eta askotan biak nazionalismoaren ikuspegi modernista zabalagoaren baitan sartzen diren (hori da, adibidez, Smithen [2004] kasua). Hemen bigarren zentzu horretan darabilzkigu.

⁷ Gellnerren ikuspegiak izandako eragina, kritikak eta kritikei emandako erantzunetan sakontzeko, ik. Breuilly (2008); Gellnerren ikuspegiaren eragin eta gaurkotasunari buruz, ik. Conversi (2007).

sortutako mundu berriarekin batera jaiotako fenomeno soziala da; eta, bere bidez, gizarte bateko eliteek jendartea mobilizatzen eta batzen dute. Nazionalismoak, zentzu horretan, gizarteko taldeak batzeko funtzioa betetzen du edo, Rousseuren hitzak erabiliz, *erlijio zibikoaren* funtzioa betetzen du.

Nazio-estatu berrietako eliteek, horrela, nazio eraikuntza (*nation-building*) prozesuak abiatuko –edo berrabiatuko– dituzte, eta estatuaren tresna desberdinez baliatuko dira: hezkuntza sistema publikoa, nazio hizkuntzaren ezarpena eta hedapena⁸, soldaduska, erlijio ofiziala, inprenta eta nazio literatura, mapak, museoak, eta abar luze bat. Mekanismo horien helburu nagusia nazio-estatu berriko biztanleen artean gutxieneko loturak ezarri edo sortzea izango da (adibidez, hizkuntza eta dialekto ulertezinak zeuden lekuan, nazio hizkuntza bakarra hedatzea), eta ondoko gainontzeko nazioekiko diferentziak nabarmentzea (hizkuntzaren adibidearekin jarraituz, inguruko herrialdeetatik bereizitako alfabetoa aukeratzea, esaterako) kasu batzuetan. Hobsbawmek (2004: 105) horrela laburtzen du nazionalismoaren ikuspegi hori:

“La ‘nación’ no era un desarrollo espontáneo, sino elaborado. No se trataba simplemente de una novedad histórica, aunque representaba las cosas que los miembros de algunos grupos humanos muy antiguos tenían en común o creían tener en común frente a los ‘extranjeros’. Tenía que ser realmente construida.”

Nazionalismoari buruzko ikerketan, bada, ikuspegi modernista gehiengoa da⁹. Hala gogorarazten digu Smithek (2004: 67)¹⁰, Bigarren Mundu Gerratik

⁸ Kasu askotan hizkuntza nazionalaren *sorreraz* ere hitz egin daiteke. Besteen artean, Hobsbawmek (2004: 62) tartea eskaintzen dio afera honi: “Las lenguas nacionales son, pues, casi siempre conceptos semiartificiales y de vez en cuando, como el hebreo moderno, virtualmente inventadas. Son lo contrario de lo que la mitología nacionalista supone que son, a saber, los cimientos primordiales de la cultura nacional y las matrices de la mente nacional.”

Nazionalismoaren ikuspegitik gai honetan sakontzeko, ik. Zabaltza (2006); hizkuntzalaritzaren ikuspegi kritikotik aztertzeko, ik. Moreno Cabrera (2008).

⁹ Hastingsek (2000: 12) eta Smithek (2004: 67) nazionalismoaren ikerketetan modernistek *ortodoxia* ordezkatzen dutela diote.

¹⁰ “El modernismo representa la ortodoxia dominante entre los estudiosos del nacionalismo. Para muchos, la modernidad de las naciones, los estados nacionales y los nacionalismos

aurrera nazionalismoaren ulerkuntza modernista nagusitu dela dioenean, aurretik nazioaren izaera *zaharragoa* defendatzen zutenak (adibide gisa, ik. Seton-Watson, 1977) nabarmentzen ziren bitartean. Esan dugunez, baina, nazionalismoaren izaera modernoaren atzean, ikuspegi desberdinak aurki ditzakegu. Jarraian, horien ildo nagusiak aipatuko ditugu, ideia nagusiak nabarmenduz.

John Breuillyren (1990) ikuspegitik, horrela, nazionalismoa zera da: gizarte bateko eliteek, jendarte hori mobilizatuz, estatuko boterea lortzeko darabilten mekanismo politikoa. Historialariak, hortaz, nazionalismoaren izaera politikoa eta instrumentala azpimarratzen digu. Beraz, ideologia nazionalista “(...) sólo es específica y significativa en relación con las exigencias concretas de la acción política.” (Breuilly, 1990: 385). Nazionalismoari loturiko sentimenduak, identitatea eta abar, aldiz, azterketatik kanpo uzten ditu ikerlariak. Smithen (2004: 66) aburuz, nazionalismoaren teorien ikuspegitik, nazionalismoaren paradigma modernistaren barruan, aspektu politikoa nabarmentzen duen ildoaren erakusgarri da Breuillyren lana.

Benedict Andersonen (1993), bere aldetik, *Imagined Communities* lan ezagunean, *komunitate irudikatuen* ikuskera plazaratu zuen, nazionalismoaren azterketan arrakasta handia izan zuena eta, egun ere, sarri erabiltzen dena. Egile honi jarraituz, behin erlijio eta monarkia historiko handiei lotutako mundu ikuskeraren gainbehera gertaturik, eta *inprenta-kapitalismoa* deritzonaren garapenari eta honi lotutako nazio hizkuntzen agerpen eta indartzeari loturik, deskolonizazio prozesuetatik ateratako eliteek nazionalismoa erabili zuten estatu egitura berria sortzeko. Andersonen (1993: 75) hitzetan, horrela,

“(...) la convergencia del capitalismo y la tecnología impresa en la fatal diversidad del lenguaje humano hizo posible una nueva forma de comunidad imaginada, que (...) preparó el escenario para la nación moderna.”

simplemente se da por sentada, mientras que, para otros, es algo en lo que hay que insistir con más o menos fuerza.” (Smith, 2004: 67).

Horrela, nazioa, Andersonentzat, komunitate imajinatu bat da; baina zergatik irudikatua? Naziorik ñimiñoeneko kideek ere ez dituztelako inoiz gainontzeko nazio kide guztiak ezagutuko ezta ikusiko ere; baina, hala eta guztiz ere, bakoitzaren buruan beste nazio kideekiko loturaren, komunioaren sentipena bizirik izango da (Anderson, 1993: 23).

Gizarte zientzien ikuspegitik gauza jakina den moduan, egitate sozial bat –kasu honetan nazioa– irudikatua dela esateak ez dio garrantzirik, eraginik edo egiazkotasunik kentzen, zenbaitek aurkakoa adierazi arren¹¹. Balibarrek (1991: 145, egileak azpimarratua) azaltzen duen moduan,

“Toda comunidad social, reproducida mediante el funcionamiento de instituciones, es imaginaria, es decir, reposa sobre la proyección de la existencia individual en la trama de un relato colectivo, en el reconocimiento de un nombre común y en las tradiciones vividas como restos de un pasado inmemorial (aunque se hayan fabricado e inculcado en circunstancias recientes). Esto viene a significar que sólo las comunidades imaginadas son reales, cuando se dan determinadas condiciones.”

Zentzu horretan, garrantzitsua da argi izatea nazionalismoaren teorialari modernistek ez dutela nazioen *asmaketa* nazioen izaera faltsuaren eufemismo moduan erabiltzen: nazioa *asmatua* da *naturala* ez delako; eta, gainera, nazio *guztiak* dira asmatuak, ez soilik estaturik lortu ez dutenak (Bastida Freixedo, 2007: 114).

Eric Hobsbawm (2004) historialariarentzat ere nazioak gizarte *konstruktoak* dira, besteak beste eliteek *asmaturiko tradizioetan* oin hartzen

¹¹ Bastida Freixedok (2007) nabarmentzen duen legez, *nazioen asmaketa* nazionalismoaren – zehazki, estaturik gabeko nazionalismoen eta, batez ere, Espainiako *nazionalismo periferiko* deitutakoen– aurka ekiteko argudio erabilia da; nazionalismoaren aurkako klixea. Horrela, Kedourieren (1966) planteamendu klasikoan oin hartuz, Espainiako intelektual zenbaiten artean hedaturik dago jarrera hori (adibidez, ik. Juaristi, 1997).

dutenak (ik. Hobsbawm eta Ranger, 2002). Egile horrentzat, garai jakin batzuetan nazionalismoak izaera askatzailea –edo *demokratiko-iraultzailea*, bere terminologian– izan du (batez ere komunitate tradizional *txikien* gainetik komunitate nazional zabalagoak sortzeko xedea izan duenean); baina, Bigarren Mundu Gerra ostean, talde etnikoetan oinarritutako erresistentzia mugimenduak dira, oro har, eta izaera aurrerazale hori galdu dute¹². Smithen (2004: 66-67) aburuz, bai Hobsbawmen eta bai Andersonen planteamenduen gakoak, nazionalismoaren teoriaren ikuspuntutik, nazionalismoa eraikuntza sozial moduan kontzeptualizatzea da.

Jada aipatu dugun Ernest Gellnerrek (2008), bere aldetik, nazionalismoa estuki lotzen du industrialismoarekin; eta nazionalismoa gizartearen modernizazioaren teoria orokor baten baitan azaltzen du. Nazionalismoa, beraz, industrializazioak zekarren gizarte aldaketa prozesu sakonaren ondorio da; edo, bestela esanda, industrialismoaren ondorioz sortutako antolaketa sozial berriaren oinarritzko eta ezinbesteko osagaia da. Nazionalismoa, zentzu horretan, gizarte egitura estatu mailaren konplexutasuna eskuratzerakoan, sortutako fenomeno da. Hortaz, Gellnerrentzat, nazionalismoa estatua legitimatzeko bitarteko indartsua da, gizarteak alfabetizazio zabalduaren bidez kulturara sarrera duenean sortzen dena. Beraz,

“(...) el nacionalismo es esencialmente la imposición general de una cultura superior a una sociedad en la que hasta entonces la mayoría (...) se había regido por culturas primarias. (...) Supone el establecimiento de una sociedad anónima e impersonal (...)” (Gellner, 2008: 138).

¹² Gure helburuetarako, interesgarriak dira Hobsbawmek (2004: 164) 1950eko hamarkadatik aurrera nazionalismoak, mundu mailako migrazio fluxuen aurrean, betetzen duen paperaren inguruan plazaratzen dituen hausnarketak. Bere aburuz, bai estatu-nazionalismoek (*atzerritarrekiko* mesfidantza eta xenofobiaren bidez), eta baita nazionalismo azpiestatalek ere, migratzaileekiko jarrera itxia dute, etorkinek (aurrerago ikusiko dugun moduan) nazionalismoaren oinarritzko ekuazioa omen den *nazio bat, estatu bat* kuestionatzen duten heinean. Zentzu horretan, Hobsbawmentzat, migrazioak beste arrazoi bat dira nazionalismoaren egitasmoa ezinezkoa dela azpimarratzeko.

Gellnerren arabera, nazioak goi-kultura baten erakusgarri dira, eta hertsiki loturik daude derrigorrezko eskolatze publikoarekin. Hori guztia dela eta, Gellnerren planteamendu entzutetsua, nazionalismoaren teoriaren ikuspegitik, modernismoaren baitan faktore soziokulturalak azpimarratzen dituztenen artean kokatzen du Smithek (2004: 66).

Nazionalismoa egitate modernotzat hartzeak, noski, ez du zerikusirik nazionalismoari indarrik edo eragiteko gaitasunik ez onartzearekin. Areago, nazionalismoaren ikuspegi modernista azpimarratzen duten egileetako askok (esaterako: Anderson, 1993; Gellner, 2008) modernitatean nazionalismoa ezinbestekoa dela nabarmentzen dute; gizarte modernoek nazionalismoa *behar* dutela edo, beste modu batera esanda, modernitatea nazionalismoaren garaia dela. Horregatik hitz egiten dute *Nazionalismoaren Aroaz*. Zentzu horretan, hasieran Mendebaldeko gizarteetara mugaturiko fenomeno zena, mundu osora hedatu dela azpimarratzen dute; eta, gainera, geroz eta garrantzitsuagoa dela eta, aurrerantzean ere, izango dela. Andersonek (1993), esaterako, ideia hori nabarmentzen du, nazio gatazkak garaiko estatu sozialisten artean gertatzera iritsi zirela gogoraraziz¹³. Hobsbawmek (2004: 202), aldiz, onartzen du nazionalismoaren teoriarik gehienek nazionalismoaren hedapen eta eraginaren areagotzearekin bat egiten dutela, baina, bere aburuz, nazionalismoa fenomeno beherakorra da¹⁴. Aitzitik, Hobsbawmen aburuz, nazionalismoaren ikerlariek buruzagi nazionalisten edota klase kultuen planteamenduak herri xeheak partekatzen dituela jakintzat ematen dute, eta, bere aburuz, hori ziurtatzeko zalantzak oso handiak dira. Smithek (2004: 173), bere aldetik, nazionalismoaren eraginaren iraupena horrela azaltzen du:

¹³ Vietnam eta Kanputxea zenaren arteko gatazka jartzen du Andersonek adibide gisa. Modernismotik at, gauza bera egiten du, adibidez, Connorrek (1998: 64) ere.

¹⁴ Hobsbawmek John Breuillyk ere hausnarketa horrekin bat egiten duela azpimarratzen du: “Entre los raros teóricos que parecen compartir mis dudas acerca de la fuerza y el dominio del nacionalismo se encuentra John Breuille en *Nationalism and the state*. Critica tanto a Gellner como a Anderson por suponer ‘que el éxito evidente del nacionalismo significa que el nacionalismo tiene raíces muy fuertes en el pensamiento o el comportamiento de la gente’” (Hobsbawm, 2004: 202, 38. oin oharra).

“mientras persistan los fundamentos sagrados de la nación y el nacionalismo (...) [éste] está destinado a florecer, y la identidad nacional seguirá proporcionando una de las piezas fundamentales para la construcción del orden mundial contemporáneo.”

Azaldu dugun nazionalismoaren ikuspegi modernista, nazionalismoari buruzko ikerketan oso hedatua bada ere, kritikak ere jasotzen ditu, noski¹⁵. Horien erakusgarri Adrian Hastingsen (2000) lana har dezakegu, ikuspegi historikotik nazioen eta nazionalismoaren modernitatearen ideia –eta, beraz, nazionalismoaren teoriarari modernisten ikuspegia– gainditu beharra proposatzen duena. Egile horren arabera, nazionalismoa XVIII. mendea baino lehenagokoa da; eta aurrekari garbiena –lehen nazioa– Ingalaterran topa daiteke (Herbehereak eta Eskozia ere –XIV. mendean, azken hau– aurrekaritzat hartzen ditu). Bere ustez, nazioa nazionalismoa baino askoz lehenagokoa da, beraz. Hastingsentzat nazio kontzientziaren sorrera estuki loturik dago erlijioari eta nazio literatura baten sorrerari. Nazioa, gainera, ezin da soilik, Hastingsen ustez, *komunitate irudikatu* moduan ulertu, oinarri etniko sendoak baititu¹⁶. Etnizitate guztiek (gehienek), hala ere, ez dute nazionalismorik sortzen, ezaugarri batzuk beharrezkoak baitira nazio bihurtu *ahal* izateko. Horien artean, lurraldea kontrolatzeko egitura (nolabaiteko estatu egitura bat) edukitzea funtsezkoa da (Hastings, 2000: 47).

Modernismoari zuzendutako kritiketako bat, hemen nabarmendu nahi duguna, nazionalismoaren izaera modernoa defendatzen dutenek hainbatetan nazionalismoa estatuaren (nazio-estatuaren) eraikuntza prozesuarekin lotzen dutela da eta, hortaz, nazioa eta nazio-estatuaren parekatzen dutela. Horrela, azpimarratzen dutenez, neurri batean bederen, euren azterketa eremutik at nazionalismoari loturiko hainbat errealitate uzten dituzte, tartean estaturik

¹⁵ *Nation-building*aren ikuspegiaren kritikan sakontzeko, ik. Connor (1998: 28-61); kapituluaren izenburua bera deigarria da: “¿Construcción o destrucción de la nación?”.

¹⁶ Ingalaterraren kasuan, adibidez, saxoiek, daniarrek eta normandiarrek (etnia batzuek) Ingalaterrako nazioa sortu zuten. Halaber, Frantziako edo Ipar Amerikako iraultzak ezin dira ulertu aurretik frantses eta amerikar (*estatubatuarren* zentzuan) nazioak existituko ez balira, lurralde txikiagotara (Frantziako kasuan, Paris ingurua) eta klase sozial zehatzetara mugaturiko nazioak izan arren (Hastings, 2000: 42 eta hur.).

gabeko nazionalismoena, esaterako. Bestetik, nazionalismoari buruzko ikerketetan, gizarte zientzien beste hainbat esparrutan bezala, arazo nabarmena da kontzeptuak ez direla behar bezain modu zehatzean erabiltzen; hots, errealitate desberdinak izendatzeko kontzeptu berdinak erabiltzen direla. Walker Connorrek, besteak beste, arazo hori mahaigaineratu du, nazionalismoaren azterketan terminologia mailan nahasketa handia dela azpimarratuz¹⁷. Bere ustez,

“Después de haber adscrito erróneamente el término nacionalismo a la lealtad al Estado, [muchos estudiosos del nacionalismo] se han visto obligados a acuñar un término diferente para definir la lealtad al grupo etnonacional. Entre las alternativas más comunes pueden citarse primordialismo(s), tribalismo, regionalismo, comunitarismo (*communalism*), localismo (*parochialism*) y subnacionalismo. Como cada uno de estos términos ya poseía un significado sin relación con el nacionalismo, la confusión terminológica (...) no ha hecho sino acrecentarse.” (Connor, 1998: 67).

Terminologia arazo horrez gain, beste kritika bat ondoko hau da: bereizketa etnikoen gainean estatuaren mugak onestea; nazionalismoaren ikuspegi modernistarentzat, nazionalismoa modernizazioaren testuinguruan nazio-estatuaren sorrera legitimatzeko bitartekoak izanik (in Smith, 2004: 67). Horrela, Connorren (1998: 65) hitzetan, “La escuela de ‘construcción de la nación’ no ha prestado atención a la cuestión étnica, centrando su atención en el plano del Estado (...)”.

¹⁷ Moulinesek (2008) ere nazionalismoaren azterketan nagusi den kaos terminologikoa salatzen du bere *Manifestu Nazionalistan*. Filosofoak nazioa eta etnia zehatz definitzea ezinbestekoa dela defendatzen du. Horrela, gizateria etnietan banaturik dagoenez, etnia –kulturari loturiko kontzeptua– gizarte analisirako oinarritzko kontzeptua da. Horri loturik, nazioa –politikari loturiko kontzeptua– etnia mota bat litzateke, kontzientzia politikoa eskuratutako etniek osaturikoa, alegia.

Egile horrek, aitzitik, nazionalismoa etnonazionalismo¹⁸ gisa planteatzen du, hots, etnizitatean oinarrituriko kontzientzia politikoa hartu ondoren – orduan nazioa sortuz– sortzen den mugimendua¹⁹. Nazioa ez da, ikuspegi horren arabera, eliteek estatu egitura bat legitimatzeko bultzatutako estrategia, baizik eta herrien historian, kulturean, sinboloetan eta abarretan oin hartuz (ezaugarrioren izaera erreal edo faltsua albo batera utzita²⁰) egikaritutako mugimendu politikoa. Connorri (1998: 89) jarraituz, nazioa, horrela, “(...) es un grupo de personas que creen estar ancestralmente relacionadas.”; eta arbaso komunen *uste* hori da, hain zuzen, etnizitatearen funtsa. Eta hortik abiatuz, nazionalismoa nazioarekiko identifikazioa eta berekiko leialtasuna da (Connor, 1998: XIII).

Connorren gertuko ikuspegi batetik, Anthony D. Smithek ere etnizitatea azpimarratzen duen ikuspegi baten alde egiten du, *etnosinbolismoa* izeneko ikusmoldearen bidez²¹. Bere aburuz, “(...) la nación es inconcebible fuera de un mundo de etnicidad” (Smith, 2004: 106). Eliteen eta goi-klaseen eragin eta mobilizazio gaitasunaren gaitetik, hortaz, etnizitatea funtsezkoa da ulertzeko zergatik den nazionalismoa hain eraginkorra jendarteak mobilizatzeko garaian.

Finean, nazionalismoari buruzko eztabaida hauetan guztietan ika-mika nagusia da ea nazionalismoa nazio-estatuaren legitimatzeko mekanismo soziopolitikoa den –oro har *nation-building*aren ikuspegiak egiten duen legez– edo, aitzitik, nazionalismoa sortzeko balizko aurrebaldintza batzuk existitzea

¹⁸ Connorrentzat (1998: XIII) etnonazionalismoa eta nazionalismoa sinonimoak dira, baina *etno* aurrizkia gehitzen dio, bere ustez, nazionalismoaren ikerketan gailentzen diren eta okerrak diren nazionalismoaren definizioetatik bereizteko, hots, nazionalismoa estatuarekiko leialtasunarekin parekatzen duten definizioetatik aldentzeko (bere ustez, estatuarekiko leialtasun hori abertzaletasuna da, nazionalismoaren ordez).

¹⁹ Etnizitatearen garrantzia azpimarratzen duen nazionalismoaren azalpenetarako, ik. Connor, 1998; Smith, 1997.

²⁰ Baina gizarte taldeek definizio horiek errealtzat hartzen badituzte, ondorioak ez bairik gabe errealak izango direla ahanzi gabe. Gizarte errealitatearen azterketa soziologikorako, interesgarria da Beltrán (1991).

²¹ Etnosinbolismoaren xedea nazionalismoaren azalpen modernistaren hainbat *muga* gainditzen saiatzea da; esaterako, nazionalismoak herri xehearengan duen eragina eta indarra ezagutzen ahalegintzea edota nazionalismoaren aurretik naziorik izan ote den aztertzea. Horretarako, talde etnikoekin nazioekin duten hartu-emanak ikertzen dute. Ikuspegi horretan sakontzeko, ik. Smith (1997, 2009).

beharrezkoa ote den –Anthony D. Smithek edota Walker Connorrek, besteak beste, defendatzen duten moduan–.

Hala ere, nazionalismoa ulertzeko moduak askotarikoak izan dira, bere analisirako sailkatze proposamenak ere ugariak izanik. Baina formulazio desberdinak erabilia ere, eztabaidaren muinak antzeko osagaiak izan ditu, nazionalismoa, funtsean, ondoko bi moduotan uler baitaiteke (in Pérez-Agote, 1989):

- a) Nazioa, klase sozial menperatzaileak estatu modernoaren egituretatik hedatutako ideia moduan, gizarteko klase desberdinen artean *komunitate* partekatuaren ideia hedatzeko²². Horretarako, normalean jada existitzen ziren hainbat osagai kultural erabili ohi dira (eta beste batzuk alboratzen dira), eta helburua argia da: estatuaren lurraldean gizarte bateratua, homogenea sortzea. Nazionalismoak nazioa sortzen du, hortaz.
- b) Nazioa, estatuaren aurretik jada existitzen den komunitatearen agerpen moduan. Komunitate horrek, estatu berriaren barruan, haren izaera mehatxupearan ikustean, erreakzio moduan nazionalismoa sortzen du. Nazionalismoa, horrela, estatuaren aurretik jada existitzen den komunitate baten agerpena da.

Ikuspegi askotatik (historiatik, filosofiatik, kultura adierazpideetatik, ekonomiatik...) azter daiteke nazionalismoa, eta lan honetan horietako bat hartuko dugu ardatz, Soziologiarena. Izan ere, aktore sozialek eraikitzen dituzten nazioari buruzko diskurtsoak hartuko ditugu kontuan. Finean, Connorrek (1998: 101, egileak azpimarratua) dioen bezala, “La esencia de la nación (...) es una cuestión de *autopercepción* o de *autoconciencia*.” Autodefinizio horiek osagai objektiboetan oinarritu daitezke, edo ez. Horrek ez du esan nahi definizio kolektibo horiek errealitate objektiborik sortzen ez

²² Hori izan da marxismotik nazionalismoa azaltzeko izan den ildoetako bat, nagusia ere izan dena. Marxismotik nazionalismoa aztertzeko izandako ikuspegiaren gerturatze sintetizatu baterako, ik. Pastor (2012: 42-68).

dutenik, aurkakoa baizik²³. Horregatik, lan honetan nazionalismoaz ari garenean –geure kasuan, euskal nazionalismoaz– beren burua nazionalistatzat –edo abertzaletzat– duten eragileez zein norbanakoez ari gara.

Esan dugunez, nazionalismoa aztertzen duten gizarte zientzialariek nazionalismoaren izaera eraikia edo, gutxienez, nazionalismoaren sorreran parte hartzen duten arrazoi sozialak eta testuinguruaren eragina azpimarratzen dituzte. Hots, gizarte zientzien ikuspegitik nazionalismoa gizarte eraikuntza bat da, geure munduko gizarte fenomeno guztiak bezala. Baina planteamendu hori, normalean, ez da gizarteko gizabanako xehearengana iristen; hau da, herritar arruntarentzat, oro har, nazioa egitate *naturala* izango da, beti hor izan dena eta, hortaz, zalantzan jarriko ez dena. Horretan datza nazionalismoaren indarraren gakoetako bat (eraginkortasun hori gizakion bizitza *arautzen* duten bestelako erakundeei zabal dakieke: familia, Estatua, eta abar).

1.1.2. Nazionalismoaren ibilbidea

Honezkero aipatu dugunez, nazionalismoari buruzko analisiaren arazoetako bat kontzeptu eta ikuspegi arteko nahasketa da. Horrela, Europara mugatuz²⁴, nazionalismoaren hasierako azterketak lehen *nation-building* prozesuekin batera jaio ziren, nazio-estatuak hedatuz zihoazen ahala, XIX. mendean zehar, *Nazionalismoaren Aroa* deitu denarekin. Nazionalismoak bateratze kutsua zuen orduan, eskualdeen elkartzearen ondoriozko nazioak agertu ziren-eta. Orduetik Lehen Mundu Gerrara arte, hainbat estatu berri sortu

²³ Nazionalismoaren azterketan ikuspegi soziologikoa hobesten duen ikuspegirako, adibidez, ik. Pérez-Agote (1989).

²⁴ Azpimarratzekoa da nazionalismoaren azterketak Europari aitortzen dion zentraltasun gehiegizkoa (beste hainbat gairekin gertatzen den bezala, bestalde). Latinoamerika, adibidez, maiz nazionalismoaren azterketetatik kanpo geratzen da. Hori azpimarratzen du Andersonek (1993), eta bere azterketak Latinoamerika eta Asian oin hartzen du, neurri handi batean. Beste lan batean, Filipinetako kasua ere aztertzen du, anarkismoarekin zubiak eginez (Anderson, 2008). Connorrek ere, arazoaz jabetuta, nazionalismoa konparatzeko kategoriak proposatzerakoan, Latinoamerikari espresuki lotutako bat mahaigaineratzen du (*estatu mestizoak*), inguru horretako nazioen izaera berezi eta desberdina kontuan hartuta (ik. Connor, 1998: 72 eta hur.).

ziren Europan, ekialdean batez ere (Polonia, Bulgaria, Serbia eta abar). Gerratea amaituta, *nazionalitateen printzipioa* jarraituz, nazio-estatu gehiago jaio ziren (Austriaren eta Hungariako Herri Errepublikaren sorrera, Txekoslovakia eta abar). Nazionalismo horiei zentzu aurrerazalea aitortu izan zaie, oro har. XX. mendean sartuta, eta Lehen Mundu Gerraren testuinguruan, hala ere, nazionalismo eskuindar eta kontserbadoreak sortu ziren (Frantziako *Action Française*, adibidez); eta, behin gerra amaituta, Italian eta Alemanian bereziki (baina baita Espainia, Hungaria, Errumania, Bulgaria eta abarrean ere), indarra hartu zuen nazionalismoaren forma eskuindarrak, ondoren faxismoranzko bidea hartuko zuena, Japonian baita ere, eta *nazionalismoaren faxistizazioari* bide emanda (Fusi, 2003: 83 eta hur.). Horri loturik, nazionalismoak kutsu ezkorra eskuratu zuen, kontserbatismoa, autoritarismoa eta militarismoarekin lotuta (nazionalismoaren azalpen historiko desberdinetarako, ik. Breuilly, 1990; Hastings, 2000; Fusi, 2003; Hobsbawm, 2004).

Behin Bigarren Mundu Gerra igarota, nazionalismoak indar biziagoz Europatik Afrika eta Asiara jauzi egin zuen, eta *nazionalismoaren hirugarren uhina* deitutakoa jazo zen. Bertan, kolonizazioaren aurkako mugimenduei loturik, esanahi berria hartu zuen nazionalismoak, eta antinperialismoarekin eta marxismoarekin lotu zen (jarrera horren egile entzutetsua izan zen Frantz Fanon [1999]). Nazionalismo berri horrek, gainera, ez zuen, gehienetan, nazioaren definizio esentzialistarik garatu, bere asmoa aniztasun etniko handiko gizarteetan nazio bateratuak sortzea baitzen. Fanonena, adibidez, borondatean oinarritutako nazionalismotzat hartzen da, *nazionalismo militantetzat*. Bere aburuz, horrela, aljeriarra –bera Martinika Frantziako kolonian sortutakoa zen– Aljeriaren nazio-askapenaren alde borrokatzen zuena zen; eta ez zion nazionalismo etniko edo kulturalari arretarik eskaini (in Fusi, 2003: 205). Nazionalismo berria, gainera, ez zen indar zatikatzailea soilik izan, nazionalismo bateratzaile berriek erakusten zuten bezala, nazionalismo beltzak²⁵ edo arabiarrek, kasu.

²⁵ Nazionalismo beltzak Ameriketako Estatu Batuetan ere isla izan zuen, ezaguna den bezala. Bertan izandako garapenerako, interesgarria da Draper (1972).

Nazionalismo antiinperialista eta iraultzaile hori Afrikan eta Asian garatzen zen bitartean, Europan, Bigarren Mundu Gerra, nazionalsozialismoa eta bestelako mugimendu autoritarioen eraginez, nazionalismoak bazterkeriarekin eta militarismoarekin lotuta jarraitu zuen. Hala ere, modu ahulean lehenik, indartsuago ondoren, nazionalismo berriak sortzen joan ziren Europako nazio-estatuen barruan. Uhin *etnonazionalista* hori Mendebaldeko Europan garatu zen nagusiki, eta gehienetan azterketa marxistei (*barne-kolonizazioaren* ideia) eta ezkerriari loturik joan zen. Nazionalismo berri horrek, gainera, Asia eta Afrikako nazionalismo iraultzaileen eragina jaso zuen, Fanonen (1999) lanak mugimendu horietan izandako eraginak iradokitzen duenez. Nazionalismo berri horren baitan sortu zen ETA eta ezkerreko euskal nazionalismoa Euskal Herrian, eta mugimenduak jaio ziren, halaber, Eskozia, Ipar Irlanda, Britainia, Quebec eta abarrean (ik. Breuilly, 1990; Núñez Seixas, 1998; Fusi, 2003).

Nazionalismo berriak, Afrika eta Asiako nazionalismo iraultzaileak bezala, nazionalismoaren ikasketak berritu zituen, neurri batean. Hortik aurrera, bada, nazionalismoa ezin zen nazio-estatuei lotuta soilik ulertu. McCrone (1998: 128 eta hur.) jarraituz, nazionalismoaren teoriarari nagusiek nazionalismo berria aztertzeko erabilitako ikuspegiak laburbil ditzakegu. Anthony D. Smithen kasuan, nazionalismo berria identitate zaharren berpiztearekin lotzen da, eta nazionalismoaren jite etniko eta sinbolikoa azpimarratzen da. Eric Hobsbawmek, aitzitik, nazionalismo berriaren izaera etnikoa azpimarratu du, eta atzerapausotzat jotzen du nazio-estatu zibiko eta politikoen aurrean. Hori estaturik gabeko nazionalismoaren aurka maiz erabilitako argudioa da, eta aurrerago landuko dugu nazionalismo zibiko eta etnikoaren arteko banaketa konplexua. John Breuillyk, bere aldetik, nazionalismo berria *nazionalismo erradikal* moduan izendatu, eta haren sorreran garapen ekonomikoak izandako eragina azpimarratu du, eta horrela *nazionalismo erromantiko aurremodernotik* bereizi du. Linzentzat, azkenik, nazionalismo berriaren ezaugarri esanguratsuena nazioren definizioa da, bertan lurralde definizioa nabarmentzen da-eta. Horrela,

“Ethnic peripheral nationalism will move from an emphasis on primordial elements to a definition based on territoriality. That is, definition would change from an emphasis on common descent, race, language, distinctive cultural tradition, in some cases religion, to one based on ‘living and working’ in an area, on a willingness to identify with that community.” (Linz, 1985: 205).

Nazionalismo berriak, bada, haren barruko askotariko kasuak batzen dituen ezaugarri komunak baditu, nahiz eta praxiaren aldetik oso modu desberdinak hartzen dituen fenomenoa izan. Horrela, lehenik, nazionalismo berria estatu egituratik aldendurik sortzen da, gizarte zibil indartsuei loturik. Bigarrenik, nazionalismo berriaren ezaugarri behinena ez da bere izaera etnikoa (ezin dira, besterik gabe, *nazionalismo etnikotzat* hartu), euren baitan aspektu politiko nahiz kulturek eragin handia baitute. Horrela, kultura azpimarratzen duten nazionalismoak izan arren, nazioaren definizio *irekia* izan ohi dute, eta lurraldea bezalako elementu zibikoetan oin hartzen dute. Hirugarrenik, nazionalismo berri gehienak garapen ekonomikoarekin batera indartu dira, gehienetan izaera aurrerakoia izanik, eta izaera interklasista izan ohi dute (McCrone, 1998: 128 eta hur.). Jarraian, bada, jada agertu zaigun eta nazionalismoaren azterketan garrantzitsua den bereizketa batean murgilduko gara, nazionalismo zibiko eta etnikoaren arteko banaketan, hain zuzen.

1.1.3. Nazionalismoa, zibikoa ala etnikoa?

Nazionalismoari buruzko banaketa analitikora itzuliz, nazionalismoaren funtsezko banaketa bat nazioari aitortzen zaion izaeran oinarritutakoa da, eta nazionalismo zibikoa –edo politikoa– eta nazionalismo etnikoaren –kulturala– artean bereizketa egiten da, horrela. Banaketa horren ikurtzat Ernest Renan (2004) hartu ohi da 1882ko *Qu'est-ce qu'une nation?* hitzaldi ospetsuarekin²⁶. Hans Kohnek (2005) *The Idea of Nationalism* lanean berriz ekarri zuen dikotomia hori nazionalismoaren azterketetara²⁷, eta ordutik ikerketa esparru honetako hainbat azterlanetan oinarritzko bihurtu da²⁸. Nazionalismo mota horietako bakoitzak nazio eredu ideal bati egiten dio erreferentzia; hots, nazio politikoa eta nazio kulturala. Nazio mota horiek ez dira egoera puruan existitzen, baina, errealitatean aurkitzen diren ezaugarriak azpimarratuz, errealitateon kausak ezagutzeko bideak irekitzen dituzte, Max Weberren (1964) *eredu idealen* planteamenduari jarraituz. Lehen tipo ideala, nazio politikoa, zentzu pragmatikoago batez, borondatean oinarritzen da; eta nazio kulturala, bere aldetik, sentimenduen eremuari loturik dago. Beste modu batera esanda, nazionalismo zibikoan, norbanakoak zein naziotako kide izan nahi duen aukera dezake; eta nazionalismo etnikoan, berriz, jaioterriko naziotik emigratuta ere, nazio horretako kide izaten jarraitzen du. Kymlickak (1996: 43) zehazten duen legez, bi nazio eredu arteko desberdintasuna ez datza osagai kulturalak izatean (horren arabera, nazio zibikoan gai kulturalak kanpo leudeke), baizik eta edozein pertsonak –bere ezaugarriak edozein direla ere– kultura komunean integratzeko duen aukeran, orduan nazio hori zibikotzat hartzen baita²⁹.

²⁶ Renanekin batera, Friedrich Meinecke (*Welbürgertum und Nationalstaat*, 1907) hartu ohi da banaketaren bultzatzaile moduan, *Kulturnation* eta *Staatsnation* kontzeptuen bidez. Máizek (2004: 4-10) Renanen eta Meineckeren planteamenduez normalean egiten den irakurketaren kritika mahaigaineratzen du.

²⁷ *Ekialdeko* eta *mendebaldeko nazionalismo* izenekin; etnikoa eta zibikoa, hurrenez hurren.

²⁸ Nazionalismo zibiko eta etnikoaren arteko dikotomian sakontzeko, ik. Máiz (2004). Euskal nazionalismoa eta kataluniarra nazionalismo zibiko eta etnikoen banaketatik abiatuz, besteak beste, Serrano Pascualek (1995) ikertu du; dikotomia horretan euskal nazionalismoari etnikoa eta Kataluniakoari zibikoa onartzearen afera Zabalok (2004) aztertu du; Silveira Abrãok (2006), adibidez, eredu kataluniara mugatuz aztertu du.

²⁹ Ikuspegi liberaletik, bada nazio zibikoa soilik eskakizun politikoetan oinarritu daitekeela defendatzen duenik. Hots, naziokide bilakatzeko, printzipio politikoaren eta eskubide demokratikoen onarpena soilik eska daitekeela, eta eskakizun kulturalak (adibidez, hizkuntza

Esan beharrik ez dago nazionalismo zibikoaren eta etnikoaren arteko bereizketa hertsiki loturik dagoela nazionalismo horrek berezko estatu egitura izatearekin edo ez. Estatu nazionalismoek, normalean, ez dute euren izaera nazionalista onartuko edo adierazteko beharrik izango eta, horren orde, ustez eduki etniko-kulturalik gabeko patriotismo zibiko baten erakusgarri izango dira, teoriarik edota diskurtso mailan, beti ere.

Banaketa hori normatiboa da, beraz; nazio politikoa eta hari loturiko nazionalismo zibikoa nazionalismoaren gauzatze positibo moduan erakusten duen heinean³⁰. Hortaz, maiz sinplifikatzen den dikotomia konplexua izateaz gain, arriskuak ere baditu. Horien artean, nazionalismo zibiko moduan *gurea* hartzea (irekia, liberala, tolerantzia, integratzailea... dena) eta etnikotzat, aldiz, *besteena* (itxia, intolerantzia, baztertzatzea eta abar) (Máiz, 2004: 10). Horrela, nazionalismo jakin baten izaera demokratiko edo totalitarioa aztergai politiko nahiz filosofiko esanguratsua izan arren, eztabaida hori ez da nazionalismo zibiko eta etnikoaren banaketa analitikoarekin nahasi behar. Anthony D. Smithek (2004: 58), adibidez, horren arriskua azpimarratzen du: “(...) está el peligro de importar juicios normativos a los tipos sociológicos. Éste es el problema con la actual moda de distinguir entre concepciones “étnicas” y “cívicas” de la nación.”

Baina nazionalismo zibiko eta etnikoaren gainera, kontuan hartu beharrekoa da nazionalismo orok, baita zibikotzat jotzen denak ere, alde etnikoa baduela, Anthony D. Smithek (1986) frogatu bezala. Eta baita alderantziz ere,

ikastea) kanpo behar luketela. Nazionalismo *zibiko* horren etsenplu gisa AEBak jarri ohi dituzte, gainera. Baina hori akatsa da; izan ere, AEBetako herritartasuna eskuratu nahi duten etorkinei eskakizun kultural ugari egiten zaizkie, ingelesa eta herrialdearen historia ikastea, adibidez (ik. Kymlicka, 1996: 43).

³⁰ Horri loturik, nazionalismo zibikoak hainbatetan *abertzaletasun* (gogoan izan: *patriotismoaren* sinonimo gisa) izendapena hartzen du. Bide beretik doa Habermasen *abertzaletasun konstituzionalaren* ideia, zeinaren arabera estatu bateko gizabanakoen artean *nazio atxikimendua* eraiki behar baita, eskubide zibil eta politikoak oinarri dituen legediaren edo konstituzioaren inguruan, oinarrizko identifikazio etniko –arriskutsuen, gehitu beharko litzateke– gainera (ik. Habermas, 1989). Espainiako testuinguruan bereziki arrakastatsua izan da ikuspegi hori, *nazionalismo periferiko* delakoekiko lehian, batez ere. Bastida Freixedok (2007) abertzaletasun konstituzionalak Espainian izandako erabilpen traketsa modu interesgarrian aztertzen du.

etnikotzat jo daitekeen nazionalismoak alde zibikoak ere izan ditzakeela. Finean, ez da nazionalismo etniko edo zibiko pururik existitzen, nazionalismo orok osagai etniko eta zibikoak baititu, ezinbestean.

Nazionalismo mota bakoitzaren arteko aldea, maiz, estatu egitura izatean edo ez izatean oinarritzen da. Nazionalismoak muga politikoak aldatu nahi dituenean bihurtzen baita arazo, ez berauek mantentzea xedetzat duenean (Gayo, 2010: 352). Máizek (2004: 10-11) dioen moduan,

“La dicotomía de nacionalismo cívico/étnicos se formula desde un lugar muy preciso, desde una posición en absoluto neutra ni equidistante entre sus polos; a saber: desde el nacionalismo del Estado nación. Desde un nacionalismo implícito que da por supuesta la coincidencia entre fronteras políticas y culturales, entre estado y nación, y considera aporoblemática la cuestión del demos, de quién conforma el pueblo sobre el que se alza la legitimidad del Estado.”

Estatudun nazionalismoek nazioaren izaera politikoa –borondatean oinarritua– garatzeko ahalmen handia dute, herritartasunerako baldintzak eta moduak zehazteko tresnak baitituzte, edota euren nazio identitatea eta hizkuntza hezkuntza sistemaren bidez hedatzekoa ere, besteak beste. Billigek (1995) *nazionalismo banal* deitutako horrek, *nazionalismo* gisa hartu ez arren, eragin sakona izaten du herritarren artean. Izan ere, Billig jarraituz, nazionalismo eraginkorrena *nazionalismo arrunt* hori da, eta haren irudia ez da norbaitek pasioz haizean eragiten duen bandera, edozein eraikin publikoren kanpoko aldean zintzilik dagoen eta *ikusten ez den* bandera baizik (Billig, 1995: 37). Estaturik gabeko nazionalismoek, berriz, ez dituzte tresna horiek, eta aldarrikapen kutsu argiagoa erakutsi behar dute, esanguratsuak izan nahi badute. Eztabaida hori presente izango da nazionalismoa migrazioekin harremanetan jartzerakoan, hurrengo puntuan egingo dugun bezala.

1.2. Nazionalismoa eta *bestetasuna*

Nazionalismoaren azterketetan gaurkotasun handikoa da nazionalismoa migrazioekin harremanetan jartzen duten ikerketen ildoak³¹, nahiz eta ikerketa askotan nazionalismo azpiestataletan baino, begirada nazio-estatuen jardunaren gain ipintzen den³². Horrek badu bere logika, immigrazioa kudeatzeko politikak, oro har, estatuak garatu eta egikaritzen baitituzte, eta estaturik gabeko nazionalismoak batik bat diskurtsoaren mailan jarduten baitute. Halere, nazionalismoek euren lurraldetzat jotzen dutenera iristen direnekiko garatzen duten posizioa oso adierazgarria da nazionalismo horren izaeraren azterketarako. Halaber, nazionalismoa eta migrazioak elkar jartzerakoan, immigrazioan jartzen da arreta, hots, etorkina ailegatzeko den gizartearen (*harrera gizartea* deitu ohi den horren) eta nazionalismoaren ikuspegitik landu ohi da afera. Lan honen muina ere ildo horretatik doa, immigrazioak nazionalismoan duen eragina baita ikergai nagusia eta, hortaz, nazionalismoa immigrazioarekin aztertzen ari gara, emigrazioarekin baino. Baina migratzearen ekintzak migratzailearen jaioterrian eta bertako nazionalismoan ere funtsezko ondorioak ere badituela ezin da aipatu gabe utzi (nazionalismoaren eta emigrazioaren arteko hartu-emanerako, ik. Sayad, 2010: 135-160).

Nazionalismoak bere nazio proiektua –eta nazio-estatuak euren jatorri nazionala– naturalizatzen du, nahiz eta, gizarte zientziek erakusten diguten bezala, nazioak eta nazionalismoa –gizarte egitate guztien moduan– prozesu soziohistoriko jakinen ondorio diren eta, beraz, *eraikiak* diren (horrek inolako kutsu negatiborik hartu gabe). Immigrazioak, zentzu horretan, nazionalismoarekin hartu-emanetan jartzerakoan, nazionalismoa zein nazio-estatua desnaturalizatzea suposatzen du; hots, nazioaren eta nazionalismoaren

³¹ Horren adibide dira, besteak beste, ondoko lanak: Brubaker (1992), Kymlicka (2003), Zapata-Barrero (2008).

³² Zapata-Barreroren (2008: 17) ustez, adibidez: “Nos encontramos (...) ante una unidad de análisis –la relación entre inmigración y autogobierno– que aún no se ha introducido de forma directa en el debate académico internacional.”

izaera historiko eta soziala –eraikia– nabarmentzea (Gil Araújo, 2006: 59)³³. Halaber, *state-building* eta *nation-building* prozesuei loturiko tradizio historikoa berriz interpretatzera garamatza (Zapata-Barrero, 2004: 47).

Nazionalismo orok naziotzat jotzen den eremu edo gizatalde baten aldarrikapen politikoa dakar, eta herri bat nazio gisa definitu eta mugatzea du ondorio gisa. Hau da, nazionalismo guztien lehen pausoen artean aurkituko dugu nazioa osatzen duten subjektuen zehaztapena (herritarrak, nazionalak, izango direnak); bere aldarrikapen politikoaren subjektua zehaztea, hain zuzen. Finean, nazionalismo horrek aldarrikatzen duen *Gua* definitu egiten da.

Gua definitzeak *Bestearekiko* desberdintasun bat finkatzea dakar, ezinbestean; nazioaren oinarria den norberaren identitatea soilik *Bestea* zein den argitzerakoan sor baitaiteke (Connor, 1998: 51). *Bestearen* kontzeptua konplexua da, eta eztabaidatua Soziologiaren baitan. Simmelen aburuz, *Bestea* izan bada *Guaren* parte delako, eta gertutasunetik zein urruntasunetik at kokatzen da (Simmel, 1977: 717, in Cachón, 2009: 266)³⁴. Nazionalismoak nazioa osatzen duten subjektuak eta horien ezaugarriak zehazten dituenen, talde horretatik at zein geratzen den definitzen du, aldi berean. Izan ere, nazionalismoak hainbat ezaugarri edo sinbolo (hizkuntza, erlijioa, historia...) erabil ditzake nazioa definitu eta mugatzeko, denborarekin alda daitezkeenak, baina beti eutsiko dio *Besteekiko* bereizketari, askotan *Bestea* modu estereotipatuan ulertuta, gainera (Connor, 1998: 41). Nazionalismoak, hortaz, hasieratik du *bestetasunarekiko* harreman problematikoa izateko joera³⁵; areago ontzat jotzen badugu nazionalismoaren ideala nazioaren eta estatuaren arteko kideetasuna dela; hots, *Nazio bat, estatu bat* leloan laburbildu daitezkeen ideala (*nazionalitate printzipioa* ere deitua) dela nazionalismoak egikaritu nahi duen errealitatea.

³³ Horri loturik, adierazgarria da estatu baten naziotasuna lortzeari, *nazionalizatzeari*, *naturalizazio* deitzea. Horretan sakontzeko, ik. Stolcke (1997).

³⁴ Atzerritartasunaren azterketa interesgarria, Simmelen ikuspegian oin hartzen duena, hemen topa daiteke: Penchaszadeh (2008).

³⁵ *Gua* eta *Bestearen* eraikuntza prozesu horretan sakontzeko, ik. Bhabha (2000).

Triandafyllidouk (2001: 10 eta hur.) gogorarazten duen moduan, hala ere, nazio identitatearen izaera bikoitz hori (naziokidea definitzerakoan, aldi berean, kanpotarra ere zehazten baita) edozein identitate sozialetan gertatzen da, ez nazio identitatearen kasuan soilik. *Gua* zedarritzean, *bestea* ere definitzen da. Izan ere, nazio komunitate gehienek beste komunitate batekin kontrajarriz eraikitzen dute euren autodefinizioa; hots, nazioaren definizioan beste komunitate batzuek *Beste Esanguratsuaren* papera betetzen dute: “other nations and/or states from which the community has tried to liberate and/or differentiate itself.” (Ibidem, 11). Esaterako, greziarren identifikazioan Turkiarekiko desberdintze nahiak funtsezko rola betetzen du.

Halaber, nazioaren eta nazionalismoaren ideia indarra *muga* edo *periferia* inguru horietan izango da ahulagoa edo problematikoagoa, edo Gil Araújok (2006: 61) gogorarazten digun moduan, *izkina* horietan dira agerikoagoak *gu* eta *besteen* arteko muga horien zehaztasun gabeziak edo *akatsak*. *Beste* hauek, bada, gizarte talde desberdinak izan daitezke: nazioaren kanpokoak (gainontzeko nazioetakoak, atzerritarrak) eta baita barrukoak ere. Barrukoak, betidanik bertan bizi baina *beste* nazio/etnia izaera bat duten gizarte taldeak (ijitoak, juduak, bestelako nazio gutxiengoak eta abar), desbideratutzat etiketatutakoak (gaizkileak, zoroak...) edota etorkinak izan ohi dira (kanpotar gisa jo arren, bertan bizi direnak), nagusiki³⁶. Nazio *barruko* hauek dira bereziki gatazkatsuak nazionalismoarentzat, nazioaren bere definizioa zalantzan jarri edo, gutxienez, zailtzen duten heinean. Nazioaren definizio purua zena, ñabarduraz betetzen dute³⁷. Etorkinak, beren aldetik, *kanpoko* eta *barruko* izatearen artean daude. Pierre Bourdieuk (2010: 16) horrela azpimarratzen du immigrantearen *bestetasunaren* izaera gordina:

³⁶ Egoera gatazkatsu horren adibide garbia juduak dira. Juduek, Europako gizartean, barne-talde esanguratsua osatzen zuten, eta Zygmunt Baumanen hitzetan *barrikadaren gainean* kokaturik zeuden, bi aldeetatik erasoak jasotzen zituztela (ik. Bauman, 1997).

³⁷ Noski, antolaketa politikoaren (dela estatua, dela aldarrikatutako nazioa) eta horren peko gizataldearen arteko koherentzia gabezia, hots, *nazioko* biztanleria homogenea ez izatea, ez zaio immigrazioari soilik zor. Izan ere, nazio lurralde homogeenorik ez da existitzen, ia; eta European egun horrelakorik topatzen badugu, kasurik gehienetan gizakiaren esku hartze bortitzaren ondorioz izan da.

“Como Sócrates según Platón, el inmigrado es *atopos*, sin lugar, desplazado inclasificable. (...) Ni ciudadano, ni extranjero, ni verdaderamente del lado de lo Mismo, ni totalmente del lado de lo Otro, el inmigrado se sitúa en ese lugar ‘bastardo’ del que habla también Platón, en la frontera del ser y del no-ser social. Desplazado, en el sentido de incongruente e inoportuno, suscita cierto embarazo; y la dificultad que experimenta al pensarlo – hasta la ciencia, que retoma a menudo, sin saberlo, los presupuestos o las omisiones de la visión oficial– no hace más que reproducir el embarazo que crea su molesta inexistencia. (...) tanto en su sociedad de origen como en la sociedad de acogida, obliga a repensar de arriba a abajo la cuestión de los fundamentos legítimos de la ciudadanía y de la relación entre el ciudadano y el Estado, entre la nación o la nacionalidad.”

Gizarte ikuspegitik, etorkina, bere definiziotik beratik hasiz, *egoera problematikoan* aurkitzen da. *Atzerritarra* kanpotarra da, badu bere nazioa eta ez du *gure* naziokide bilakatu nahi. Immigrantea, aldiz, ez dago hain argi non kokatu behar den, ezta zein helburu duen ere.

Edonola ere, nazionalismoak *gu nazionala* definitzeak ez du talde homogeneorik sortzen dela esan nahi, ezinbestean. Izan ere, nazioaren baitan, *Guaren* baitan, beste harreman antagoniko batzuk ere gertatzen dira. Hots, *gu nazionalaren* baitan, *gu-besteak* ekuazioan oin hartutako bestelako erlazio batzuk ere jazotzen dira (erlijioa, generoa, klase soziala, jatorri etnikoa, eskualde mailako identitatea eta abarrean oinarritutakoak). Baina garrantzitsua da kontuan izatea *gu-besteak* harreman edo gatazka horiek *gu nazionalaren* baitan gertatu ohi direla, nazionalismoak definitutako *gua* gailendu ohi da-eta (Connor, 1998: 52).

Nazionalismoa eta *bestetasuna* harremanetan ipinita, ezin dugu aipatu gabe utzi *bestetasun* horretan, naziotik at kokatutako nazio zein etniez gain, menderatze egoera pairatzen duten beste kategoria batzuk ere kokatzen direla

(klase sozial, genero, ideologia, adin, sexu orientabide eta beste hainbat faktoreren arabera). Hauek ere, migratzaileak bezala, modu problematikoan kokatzen dira nazionalismoak definituriko nazioan, eta era esplizituan *kanpotartzat* sailkatu baino, ikusezintasuna pairatzen dute maiz. Ez dira nazioko subjektu gisa aipatuak, eta, aitatuak izatekotan, funtzio subordinatua egotzi ohi zaie. Kontuan ez hartzea, beraz, *bestetasunaren* beste adiera bat legez ulertu dezakegu.

Azpiratze egoerei erreferentzia eginez, generoaren araberrako zapalkuntza ezin dugu ahanzi. Izan ere, nazionalismoak zedarrituriko *Guaren* parte izan arren (ez da generoa dela-eta nazio kidetasunik ukatzen), genero egituraren araberrako rola atxikitzen zaizkie gizon eta emakumeei, eta gizarteko botere eta menderatze harremanak nazionalismoak ere erreproduzitzen ditu. Emakumeen gain, horrela, nazioaren birsortze biologikoa eta ohituren nahiz kulturaren transmisioa jarri izan da, eta nazioaren *askatzea* eta *gidaritza*, berriz, egiteko maskulinitzat hartu izan da. Beraz, ez dugu ahanzi behar, Nira Yuval-Davis eta Floya Anthias bezalako teorialari feministek irekitako ildoari jarraituz, nazionalismoa eta horrek bultzaturiko borrokek prozesu generizatuak direla (ik. Amurrio, 2003: 161 eta hur.).

Edonola ere, gizartea zatikatzen duten klase sozial, genero, etnia, adin eta abarren araberrako banaketan gaintik, nazionalismoak *gu nazional* bateratua sortu nahi izaten du. Zentzu horretan, nazionalismoak eraikitzen duen identitateak, nazio identitateak, fidelitasuna exijitzen du, hots, nazio identitate bakarra izatea eskatu ohi du (eta, maiz, lortzen du). Baumanek (2007: 52-53; egileak azpimarratua) laburtzen duen moduan,

“La identidad *nacional* (...) nunca fue como otras identidades. Al contrario de otras identidades que nunca exigieron lealtad sin ambages y fidelidad exclusiva, la identidad nacional no reconoce la competencia, ni mucho menos una oposición. La identidad nacional concienzudamente construida por el Estado y sus

organismos (...) tiene por objetivo el derecho de monopolio para trazar el límite entre el ‘nosotros’ y el ‘ellos’.”

Zentzu horretan, nazionalismoaren ikasketen ikuspegitik, ikerketa esparru ezin hobea da immigrazioa, nazionalismoak bere nazio lurraldetzat hartzen duenera iristen diren etorkinekiko garatzen duen ildoak, nazionalismo horren ezaugarrien berri emateko gune aproposa baita³⁸.

Ezin dugu aipatu gabe utzi, hala ere, *immigrante* etiketa arbitrarioa dela, eta garai historikoa, testuingurua, klase soziala, generoa eta abarren arabera eraldatu egiten dela. Horrela, oro har, *immigrantea* norberaren estatutik at jaiotako eta bertan bizi den gizabanako moduan definitu ohi da. Alta, *etorkin* izena bestelako kolektibo eta gizabanako batzuei ere ezarri ohi zaie, bizi diren estatu berean jaio arren, etnizitatearen eraginez, gehienetan. Adibidez, Europatik atera gabe, kontinentearen ekialdean zehar barreiatutako aleman hitzunekin, ijitoekin hauek bizi diren herrialde guztietan –Euskal Herrian barne–, juduekin, Greziako Traziako musulmanekin, Bosnia-Herzegovinako naziotasunez *musulmanekin* eta abar, prozesu hori gertatu izan da: etorkinak izan ez arren, halakotzat hartu izan dituzte. Horrek guztiak naziotasunaren gai korapilatsua aipatzera garamatza.

Naziotasuna³⁹, kontzeptu moduan, Alemanian XVIII. mendean sortu bazen ere (*Nationalität*), naziotasunaren zentzu modernoa –egun indarrean dagoena– Frantziako Iraultzaren oinordeko zuzena da. Naziotasuna, horrela,

³⁸ Horrekin lotuta, Slavoj Zizeken jarrera ere aipa daiteke. Esloveniarrak, gizarteko borroken artean lehentasunezkoa zein den azpimarratzean, ez bairik gabe azaltzen du lehentasunezko borrokak, bere iritziz, klase borroka izan behar duela, atzerritarrekiko jarreraren gainetik. Hala ere, jarraian ondokoa gaineratzen du: “Esto [la primacía de la lucha de clases], por supuesto, no implica en absoluto que el modo en que nos relacionemos con ‘ellos’ [los extranjeros] sea secundario y que simplemente debamos volver a poner el foco de atención en el antagonismo que escinde ‘nuestra’ sociedad desde dentro: *el modo en que nos relacionamos con ‘ellos’, el tercer elemento, es el indicador clave acerca de cuál es nuestro posicionamiento real con respecto al antagonismo inherente.* ¿No consiste la operación básica del populismo neofascista actual precisamente en combinar la interpelación a la clase obrera con la interpelación racista (‘las empresas multinacionales cosmopolitas como verdadero enemigo de nuestros honestos trabajadores’)?” (Zizek, 2004: 56-57; guk azpimarratua).

³⁹ Naziotasunaren eta herritartasunaren azalpenerako, ondokoetan oinarritu gara: Gil Araújo, 2006: 64-67; Triandafyllidou, 2001.

herritarra izateko bete beharreko baldintzen multzoa da. Eta herritarra, bere aldetik, eskubide zibil eta politikodun subjektua da, oro har. Hortaz, naziotasuna eta herritartasuna ez dira kontzeptu bera, ez dute egitate bera azaltzen, baina euren artean oso lotuta daude⁴⁰; eta horregatik nazio herritartasunaz hitz egiten da.

Herritartasunak, zentzu horretan, bi dimentsio ditu, bata formala eta bestea kulturala. Herritartasunaren dimentsio formala bi modutan uler daiteke: *ius sanguinisean* oinarritutako komunitate etnokultural gisa, batetik, eta *ius solisean* oin hartzen duen borondatezko komunitate zibikoan, bestetik⁴¹. Bigarren dimentsioak, bestalde, herritar bilakatzeko ezarritako betebeharrei dagokie, eta estatuz estatu asko alda daiteke. Bai dimentsio formala eta baita kulturala batuz, herritartasun mota desberdinak sortzen dira. Mota hauek askotarikoak dira. Herritartasunari hertsiki loturik, hala ere, lau herritartasun eredu, lau tipo ideal, bereiz daitezke (Koopmans eta Stathman, 2001; in Gil Araújo, 2006: 66): Alemaniako asimilazionista etnokulturala, Suitzako pluralista etnokulturala, Frantziako asimilazionista zibikoa, eta Herbehereetako pluralista zibikoa. Hala ere, ezaguna denez, bi polo nagusi bereizi ohi dira: Alemania, batetik, eta Frantzia, bestetik.

Afera hau guztia erabat loturik doa arestian azaldutako nazio zibiko eta etnikoaren arteko eztabaida konplexuarekin. Nazio *zibikoak*, esan dugunez, bere nazioko kide egiteko aukera luzatuko duen bitartean (eskaera zailak jarri badaitezke ere), nazio *etnikoak*, nazioa *arrazan* edo odol kidetasunean oin hartuz, herritar berrien integrazioa ezinezko bilakatuko du. Odoleko seme-alabatasunean oinarritutako kidegoaren adibide paradigmatico gisa Alemania aipatu ohi da. Kidetasun hori, kulturen baino, arbasoetan funtsatzen da; eta horregatik Errusiako aleman etnikoek, adibidez, alemanez mintzatzen ez

⁴⁰ Triandafyllidouk (2001) adierazi moduan, naziotasunaren eta herritartasunaren arteko bereizketa konplexua da oso. Herritartasuna, kontzeptualki naziotasunetik bereizi badaiteke ere, errealitatean naziotasunean oin hartzen du, herritartasunerako baldintza nazioko kide izatea izan ohi den heinean, Europan bederen.

⁴¹ Jada azaldu dugun nazionalismo zibiko eta etnikoen dikotomiari guztiz lotuta, beraz.

dakitenak, alemaniar herritartasuna modu automatikoan lor dezakete (Kymlicka, 1996: 41-42).

Kymlickak (Ibidem) azpimarratzen duenez, arbasoetan oinarritutako naziotasunaren definizio horiek kutsu arrazista dute, eta injustuak dira. Horregatik, bere ustez, naziokide bilakatzeko prozesua kulturen oinarritu daiteke (hizkuntzan, adibidez), ezaugarri horiek lurraldera iristen direnek beregana ditzaketelako, baina ez da arbasoetan edota odolean funtsatu behar.

Ereduak ere, Europako estatuetan nazioa, estatua eta herritartasuna batera joandako kontzeptuak dira; eta, adibidez, *hiruko santua*, deitzen dio horri Zapata-Barrerok (2004: 28). Izan ere, herritartasunak erreferentzia egiten dion *demosak* kulturalki homogenea izan behar zuela uste izan da, eta herritartasuna eta naziotasuna berdindu dira horrela. Multikulturalismoak, bere aldetik, parekatze hori zalantzan jartzen du.

Migrazio ikerketetan, halere, nazio-estatuak zein nazionalismoak immigrazioaren fenomenoan duten eragina eztabaidagai dago. Ildo baten arabera, nazio-estatuaren eta hari loturiko politika nazionalaren (eta, beraz, baita nazionalismoa ere) indarra beherakorra da immigrazioan, azken hamarkadetan estatuz gaindiko erakundeak eta kidetasun postnazionalak nagusitu baitzaizkie (esaterako, ik. Soysal, 1994; Sassen, 2003). Haatik, beste hainbat egilek aurkako ikuspegia defendatzen dute. Izan ere, immigrazioa aztertzeke funtsezkoa da nazioa ere kontuan hartzea, immigrazioarekiko estatu bakoitzak duen ikuspegiak nazioaren ideia zehatz batean oin hartzen baitu. Zentzu horretan, immigrantea barneratu edo baztertzeke oinarritzko mekanismoa estatuak kudeatzen duen herritartasuna da; eta herritartasunak, bere aldetik, lotura estua du naziotasunarekin (adibidez, ik. Brubaker, 1992; Castles, 1995; Favell, 2000). Finean, immigratua barneratu edo baztertzeke prozesua *integratu* nahi den subjektuaren edo kolektiboaren –immigranteen– ezaugarrien arabera dela pentsatu izan den arren, errealitatean prozesu hori harrera gizartearen ezaugarrien arabera da (ik. Gil Araújo, 2006: 64).

Zentzu horretan, subjektu nazionalaren definizioa propaganda, diskurtso edota aldarrikapen mailara muga daiteke (hainbatetan estaturik gabeko nazionalismoen kasua dena), edo lege forma har dezake, estatuen kasuan naziotasunarekin gertatzen den moduan. Immigranteak naziotik at dagoen *Beste* moduan definitzeak, zentzu horretan, estatuen nazio identitatea sendotzeko funtzioa betetzen du (Triandafyllidou, 2001). Horrela, naziokidea edo herritarra zein den zehazten den momentu berean, hots, eskubidedun subjektua zehazten den heinean, *outsider* bat ere sortzen da: benetako herritarra ez den atzerritarra, eta benetako herritarretatik bereizi behar dena (Doty, 1996).

Immigrazioa nazionalismoarekin harremanetan jarrita, nazionalismo *etniko* eta *zibikoak* aipatu ohi dira, berriro ere. Dikotomia horren muga guztiez gain, hainbatetan nazionalismo zibikoak immigranteak nazionalismo etniko batek baino errazago barneratu ditzakeela adierazten da. Ideia horri jarraiki, eta estaturik gabeko nazionalismoaren izaera etnikoa jakintzat emanez, badira nazionalismo mota hori etorkinekin bateraezina dela uste dutenak (adibidez, ik. Ignatieff, 1993; Hollinger, 1995). Haatik, hainbat egilek estaturik gabeko nazionalismo guztien izaera etnikoa ukatzen dute. Zentzu horretan, ugaria da nazionalismo azpiestatala immigranteekin bateragarria dela diotenen ildoan, mota horretako hainbat nazionalismok etorkinak haienarekin bat egitera bultzatzen baitituzte, migratzaileek euren identitate etnikoa baztertzeraz bideratu gabe (besteak beste, ik. Kymlicka, 2001; Rex, 1997; Santiago, 2001; Zabalo, 2004).

Hasiera batean, badirudi nazionalismo zibikoak etorkinari luzatuko dizkion eskakizunak errazagoak izango direla. Hala ere, planteamendu horretan sakonduz gero, bere mugez ohartuko gara, immigratuak errefusatzen dituzten nazionalismo zibikoak baitaude, eta etorkinak beren nazioan barneratu nahi dituzten nazionalismo etnikoak (ik. Kymlicka, 2003). Halaber, nazionalismo etniko eta zibikoaren arteko muga lausoa izanik, immigrazioaren fenomenoak berak muga hori are gehiago txikitzen du, Zabaltzak (2006: 204) dioskun bezala,

“La fuerza de la inmigración extracomunitaria ha acercado las posturas entre el *jus soli* francés y el *jus sanguinis* germánico, aparentemente tan distintos. Con la presencia de los trabajadores extranjeros, cuya asimilación resulta en ocasiones difícil, la lengua ha reforzado su carácter identitario.”

Nolanahi ere, badirudi nazionalismoaren izaera bera baino, estaturik gabeko nazionalismoa eta immigrazioa lehian ez sartzeko, nazionalismo horrek bere etorkizuna arriskuan ez ikustea funtsezkoa dela. Izan ere, immigrazioa arazotzat hartzen da eta tentsio ugari bide ematen die nazionalismoak bere eskakizunak beteta ikusten ez dituenen, edota nazio identitate batek bere etorkizuna arriskuan ikusten duenean (Esteban Sánchez eta López Sala, 2009).

Immigrazioak, hortaz, eragin zuzena du nazionalismoarengan, eta alderantziz, nazionalismoak ere immigranteengan eragiten du. Sayaden (2010) arabera, nazio atxikimenduaren ikuspegitik immigrazioa zera da: ordena nazionalaren barruan gizabanako ez nazionalak egotea. Horrela, ordena nazionala eta immigrazioa hertsiki loturik daude, immigrazioak zein emigrazioak ordena nazionalaren eta ez nazionalaren arteko gatazka ezin ageriagoan uzten baitute. Gil Araújok (2006: 56), Sayad hizpide hartuz, dioen bezala, “La inmigración, junto con la emigración, constituye un desafío a la ortodoxia social y política, una especie de situación límite que (nos) fuerza a reflexionar sobre la noción de nación.”

Hori dela eta, esan dezagun berriz, nazionalismo batek *bere* lurraldean bizi diren migratzaileekiko duen jarrera, nazionalismo horren ezaugarriak eta izaera antzemateko oso baliagarria da.

Bestalde, nazionalismoa ez dugu isolamenduarekin edota bestelako giza taldeekiko hartu-emanen gabeziarekin nahasi behar, edo talde homogeneous nahi hutsekin, adibide historiko andanek erakusten diguten bezala. Aitzitik, nazionalismoa *bestelakoak* diren –edo, zehatzago, garai horretan *bestelakotzat*

hartzen diren– pertsona nahiz taldeekin harremana izatearen ondorioz indar daiteke; areago, *besteen* existentziaren kontzientzia behar-beharrezkoa da *gutasun* horren jabe izateko. Connorrek (1998: 166) azaldu bezala, “(...) la intensificación de los contactos entre varios grupos con conciencia étnica consolida y refuerza el segregador sentimiento de singularidad.”

Etorkinek ere giza talde baten –edo bere burua naziotzat aldarrikatzen duen komunitate baten– desberdintze sentimendua indar dezakete, beraz. Definizio, ohitura, diskurtso, sinbolo eta beste hainbat mailatako gatazka horrek arazoak sortzen ditu nazionalismoan; eta immigrazioak aurrerapenari –edo gizartearen modernizazioari– erresistitzen zaion nazionalismo itxi bat indar dezake, beraz (Hobsbawm, 2004: 279 eta hur.; Hobsbawm, 2009: 113 eta hur.). Balizko arazo horren aurrean, hala ere, nazionalismoak erantzun desberdinak eman ditzake, faktore desberdinen arabera: *Bestetzat* hartzen dena bere naziotik errefusatzeari, bere nazioan integratzen saiatzea, eremu zehatzetara mugatzea, eta abar. Argi dagoenez, erantzun hori estatutik, estatuak eskaintzen dituen bitartekoetatik, eginez gero, eraginkortasuna askoz ere handiagoa izango da. Horrela, estatuak, beren bitarteko guztiak erabiliz (legeetatik hasiz), besteak beste etorkinekiko sailkatze prozesuak abiarazten dituzte: naziokide –edo *nazional*– eta ez naziokideen artean, eta nazionaltzat hartzen direnen barruan, ondokoak ere sailkatzen ditu: jatorriz etorkinak direnak, nazional naturalizatuak, komunitarioak, epe luzeko egoiliarrak, behin-behineko egoiliarrak eta dokumentaziorik ez dutenak (ik. Gil Araújo, 2006: 58).

Estatudun nazionalismoa aipatuta, estatu egiturarik erdietsi ez duten nazionalismoen berezitasunak ere aipatu behar dira, horrek berezitasunak baditu-eta. Nazionalismo horiek, horrela, gehienetan ez dute immigrazioa kudeatzeko aukerarik, gai horren eskuduntza nagusiak, normalean, estatuak bereganatu ohi dituelako⁴². Egoera horrek erreakzio desberdinak sor ditzake estaturik gabeko nazionalismoan, baina badaude arlo horretan berezko ikuspegia lantzen duten nazio azpiestatalak ere. Zapata-Barrerok (2008: 113)

⁴² Horren adibidea izan da Kataluniako estatutuaren aurrean, 2010ean Espainiako Konstituzio Auzitegiak hartutako erabakia.

azpimarratzen duenez, Quebecen eta Flandrian, esaterako, immigrazioaren lanketa estaturik gabeko nazioaren ikuspegitik burutzen da; ez, ordea, Katalunian. Euskal Herriaren kasuan ere, azken hori gertatzen da. Edonola ere, ereduak askotarikoak izan arren, bi mutur bereizi ohi dira: alde batetik, Quebec, non etorkinaren barneratzea bilatzen duen eredu liberala garatzen duen nazionalismoak; eta, bestean, Flandria, non immigrantea arriskutzat ikusten den eredu *itxi* eta etnikoan oin hartzen duen (ik. Zapata-Barrero, 2008). Banaketa horretan, ez da erraza nazionalismo guztiak kokatzea, baina esanguratsua da Zapata-Barrerok (2010), elkarrizketa batean, Euskal Herrian “immigrazioaren harira, eskuin muturreko nazionalismo bat sortzeko” arriskua dagoela adierazi izana; edota Kymlickak (2003: 328) ere euskal nazionalismoa Flandriakoarekin parekatu izana.

Hala eta guztiz ere, aurre egin behar zaio estaturik gabeko nazionalismoa immigrazioaren aurkako jarrerarekin lotzen duten iritziari. Kymlickak azpimarratzen duen bezala, etorkinen integrazioa bultzatzen duten nazionalismo azpiestatalak badaude; eta immigrazioarekiko jarrera ez da estatua izan edo ez izatearen araberakoa:

“(...) la opinión heredada de que los nacionalismos minoritarios representan una reacción iliberal, excluyente y defensiva contra la modernidad está equivocada (...). Algunos nacionalismos minoritarios representan una forma liberal, incluyente y progresista de abrazar la modernidad y la globalización y, en potencia, son simplemente tan “cívico”/postétnicos y cosmopolita/híbridos como los nacionalismos mayoritarios.” (Kymlicka, 2003: 332).

Nazionalismoak immigrazioarekiko garatzen duen jarreraren oinarria, beraz, ez dago nazionalismo horren izaera estatala edo azpiestatalari loturik. Aurrerago, estaturik gabeko nazionalismoak multikulturalismoarekin dituen loturak ikusiko ditugu (ik. 3.3.1. atala). Ondoren, hala ere, arreta beste

kontzeptu batean jarriko dugu, *immigranteen integrazioan*, hain zuzen; eta horrek nazionalismoarekin duen loturan.

1.3. Nazioa eta etorkinen integrazioa

Nazionalismoak hartu-eman konplexua, are anbibalentea ere, bizi du immigratuarekin: etorkinak bere helburuak zail ditzake, batetik; baina, aldi berean, etorri berriarekin –*desberdina* denarekin, oro har– jarraitzaile nazionalisten diferentzia sentipena indar daiteke, bestetik. Hortaz, jarrera anbibalente horrek erantzun eta erreakzio desberdinak eragin ditzake nazionalismoaren aldetik, kontrajarriak izan daitezkeenak. Nazionalismo batzuek etorkinak eta bestelako gutxiengoak baztertzeraz jotzen duten bitartean, beste hainbat nazionalismo immigranteak beren mugimendura erakartzen saiatzen dira. *Erakarp*en saiakera hori modu desberdinetara burutu eta justifikatu da. Jarraian, arreta maiz erabiltzen den kontzeptu batean ipiniko dugu: *integrazioan*, hain zuzen.

Migrazio prozesuei lotutako kontzeptuen erabilerari dagokionez, zenbaitetan *immigrazio*, *immigrante*, *emigrante*... kontzeptuak erabiltzeari utzi behar zaiola defendatzen da, beren kutsuarengatik; eta, horien ordean, *migratzaile* termino *neutroagoa* erabiltzea hobesten da. Zuzentasun politikotik gertu ibili ohi da, askotan, jarrera hori; eta ikerketa asmoetarako baino, diskurtso politiko eta sozialetarako, akaso, egokiagoa izan daiteke. Hala ere, ezin uka daiteke lurralde batean hainbat urte (hamarkadak, agian) bizitzen daraman lagun bat *immigrante* gisa definitzeak arriskuak badituela. Finean, noiz uzten dio pertsona batek etorkin izateari? Horrela, immigrantearen definizioa, are estigma, betikotzea ekidin asmoz, badira *immigrante* lurralde batera etorri berriak izendatzeko soilik erabili behar dela hobesten dutenak. Hots, ikusmolde horren arabera, *immigrantea* migratzearen esperientzia bizi duena litzateke; eta bizipen hori igarotzerakoan, beraz, ez litzateke *etorkin* izendatu behar. Jarrera horrekin bat egiten dutenek, maiz, *immigrante* baino *etorri berri* [*newcomer*] kontzeptua lehenesten dute, kontzeptuaren izaera

iragankorra azpimarratu asmoz (horretan sakontzeko, ik. Bilbeny, 2009: 54 eta hur.).

Jakina, migrazioen azterketan jarrera hori ez da bakarra, ezta nagusia ere. *Newcomer* 1950eko hamarkadatik Ameriketako Estatu Batuetan eta Kanadan immigrazioaz aritzeko erabilia bada ere (Bilbeny, 2009: 57), *immigrante* ailegatu berriak ez direnak izendatzeko usu erabiltzen da; eta, esaterako, *bigarren* edo *hirugarren belaunaldiko* immigrantez maiz hitz egiten da migrazio azterketetan⁴³. Horrez gain, hezkuntza munduan, bereziki, azkenaldian *etorkinez* zein *migratzailez* baino, ikasle *atzerritarrez* aritzea hobesten da, beti ere migratzaile etiketaren kutsu negatiboa ekidin nahian; izan ere, haurrez hitz egiterakoan, immigrante etiketa erabiltzeak zentzurik ote duen pentsatu behar da.

Lan honetan, beraz, aipatu arrisku eta muga horiez kontziente gara. Hala ere, *etorri berriaz* gain, bada beste kategoria sozial bat, *etorri berria* ez dena baina sozialki, biztanleriaren *gehiengoarekiko* (edo horren zati batekiko), modu desberdinduan hartzen dena: immigrantea. Gainera, lege mailan ere, berezitasunak dituen subjektua da *etorkina*. Horregatik, *etorri berriaz* baino, *etorkinaz* ariko gara lan honetan. Halaber, ez dugu ahantzi behar *immigrante*, *immigratu* edo *etorkin* –berdin aurkako norabidean: *emigrante...*– erabiltzen dugunean, gure posizioa markatzen dugula. Hala da, *immigrantez* hitz egiten dugunean *gurera* datozenez ari gara, gure posiziora, geu gauden lekura, datozenez, bederen. Balizko kutsu etnozentriko horren arriskua, hala ere, immigrazio kontzeptuak eskaintzen digun argitasuna baino txikiagoa da, gure ustez. Halaber, migrazioa aztertzen dugunean, errealitate hori zein posiziotik behatzen dugun mahaigaineratu behar da, ez baita inolaz ere gauza bera migrazioa herrialde edo gune hartzailetik zein jaulkitzailetik aztertu edo bizitzea. Zentzu horretan, eta Abdelmalek Sayadekin (2010) bat eginez, *emigrazio* eta *immigrazio* kontzeptuak bereiztearen alde gaude, bi kontzeptuok

⁴³ Zentzu horretan, interesgarria da immigranteak *etorkin* izateari noiz uzten dion galdetzea. Horren harira, hausnarketa hori hezkuntza mundura darama Barquínnek (2009), eta ikasleak (haurrak, finean) *etorkintzat* hartzea akatsa dela defendatzen du; izan ere, haurrak, ez dira *etorkinak*, haur guztiak hemengoak dira-eta.

bi errealitate desberdin baina, aldi berean, banaezin definitzen dituzten heinean: migratzaile oro immigrante eta emigrante da aldi berean, eta ikuspegi bakoitzetik problematika bereziak ezagutzen ditu.

Ez da ahanzi behar migrazioen azterketa akademikoak, kasu honetan soziologikoak, karga ideologiko handia duela (*arazo* hori ez dagokio migrazioen azterketari soilik). Migrazioak gizarte arazo bilakatu eta gero iristen dira gizarte zientzietara, gizarteak immigratuak *arazo* gisa pertzibitu eta gero, horrek duen karga eta kutsu guztiarekin.

Etorkinen integrazioaren kontzeptuak sustrai sakonak ditu Soziologian⁴⁴. Immigrazioaren Soziologia –edo Migrazioen Soziologia–, horrela, XX. mendearen hasieran sortu zen, Chicagoko Eskolaren lanekin batera, 1910 eta 1940 urteen artean (ik. Cachón Rodríguez, 2009: 263), nahiz eta bestelako aitzindariak ere aldarrikatu izan diren (Simmel eta Weber, besteak beste). Migrazioen Soziologia Ameriketako Estatu Batuetan jaio zen, immigranteak gizarte horretan nola *barneratzen* ziren ikertzeko xedeaz, eta Hiri Soziologiari hertsiki loturik, etorkinak hirietan nola barneratzen ziren ikertzen baitzuten nagusiki. XX. mende hasierako AEBetako testuingurua etorkinen aurkakoa (zuri anglosaxoien aldeko propaganda *natibistaren* indarra horren adibide da) zein afroamerikar edo beltzen aurkakoa zela kontuan izan behar da, halaber. Garaiko Immigrazioen Soziologiak, horrela, etorkinak iritsi ziren gizartean nola barneratu ikertzen zuen, oro har; eta, beraz, *integrazioa* asimilazioaren sinonimo moduan erabiltzen zen.

Cachónek (2009: 264 eta hur.) azpimarratzen duenez, etorkinen integrazioaren aferak Soziologian esanguratsua izateari utzi zion 1980ko hamarkada arte. Orduan, Ongizate Estatu keynesiarra zalantzan jartzen hasi zenean, berriz hartu zen *etorkinen integrazioaren* afera ikergai moduan. Ongizate Estatuak oin hartzen zuen *soldatapeko gizartea* krisian sartzerakoan, *immigrazioaren afera* *gizarte afera* bilakatu zen. Bide batez, “La (nueva)

⁴⁴ *Integrazioaren* kontzeptu soziologikoaren bilakaera honetarako, ondoko lanetan oinarritu gara: Bilbeny, 2009; Cachón Rodríguez, 2009; Hamberger, 2009; López Sala, 2005.

‘cuestión social’ aparece notablemente ‘etnificada.’” (Ibidem, 262). Horrela, etorkinen integrazioaren auziari, ordura arte nagusi zen ikuspegi ekonomikotik aztertzeari utzi zitzaion, eta, neurri handi batean, kulturari edo etniari loturiko ikuspegia gailendu da. Hortaz, immigrazioa behatzerakoan, gai sozioekonomikoek baino, kultura aniztasunari loturikoek indarra hartu dute; eta dimentsio politikoa ere bigarren mailan agertzen da (De Lucas, 2009).

Etorkinen integrazioaz maiz hitz egiteari ekin zaio, eremu politikotik batik bat. Baina afera ikertu duten gizarte ikerlariak nabarmendu duten moduan, *etorkinen integrazioa* nahasmen teoriko zein politikoa sortzen duen kontzeptua dugu, esanahi ugari atxiki ahal zaizkionak (integrazioaren polisemia gatazkatsu horretan sakontzeko, ik. Hammar eta Lithman, 1989; Herrera, 1994; Blanco, 2002b; Bilbeny, 2009). Hammar eta Lithmanek (1989, 348; in Cachón, 2009: 264), esaterako, hala adierazi dute:

“(...) los conceptos adoptados para describir las relaciones entre inmigrantes y los grupos de inmigrantes por un lado, y la sociedad del país de acogida por otro, son pocas veces tomadas en el mismo sentido por los diferentes autores. La diversidad de acepciones atribuidas a términos como *integración, asimilación, aculturación, segregación y pluralismo*, especialmente en el discurso político, parece a menudo desconcertante para el observador.”

Horrek guztiak ez du ekidin, aitzitik, migrazioen ikerlari batzuek integrazio kontzeptua gainditzearen beharra mahaigaineratu izana. Eztabaida luze hori laburtuz, ikerlari batzuek integrazio kontzeptua alboratu eta, horren ordez, *egokitzapena* [*accommodation*] proposatu dute (adibidez, ik. Zapata-Barrero, 2002, 2004; Bauböck, 1996). Baina migrazio gaietan diharduten gizarte zientzien arloko beste hainbat egilek zalantzan jarritako kontzeptuaren erabilgarritasuna azpimarratzen dute. Horrela azaltzen du López Salak (2005: 88), Favellen (2003) lana aipatuz:

“a pesar del aire funcionalista y anticuado del término integración, ningún otro ha sido (y sigue siendo, según nuestra opinión) tan popular ni ha reflejado tan ajustadamente la calidad técnica de ingeniería social y la concepción holística sobre la sociedad que refleja el concepto. Sean cuales sean los significados con los que aparece en la literatura, la noción de integración conceptualiza todo lo que sucede después de la llegada.”

Hortaz, aldekotasun hori du integrazio kontzeptuak: iritsi berriak aurrean duen –eta harrera gizarteari ere eragiten dion– prozesu zabal eta dimentsio askotariko hori izendatzea; eta, horrela, iritsi berrien adaptazio prozesua –hainbat alorri eragiten diona– izendatzeko erabiltzen da (Penninx eta Martiniello, 2006: 88). Halaber, integrazioa gizarte prozesu gisa ulertuta – eta ez irudikapen estatiko huts moduan– immigrazioari loturiko gatazkak aztertzeko balio digu. Cachónnek (2009: 265-266) nabarmentzen duenez, batzuetan integrazioa gatazken absentsia moduan ulertzen bada ere, justu kontrakoa da, gatazka eza segregazioaren eta bazterkeria sozialaren ondorio izan ohi delako: “los conflictos son un (buen) signo de que hay en marcha un proceso de integración, de inclusión del ‘otro extranjero’ en el ‘nosotros’.”⁴⁵ Ildo bera jarraitzen dute, ñabardurak ñabardura, beste ikerlari batzuek ere (ik. Sayad, 2010; Zapata-Barrero, 2004). Finean, gatazka gizarte elkarrekintza ororen ezaugarri da eta, beraz, subjektu immigrantea bizitza sozialean *barneraturik* badago, gatazken partaide ere izango da.

Nolanahi ere, integrazio kontzeptua maila politiko nahiz sozialean maiz erabiltzen da. Gainera, erantzun bikoitza aurkitzen du immigranteen beren aldetik. Batzuek etorkinek ere eurentzat *integratioa* nahi dutela eta aldarrikatzen dutela azpimarratzen duten bitartean (Koopmans eta Statham, 2000), beste batzuek aurkakoa azpimarratzen dute, hots, immigratuek, *bigarren* eta *hirugarren belaunaldikoek* batez ere, *integratioan* beharrean,

⁴⁵ Aurkako iritzia, hala ere, zabaldua dago migrazioei buruzko ikerketan; hots, integratioa gatazken existentzia ezarekin lotzen duen ikuspegia. Hammar eta Lithmanek (1989: 249, in Cachón, 2009: 266), esaterako, horixe azpimarratzen dute: “[integratio kontzeptua] no se aplica, suponemos, cuando hay conflicto entre las partes interesadas.”

arreta diskriminazioan edota gizarte onarpena bezalako gaietan ipini nahi dutela (Cachón, 2009: 264). Horri loturik, eta immigrantea kutsu ezkorra duen kategoria dela gogoratuz, etorkinak etorkin izateari utzi nahi dio, baina bere jatorrizko identitate zein praktika kulturaleri muzin egin gabe (Zapata-Barrero, 2004: 114).

Migrazioen teorialarien aldetik ere integrazioarekiko jarrera ez da inolaz ere aho batekoa. Sayadek (2010: 309-313) gogorarazten duenez, terminoak karga handia du eta, beraz, gizarte zientzialariek adi ibili behar dute hura erabiltzerakoan. Integrazioa eta asimilazioa bereizten ditu soziologo aljeriar-frantsesak; asimilazioak, integrazioak ez bezala, gizarte berrira *sartzen* denaren berezitasunen ukapena suposatzen duelako, asimilatuaren izaera propioaren desagerpena. Integrazioak, hortaz, badu alde positiboa, asimilazioak inondik inora ez duena. Baina integrazioak ere badu alde txarrik:

“La incitación a la integración, la sobreabundancia del discurso sobre la integración, no dejan de aparecer a los ojos de los más advertidos o de los más lúcidos [de los inmigrantes] en cuanto a su posición en el seno de la sociedad (...) como un reproche por falta de integración, por déficit de integración, incluso como una sanción o un juicio preconcebido sobre una integración ‘imposible’, nunca total y nunca total y definitivamente adquirida.” (Sayad, 2010: 313).

Integrazio izenarekin, bada, etorkinaren egokitzapen prozesu zabal guztia barne hartzen da. Hala eta guztiz ere, arreta integrazioaren aspektu batean soilik jarri ohi da askotan: kulturari nahiz identitate kulturaleri dagokiena, hain zuzen ere. Immigratuen integrazioaren afera, aldiz, bizitza sozialeko dimentsio guztiei dagokie eta, gainera, hainbat argipen teoriko-praktiko beharrezko ditu. Ondoko hauek, adibidez (Cachón, 2009: 264-265):

- integrazioak gizarte osoari ala immigratuari soilik dagokio?
- integrazioaren alde objektiboa –gizarte egiturari edo bizi baldintza materialei lotua– ala subjektiboa –pertzepzioak, identitateak eta abar– ikertu behar da?
- integrazioa prozesu moduan ala bukaerako emaitza gisa ulertzen da?
- integrazioa prozesua bada, gizarte osoari dagokion prozesua da ala soilik etorkinei dagokiena?
- integrazioa alde bakarreko prozesua da –immigranteen integrazioa– ala alde biko prozesua –integrazioa etorkinekin– izan behar du?

Integrazioa, finean, hainbat dimentsio soziali buruz aritzeko erabiltzen da, eta, horrela, integrazio politikoa, kulturala, soziala zein ekonomikoa bereiz daitezke, besteak beste (adibidez, ik. Penninx, 2004). Halaber, integrazioa immigrazioaren ondoriozko kultura aniztasuna kudeatzeko eredu bereizi moduan erabiltzen da batzuetan, multikulturalismotik bereizitako eredu gisa, Espainiako testuinguru akademikoan batez ere (ik. López Sala, 2005: 89).

Integrazio politikoak immigratuak iritsi den gizarteko politikan esku hartzen duela esan nahi duen bitartean, integrazio kulturalak harrera gizarteko kultur bizitzan parte hartzeari eta bertako hizkuntza edo hizkuntzak ikasi eta erabiltzeari dagokio, oro har. Gizarte integrazioa, bestetik, harrera gizarteko bizitza sozialean parte hartzeko erabiltzen da; zentzu zabalean erabiltzen da, hortaz. Kontzeptu hori argitu asmoz, Giménez Romerok (2003b: 76-77) gizarte integratzen ote dagoen aztertzeko zazpi gai mahaigaineratzen ditu:

- Integrazioaren subjektua zehaztea: *zein integratzen da?*;
- eskubideak: etorkinek eta bertakoek eskubide erreal berak izatea;
- aukera berdintasuna gauzatzea;
- immigranteek bizitza politiko eta sozialean parte hartzea;
- kultura, erlijioa zein hizkuntzari loturiko aniztasunaren trataera;
- gutxiengo berrien onarpena; eta
- harrera gizartean gertatutako aldaketa: integrazio soziala ahalbidetzeko zer aldatu behar den gizarte hartzailean.

Hainbat alorri egiten dio erreferentzia integrazioak, beraz. Aipatutakoez gain, *egiturazko integrazioa* eta *integrazio subjektiboa* ere erabiltzen dira (ik. Blanco, 1990), besteak beste. Lehena gizarte egituran parte hartzeaz ari da, eta integrazio sozial eta ekonomikoa barne hartu ohi ditu. Hautemandako integrazioak, berriz, etorkinak berak bere integrazio prozesuaz burutzen duen irakurketa subjektiboa lantzen du.

Integrazio kontzeptua Euskal Herrian ikertu duten egileen artean Cristina Blanco soziologoa nabarmendu dezakegu, batez ere Hego Euskal Herrira 1950 eta 1980 artean iritsitako etorkinen integrazioari dagokionez. Blancorentzat (1990: 66), horrela, immigranteen integrazioaz hitz egin daiteke talde edo gizabanako bat kulturalki bereiztutako beste talde batean eskubide osoz txertatzen denean; hots, harrera gizartearen bizitza sozialari atxikitzen zaionean, eta hiru aspektu hauek kontuan hartu behar dira: integrazio kulturala, egiturazko integrazioa eta identifikaziozko integrazioa. Blancorentzat, hortaz, harrera taldea eta etorkinaren artean nolabaiteko elkarrekintza gertatu behar da eta, hortaz, integrazioa bi noranzko prozesua da: *Bestea* kontuan hartu behar du, ezinbestean (Ibidem, 67). Halaber, soziologoak integrazio objektiboaren eta subjektiboaren artean bereizketa egitea proposatzen du. Integrazioaren aspektu objektiboa immigrantearen kokapen espaziala, harrera herrian igarotako denbora eta gizarte egiturari loturiko beste aldagai batzuei loturikoa da.

Integrazio subjektiboa, bestetik, etorkinek berek beren egoeraz burutzen duten irakurketari dagokio, eta Blancok, Bilbora mugatuta, lau immigrante mota bereizten zituen: kosmopolita, nazionalista, pluralista eta disoziatua (Blanco, 1990: 201-234). Xehetasunetan sartu gabe, egile horrek mahaigaineratzen duen planteamenduak integrazio kontzeptuaren konplexutasuna agerian uzten du, eta erpin ugari dituen errealitatea nabarmentzen du.

Ildo horretan, Aierdik (1993) ere integrazio kontzeptua aztergai izan du, Euskal Herriko kasuan zentratuta. Egileak azpimarratzen duenez integrazioa bi

kolektiboren artean geratzen den prozesua da. Bi taldeok gizartean botere kokapen desberdina dutenez, integrazioa ezinbestean harreman asimetrikoa da; eta, beraz, gatazka bere osagai garrantzitsua da (Aierdi, 1993: 47). Gainera, integrazioaren alderdi desberdinei erreparatuta, egiturazko integrazioa ezinbestekoa dela kontuan izan behar dugu, ez, ordea, integrazio politiko-kulturala (Ibidem, 81).

Immigranteen integrazioa eztabaida iturri agortezina da, hortaz. Harrera gizartean lehia diharduten indar desberdinek, etorkina beren ikuspegiaren arabera *integratu* nahi dute; eta integrazioak zer bilatu behar duen eztabaida gai bilakatzen da, horrela. Jarraian, indar horietako batek –euskar nazionalismoak– Euskal Herrian immigrazioaz garatu duen posizioa aztertuko dugu.

2. NAZIONALISMOA ETA ETORKINAK HEGO EUSKAL HERRIAN: EUSKAL NAZIONALISMOAREN BILAKAERA

2.1. Sarrera

Euskal nazionalismoak, euskal nazioaren izaera politikoa praktikan garatzen duen mugimendua izanik, bere nazioaren lurraldetzat hartzen duenera iritsitako herritar taldeak interes eta azterketa eremu garrantzitsu izan ditu hasieratik; izan ere, euskal nazionalismoa immigrazio testuinguru batean jaio zen.

Euskal nazionalismo politikoa Sabin Aranaren planteamenduekin hasiz aztertuko dugu, ahaztu gabe bere aurretik egile batzuek (Manuel Larramendi aitzindaria XVIII. mendean, Agosti Xaho Lehen Gerra Karlistaren testuinguruan, foruzaleen aldarrikapen desberdinak...) Euskal Herriaren nolabaiteko aldarrikapen politikoa egin zutela⁴⁶. Gure azterketaren helburua euskal nazionalismoa eta immigrazioaren arteko harremanari dagokionez, baina, Sabin Aranarekin hasitako euskal nazionalismoan jarriko dugu arreta.

Euskal nazionalismoa sortzen denetik, Hego Euskal Herriak etorkinak jaso zituen (aurretik euskal herritar ugari kanpora, Amerikara batez ere, migratzen zuten bitartean). XIX. mende amaieratik, horrela, immigrante ugari iritsi ziren Bizkaira, eta bertako langile klasea, hein handi batean, Euskal Herriaz kanpoko langile espainiarrek osatu zuten (Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994: 115-122). Aurrerago, 1950eko hamarkadan, immigrazio aldi berri bati hasiera eman zitzaion, aurrekoa baino handiagoa eta, oro har, Hego Euskal Herri guztian hedatu zena. Immigrazio *uholde* horrek ondorio sakonak izan zituen Hego Euskal Herriko gizartean (migrazio fluxuetarako, ik. 4. puntua). Ipar Euskal Herrian, aitzitik, immigrazioak zein abertzaletasunak ezaugarri

⁴⁶ Gai horretarako, adibidez, ik. López Adán, 1978; Zabaltza, 2005.

desberdinak izan dituzte. Gaur egun, Euskal Herriko immigrazio tasa altuena (%41,4) Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoakoa⁴⁷ dela (Aierdi, 2011: 41) aipatu gabe gelditzen dela alde batera utzita, euskal nazionalismoaren bilakaera ere oso desberdina izan da hiru lurralde horietan⁴⁸.

Bada, Hego Euskal Herrira mugatuz, migrazio fluxuen hazkuntza eta euskal nazionalismoaren historiaren bi une garrantzitsu batera gertatu ziren: lehen euskal nazionalismoaren sorrera XIX. mende bukaeran, Sabin Aranak planteatua; eta 1950-1960tik aurrera, ETAREN inguruan sortutako ezkerreko euskal nazionalismo berria. Bi inflexio puntu horien artean, hala ere, mugimenduak ere gertatu ziren, bai nazionalismo jeltzalearen barnean (Eli Gallastegiren eta beste jeltzale batzuen planteamenduak, esaterako), eta bai honetatik at eginiko saiakeretan ere (Eusko Abertzale Ekintza, EAE-ANV, alderdian, kasu).

Euskal nazionalismoa eta immigrazioaren arteko harremanak aztertzerakoan, 1950 eta 1980 urteen arteko migrazio aldia izan da aztergai nagusia. Lan honetarako, azterketa horiek kontuan hartzea garrantzitsua da, gaur egungo immigrazioaren aurrean euskal nazionalismoak garatzen duen posizioa aztertzeko ezinbestekoa baita aurreko migrazio uholdeen aurrean garatutako erantzuna zein izan zen kontuan hartzea. Izan ere, euskal nazionalismoak Espainiatik iritsitako immigrazioa zela-eta izandako erantzunak gaur egungo fluxuen aurrean garatutako diskurtsoen oinarria dira.

Euskal nazionalismoak immigrazioaren aurrean izandako ildoak, bada, ikuspegi desberdinetatik aztertu izan da⁴⁹. Nazionalismoaren teoritik, gure

⁴⁷ Pirinio Atlantiko departamentu osoko 2008ko datuak. Departamentu horretatik at jaiotako guztiak sartzen dira portzentaje horretan.

⁴⁸ Ipar Euskal Herrian, 1930eko hamarkadan *erregionalismo nazional* deitu izan dena jaio zen Aintzinarekin; nazionalismoa 1960ko hamarkadan, 1960an aldizkari gisa sortutako eta 1963an mugimendu politiko bilakatutako Enbatarekin (ik. Apalategi, 2006: 235 eta hur.). Ondoren, Hego Euskal Herriaren eragina handia izan arren, Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako abertzaletasunak bere bidea jarraitu du, eta hauteskunde eremuan Hego Euskal Herrikoa baino askoz ahulagoa izan da (ik. Ahedo, 2006).

⁴⁹ Zalantzarik gabe, euskal nazionalismoak immigrazioaren aurrean garatutako ildoak batez ere ikuspegi historikotik aztertu izan da, euskal nazionalismoaren azalpen historikoa egiterakoan,

ustez nabarmentzekoak dira Conversi (1997) eta Heibergen (1989) lanak. Biek oso posizio desberdinetatik aztertzen dute euskal nazionalismoaren eta immigrazioaren arteko harremana (1950-80 artean iritsitako immigrazioaz arituz): Heibergen aburuz, Hego Euskal Herrian autoktono eta etorkinen arteko zatiketa soziala egon bazegoen, eta banaketa horren bultzatzaile nagusia euskal nazionalismoa zen. Conversiren ikuspegitik, ordea, euskal nazionalismoak etorkinen integrazioa bultzatu zuen, balizko bereizketa sozial hori gainditzeko faktorea izanik⁵⁰.

Laburbilduz, euskal nazionalismoaren garapenean immigrazioak funtsezko eragina izan zuen. Hau da, euskal nazionalismoa aztertzeko immigrazioaren afera kontuan hartu behar da, immigrazioarekiko euskal nazionalistek izan dituzten jarrerak euskal nazionalismoaren posizio politikoaz funtsezko gakoak ematen baitizkigute. Areago, Shafirren (1995) aburuz, immigrazioarekiko posizioa (1950-1980ko immigrazioaz ari da) euskal nazionalismoaren eztabaida oinarrizkoetako bat izan zen, autonomia/independentzia dikotomiarekin batera. Horrela,

“Two major areas of internal debate [euskal nazionalismoan] may be singled out: the dilemma of independence versus autonomy, and the dilemma of anti-immigrant belligerence versus the immigrants’ integration into Basque society and culture.” (Shafir, 1995: 110).

Begira dezagun orain, bada, euskal nazionalismoa eta immigrazioaren arteko harremanen bilakaera zertan izan den, beti ere integrazioari dagokionez eraikitako diskurtsoetan arreta ipiniz. Bilakaera hau adierazgarria da oso, eta egungo dinamika eta plantamenduak ulertzeko funtsezkoa dela uste dugu.

aipatu beharreko gaia den heinean. Adibidez: Beltza, 1974; Corcuera, 2001; De Pablo et al., 1999; Elorza, 1978; Fusi, 1984; Garmendia, 1983; De la Granja, 1995; Larronde, 1977; Solozábal, 1979; Zabaltza, 2005.

⁵⁰ Ikuspegi historiografikotik, egile batzuen iritzia da euskal nazionalismoaren ezaugarria Espainiako etorkinen bazterketa bultzatzea dela, baita 1960tik aurrera garaturiko ezkerreko abertzaletasunaren kasuan ere. Ikuspegi horretarako, ik. Fernández eta López, 2010; López eta Fernández, 2011.

2.2. Hasierako euskal nazionalismoa: ezinezko integrazioa

Hasierako euskal nazionalismoaz hitz egitea Sabin Arana Goiriri buruz aritzea da⁵¹. Buruzagi nazionalistaren ikuspuntuak euskal nazionalismoaren oinarriak finkatzeaz gain, eragin sakona izan zuen euskal nazionalismoaren garapenean. Berdin gertatzen da migrazioekiko jarrerari dagokionez, Aranaren doktrinak nahiz proiektu politikoak behin eta berriz jarri baitzuten arreta etorkinengan. Horrela, eta lan honen helburuak kontuan hartuta, buruzagi jeltzaleak immigrazioari eta etorkinei buruz idatzitakoak aztertuko ditugu, eta gai zehatz horretaz duen ikuspuntuan zentratuko gara.

Historialariek Sabin Aranaren bizitza politikoaren hasiera Larrazabalgo diskurtsoan (1893) jartzen dute (1903an zendu zen). Urte horietan izan zuen garapena aztertzeko, José Luis de la Granjak egiten duen sailkapena hartuko dugu. Hiru etapa bereizten ditu: 1893tik 1898rako, lehena, non euskal nazionalismoaren oinarriak finkatzen diren, eta diskurtso erradikal baten bidez Espainiaren desberdintasunak azpimarratzen dira; 1898tik 1902ra, bigarrena, pragmatismorantz gerturatuz; eta, hirugarrena, bere bizitzako azkeneko urtea, zeinean *españolismoaren* aldeko jarrera eztabaidatua azpimarratzen den⁵² (De la Granja, 1995: 32-36). Eboluzio politiko horren gainetik, hala ere, Aranak euskal nazioaren ezaugarriekiko planteamendua ez zuela aldatu azpimarratu behar dugu.

Sabin Aranaren nazionalismoak ezaugarri objektiboen gainean eraikitzen du euskal nazioa. Hau da, nazioa existitzen den errealitate bat da, dagoen egoeran dagoela. Horrela, Aranaren aburuz, euskal nazioa elementu hauek –eta

⁵¹ Hauek hartu ditugu oinarri moduan: Azurmendi, 1979; Corcuera, 2001; Larronde, 1977; De Pablo et al., 1999.

⁵² Azken *eboluzio españolista* hau oso eztabaidatua da. Aranak, alde batetik, *Euzkadiren* independentziari uko egin eta *Liga de Vascos Españolista* baten sorrera defendatu zuen, EAJ ordezkaturiko lukeena. Baina, aldi berean, esan zuen ez zela alderdi berrian sartuko eta independentziaren aldeko aldarri batzuk botatzen jarraitu zuen. EAJ osoak ez zuen hartu *eboluzio* hau, baina alderdi jeltzalearen baitan etorkizunean sortuko ziren eztabaida eta zatiketen (*Comunión* vs. *Aberrri*) aurrekaria dirudi.

hurrenkera horretan ageriko egin zituen– osatzen dute: arraza, hizkuntza, gobernu eta legeak, ohitura eta usadioak, eta pertsonalitate historikoa. Elementu hauen artean, hala ere, Aranak indar berezia ipini zuen arrazan, euskal naziotasuna arrazan oinarritu baitzuen; eta diskurtso guztia erlijio ikuskera integrista zurrun batez hornitu zuen.

Etorkinenganako jarreran sakondu nahi badugu, arrazan ipini beharko dugu arreta. Horrela, Aranaren *arrazaren* ulerkuntza berezia dela azpimarratu behar da. Aranak, arrazaren alde biologikoa nabarmendu baino, *euskal arrazaz* hitz egiten du, balizko arraza honen ezaugarriak zehaztu gabe (Azurmendi, 1979: 128). *Euskal arraza* abizenek⁵³ zehazten dute, baina ez dira arraza horren ezaugarri biologiko eta fisikoak azpimarratzen (Conversi, 1997: 68). Bere garaiko autore arrazista ugarietatik aldentzen da, beraz; euskal tradizioarekin hausteaz gain⁵⁴.

Izan ere, Aranaren *arrazakeria* hori maiz nabarmentzen da, euskal nazionalismoaren sortzailearen ikuspegi hori nazionalismo horren gako definitzaile bilakatzeraino; eta euskal nazionalismoaz aritzeko kluxe bilakatu da. Garrantzitsua da nabarmentzea XIX. mendeko Mendebaldeko pentsamenduan eta zientzian arrazismoa oso hedaturik zegoela (arrazaren erabilera horretarako, ik. Douglass, 2004). Hori baino gehiago, *euskal arraza* Europako mundu zientifikokoan *asmatu* zen Euskal Herrian baino lehenago:

“(...) by Sabino’s time European scientific racism largely accepted the conclusion that there was a “Basque race”, a creation more of the intellectual circles of Paris and Stockholm than Basque (or

⁵³ Abizenek, Aranak aztertzen zituen bezala, deitura horien jatorri euskalduna adierazten zuen, ez besterik. Gerta zitekeen abizen erdaldun bat zuena bere ahaide guztiak Euskal Herrikoak izatea, eta euskalduna izatea. Hau askotan gertatzen zen lanbideak adierazten zituzten abizenekin (Zapatero, Barbero...), zeinek gaztelaniaz egoteak abizena inskribatu zuenak erdaraz idatzi zuela soilik adierazten duen (Zabaltza, 2005: 274 eta hur.).

⁵⁴ Euskalduntasuna, *euskal herria* eta *euskaldun* kontzeptuek berek adierazten duten legez, hizkuntzan oinarritu da. “(...) no se dan indicios que puedan demostrar una especial inclinación en favor de la consideración de la raza” (Jáuregui, 1981: 16). Berdin baieztatzen du Zabaltzak (2006: 163): “(...) ese racismo tan típico basado en los apellidos es una doctrina ajena a la tradición vasca anterior a Sabino Arana.”

Spanish) ones” (Sánchez-Prieto, 1993: 388, in Douglass, 2004: 102).

Douglassek (2004: 106 eta hur.) azaltzen duen bezala, Aranak bere mugimendu nazionalista sortzeko, European nagusi ziren teoria arrazistak erabili zituen. Egun zientifikotzat hartuko ez genituzkeen *teoria* horien arabera, latindar jatorriko herriak behe-mailan zeuden; eta hori primeran zetorkion abandoarrari espainiarren aurka ekiteko. Horra arte, beraz, Aranak garaiko egileen ildo jarraitu zuen. Aranaren *originaltasuna*, beraz, arraza nagusitasuna periferiako herri bati –Euskal Herriari– egoztea izan zen, zentroaren aurka (eta ez arraza nagusitasuna argudio politiko gisa erabiltzea, hori ohikoa baitzen bere garaian). Horretan, datza, Europa mailan, Aranaren diferentzia; arrazagatiko nagusitasuna maiz erabiltzen baitzen laponiarrek, finlandiarrek, eslaviarrek, zeltak, etab. gutxietako.

Aranak euskal arraza deituretan oinarritzen duela esan dugu jada. Beltzaren (1974: 87) aburuz, Aranaren *abizenkeria* hori bertakoak eta etorkinak bereizteko funtzionala zen, bestelako elementuek arazo argiak sortzen zituzten bitartean (euskarak, adibidez, kanpoan utziko lituzke autoktono ugari). Bereizkeria hori, hala ere, immigrazioaren hasierako uneetarako izan zen baliagarri, eta, etorkinak euskal gizartean barneratzen joan ahala, funtzionala izateari utzi zion.

Euskal arrazaren ideia, hortaz, espainiarrekiko desberdintzeko eta euskal herritarrentzako (*euskotar*, idatziko luke Aranak) isolamendu nahia adierazteko erabiltzen den estrategia da nagusiki. Aldi berean, Aranarentzat euskal arraza purua zen eta ez zuen zerikusirik *espainiar arrazarekin*. Finean, arraza euskotarren izate independentearen erakusgarri da. Gainera, Conversik (1997: 61) azpimarratzen duen bezala, *arraz*a erabiliz Aranak ordura arte bere buruaz kontsiderazio eskasa izan zuen giza taldea baten –euskotarren– aldarrikapena burutu zuen, beste nazionalismo batzuek egin izan duten legez:

“For all nationalist movements a primary task is to instill in the people whom they wish to mobilise a sense of self-confidence. For this to occur, a subjugated nation must unequivocally rid itself of the sense of inferiority and shame to which it has been subjected over the centuries. The reverse of this negative self-image often takes the form of a radical upgrading of all positive traits of the would-be nation. Hence, an openly declared sense of superiority can develop *vis-à-vis* the outgroup”

Arrazak Aranaren diskurtsoak jokatzeko duen paperaren erakusgarri, esaldi andanaren artean (batzuk oso ezagunak) ondoko aipua adierazgarria delakoan gaude:

“el *maketo*: ihe ahí el enemigo!”

Y no me refiero a una clase determinada de *maketos*, sino a todas en general: todos los *maketos*, aristócratas y plebeyos, burgueses y proletarios, sabios e ignorantes, buenos y malos, todos son enemigos de nuestra Patria, más o menos francos, pero siempre encarnizados.

Y entiéndase que no los aborrecemos porque sí. Si el español se estuviese quedado en su tierra, no tendríamos por qué quererle mal.

Pero es nuestro dominador y nuestro parásito nacional: nos ha sometido y privándonos de la condición a que todo hombre y todo pueblo tiene derecho, la libertad; y nos está carcomiendo el cuerpo y aniquilando el espíritu, y aspira a nuestra muerte. ¿Cómo hemos de quererle bien?” (“Nuestros moros”, *Bizkaitarra*, 4. zkia., 1893ko abenduaren 17a, in Arana, 1980: 196).

Arraza berezi hori hizkuntza berezi batean azalerazten da: euskara. Hizkuntza, hortaz, elementu garrantzitsuenaren –arrazaren– agerpena da, eta ikuspegi honetatik da garrantzitsua: euskarak euskaldunen jatorri ez latino eta isolatua erakusten du eta, aldi berean, euskal jendea “garbi” mantentzeko tresna ezin hobea da. Arana beraren hitzetan, “el lenguaje es el gran medio de

preservarnos del contagio de los españoles y evitar el cruzamiento de las dos razas” (in Azurmendi, 1979: 122).

Jada ezaguna bihurtu den esaldi honetan islatzen da Aranaren jarrera arrazaren garrantziaren puntu honetan, bere planteamenduaren puntu gorena arraza dela zalantzarik gabe agertuz:

“Si desapareciese nuestra raza de estas montañas, y en éstas y con el nombre de *Euskeria* se constituyese la confederación de sus seis estados parciales, y cada uno de éstos se estableciese con la respectiva tradición de nuestra raza, con nuestra lengua y hasta con nuestras costumbres y carácter, esta *Euskeria* no sería nuestra Patria, sino otra *Euskeria* diferente.” (“Efectos de la invasión”, *Baserritarra*, 1897-07-11, in Arana, 1980: 1.328).

Aipatu dugun bezala, jarrera horren funtsa espainiarrekiko desberdintzea bilatzea zen. Zentzu horretan, Conversiren (1997: 198) hitzetan,

“Arana was only partly a racist, because it was exclusively the Spaniards who were the target of his contempt. His ‘racism’ was a situational one, driven by hatred of the Spanish mentality and political oppression.”

Halaber, Arana Espainiaren aurka borrokatzen zuten hainbat herriren alde agertu zela azpimarratzen da, jarrera arrazista ortodoxo batetik egin ez zitekeena; eta, adibidez, kubatarren, Amerikako indigenen edo Marokoko berbereen alde egin zuela (Conversi, 1997: 198, 17. oin-oharra; Douglass, 2004: 106; Zabaltza, 2005: 281).

Horrela, bere kritika eta erasoak espainiar jatorrikoengana (beti ere abizenei erreparatuz) bideratu zituen, hauei *maketo*⁵⁵ deituz. Espainiarra (eta Espainia bera, *Maketania* izendatuz) gutxietsiko du Aranak: nagia, zikina, motela, besteen lepotik bizi dena... Bizkaitarra (hasierako diskurtsoan; *euzkotarra* ondoren), aldiz, prestua, eskuzabala, langilea... (Azurmendi, 1979: 114). Eta euskal nazioarentzat errezeta argia planteatu zuen: espainiarrekin kontakturik ez izatea eta isolatzea⁵⁶.

Irainak muturreraino eramán zituela ez dugu ahantzi behar. Aipamen iraingarri andanaren artean, ondokoak esanguratsuak da:

“Gran número de ellos [*maketoak*] parece testimonio irrecusable de la teoría de Darwin, pues más que hombres semejan simios poco menos bestias que el gorila; no busquéis en sus rostros la expresión de la inteligencia humana ni de virtud alguna; su mirada sólo revela idiotismo y brutalidad.” (“Corrupción”, *Bizkaitarra*, 27. zkia., 1895eko maiatzak 31, in Arana, 1980: 593).

Conversik (1997: 198) zehazten digun bezala, hala ere, etorkinen aurkako jarrera gogor hori ez zen euskal nazionalistena bakarrik: “Later both nationalists and anti-nationalists resented the *maketos* as invaders.” Nahiz eta balizko *inbasio* horren irakurketa desberdina egin zuten euskal nazionalistek zein haien aurkakoek, lehenengoek prozesu horren irakurketa politikoa egin zuten.

Aranaren ikuspegi horrek euskal gizartea guztiz zatitzen zuen, euskal nazio kontzientzia ia existitzen ez zen garai batean euskal identitatea eta jarrera politiko independentista erradikala azpimarratu nahi baitzuen. Bistan denez,

⁵⁵ Xabier Kintanaren arabera (1975: *Euskal Hiztegi modernoa*, Bilbo: Cinsa, 287), *maketo* Kantabriako *montañesen* hitza da, gaztelauak gutxiesteko erabilia. Aranak espainiarrez aritzeko erabili zuen.

⁵⁶ Espainiar jatorriko atzerritarrak eta gainontzekoak ere desberdindu egiten zituen. Horrela, etorkizuneko Bizkaia independentearentzat mota honetako legeak aurrikusten zituen Aranak: Atzerritarrak euren kontsulekin harremana edukita Bizkaian bizitzeko aukera izango duten bitartean, espainiarrek ezingo dute independentziako lehen urteetan Bizkaira sartu (“La pureza de la raza”, *Bizkaitarra*, 24, 1895-03-31, in Arana 1980: 546).

hain ugariak ziren jatorri espainiarreko etorkinen integrazioa zaildu ez, baizik eta ezinezko egiten zuen. Euskal nazionalismo aranistak *Euzkadiren* proiektu politikoa plazaratu eta espainiarrekiko desberdintasunak azpimarratzea zuen helburu, integrazioaren aurka eginez. Euskara zentzu honetan, integrazioa ekiditeko tresna ezin hobetzat ikusten zuen:

“Para nosotros sería la ruina el que los maketos residentes en nuestro territorio hablasen euskera (...). Tanto están obligados los bizkainos a hablar su lengua nacional, como a no enseñársela a los maketos o españoles.” (“Minuta: Errores catalanistas”, *Bizkaitarra*, 1894-10-31, in Arana, 1980: 404).

Ikuspegi horrek euskal nazionalismoaren hedapena oztopatzen zuen, euskal nazioarekin kide egiteko betebeharrak ugariak eta zailak bete behar baitziren⁵⁷ (denborarekin leunduz joan zirenak).

Aranaren nazionalismo hau bere testuinguruan ulertu behar dugu. Euskal Herria, eta Bizkaia bereziki, gizarte aldaketa prozesu sakon batean murgildurik zegoen: egitura tradizionalen galera, gizarte klaseetan aldaketak (langile klase berri eta ugari baten sorrera), mugimendu politiko zaharren krisia eta berrien agerpena eta abar. Aldaketa testuinguru honetan, Sabin Aranak Euskal Herriko gizartean zeuden hainbat sentimendu (foruen galeragatiko ezinegona, esaterako) ulertzeko gakoak eman zituen⁵⁸, narrazio historiko batean kokatu zituen, zentzua emanez, eta proiektu politiko bat eskaini zuen: euskal lurraldeen independentzia.

Horrekin batera, krisi sozial horren aurrean, norabide desberdineko erantzun erradikalak garatu zituen: erreferentzia marko gisa Espainia hartzen zuten aurreko ideologiei (tradizionalismoa, alfonsinismoa, katolizismo

⁵⁷ 1894ko uztailan inauguratutako *Euzkeldun Batzokija* delakoko kide egiteko estatutuek erakusten zuten bezala: *Jatorrizko bazkide, adoptatutako bazkide eta zale [adicto]* arteko bereizketa egiten da, bazkideak dituen euskal abizen kopuruaren arabera (Larronde, 1977: 187).

⁵⁸ Beste gauza bat da gako horiek, historian oinarritutakoak adibidez, errealak ote ziren edo ondo formulatuak ote zeuden. Baina hori alde batera utzita, Euskal Herriko gizartearen zati batek errealtzat hartu zituen, eta ideia horrek eragin objektibo nabarmenak izan zituen.

politikoa) aurka egitea, *antimaketismo* eta antisozialismo indartsu batez lagundurik (De Pablo et al., 1999: 62). Langile mugimenduaren aurkako jarrera hori etorkinen aurkako erreakzioa ere bada, XIX. mende bukaeran, etorkinak oso ugariak baitziren langileen artean, Bizkaian batik bat.

Aranaren euskal nazionalismoarentzat etorkinak industrializazioak euskal gizartera eramandako *gaiztakeria* guztien sinbolo ziren. Ondorioz, *antimaketismo* deitutako jarrera honek industrializazioaren aurkako jarrerarekin batera zihoan. Etorkin hauek, gainera, langile xumeak izaki, talde sozialista espainiar zaleekin egin zuten bat, gehiengo zabal batean (aurrerago aipatuko dugun bezala).

Díez Medranok (1999: 98) zehazten digun bezala, hala ere, Aranaren etorkinen aurkako jarrera irmo hau Bizkaiko elite ekonomiko, politiko eta kulturalen aurka ere zabaltzen zen, eliteok “jarrera espainolistak” bere egin zituztelakoan. Halaber, eliteok etorkinen bizi baldintza gogorren erantzuletzat ere hartzen zituen.

Etorkinen gehiengo zabala, esan dugunez, langileek osatzen zuten. Hortaz, ezinbestekoa da Aranek immigrazioarekiko garatu posizio politikoaz ari bagara, honek langileen egoeraz eta eskubideez esandakoa ere kontuan izatea. Zentzu horretan, Aranek immigranteen bizi eta lan baldintza negargarrien aurrean sentsibilitatea erakutsi zuen, batetik; baina aldi berean, immigrazioa euskal gizartearen balizko *degradazio moralarekin* lotu zuen, bestetik. Aranek, bada, immigrazioa arrisku gisa ikusten zuen, bai bere ustez etorkinen zekartzaten arazoengatik, eta baita etorkinek sozialismoarekin bat egingo zutela uste zuelako ere. Horrela, *arrisku* horren aurrean, Aranek ekimen desberdinak planteatu zituen: a) langileen gutxieneko lan eta bizi baldintzak neurri batean errespetatuko lituzkeen gizarte politika baten aldeko jarrera, kapitalismoaren ondorio latzenak zuzentzeko asmoz; b) langile autoktonoak langile etorkinekiko bereizita antolatzea, erakunde klasista eta aldarrikatzaileetan, baina, aldi berean, kristau eta ez sozialistetan; eta c) langile autoktonoen eta nagusien

interesak adiskidetuko lituzkeen lan harreman batzuen sorrera (Fusi, 1984: 44-45)

Beraz, Aranaren planteamenduetan nolabaiteko kutsu antikapitalista (oso leuna) aurki badaiteke ere, bere planteamenduak ez zuen ekidin langile autoktonoen eta etorkinen arteko bereizketa, guztiz kontrakoa baizik. Aranaren aurreikuspena –langileek nagusiki espainiar sozialismoarekin bat egingo zutela– Arana beraren jardunak bultzatu zuen. Horrela, sozialismoak nagusitasuna lortu zuen batez ere Bizkaiko langileriaren artean⁵⁹.

Sabin Aranaren nazionalismoak proiektu politiko nazionalistaren eta etorkinen artean zulo sakona sortu zuen. Aranak euskal nazioaren ezaugarriak goraiatu zituen, bere aburuz nazio hori hiltzear dagoen momentu batean. Ondorioz, bere ikuspegitik euskal herritarrak direnak izango ditu bere mezuen xede, ez beste inor. Euskal herritar horiek espainiarrekin desberdintzea izango da bere helburua, horien nazio kontzientzia piztea, alegia. Eta horretarako, espainiarren aurkako jarrera diskurtsibo gogorra garatuko du, arrazaren diskurtsoa antiespainolismo horren zerbitzuan ipiniz.

1930eko hamarkadara arte, arraza euskal naziotasunaren esentzia gisa aldarrikatzen jarraitu zen, nahiz eta ikuspegi berriak ere agertzen hasi ziren (arrazak euskal nazioaren definizioan izaniko garapenerako, ik. Zabalo, 1998). Behin Sabin Arana hilik, euskal nazionalismoaren teoriarari nagusi batzuek jarraitu zuten naziotasuna eta arraza lotzen, politikoki ildo desberdinetan egon arren; batzuek Aranaren planteamenduak sistematizatzen saiatuz, eta beste batzuek garatzeko asmoa erakutsiz: Sabinen anaia Luis Arana, Aingeru Zabala, Engartzi Aranzadi *Kizkitza*, Aita Ibero, Jose Arriandiaga *Joala*...

Aita Ibero joera horren erakusle argia da. *Ami Vasco* izeneko idatzi batean naziotasunaren azalpen sistematiko bat egiten saiatu zen, Sabin Aranaren arraza ikuskera argitu nahian. Baina hizkuntza (kultura) eta arraza

⁵⁹ Sakontzeko, ik. Fusi (1984), hirugarren (“Movimiento obrero y nacionalismo vasco (1890-1936)”) eta laugarren (“El socialismo vasco (1886-1984)”) kapituluak batez ere.

(biologia) erabat nahastea lortu zuen⁶⁰. Bertan, zera azaltzen du: naziotasunaren adierazlea arraza da; eta arrazen arteko gertutasuna edo urruntasuna hizkuntzaren arabera argitzen da. Horrela,

“[la diversidad de razas se manifiesta] Por la identidad o diversidad de lenguas, de tal manera que, cuanto mayor sea la diferencia media entre las lenguas de dos naciones, mayor será la diferencia de razas que la separa. Así, v.g., el español difiere del chino más que del ruso y del ruso más que del francés”. (in Sarrailh de Ihartza, 2006: 303-304).

Hala ere, arrazak elementu sinboliko garrantzitsua izaten jarraitu bazuen ere, garrantzia galdu zuen elementu zehaztu bezala (abizen euskaldunen kopuru zehazteari utzi zitzaion, esaterako), praktika politikoan eta euskal nazionalismoaren gehiengoarentzat (Jáuregui, 1981: 17). Hau da, euskal nazionalismoaren baitan, nazioa arrazak definitzen jarraitu bazuen ere, arrazak maila sinbolikoa betetzera jo zuen; eta, poliki bada ere, proiektu eta sailkapen etnografikoak (*arrazak euskerianoko* kideak, mestizoak eta gainontzekoak) gainditzen joan ziren (Corcuera, 2001: 426).

Sabin Aranaren eta, orokorrean, euskal nazionalismoaren jarrera horren aurrean, Euskal Herriko eta, bereziki, Bizkaiko industria gunetara iritsitako etorkinen erreakzioa gertatzea ia ekidinezina izan zen⁶¹. Oso era laburtuan, erantzun hauetako batzuk aipatuko ditugu, euskal nazionalismoak etorkinen auziaren lanketan izandako garapenean ere eragina izan zutelako.

Etorkin gehienak, esan dugun bezala, langileak ziren. Bereziki Bizkaiko Meatzaldean biltzen ziren, eta klase sozial markatua osatu zuten. Garai hartan, beraz, euskal nazionalisten *maketoen* aurkako jarrera, langileen aurkako

⁶⁰ Sarrailh de Ihartzaren (Federiko Krutwig) (2006: 303) aburuz, Aita Iberoren azalpen hau nazionalismo sabindarrak bere sorreratik izan zuen kontzeptu nahasketaren adibide argia da.

⁶¹ Zehaztu dugun bezala, ez dugu ahanzi behar etorkinen aurkako jarrera hori euskal nazionalistena ez ezik, euskal nazionalisten aurkako gizarte sektore autoktono ugarirena ere bazela (Conversi, 2004: 234).

ikuspegi gisa ikusten zen, salatzen zituzten etorkin horien gehiengo zabala langile xumeak ziren-eta. Langileon zati handi batek, gainera, bere egoerari alternatiba zehatza eskaintzen zion mugimendu politiko ia bakarrarekin egin zuen bat: Alderdi Sozialistarekin (PSOE) eta UGT sindikatuarekin⁶².

Bi antolakunde horietan antolatutako sozialistek, beraz, euskal nazionalismoa euskal kapitalisten ideologiatzat hartu zuten, haien gizarte oinarria (langile etorkinak) sutsuki iraintzen zuena, gainera. Horrela, oro har, sozialistek euskal nazionalismoa beren interesen aurkako indartzat jotzen zuten. Horrek, era berean, ondokoa ekarri zuen: Bizkaiko sozialismoak⁶³, orokorrean, euskal identitatea eta kulturarekiko harreman ezkor eta urruna mantendu zuen. Sozialisten *La Lucha de Clases* egunkarian, euskal nazionalisten aurka ekiten zen XIX. mendearen bukaera horretan, eta “los mamarrachos partidarios de la patria microscópica” edo “esa chochez de nacionalismo que representa un retroceso” bezalako esamoldeak erabiltzen zituzten (in Rivera, 2003: 54).

Sozialistek, hasieran, internazionalismoaren alde egin zuten nazionalismo oro kritikatu, baina ondoren (eta hori izan zen gailendu zen jokabidea), jarrera espainolista argia hartu zuten. Aukera horrekin, Solozábal, Corcuera eta Fusi historialariek nabarmentzen dutenez, espainiar sozialismoa Europako gainerako sozialisten eraginetik at kokatu ziren (in Aierdi, 1993: 129). Nazioarteko sozialismoaren eztabaidetatik aldendu ziren, beraz⁶⁴. Espainiaren

⁶² Bizkaiko langileen artean, bada, PSOE alderdia eta UGT sindikatua bilakatu ziren erakunde nagusiak, beste batzuren gainera (CNT sindikatuak ordezkatutako anarkosindikalismoa, eta abar). *Partido Socialista Obrero Español* alderdia (PSOE) 1879an sortu zen, eta 1886an Euskal Herriko lehenengo komitea eratu zen, Bilbon. Ondoren *Unión General de Trabajadores* sindikatua (UGT) sortu zen, 1888an. 1921ean Sobietar Batasun berriak bultzatuta, *Partido Comunista de España* (PCE) sortu zen, eta 1935ean PCE/EPK, *Euzkadiko Partidu Komunista*. Honek, halere, bestelako iritzia landu zuen Euskal Herriaren eskubide politikoei buruz.

⁶³ Alta, Eibarko sozialismoak berezko ezaugarriak bazituen. Euskara eta euskal identitatearekiko lotura handiagoa zuen (inguruaren beraren egoera desberdina zela medio: zonalde euskalduna, bertako langileen kopuru altua, eta abar). Planteamendu politikoak, baina, antzekoak ziren oinarrian, nahiz eta Eibarren euskal nazio arazoarekiko gertutasuna ere erakusten zuen batzuetan. 1931n, adibidez, autonomiaren eta estatutuaren aldeko adierazpena egin zuten Eibarko Udalean (Bizkai eta Eibarko sozialismoaren desberdintasunetarako, besteak beste ik. Rivera, 2003: 67-71; Fusi, 1984: 48; Eguiguren, 1994: 27-34).

⁶⁴ Eztabaida horien artean, *austromarxistek* proposatutakoa nabarmendu daiteke. Renner eta Bauer erreferentetzat zituen ildo horrek, Austria-Hungariako Inperioaren testuinguruan, estatu sozialista baten barneko nazio autonomiak proposatu zituzten, naziotasuna herritarraren aukeran utzita (ik. Bauer, 1979).

aldeko ildo horretan, orduko Bizkaiko sozialismoaren gertuko figura baten idatziek (*La Lucha de Clases* organo sozialistan beti ere) eragin handia izan zuten: Miguel Unamuno⁶⁵, hain zuzen ere. Beste autore sozialista garrantzitsu bat Felipe Carretero izan zen, Bizkaiko Federazio Sozialistako burua. Honek *Crítica al nacionalismo vasco o historia compendiada de las causas de la decadencia y desaparición de las leyes forales vascas* argitara eman zuen 1902 edo 1913an (data ez dago argi). Bertan, euskara –bera euskalduna zen– eta euskal autonomiaren aurka egiten zuen buruzagi sozialistak; eta baita euskal nazionalismoaren aurka ere. Horrela zioen *La Lucha de Clases*-ko artikulu batean:

“Los socialistas hemos combatido en todo tiempo el nacionalismo de Arana por considerarlo inhumano, insolidario, pobre de concepción y de espíritu, fundado en un odio injusto hacia el resto de españoles y por ser altamente incivilizador y reaccionario” (“Contestando”, 1902ko ekainaren 21a, in Rivera, 2006: 61).

Baina, esan dugunez, jarrera ezkorra ez zen euskal nazionalismora mugatu (euskal nazionalismoaren etorkinenganako jarrera ikusita, bestalde, logikoa izan zitekeen erantzuna), baizik eta euskal identitatearen zeinu garrantzitsu batzuen aurka ere hedatu zen. Gernikako arbola, horrela, “alcornoque”, “chopo” edota “arbolito enfermo y el tronco pintado de *galipot*” izendatu zuten *La Lucha de Clases*-en (Ibidem, 93). Eta euskararen aurka ere ekiten zen, Mendivek *El Liberal* sozialisten eta errepublikarren kazetan, adibidez:

“(…) las generaciones nuevas no sienten la necesidad de aprenderlo, porque ninguna utilidad, ninguna enseñanza les

⁶⁵ Unamuno bilbotarra, gaztaroan euskaltzaletasunetik gertu ibili ostean (euskara ikasi zuen Madrilen ikasle zela), sozialismora gerturatu zen, eta Bilboko PSOEko kide bilakatu zen. Hala ere, ondoren Alderdi Sozialistarekin apurtu zuen (ez zen inoiz beste alderdi bateko kide egin), nahiz eta ideologikoki gertu mantendu, ildo liberal eta errepublikarretan, espainiar nazionalismoaz horniturik, beti ere. Aurrerago, bilakaera gehiago bizi izan zituen, eta adibidez 1936ko estatu kolpearen alde agertu zen, jarraian altxatuen aurka egiteko. Pertsonaia konplexua izan zen Unamuno. Bere biografia interesgarri bat, Euskal Herriko ikuspegitik egina, hemen topa daiteke: Soto eta Soto, 2006.

reportaría. ¿Qué obras maestras se han escrito en vascuence? ¿Qué obras de filosofía, de literatura, de poesía existen? ¿Qué matices de pensamiento humano han sido reflejados por medio de esta lengua? No hay nada: es un idioma vacío, sin ideas y sin espíritu. (...) en fin, puede con el vascuence vivirse una vida primitiva, de choza y aprisco, una vida tan sencilla y tan natural, que más parece lengua para uso de irracionales. (...) Pero esto del vascuence es una de tantas farsas del nacionalismo. Quieren fundamentar en la lengua la diferencia de raza; más es lo cierto, que en castellano hacen sus negocios y en castellano viven.” (1917ko maiatzaren 16, 20 eta 21a, in Rivera, 2003: 133).

Sozialismoak, ondorioz, euskal nazionalismoaren aurkako erantzun gogorra garatu zuen. Aurreko puntuan ikusi dugun bezala, euskal nazionalismoak etorkinen integraziorako zirrikiturik uzten ez zuen egoera batean, etorkinen gehiengoa biltzen zuen mugimendu politikoaren (sozialismoa) erantzuna bestelakoa izatea, oso zaila zen. Gainera, sozialismoaren ikuspegia azaltzeko, neurri batean, mugimendu horren osaera immigrantea azpimarratzen da, mugimendu politikoa bera baldintzatzen zuena: “(...) difícilmente podían unas clases trabajadoras emocional y culturalmente españolistas interesarse por problemas y aspiraciones –los puramente vascos– ajenos a sus tradiciones y creencias más arraigadas.” (Fusi, 1979: 53).

Alderdi Sozialistaren barnean ñabardurak izan baziren ere (Eibar jartzen da adibide gisa), ezkortasun hori euskal identitate zeinuen aurka ere hedatu zen, hortaz. Horrela, Solozábalek (1979: 202) nabarmentzen duenez, sozialisten jarrera horren atzean euskal ezaugarriak eta euskalduntasuna ulertzeko gaitasun eza zegoen. Espainiar izatea modu *uniformizatzailean* ulertzen zuten, eta horrek galzorian zegoen herri baten ezaugarriak eta pairatzen zituen egoera injustuak ulertzeko ezgaitu zituen.

Euskal nazionalismoaren hasierako jardun horrek, etorkinen integrazioa baztertuz, Euskal Herriko biztanleriaren sektore numerikoki garrantzitsuetan

euskal nazionalismoa hedatzea galarazten zuen. Ondorioz, mugimenduak gertatzen hasi ziren euskal nazionalismoaren baitan, jarrera horrek bere proiektu politikoarentzat eragiten zuen mugaz kontziente ziren sektoreetan.

2.3. Hasierako euskal nazionalismoa: integraziorako urratsak

Sabin Aranaren ikuspegiarekin estuki loturiko hasierako euskal nazionalismo horretan, integraziorako lehen urratsak hastapenetatik ematen hasi ziren, nahiz eta hasieran planteamendu nahikoa isolatuak izan. Garapen edo aldaketa hori maila teorikoan zein praktikoan gauzatu zen.

Maila teorikoan, 1901 data goiztiarrean, Arturo Kanpion nafarrak euskal naziotasuna arrazan soilik eta era hertsiki batean oinarritzearen kontrakotasuna azpimarratu zuen:

“los gabinetes antropológicos no son los encargados de expedir a los pueblos certificaciones de derecho a la existencia nacional. (...) Si la pureza de raza se hubiera de atender, no existiría en Europa pueblo con derecho a construir nación.” (...) “Levantar la nacionalidad sobre la base étnica exclusivamente es un absurdo (...) Las nacionalidades son *formaciones históricas* en las cuales obran, con mayor o menor energía, factores físicos, entre los cuales está la raza.” (*Euskalduna*-ko zuzendariari gutuna, Iruñea, 1901-12-9, in Corcuera, 2001: 429).

Kanpionentzat arraza euskal nazioaren ezaugarrietako bat zen, baina ez funtsezkoena. Bere aburuz, euskal nazioaren ezaugarri behinena hizkuntza zen, halako moldez, non euskara desagertzeak Euskal Herria ere desagertzea ekarriko bailuke (Huici, 1981; Jáuregui, 1981: 159).

Maila praktikoan ere, aipatu bezala, arrazaren gaineko sailkatze lan zurruna berehala leundu zen. 1899tik aurrera, behin EAJk hauteskunde arloan garrantzia lortzearekin batera, EAJko kide egiteko abizen euskaldunak eduki beharra alboratu zen. Eta propaganda mailan, euskal nazioaren kide izateko ezaugarri berriak azpimarratzen hasi ziren, arraza planteamendua guztiz alboratu gabe: aberriarekiko maitasuna, euskara eta Euskal Herriarekiko lotura zehaztugabea, kasu (Corcuera, 2001: 430).

EAJren nazionalismo aranista gaindituz, euskal nazionalismo berri baten sorreraren alde ekin zuen lehenetarikoa Francisco Ulazia izan zen, Bilbon zinegotzi jeltzalea izatetik, ikuspegi liberal ezkertiarra igaro zen medikua (Estornés, d.g.-a)⁶⁶, eta Eusko Abertzale Ekintzaren nazionalismo ezkertiarren aurrekaritzat hartzen dena (De la Granja, 2008: XXIX-XXX). Ulaziak jeltzaleekiko zuen desberdintasun nagusia erlijioak euskal nazionalismoan betetzen zuen eginkizunari buruzkoa izan zen, honek nazionalismo laiko baten alde egin baitzuen modu argian. Iritsi berriekiko jarrerari dagokionez, halaber, Ulaziaren nazionalista-errepublikar bakanen jarrerak berritasunak ekarri zituen:

“(…) frente al "Antimaketismo" sabiniano los republicano-nacionalistas ahogaban [sic] «por la concordia y armonía con todos los elementos extraños del país» y contra el concepto de nación definido en términos esencialmente raciales y medido según el número de apellidos vascos, Ulacia y amigos propusieron un nacionalismo más voluntarista, dejando a cada ciudadano la libre opción de integrarse o no en la nación vasca por su voluntad y sus acciones («El Arbol se conoce por sus frutos»)." (Mees, 1989: 262)⁶⁷.

⁶⁶ Ulazia *ezkerreko euskal nazionalista eta errepublikazale federal* moduan definitzen du De la Granjak (2008: 8-10).

⁶⁷ Hala ere, Meesek (1989: 260) dioenez, aldi berean, Ulaziak *maketoen* aurkako jarrera – gizartean hedaturik zegoen iritzia, bestalde– erakutsi zuen literatura-lan batzuetan.

Hala eta guztiz ere, ikuskera hori antolatzeko saiakerek (1910eko *Partido Nacionalista Vasco Liberal* eta 1911ko *Partido Nacionalista Republicano Vasco*) huts egin zuten, eta bere planteamenduak euskal nazionalismoaren gizarte oinarrian zabaldu gabe geratu ziren (Estornés, d.g.-b; Mees, 1989).

Oinarri nazionalistan *maketoen* aurkako jarrerak indartsu zirauten, bereziki langile espainiarren aurkako jarrera gisa, eta aurreiritzi bati (arrazan baino, askotan klase sozialean oinarritua), nolabaiteko arrazoibidea eskaintzen zitzaion horrela. Gizarte *distintzioa* bilatzen zen modu horretan. Corcuerak (2001: 431) dioskun bezala, “La idea de superioridad racial permitió que determinados sectores autóctonos (particularmente de la pequeña burguesía urbana y del proletariado vasco) se creyeran “superiores” al inmigrante foráneo”.

Baina pauso garrantzitsu bat emana zegoen, hots, arrazan batik bat oinarrituriko ikuspegi politikoari elementu berriak gehitzea; eta arraza elementu horietako bat gehiago bilakatu zen.

1920ko hamarkadan, Beltzak (1974: 181-185) zehazten duen legez, euskal nazionalismoa krisi sakonean murgilduta zegoen. EAJ *Comunión Nacionalista* bihurtu zen, eta 1920ko abenduaren 19ko Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan emaitza kaskarrak lortu zituen (eserleku bakarra; Aranzadirena Nafarroatik)⁶⁸. 1921ean, euskal nazionalista gazteek, Eli Gallastegi *Gudari* erreferente nagusi zutela, *Aberri* astekaria sortu zuten. Hauek *Comuniónen* kolaborazionismoa salatu zuten eta gizarte problematikarekiko gertutasuna erakutsi, oinarrian Aranaren ikuspegitik aldendu gabe. Jarrera horrek langile mugimendura gerturatu zituen, eta sozialista zein komunistekin gertutasuna adierazi zuten hainbat artikulutan. *Aberrikoak* euskal nazionalismoaren barruan gutxiengoa izan baziren ere, klase gatazkarekiko gertutasun horrek etorkinenganako jarreraren aldaketan eragina izan zuen, garai hartan langile mugimenduan immigranteak nagusi baitziren. 1930etik

⁶⁸ Bi urte lehenago, 1918ko otsailaren 24an zazpi ordezkari lortu zituen EAJk: bana Nafarroan eta Gipuzkoan, eta bost Bizkaian (Beltza, 1974: 178).

1934ra *Comuniónek* eta Aberrikoek berriz sortutako EAJk bat egingo dute, jatorrizko izenarekin. Batasunak, baina, lau urte besterik ez zituen iraun, Eli Gallastegiren ingurukoek Jagi-Jagi sortu baitzuen, hurrengo puntuan azalduko dugun bezala.

Lehenago, 1930ean, bestalde, aldaketa berria gertatu zen euskal nazionalismoan: Eusko Abertzale Ekintza (EAE-ANV) alderdiaren sorrera⁶⁹. Justu EAJ berbatu berria sortzen ari zen garaian, batik bat *Comuniónetik* zetozen zenbait abertzalek Aranaren pentsamendua gaindituko zuen euskal nazionalismo berri baten beharra ikusi eta EAE sortu zuten⁷⁰. Hauteskunde arloan nahiko mugatua geratu arren (1931ko Gorte Eratzaileetarako hauteskundeetan, esaterako, ez zuen ordezkariarik erdietsi), EAJtik kanpo eta ikuspegi ez aranista batetik euskal nazionalismoaren ikuskera berria planteatu zuen, ezkerreko abertzaletasunaren aurrekaritzat hartuz⁷¹. Jelkideen *Jaungoikua eta lagi zarraren ordeiz, Euskadi libre con hombres libres* lelotzat hartu zuen. Nazionalismo jeltzalearekiko desberdintasun nagusia, hemen ere, erlijioak abertzaletasunaren baitan izan beharreko paperari buruzkoa izan zen, EAEk jarrera akonfesional argia baitzuen. Horrekin batera, *ekintzaleek* jarrera aurrerakoa garatu zuten, eta 1936ko Gerra gerturatuz zihoala ezkerreko ikuspegian sakondu zuten (De la Granja, 2008: 62 eta hur.). Etorrinekiko jarrera berria erakutsi zuen, gainera, hauei alderdiaren ateak irekiz (De la Granja, 1995: 41). Díez Medranok (1999: 104) dioen legez,

⁶⁹ Eusko Abertzale Ekintzaren sorrera eta 1936ko Gerrara arteko garapenerako, ik. De la Granja, 2008. 1980ko hamarkadara arteko alderdiaren historia baterako, ik. Renobales, 2005.

⁷⁰ Sorrerari dagokionez, De la Granjaren (2008) aburuz, Eusko Abertzale Ekintza EAJren bereizketa da. Renobalesek (2005), aitzitik, EAE Alderdi Jeltzalea berbatu baino 15 egun lehenago jada egituratua zegoela azpimarratzen du (nahiz eta oraindik modu ofizialean sortu gabea izan), eta banaketatzat hartuz gero, *Comuniónen* bereizketatzat eta ez EAJkotzat hartu beharko litzatekeela defendatzen du. Hala ere, bi egileak bat datoz EAEko sortzaile gehienak *Comuniónen* ildotik zetozela azaltzerakoan, Jagi-Jagi ildokoak bakan batzuk ziren bitartean.

⁷¹ Hala ere, bi ikuspegi bereizi daitezke EAE ezkerreko abertzaletasunaren aurrekaritzat definitzen dutenen artean. De la Granjarentzat (2008), horrela, Eusko Abertzale Ekintzarena *nazionalismo heterodoxo* bat izan zen, euskal nazionalismoaren hirugarren adar bat, eta Euskadiko Ezkerraren enborrean kokatzen du. EAJk ordezkaturiko luke *nazionalismo tradizionala*; eta hirugarrena *nazionalismo erradikala* litzateke, De la Granjarentzat Jagi-Jagirekin jaio zena eta ETA zein Ezker Abertzalean jarraipena izan zuena.

Trantsizioaz osteko Eusko Abertzale Ekintzako buruzagiek (in Renobales, 2005), bestetik, EAE Ezker Abertzalearen aurrekari moduan ulertzen dute, euskal nazionalismoari ezkerreko ikuspegi argia atxiki zion lehen mugimendua izan zelako.

“Su programa nacionalista [EAE-ANVrena] era el único en rechazar el racismo de Arana, su fundamentalismo religioso y la independencia como objetivo. Defendían en cambio la autodeterminación sobre la base de principios seculares y autonomistas.”

EAEren agerkarian horrela azaltzen zuten arrazak balio politikorik ez zuela:

“Para el Partido nacionalista, ha existido el concepto de la raza. Una casta noble, decían, la nuestra. Y todas las demás degeneradas.

Para nosotros es evidente que el derecho de la nacionalidad se basa en la existencia de una raza, de un idioma y de unas características; pero es igualmente innegable que quien llega a nuestra tierra no a esclavizarla, no a aniquilarla, no a destruirla, sino a trabajar en ella, ése es tan vasco como nosotros” (Juan de Zuazo, “Antecedentes del nacionalismo”, *Tierra Vasca*, 1933-06-25; in Elorza, 1978: 418).

Eusko Abertzale Ekintzak berrikuntza ekarri zuen euskal nazionalismoaren baitan, Sabin Aranaren planteamendu hertsietatik –JELetik– kanpoko lehen euskal nazionalismoa eratuz. EAJren nazionalismo erlijiozalearekin hautsi, eta nazionalismo aurrerakoi bat proposatu zuen, abertzale ez ziren alderdi ezkertiarrekin lankidetzara ere bultzatuz, batzuetan. EAE, hala ere, ez zen inoiz alderdi handia izan, eta ez zuen EAJren hegemoniarekin lehiatzerik izan, baserri inguruetan batez ere (esaterako, bere eragin gune nagusia Barakaldo izan zen). Alderdia sortu eta sei urtera, estatu kolpea eta ondorengo guda jazo ziren. Nahiz eta ordurako *ekintzaleek*, lurralde gehienetan, Fronte Popularrarekin bat egin zuten, eta bere barruko sektore

batzuek jarrera sozialistak bereganatu zituzten, gerrak alderdi txikiaren bilakaera moztu zuen⁷².

2.3.1. Gogoetak Jagi-Jagin

Eusko Abertzale Ekintza sortu zen aldi bertsuan, 1930eko hamarkadatik aurrera, EAJren inguruko⁷³ Jagi-Jagiko sektoreek⁷⁴ (Eli Gallastegi, *Gudari*, eta Manu Sota bereziki) Aranaren mezuan sutsuki oin hartuz, arrazaren eta nazioaren arteko hartu-emanen alorrean berritasunak ekarri zituzten. Aranaren aldarrikapenezko planteamendua praktikara era iraunkor batean eramateko, diskurtso eta jarrera berriak jorratu behar ziren, euskal nazionalismoaren diskurtsotik eratorritako praktika politikoak eraginkorra izan nahi bazuen. Horrela, Euskal Herriko errealitate etniko anitza kontuan hartu beharko zen, eta diskurtsoa pertsonalizatzera jo behar zen (etorkina definitu gabeko *maketo* baino, behar eta asmo propioak zituen pertsona eta kide bezala tratatzea, hain zuzen).

1931n gertaera garrantzitsua jazo zen, gainera: jatorri espainiarreko langile batek, Acero y Juncosa izenekoa, bizia galdu zuen *euskal askatasunaren defentsan*; eta, dirudienez, *Partido Republicano Radical Socialistako* militante batek hil zuen⁷⁵. Gaurko begietatik ikusita gertaera ez deusa dirudienak, garrantzi handia izan zuen euskal mugimendu nazionalistan, batez ere Jagi-

⁷² Alderdia ez zen desagertu, eta erbestean egiturak mantendu eta agerkariak plazaratu zituen. Trantsizioaren garaian, berriro EA Eren taldeak aritu ziren Hego Euskal Herrian (tarte batean *Acción Nacionalista Vasca-Eusko Sozialista Ekintza* izena hartuz), baina bere eragina oso txikia izan zen. Ondoren, Herri Batasuna koalizioaren sorreran parte hartu zuen.

⁷³ EAJ 1916an *Comunión Nacionalista Vasca* bilakatu zen, politika erlijiozale eta eskuindarra gailenduz eta independentziazaletasuna alboratuz. 1921ean, *Aberrri* aldizkariko sektore independentistek (tarteetan Eli Gallastegi), *Comuniónen* jarrerari aurre eginez, PNV berria sortu zuten. 1930ean, euskal nazionalismoaren bi adarrek bat egin zuten, PNV izenarekin. 1934an Jagi-Jagi EAJtik atera zen, baina bere garapena 1936ko Gerrak eten zuen (sakontzeko, ik. De Pablo et al., 1999; De la Granja, 1995).

⁷⁴ *Jagi-Jagi* Bizkaiko Mendigoizale Batzaren astekaria zen eta Eli Gallastegi *Gudari* zen bere ordezkariarik ezagunena. 1934an EAJtik aldentu zen, jarrera independentista erradikal bat mantenduz. Era berean, posizio antikapitalistak (ez marxistak) mantentzen zituen. 1921ean sortutako EAJren (edo PNV-Aberrri) jarraitzailea izan zen (Gallastegi, 1993; De la Granja, 1995: 44).

⁷⁵ *Jagi-Jagi*, 28 zkia., 1933ko apirilaren 8a (in López eta Fernández, 2011).

Jagiren inguruan, taldeko kide esanguratsuenen idatziek adierazten duten bezala (in Gallastegi, 1993: 110 eta 113). *Arraza zapaltzaileko* kide bat, *maketo* bat, *etsaia* izateko ezaugarri guztiak betetzen zituen norbanako batek (mota horretako izendapenak ugariak ziren garaiko literatura nazionalistan, eta *Jagi-Jagin* bertan) bizia eman zuen euskal kausa nazionalistaren alde. *Jagi-Jagin* espainiar jatorrikoak iraintzen zituzten abertzaleei zuzenduz, langile horren kasua azpimarratzen zuen Gallastegik:

“yo les rogaré que callen sus labios por respeto a la memoria de aquel obrero de sangre española que dio su vida por la libertad de nuestra Patria Vasca, y que se apellidaba Acero y Juncosa.”
(Ibidem, 110).

Eta Manu Sotak (hau ere abizen erdalduneko euskal nazionalista) Acero y Juncosaren aldeko omenaldi batera deituko ditu abertzaleak eta, horien artean, “[los] *arrotzak* al servicio de Euzkadi”, hots, abizen erdaldunak zituzten euskal nazionalistak (*Jagi-Jagi* 22, 1933, in Gallastegi, 1993: 113).

Gertaera horrek, era berean, arrazari buruzko euskal nazionalismoaren diskurtsoa praktikan hain zurruna ez zela erakusten digu, baldin eta Acero y Juncosaren kasuak erakusten duen moduan, abertzaletasunaren lerroetan Euskal Herritik at jaiotako pertsonak ugariak baziren⁷⁶.

Eli Gallastegi eta *Jagi-Jagi* aldizkariaren ingurukoek, beraz, planteamendu berriak jorratzen hasi ziren euskal nazioaren ikuskeran etorkinek izan beharreko lekuaz, nahiz eta maila teorikoan –Sabin Aranaren jarraitzaile sutsuak ziren heinean– arrazak leku inportantea betetzen jarraitzen zuen⁷⁷. Horrela esango dute *Jagi-Jagi*-n 1932an, errealitatearen aurrean atsekabe puntu bat eta kontrakotasun nabaria agertuz, hala ere:

⁷⁶ Euskal abizenekiko, esan dugun bezala, XIX. mende bukaeratik malgua zen euskal nazionalismoa. Jaiotzak, hala ere, badirudi ezaugarri garrantzitsua izaten jarraitu zuela.

⁷⁷ Eli Gallastegiren hitzetan: “Somos vascos, por raza, por idioma, por tradición, por instituciones, por costumbres, vascos por deseo y voluntad...” (in Jáuregui, 1981: 22).

“Pretender que la futura República Vasca sea un Estado limpio de razas extrañas, es tan absurdo como creer que pueda haber un vino sin alcohol (...) La consecuencia desgraciada es, el cruzamiento inseparable de ambas razas.” (Gallastegi, 1993: 109).

Errealitatearen onarpen horretan arrazak leku nabarmena zuen, gizabanakoak aztertzerakoan funtsezkoa ikusten baitzuten. Baina jatorriagatiko mespretxua, euskal nazionalismoaren gizarte oinarrian hedaturik ikusten zuten jarrera, gaitzetsi zuten: “No hay en el mundo sentimiento más abyecto, que el del desprecio a nuestros semejantes, por motivos de orgullo racial” (Ibidem, 110). Ondorioz, *maketoaz* hitz egiteko modu berria⁷⁸ erabili zuten (determinismoetatik urrun) eta *maketo* deiturikoek, nahi izanez gero, euskal herritar bilakatzeko aukera bazutela adierazi zuten: “el castellano (...) que se residencia aquí es absorbido por el medio ambiente” (1993: 111). Ondorioz, Manu Sotaren hitzetan:

“entre el *maketo* vasquizado y el vasco *maketizado*, ¿cuál hemos de escoger con más predilección? La contestación, a mi juicio, no tiene duda. El primero, (...) muchos Pérez y Fernández, están dando lecciones de nacionalismo y de sacrificarse por Euzkadi.” (in Gallastegi, 1993: 112).

Eli Gallastegi eta Manu Sota bezalako abertzaleek egitate horiek (mugimendu nazionalistan jada ugariak ziren deitura erdalduneko lagunen presentzia, eta Euskal Herriko biztanleriaren jatorri etniko anitza) azpimarratu behar izan zituzten, euskal nazionalismoaren baitan nabaritzen zituzten jarrera xenofoboeri aurre egiteko. Orokorrean, hortaz, euskal nazionalismoan etorkinen aurkako diskurtsoa nahiko zabaldua zegoela ondoriozta dezakegu, nahiz eta aurrekoarekin kontraesanean, geroz eta etorkin gehiago ziren euskal nazionalismoaren jarraitzaile eta kideak.

⁷⁸ *Maketo* terminoa ez dute oso gustuko: “No ocultaré mi satisfacción por haber caído en desuso el término *maketo*, ya que llevaba ese estigma despectivo que comunica a los calificativos un sabor insultante y anticristiana” (Gallastegi, 1993: 111).

Jagi-Jagiko testuok, beraz, euskal nazionalismoaren baitan gertaturiko garapenez zantzuak ematen dizkigute, etorkinak onartzen zituen ikuspegia nagusia izan ez zela azpimarratu behar dugun arren. Sabin Aranak irekitako tradizio nazionalistaren baitan, eta bere ideien jarraitzaile eta defendatzaile izanda, etorkinekiko integrazio asmoa erakusten hasten da, Aranaren testuetan inondik inora sumatzen ez dena. Eli Gallastegi eta bere kideek, jatorri desberdinak izan arren, helburu berak izan zitzaizkela azpimarratzen zuten; eta, jatorrien gaintik, bizi ziren lurraldearen alde ekiteko garaian batzeko deia luzatu zuten. *Arraza* paper sinbolikoa betetzera pasatzen hasiko da, beraz. Hala ere, prozesu horren hastapenak soilik izan zirela ulertu behar dugu eta, horregatik, kontraesanez beterikoa izan zela: aipatutako aldarrikapen horiek egitearekin batera, arrazak oraindik paper zentrala betetzen zuen euskal nazioa ulertzeko moduan (zalantzarik gabekoa *Jagi-Jagiko* aranazaleen kasuan) eta immigranteen aurkako aldarriek ugariak izaten jarraitu zuten⁷⁹. Izan ere, errotikako aldaketa hamarkada batzuk aurrerago jazo zen, ikusiko dugun bezala.

Diskurtso berri hori, aipatu dugu jada, euskal nazionalismoaren sektore txiki batek egiten zuen berea, mugimenduaren gizarte oinarrian bestelako jarrerak nagusi ziren bitartean. Horrela, ez da ahantzi behar arrazaren garrantziak programa nazionalistan garrantzitsua izaten jarraitu zuela, era inplizituan bada ere (Conversi, 1997: 199). Hala ere, euskal nazionalismoaren hasieratik bertatik (Arturo Kanpion, kasu), etorkinenganako posizio irekiagoa erakusten duten hausnarketak sortu ziren. Horrek arrazak euskal nazioaren ulerkuntzan izan beharreko lekuaz gertatu ziren aldaketak erakusten dizkigu. Euskal nazioaren ideian, arraza elementu definitzailea izatetik maila sinbolikoa (eta horregatik ez garrantzirik gabekoa) betetzera igaro zen euskal nazionalismoarentzat. Benetako haustura, hots, euskal nazioa arrazaren ordezkuntzan oinarrituko denean, 1950eko hamarkadatik aurrera joan zen nagusitzen. Horrekin batera, etorkinekiko diskurtsoa bazterketatik (Arana)

⁷⁹ Egile batzuek *Jagi-Jagiko* idatzi gehienetan islatzen den ikuspegi hori azpimarratzen dute, eurentzat Manu Sotaren jarrera *Jagi-Jagiren* baitako salbuespen hutsa izanez. ez euskal nazionalismoaren baitako bilakaeraren aintzindari (ikuspegi horretarako, ik. Fernández eta López, 2010, edo López eta Fernández, 2011).

integrazioa igarotzen hasi zen, zailtasunekin eta kontraesan handiekin bada ere. Bide horretan, azaldu bezala, aldaketak gertatzen joan ziren, bai nazionalismo aranazalearen barruan (Gallastegi eta Manu Sota), eta baita ildo berria eraiki nahi zuen nazionalismo aurrerakoi eta laiko sortu berrian ere (Eusko Abertzale Ekintza).

2.4. Euskal nazionalismo berria: integrazioaren bila

1950eko hamarkadatik aurrera, behin 1936ko gerra atzean uzten joatearekin batera eta frankismoak euskal nazionalismoaren erakundeetan (estatu-kolpearekin bat egin ez zuten gainontzeko mugimendu politikoetan bezala) sortutako antolaketa zein belaunaldi hausturaren testuinguruan, euskal nazionalismoaren baitan kanpotarrekiko, etorkinekiko eta, finean, euskal nazioaren ezaugarriei berekiko ikuspuntuak aldatzen joan ziren.

Gainera, 1950eko hamarkadatik aurrera, immigrante ugari iritsi ziren Espainiako lurralde desberdinetatik Hego Euskal Herrira; eta Sabin Arana nahiz bere jarraitzaileen garaian jazotako immigrazioa txiki utzi zen. Oraingoan, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan batez ere, immigrazioa askoz handiagoa izan zen, eta ez zen Bizkaiko eskualde batzuetara mugatu. Immigrazio uholde hori, gainera, testuinguru politiko zehatz batean gertatu zen: frankismoak modu gordinenean ekiten zuen euskal identitatearen eta bere ikurren aurka, eta euskal nazionalismoa (gainontzeko oposizio politikoa bezala) guztiz jazarria zen.

Immigrazio prozesu horren esangura adierazteko, hona datu bat: 1973an Hego Euskal Herriko biztanleriaren %53 zen bertan jaiotakoa eta guraso biak ere bertakoak zituena (Jáuregui, 1981: 69). Egoera horretan, agian ez zen harritzekoa abertzaleen artean nolabaiteko agonia sentimendua zabaltzea. Finean, beren nazioa galzorian zegoen; eta ez zirudien etorkizun oparoa izango zuenik. Beren kultura eta izaera arriskuan dakusaten gutxiengoaren erreakzio tipikoa da desberdintasunezko zeinuak indartzea, eta autoktonoek immigranteekiko isolamendu boluntarioa bultzatzea (Conversi, 1997: 201).

“La masiva oleada inmigratoria va a originar entre los nacionalistas vascos un sentimiento antiinmigrante y, sobre todo, una sensación, ciertamente real, aunque de ello no sean culpables los inmigrados, de que la lengua y la cultura vascas se mueren irremisiblemente.” (Jáuregui, 1981: 70).

Ardura nagusi zen, hortaz, euskal nazionalismoaren erakundeetan etorkinen aferaren aurrean, eta azterketa teorikoak ugariak izan ziren. Erakunde abertzaleak ugaritu egin ziren, era berean, ezkerreko euskal nazionalismo indartsu bat agertuz. Testuinguru horretan, euskal nazionalismoak bilakaera nabaria bizi izan zuen etorkinen fenomenoari dagokionez, integrazioaren aldeko ikuspegiak gailendu baitziren.

Frankismoaren lehen urteetan, EAJ zen euskal nazionalismoaren adierazpide politiko ia bakarra, ahula izanik ere, Euskal Herriko hegoaldeko lau herrialdeetan. Lurraldeotako EAJko kideek euren ardura agertu zioten alderdiko zuzendaritzari gizarte aldaketa handiengatik eta, bereziki, etorkin talde berriak iristeagatik (De Pablo et al., 1999: 228). Alderdiaren zuzendaritzan, era berean, etorkin hauek (nahiz eta *korearrak* deituz gutxietsiak) euskal nazionalismora erakartzeko beharra azpimarratu zuten, 1957an adibidez:

“Lo hábil, lo único hábil en los actuales momentos, es abrirles los brazos, darles calor, haciéndoles olvidar su país de origen para que se sientan vascos, es como trabajaremos por Euzkadi, más que tratándoles como a nuevos maketos, lo cual les llevaría a construir colonias extranjeras y a odiar a lo vasco.” (Francisco Belaustegigoitia eta Juan Ajuriaguerraren arteko elkarrizketa, in De Pablo et al., 1999: 228).

EAJren baitan, beraz, etorkinekiko jarrera irekia bidea egiten joan zen gutxinaka, errealitatearen onarpen hutsagatik bada ere. Edonola ere, euskal

nazionalismoari planteamendu berriak ekarri zizkion mugimendua sortu zen 1959an: Euskadi Ta Askatasuna, 1952an ikasle talde batek sortutako Ekin erakundearen jarraitzaile. EAJren nazionalismoaren planteamendu teorikoetatik gertu izan zen hasieran, baina jarraian planteamendu berezituak sortu zituen, eta ezkerreko euskal nazionalismoaren aitzindaria izan zen.

ETAk bere lehen urteetan euskal nazioaren ezaugarrien artean *arraza* aipatzen zuen arren⁸⁰, segituan euskal nazioaren ezaugarrien azterketan arraza alde batera utzi eta etnia ipini zuen erdigunean. Hau da, elementu biologikoa alboratu eta Euskal Herriaren ezaugarri linguistiko-kulturalei erreparatu zien. Euskarak, horrela, pisu handia eskuratu zuen (Jáuregui, 1981: 133-135). Nazioaren izaeraren definizioan hizkuntzak hartutako garrantzia, halaber, Bigarren Mundu Gerra ostean Mendebaldeko Europako nazionalismo azpiestatalen ezaugarritzat hartu behar da (Rubiralta, 2000: 110). ETAREN I. asanbladaren berri ematen duen agirian (1962ko maiatzean sinatua), horrela zioen erakundeak berak bere printzipioak edo oinarri ideologikoak azaltzen zituenean:

“[ETAk] Arrazakeria gaitzesten du; ortaz, ez du ontzat ematen erri baten edo besteren jatorrizko gaillentasunik. Kanpotarren erbesteratzerik edo bakartzerik ez du, beraz, on artuko, kanpotarrak Euzkadi’ren interesen eta eskubideen aurka jokatzeko ez duten artean” (in Hordago, 1979: 1. lib., 526).

Hala ere, ETAk bere hasierako urteetan, 1959tik 1962rako epean, maila *makroan* immigrazioarekiko jarrera ezkorra izan zuen. Garaiotako lehen ikuspegi hori nahiko azkar gainditu zen, eta ikuspegi “irekiagoa” gailendu. Hala ere, garrantzitsua da ETAREN hasierako ikuskera hauek azaltzea, lehen jarrera hauek ere ordura arte euskal nazionalismoan nagusitutako planteamenduekiko berritzea dakartelako.

⁸⁰ ETAREN hastapenetako idatzi bakan batzuetan, arraza euskal nazioaren elementuetako baten moduan hartzen zen: *Cuadernos de formación: Orígenes*, 1962 (in Jáuregui, 1981: 134).

1960ko *Liburu Zurian*⁸¹, “Personalidad nacional y patriotismo” izeneko atalean, beste gai batzuekin batera (erlijioa, gizarte arazoa, artea...) immigrazioaren afera zuen aipagai ETAk⁸² (in Hordago, 1979: 1. lib., 267-271). Bertan, immigrazioa ardura handiz aztertzen zen, eta bere arriskuak azpimarratu. Finean, ETarentzat mundu mailan immigratzearen ekintza eskubide bat bazen ere, Euskal Herriko testuinguruan genozidiorako bitartekoa ere bazen. Euskal Herria Espainiak –eta Frantziak– zapal dutako herria izaki, immigrazioa Euskal Herria asimilatzeko Espainiaren maniobra bat zen. Immigrazioa, hortaz, Espainiaren esku zegoen tresna politikoa zen. ETAk, beraz, immigrazioaren azterketa politikoa egin zuen, bestelako gogoeten gainetik:

“Como patriotas no tenemos nada que objetar a la entrada en Euzkadi de un inmigrante concreto y aislado. (...) es indiscutible que la persona humana tiene el derecho de ganarse la vida donde le plazca.

Pero no es ese el problema nuestro de la inmigración. En realidad la inmigración es MASIVA, y dada la situación política del país, es GENOCIDA. En una situación normal, con instituciones políticas propias y vida nacional natural, el problema sería distinto. Pero no es ése nuestro caso.” (in Hordago, 1979: 1. lib., 268).

Eta ondokoa gaineratzen zen:

“(...) no se trata de una inmigración polaca, sino ESPANOLA [sic] precisamente. Una inmigración insultante las más de las veces, que se enorgullece de despreciar nuestro idioma y nuestras costumbres.

Es ése el problema de la inmigración en Euzkadi.

⁸¹ *Liburu Zuria* izenbururik gabeko eta gaztelaniaz idatzitako liburu bat izan zen, zeinean hasierako ETA horren ideiak azaltzen ziren 150 orrialdetan zehar (Hordago, 1979: 1. lib., 148).

⁸² Atal horren laburpen egokia burutzen du Gurutz Jáureguik (1981: 101-104).

La situación es anormal, y la inmigración aumenta la eficacia de la situación anormal. La inmigración es un instrumento español AL SERVICIO DEL GENOCIDIO.” (Ibidem, 268-269).

Hasierako lehen urteetan, hortaz, ETA oraindik erakunde nahikoa txikia zenean, etorkinekiko jarrera urruna mantentzen zuen. Azpimarratzekoa da, zentzu horretan, ETA hasiberria zela, eta aurrerago garatuko zuen ildoa momentu horretan oraindik ez zela finkoa⁸³. Hala ere, nahiz eta diskurtsoa hainbat puntutan etorkinekiko gogorra izan, Sabin Aranaren eta bere jarraitzaileen planteamenduekiko aldaketa handia zekarren. Finean, etorkinaren aurkako jarrera ez baitzen immigrantearen beraren ezaugarrien ondorio (neurri batean Aranaren kasuan gertatzen zen bezala), arazo politiko baten ondorio baizik. Hau da, ETAREN aburuz, Euskal Herriko zapalketak immigrazioa “modu normalean” aztertzea galarazten zuen. Horrela, immigrazioa nahikoa modu ezkorrean aztertzen bazen ere, ez zen etorkin oren aurkako jarrerarik planteatu. ETAK ez zituen etorkinak etsaitzat hartzen, baldintza batzuen arabera beti ere:

“Los inmigrantes tienen derechos: Y NOSOTROS TAMBIEN. No reconoceremos ningún derecho a cuantos inmigrantes SOLO respeten los de ellos.

O SE RECONOCEN Y SE APLICAN LOS DERECHOS DE TODOS, o no se reconoce ningún derecho a nadie. (...)

RECONOCEREMOS SUS DERECHOS SOLO A LOS INMIGRANTES QUE RECONOZCAN LOS NUESTROS. A los otros los consideramos como maketos al servicio del genocidio español, y los trataremos como agentes extranjeros.” (Ibidem, 269).

⁸³ Horren erakusgarri da *Liburu Zuri* horretan ETAK azaltzen duen marxismoaren aurkako jarrera: “El peligro del marxismo está en que presenta una visión completa, si bien falsa, de la vida.” (in Hordago, 1979: 1. lib., 172). Jakina denez, aurrerago marxismoari buruzko guztiz bestelako ikuspuntuak defendatu zituen taldeak. Modu berean, momentu hartako immigrazioari buruzko diskurtsoak, halaber, aurrerago aldaketak izan zituen.

Etorkinekiko eta, oro har, immigrazioarekiko jarrera hori ETAk euskal nazioa ulertzeko zuen formarekin lotua zegoen. Aipatu dugun bezala, ETarentzat euskal nazioaren elementu eratzailerak ez zen arraza, hizkuntza baizik. Biak ezaugarri objektiboak dira, baina lehena kanpotarrari *itxia* den bitartean, hizkuntza ezaugarri *irekia* da, nahi duenak (zailtasunak handiak izan badaitezke ere) ikas baitezake. Era berean, ETAn, nazioa definitzerako garaian borondatearen aldeko hautuak gero eta ugariagoak izan ziren:

“Euskaldunok arraza bat gera... Euskaldunok izkuntza berezi bat dugu... Euskaldunok libre izan gera istorian zear... Gaurko mendean, ez arrazak, ez izkuntzak, ez igaroak, ez diote erri bati ematen ez bere buruaren nagusitasuna ezta libre izateko eskubidea bera ere... Ondo dago erri bat gerala guk jakitea... Baiñan Euzkadi askatzeko besterik bearko dugu. Alegia, dagoen gauza bakarra: *Geronek nai izatea...*” (Txillardegui, *Zutik*, 14, 8. or., in Jáuregui, 1981: 151).

Jáureguiren (1981: 152-153) aburuz, hala ere, EAJtik eratorritako euskal nazionalismo historikoaren jarraipena da ETA, nazioaren ezaugarri objektiboak azpimarratzen dituen heinean. Aldaketa garrantzitsua dago, ordea, aipatu bezala, ordura arteko euskal idatzi nazionalistetan arraza zentralizat hartu edo, gutxienez, aipatzen zen bitartean, arraza ez baitzuen euskal nazioaren ezaugarri moduan hartzen ETAk, hasierako planteamenduetan ageri bazen ere. Honen ordez, ETAk hizkuntza azpimarratu zuen, nahiz eta zailtasunak onartu: “Es difícilísimo en general decir en qué consiste el alma nacional (...) Creemos que el Euskera es factor esencial (...)” (in Hordago, 1979: 1. lib., 264).

Euskararen zentraltasun hori 1960ko *Liburu Zurian* jada ageri zen aipu desberdinetan⁸⁴ zein euskararen gaiari buruzko puntu berezi batean (“Posición

⁸⁴ *Liburu Zuriko* aipu desberdinen artean, ondokoa adierazgarria da: “(...) el euskera es pieza fundamental sin la cual nuestra nacionalidad no tiene posibilidades. (...) creemos que es factible un estado vasco sin euskera, pero en ese caso lo conseguido no pasaría de ser un Estado Norteño desprovisto del verdadero sentido vasco que todo abertzale debe buscar. (...)”

El euskera es la quintaesencia de Euzkadi: mientras el euskera viva, vivirá Euzkadi.” (“Moral de resistencia nacional” (in Hordago, 1979: 194).

personal respecto al euskera”). Bertan, euskara euskaldunen nazio hizkuntzatzat hartzen zuen, eta *Euzkadi* bera bizi zedin beharrezkotzat jotzen zuen euskarak bizirik irautea: “El día que el euskera muera, Euzkadi habrá muerto y nuestra causa se habrá perdido.” (in Hordago, 1979: 1. lib., 254).

1963an etorkinen afera aztertu zuen *Zutik* aldizkaria argitaratu zuen ETAk⁸⁵. Argitalpen horrek immigrazioaren aurrean ETak bere posizio politikoa argitzea ekarri zuen, nahiz eta bertan ikuspegi desberdinen arteko kontraesan handiak agertzen ziren; baina, era berean, etorkinenekiko posizio positibo eta arrazionalak planteatzea bilatzen zen (Garmendia, 1983: 74). Batzuek, immigrazioaren –abstraktuan planteatua– izaera *desnazionalizatzailea* azpimarratu zuten⁸⁶, eta besteek, ondoko posizioak defendatu zituzten:

“Nosotros le pedimos perdón por el uno y el otro [*maketo* eta *koreano* terminoez ari da], y le aseguramos a XX que tenemos una gran confianza en que todos nuestros compatriotas acabarán abandonando su empleo y rectificando los hábitos mentales que se esconden detrás de esas denominaciones.” (“Carta a un coreano”, *Zutik-3^a serie*, in Hordago, 1979: 2. lib., 350).

*Zutik 12*ko eztabaida horren atzean ondoko kontraesana dago: ETaren arrazismoaren eta bazterketaren aurkako posizio teorikoak, batetik, eta bere gizarte oinarriaren izaera nazionalista, bestetik, non orokortua baitzegoen, nonbait, etorkinak modu ezkorrean ikustea (Garmendia, 1983: 74).

⁸⁵ *Zutik-3^a serie*, 12. zkia., 5. or., Iruñea. Alta, Garmendiak (1983: 76) *Zutik-11-z* hitz egiten du.

⁸⁶ “[los inmigrantes] van adquiriendo conciencia de su potencia demográfica y empieza a manifestarse el odio hacia el vasco. Es un hecho su odio a Euskadi.

Indudablemente que España cuenta con esto, y en su día lanzaría esta fuerza contra nosotros. (...).

A esta masa de inmigrantes no puede considerarse solamente bajo el simple aspecto de pobres gentes que vienen con todo derecho a ganarse la vida. Bien es verdad que son víctimas en España de la más inhumana injusticia social. Se mueren de hambre y emigran a buscar el pan. Conforme. Pero los efectos los sufre directamente un pueblo conquistado: Euskadi, y entonces esa inmigración se convierte automáticamente, de hecho, en una invasión.” (“Aspectos de la inmigración”, *Zutik 11*, in Garmendia, 1983: 76).

Garmendiaren aburuz, *Zutik 12*an immigrazioa dela-eta azaltzen ziren bi ikuspegiarten artean (etorkinak *beste talde arriskutsu* moduan tratatzea, batetik; edota hauek askapen borrokan integratzearen aldekoa, bestetik), etorkinak euskal nazionalismoan integratzearen hautua gailendu zen, eta “será a partir de estas posiciones como evolucionará ETA en su práctica política” (Garmendia, 1983: 78).

*Zutik 18*an, Espainiako Alderdi Komunistaren aurkako idatzi batean, horrela adierazi zuen:

“Hay en Euzkadi miles de obreros venidos de España; y sin embargo, afirmamos no ser racistas. Es sencillo: los habitantes actuales de Euzkadi son para nosotros los futuros ciudadanos vascos, sean o no étnicamente vascos; los obreros que trabajan en Euzkadi, son –sin discriminación alguna– la clase obrera vasca. No se trata de obtener un Estado Vasco en el que sus habitantes sean físicamente vascos (apellidos, etc.) sino de conseguir el Estado Vasco en el que todos sus ciudadanos siendo totalmente libres puedan ser totalmente vascos (...) Naturalmente que los de origen no vasco podrán optar por adoptar libremente la nacionalidad vasca o por conservar la suya propia” (*Zutik 18*, in Garmendia, 1983: 269-270).

Denborarekin integrazioaren aldeko jarrerak guztiz gailendu ziren ETAn eta, oro har, haren gertutik sortutako ezkerreko euskal nazionalismo berrian. Garai hartan eragin handia izan zuen eta ezkerreko euskal nazionalismoaren esparruan koka dezakegun *Vasconia* liburuan, horrela, etorkinen auzia zenbaitetan aipatu zuen Federiko Krutwigek. *Aranismoa* gainditu eta kultura (etnia eta hizkuntza azpimarratuz) gorai patzen dituen nazio ikuspegi baten defentsa eginez, etorkinen integrazioaren alde egin zuen, hizkera gogorrez eta

baldintzak ere ipiniz⁸⁷. Halaber, *Vasconia*-n ordura arteko arraza-ikuspegiak ere kritikatzeko ziren⁸⁸.

Aztertu dugun eta 1963an argitara eman *Zutik* horrek immigrazioa zuen hizpide, eta ETAREN praktika politikoaren erakusle zen: etorkinen edonolako bazterkeria gainditu eta berauen integrazioaren aldeko ildoak garatu zuen erakundeak. 1964an, horrela, ETAREN jarrera hori ageri zaigu euskal intelektualei zuzendutako gutunean:

“Nosotros hemos estado y estaremos siempre con los trabajadores que nacidos o no en Euskadi, trabajan por la implantación de una verdadera democracia en nuestro país. Ellos son la base de la futura sociedad vasca. A ellos y a sus hijos, consideramos, desde luego bastante más vascos que a esos capitalistas de largos apellidos euskaldunes, que se atreven a llamarse patriotas mientras no cesan de enriquecerse a costa de su propio pueblo” (ETA: *Carta abierta de ETA a los intelectuales vascos*, 1964, in Bruni, 1988: 58).

1967an ere etorkinen integrazioaren aldeko aldarria modu argian burutu zuen ETAK. Burgosko prozesuan auzipetutako euskal militanteek izenpetu zuten gutun batean, “Herrikoi Batasuna” izeneko zortzi puntuko programa kaleratu zen. ETAKO adar desberdinek bat egiten zuten idatzi horrekin, eta agiriaren zortzigarren puntuan ondokoa aldarrikatzen zen:

⁸⁷ “En cuanto a los obreros que vienen a trabajar con nosotros en nuestra tierra, bienvenidos sean, si vienen en son de amigos, si vienen a colaborar con nosotros a mejorar la suerte de cuantos viven en nuestra tierra, si traen la voluntad de convertirse en buenos ciudadanos de Euskaria, entonces ellos serán hermanos nuestros y sus hijos, a título perfecto, hijos de nuestra común patria Vasconia. Pero si vienen en son de conquistadores, si vienen como brazo del colonialismo y a extender su virus por nuestra patria, si sus designios son desnacionalizar a nuestra patria, entonces son nuestros enemigos, (...) son hijos de la misma madre que los capitalistas explotadores, de quienes ellos se quejan.” (Sarrailh de Ihartza, 2006: 458).

⁸⁸ “Aun hoy nos encontramos con nacionalistas (...) que discuten mucho de raza sin saber de qué hablan y que se creen muy vascos por poseer una larga serie de apellidos vascos (prueba inequívoca para ellos de su ascendencia racial) (...) y que desprecian y se creen superiores a los hijos de emigrados, aunque éstos no sepan otra lengua que la vasca y por su mentalidad y sus sentimientos son auténticos hijos de Euskalherria” (Sarrailh de Ihartza, 2006: 305-306).

“8) Establecimiento de toda clase de recursos que puedan facilitar la plena integración de los inmigrantes en la realidad vasca. Garantías para los que no opten por la integración y deseen guardar su identidad nacional de origen sin ningún tipo de discriminación ni ilegalidad” (*Zutik*, 63, in Apalategi, 2006: 198).

Puntu horretan, beraz, integrazioaz gain etorkinaren nazio identitatearekiko errespetua aldarrikatzen zen. Onarpen horrek immigrazioaren aurreko ikuspegiaren aldaketa adierazten du, bistan denez.

Finean, hala ere, ETAk eta, oro har, ezkerreko euskal nazionalismo berriak errotikako aldaketa ekarri zuen euskal mugimendu nazionalistaren eta etorkinen arteko harremanetan. Shafirrek (1995: 112) dioen legez, “Dramatic change in the position taken by Basque nationalists toward Spanish immigrants came only with the appearance of ETA.”

Zentzu horretan, ezin da aipatu gabe utzi immigrazioaren tratamenduarekin lotura handia izan zuen kontzeptu baten sorrera: *euskal herri langilearena*, hain zuzen⁸⁹. Shafirren (1995: 113) hitzetan, formula horretan ETAn garai hartan eztabaidan zeuden bi ikuspegiak bat egin zuten, euskal nazionalismoa azpimarratzen zutenak, batetik, eta marxismoa gailentzen zutenak, bestetik.

⁸⁹ Maizago gaztelaniaz erabilia: *Pueblo trabajador vasco*.

2.4.1. Zubi berriak: politika eta kultura

ETAn eta ezkerreko euskal alderdi zein talde abertzale zenbaitetan garaturiko immigratuekiko ikuspegi berriak euskal nazionalismo osora hedatu ziren. Hots, euskal herritar bilakatzeko arraza eskakizunak oinarri zituen ildoak desagertzen joan zen, guztiz zehazturik egon ez arren⁹⁰; eta, oro har etorkinekiko jarrera irekiagoa, eskusibismoa gainditzen zuena, garatzen joan zen. Ezkerreko abertzaletasunetik at, 1930etik arlo horretan pausoak ematen hasi zen Euzko Alderdi Jeltzalea bera, teoriaraino baino, praktikan. Arraza eskakizunak gutxitzen joatearekin batera, etorkinak ere mugimendu jeltzalera batzen joan ziren. 1936ko Gerra ostean Hego Euskal Herrian antolaketa egoera oso ahula izan zuen EAJk, buruzagiak erbestean zituela, eta Hego Euskal Herrian jardura apala garatu zuen, oro har. Frankismoaren amaieran plazaratu zuen Euzko Alderdi Jeltzaleak euskal nazioaren definizio berria, 1977an alegia, alderdia “euskal herritar guztiei irekita” zegoela adierazi zuenean, eta euskal naziokidetasuna borondatean oinarritu zuenean (in López eta Fernández, 2011: 13).

Arrazaren lekua euskarak bete zuen teoriaraino, baina hizkuntzaren egoera ahula zela medio, praktikan euskarak paper sinbolikoa bete zuen (garrantzitsua izanik ere), eta praktikan aktibismo politikoa edo, maila apalagoan, abertzaletasunaren aldeko jarrera izan zen euskal naziokidea definitzeko ezaugarri behinena (ik. Zabalo eta Mateos, 2005; Zabalo, 2006). Zentzu horretan, integrazio asmoak esplizitu egitera iritsi ziren: etorkina euskal nazioan eta abertzaletasunean barneratzea desio eta helburu politiko bilakatu zen.

⁹⁰ Zentzu horretan, zenbait egileren aburuz, etorkinekiko ETAREN jarrera ezin da definitu eta garatutzat jo. Shafirrek (1995: 114), horrela zehaztuko du: “The major question, Are immigrants welcomed by the [ETA] movement or not? was left unanswered”. Sullivan-ek (1988: 55, in Shafir, 1995: 114), halaber, definizio eza azpimarratuko du: “ETA was never to resolve the question of what attitude to take to the immigrants.”.

Geure iritziz, hala ere, eztabaida handiak izan baziren ere, eta gizarte-oinarriaren jarrerak alde batera utziz, baieztatu daiteke ETAREN posizioak jauzi handia izan zela historikoki euskal nazionalismotik etorkinengana izandako jarreraren.

Abertzaletasunak nazioaz eginiko definizio berriak hainbat etorkinek euskal nazionalismoarekin bat egitea ahalbidetu zuen. Aurretik Euskal Herritik at jaiotako herritar zenbaitek euskal nazionalismoaren bat egin bazuen ere, nazio-definizio berriak etorkin batzuen hautu hori bakantasunetik atera zuen: Euskal Herrira iritsi berri ugari abertzale bilakatu ziren.

1960ko zein 1970eko hamarkadetan, gainera, ezkerreko mugimendu nazionalistek indarra eskuratu zuten Mendebaldeko Europan, bertan gertatutako mugimendu iraultzaileen loratzearekin, eta Afrika zein Asian, nazio-askapenerako mugimenduen finkatzearekin (nazionalismo iraultzailearen azalpen historiko baterako, ikus, adibidez: Fusi, 2003). Ezkerreko nazionalismo iraultzaile hori anitza izan zen, eta hainbat egileren eragina jaso zuen (tartean marxismoaren eta komunismoaren teorikoen akuilu lana nabarmentzekoa da). Egile horien artean, Frantz Fanonen lana nabarmentzekoa izan zen, 1961ean argitara emandako *Les Damnés de la Terre* batez ere, non herrialde kolonizatuen egoera iraultzeko nazionalismo iraultzailearen eta borroka armatuaren alde egiten zen (ik. Fanon, 1999).

Testuinguru horretan, Espainian ere *periferiako* nazionalismo ezkertiarren loratzea gertatu zen. Hego Euskal Herritik at, Galizian *Unión do Povo Galego* (UPG) eta Katalan Herrietan *Partit Socialista d'Alliberament Nacional* (PSAN) alderdi independentista marxistek indarra hartu zuten⁹¹. Herrialde bakoitzeko nazionalismoek panorama politikoan erdietsitako indarra alde batera utzita, galiziar zein kataluniar nazionalismoen baitan, ezkerreko ikuspegiak (independentismo esplizitu eta erradikal bati loturik) indarra hartu zuten. Aipatu bi mugimendu horiek, marxismotik abiatuz, nazioaren definizio irekia burutu zuten, eta bertara iritsitakoen integrazioa aldarrikatu zuten (immigrazioa nabarmena izan zen Katalunian, ez, ordea, Galizian. Katalunian nazionalismoak immigrazioari eman trataerarako, euskal nazionalismoaren jarduerarekin alderaturik, ik. Shafir, 1995; Conversi, 1997).

⁹¹ Katalan Herrien, Galiziaren eta Euskal Herriaren arteko alderaketa baterako, ik. Rubiralta, 1997.

Hego Euskal Herrian, testuinguru horretan, ezkerreko nazionalismo berria jaio zen ETaren eskutik. Abertzaleetasun berri hori nazioarteko nazionalismo iraultzaile berriaren uhinari loturik jaio zen, eta azkar izaera sozialista eta iraultzailea bereganatu zuen. Euskal nazionalismo berri horrek agerpena izan zuen alderdi politikoen formarekin ere. Hauteskunde mailan eragin handiena izan zutenak Herri Batasuna (HB) (hau izan zen erreferente nagusia) eta Euskadiko Ezkerra (EE) izan ziren, ezkerreko nazionalismo berriari loturiko alderdi politikoak askoz gehiago izan baziren ere, Ipar zein Hego Euskal Herrian, gainera. Alderdion hedapen eta zabalpenak –eta baita bere kidegoak ere– euskal nazionalismoa autoktonoei mugaturiko mugimendua izateari utzi ziola ondorioztatzera eramaten dute.

Zentzu horretan, bertakoek eta etorkinek euskal nazionalismoan zuten parte hartzeari dagokionez, jauzia gertatu zen. Nahiz eta Euskal Herrian jaiotakoek, oro har, euskal talde abertzaleetan etorkinek baino gehiago parte hartu zuten (Shafir, 1995: 114-115), euskal nazionalismoa autoktonoei mugaturiko mugimendua izateari utzi zion, hainbat etorkin erakunde abertzaleetan integratu baitziren. Horren adierazle, Jon Paredes Manot *Txiki* ETako kidea izan zen, etorkin abertzaleen sinbolotzat hartu zena. Clark-ek errealitate hori aztertzeke, ETako kideen deiturretara jo zuen, bestelako daturik ezean. Bere kontaketa arabera, horrela, etakideen %16,6 espainiar jatorriko deiturak zituzten, eta %40 inguruk abizenetako bat (Clark, 1984: 147). Datu horien arabera ondorio zurririk atera ezin badaiteke ere, gauza jakina da Euskal Herritik kanpo jaiotako zenbait lagunek ETarekin bat egin zuela.

Immigratuek abertzaletasunean, oro har, izandako parte hartzea ez zen gizabanako batzuetara mugatu, prozesu sakonagoa izan baitzen. 1979ko Espainiako hauteskunde orokorrak aztertuz gero, adibidez, nahiz eta alderdi abertzaleei bozka eman zieten gehiengoa autoktonoak izan, etorkinen parte hartzea jada nabaritzen zen, ezkerreko nazionalismo independentistan, batez ere: %75 ziren autoktonoak EAJri zein Euskadiko Ezkerrari bozka emandakoen artean; eta gutxiago –%62– Herri Batasuna bozkatu zutenen artean. Espainiar nazionalismoaren kasuan, aldiz, autoktonoak %44 ziren Zentro

Demokratikoaren Batasunaren (UCD) kasuan, eta %20 PSOEranean (Shafir, 1995: 115).

Herritarren jatorria, hortaz, eragina duen faktorea izan da euskal edo espainiar nazionalismoari bozka ematerako garaian, nahiz eta, aldi berean, zalantzak izan ditzakegun eragin horri dagokionez. Izan ere, ikerketa batzuek (ik. Garmendia et al., 1982) boto-banaketan etorkin abertzaleen kopuru handia azpimarratzen zuten bitartean, beste batzuek hautesleriak zehazterakoan jaioterriak zuen indarra azpimarratzen zuten: autoktonoek abertzaleen alde egiten zuten bitartean, migratzaileek espainiar nazionalismoaren alde bozkatzen zuten, horrela (Llera, 1984). Baliteke bi ikuspegiak arrazoi izatea: ezkerreko independentismoan Euskal Herritik at jaiotakoen parte hartzea ez zen testimoniala izan, inondik inora; baina, oraindik, jaiolekuak eragina zuen zenbait boto dinamika ulertzerakoan. Beste ikerketak batek, kasu honetan Linzek (1986: 491) zuzenduta, gurasoen jatorriak euskal edo espainiar nazio-sentimenduan duen eragina azpimarratzen du, bertako gurasoak dituztenak guraso etorkinen seme-alabak baino *euskal herritarrago* definituz (%64 eta %40, hurrenez hurren); eta Ruiz Olabuénaga eta Blancok (1994: 214 eta hur.) ere bertakoek espainiarrekiko desberdintasun sentimendu handiagoa dutela adierazten dute.

Dena dela, gizarte praktikei dagokienez, etorkin eta bertakoen arteko banaketarik ez zela antzematen kontuan hartuta (Aierdi, 1993), eta ikuspegi historikotik ere jatorriaren araberrako gizarte haustura sakonik antzeman ez denez (Fusi, 1984: 253), euskal nazionalismoaren baitan, etorkinekiko jarrerari dagokionez, aldaketa handia jazo zela azpimarratu behar dugu: Sabin Aranaren euskal nazionalismoan ez bezala (Eusko Abertzale Ekintzaren sorrera arte luzatu daitekeen etapa), euskal nazionalismo ezkertiar berrian etorkinek ere parte hartzen zuten, bere proiektu politikoak etorkinen parte hartzea ahalbidetzen zuelarik. Ondorioz, prozesua homogeneoa izan ez bazen ere, neurri handi batean abertzaletasunaren eta immigratuen arteko zulo sakona euskal nazionalismo berriarekin gainditu zela dirudi. Joera horren erakusgarri, etorkinak gehiengo ziren herri eta auzo batzuetan ezkerreko abertzaletasunak

eta, bereziki, Herri Batasunak izandako indarra azpimarratu izan da: “(...) the high percentage of voting for the pro-independence coalition Herri Batasuna in areas where immigrants are a majority testifies to the immigrants’ involvement in nationalist politics.” (Conversi, 1997: 205).

1960 eta 1970eko hamarkadetan gertatu immigrazio horren aurrean, arlo politikoan jazotako aldaketak zein bilakaerak funtsezkoak izan ziren etorkinen eta euskal nazionalismoaren arteko hartu-emanak ulertzerako garaian, beraz. Ikuspegi aldaketa hori, hala ere, ez zen inondik inora arlo politikora mugatu, euskal nazionalismoa gizartearen beste hainbat esparrutara iristen zen bezala. Besteak beste, gizarteko sektore autoktonoen eta immigranteen arteko hartu-eman kulturek eta ekonomikoek eragina izan zuten⁹².

Euskal Herrian, horrela, kulturak egiteko esanguratsua bete zuen etorkinen integrazioari dagokionez. Hala ere, kulturak ahuldade handiak zituen etorri berrien integrazio funtzioa betetzeko. Euskal kulturaren erakusgarri nagusietakoa den euskarak egoera soziolinguistiko kaskarra bizi zuen; horrek, etorkinen kultura-integrazioa bigarren mailan utzi zuen, euskarak ezin zuelako bete etorkinak integratzeko tresna nagusiaren papera: “The fracture between immigrants and natives was partly healed through efforts to create a new sense of Basque identity carried out by some educators and nationalists.” (Conversi, 1997: 201). Zentzu horretan, ikastolen mugimendua azpimarratzen du, salbuespenak salbuespen bertan ume autoktonoak zein kanpokoak bildu baitzituzten, euskara eta euskal kultura irakasteko helburuaz.

Conversik (1997: 201-202) azpimarratzen du nola hainbat guraso autoktonoren aldetik immigranteen umeek ikastola hauetan parte hartzearen aurkako jarrera nagusi izan zen; baina, halaber, ondokoa ere azpimarratzen du: etorkinen –edo euren seme-alaben– aurkako jarrera hori gainditzeko, *azalpen*

⁹² Atal honetan, politikak eta, orain, kulturak etorkinen integrazioan izandako eragina lantzen ari bagara ere, beste hainbat dimentsiok –hala nola, Euskal Herriaren egitura eta egoera ekonomikoak– immigratuen egokitzapenerako nabarmenak izan direla azpimarratu izan dela ez da ahantzi behar (adibidez, ik. Conversi, 1997; edo lehen immigrazio aldirako, ik. Solozábal, 1979).

nazionalista izan zela erabilitakoa; hau da, immigranteek euskal herritar bilakatzeko zuten eskubidearen argudioa izan zela, azkenean, etorkinen seme-alabei ikastolen ateak (eta horrekin batera, euskara eta, oro har, euskal nazioarena) ireki zizkienak.

Finean, aipaturiko euskal naziotasunaren ulerkeran gertatutako aldaketa handia, zeinaren bitartez euskal herritar izatea edota bihurtzea borondate eta *ekintza* kontua baitzen, euskal nazio identitatea ulertzeko modu berrietan egikaritu zen. Horrela, nazio identitate *irekiago* hori hedatu beharreko gai bilakatu zen. Zentzu horretan, besteak beste, hartuko dute indarra ikastolen bezalako herri mugimenduek.

2.5. Laburbilduz: euskal nazionalismoaren bilakaera

Euskal nazionalismoak etorkinen aurrean eta, oro har, immigrazioaren aferaren aurrean, izan duen jarrerak aldaketa handia izan du XIX. mendeko bukaera aldeko garaietatik (hots, euskal nazionalismoaren hastapenetatik) XX. mendeko bigarren erdialderako epean. Horrela, euskal nazionalismoaren aldetik etorkinen integrazioari buruzko ondoko jarrerak bereiz ditzakegu:

- a) Etorkinen aurkako erreakzioa, bereziki Sabin Aranaren testuetan islatzen dena. Euskal nazionalismoaren hastapenak izanik, euskal nazioaren gizarte mugak argiki definitzea (horretarako *arraza* erabiliz), *besteengandik* bereiztea eta arerioari aurka egitea ziren lehentasunak. Espainiarren aurkako jarrerak nagusi ziren, beraz. Ondorioz, Hego Euskal Herriko gizartea talde itxi bat legez definitu zen, oinordekotza komunean oinarritua; eta etorkinen integrazioa ezinezko bihurtu zen.

Korronte hori 1950eko hamarkada arte nagusia izan zen, nahiz eta ikusi dugun bezala, XX. mende hasieratik (eta 1930eko hamarkadatik aurrera indar biziagoz) etorkinen integrazioaren aldeko ahotsak ere izan ziren euskal nazionalismoaren baitan. Era berean, integrazioaz arduratuko

ziren ezkerreko jarrerak ere sortzen joan ziren. Handik aurrera, ahultzen joan zen integrazioaren aurka ekiten zuen euskal nazionalismoa, diskurtso ofizialean desagertu arte.

- b) Integrazioaren aldeko lehen aldarriak. *Aberri* eta *Jagi-Jagiko* kide zen Manu Sota erakusgarri den ikuspegiak integrazioaren aldeko lehen urrats sendoak eman zituen. Eusko Abertzale Ekintzak (EAE-ANV) ere pauso batzuk eman zituen garapen honetan, eta, nazioaren definizioan arraza maila sinboliko batera mugatzearekin batera, etorkinak espresuki euskal nazionalismora deitu zituen. Bilakaera politiko eta ideologiko hori 1936ko altxamendu militarrek eta ondorengo gerrak gelditu zuten. Ludger Meesek (1992: 335) Eli Gallastegi eta bere kide batzuen idatziak aipatuz azpimarratzen duen bezala, halere,

“este era un primer paso para superar el radical “*anti-maketismo*” aranista, como ocurrió con la fundación de ANV en la Segunda República y definitivamente con la formación de la izquierda nacionalista durante el franquismo y el postfranquismo.”

- c) Behin gerra igarota, eta nahiz eta euskal nazionalismoa oso ahuldurik aurkitu (koadro militante gehienak erbestean, Hego Euskal Herriko antolakuntza ia erautsirik, eta abar) etorkinen auziaren aurrean *zerbait egitearen* beharra hasieratik mahaigaineratu zen. Behin euskal nazionalismoaren euskal nazioaren ulerkuntzan arrazak pisua galdua, eta horren orde (maila sinbolikoan bada ere) euskarak zentraltasuna hartzerakoan, etorkinen integrazioaren aldeko jarrera nagusitu zen. Ezkerreko abertzaletasunaren sorrerak, planteamendu berriei bidea irekiz, etorkinen integrazioaren aldeko prozesu hori azkartu zuen.

Conversik (1997: 199) zehazten duen bezala,

“the reaction to the second massive wave of immigration in the 1960s was to look for, and create, alternative values so as to

include the immigrants in the nationalist struggle rather than reject them.”

Ezkerreko abertzaletasunak eta, batez ere, ETak planteatutako euskal nazioaren ikuspegi berria, etorkinei ere irekia zena, euskal nazionalismo osora hedatu zen.

Ondorioz, euskal nazionalismoak euskal herritar kontzeptuaren berdefinizio sakona burutu zuen XX. mendean zehar. *Arraza* ardatz zuen naziotasunaren definiziotik etnia –eta hizkuntza– azpimarratzen zuen ikuskeretara pasa zen. Nazioaren definizio etniko horrek, nagusiki hizkuntzan oinarritutakoa, guztiz eraldatu zuen euskal nazionalismoa: nazioaren definizio itxitik –teorikoki– irekira pasa zen (*arrazaz* aldatzea ezinezkoa baita; ez, ordea, hizkuntza berri bat ikastea). Horrek aukera berriak ireki zizkion euskal nazionalismoari, eta baita etorkinei berei ere. Gainera, euskaran oinarritutako definizioa, praktikan, aktibismoan oinarritutako nazioaren zedarritze batera igarotzen joan zen (ik. Conversi, 1997: 240; Zabalo 2006). Finean, borondatea euskal herritar bilakatzeko faktore nagusi bilakatu zen: euskal nazioko kide izan *nahi* izatea zen funtsezkoa, beraz. Horrek ere arazoak ekar zitzakeen, euskal herritarraren definizioa abertzaletasunari oso loturik zegoen heinean (*euskal herritarra* eta *abertzalea* berdintzen zen, alegia), eta hala salatu zuen, etengabe, espainiar nazionalismoak. Baina, oro har, aukera berriak ireki zizkion euskal nazionalismoari, tartean, Hego Euskal Herrian gehiengoa izatearena.

BIGARREN ATALA:

**IMMIGRAZIOA: ETORKINAK ETA HARRERA
GIZARTEAK**

3. IMMIGRAZIOAREN AZTERKETA ETA BERE AUZIAK

3.1. Migrazioen azterketa eta bilakaera

Migrazioak aztertzeak hainbat arazo dakartza berarekin. Aztergaitzat *immigrantea* hartu ohi da, eta ikerketa *harrera gizartetik* edo *gehiengotik*⁹³ abiatzen da. Hortaz, migrazioen azterketan gertatzen den –edo eraikitzen den– desberdintasunezko egoera kontuan hartzea ezinbestekoa da. Izan ere, aztergai den subjektua –immigrantea– modu estigmatizatuan behatu ohi da, estereotipo eta aurreiritzi ugariri loturik.

Immigrazioa, jada ikusi dugu, modu estuan lotua dago nazioari eta *nazio-estatuari*. Finean, immigrazioa nazioarteko migrazioekin parekatu ohi da; horrela, migratzea estatu batetik bestera mugitzea da, mugimendu horrek nolabaiteko egonkortasuna badu: etorkina denbora tarte luze batez lurralde batera doan gizabanakoa da. Kasu batzuetan, alta, etorkina, iritsi den lurraldean geratzeko asmorik gabe, denbora tarte mugatu bateko migrazio proiektua izango du. *Aldi baterako immigranteaz* hitz egiten da orduan, adibidez, Bigarren Mundu Gerra ostean Europako iparraldean, batik bat, bultzatu zen etorkin mota. Nolanahi ere, *immigrantearena* albo batera utzi nahi izaten den etiketa da, baieztapen horren ondorioa etorkinek beren identitateak eta praktika kulturalak galdu nahi izatea ez den arren (Zapata-Barrero, 2004: 114). Gauzak horrela, *immigrante* eta *autoktono* kategoriei buruzko eztabaida handia da, migrazioei buruzko ikerketan batez ere; eta *immigrante* terminoa alboratzea edo ahalik eta gutxien erabiltzea defendatzen da, batzuetan. Baina, errealitate hori definitzea beharrezkoa denez, irtenbide desberdinak erabiltzen dira: *migratzaile* erabiltzea (emigratu edo immigratu duen zehaztu gabe), legeetan oinarrituz, *nazional/naziokide* eta *atzerritar* dikotomia lehenestea, eta abar.

⁹³ Izendapen desberdinak erabili ohi dira immigranteak iristen diren lurraldean jada daudenak izendatzeko, bakoitza bere karga ideologikoarekin. Lan honetan, migratzailea ez den taldeari erreferentzia egiteko *harrera gizartea*, *autoktonoak* edo *bertakoak* terminoak erabiliko ditugu, batez ere. Beste izendapen egoki bat, bertakoen botere kokapena agerian uzten duena, *gehiengoarena* da. Izan ere, *harrera gizartea* sozietatearen gehiengoa da eta, beraz, etorkinarekiko botere kokapen argia izango du.

Ikuspegi horren arabera, oro har, immigrantea migratzearen esperientzia pasa duena da eta, beraz, *immigrante* kategoriaren ordean, *iritsi berriarena* [*newcomer*] proposatzen da, Ameriketako Estatu Batuetan eta Kanadan 1950eko hamarkadatik jada erabiltzen den terminologian oin hartuz (adibidez, ik. Bilbeny, 2009). Izan ere, *immigrantea*, pertsonaren ezaugarri irakunkorra baino, *egoera* bat dela azpimarratu nahi da horrela.

Eztabaida hori kontuan hartzea interesgarria bada ere, ikerlan honetan *etorkin* edo *immigrante* hitzak erabiliko ditugu aztergai dugun lurraldera –hots, Euskal Herrira– iritsitako pertsonak izendatzeko; eta, izendapen horretan, egoera desberdinak bizi dituzten pertsonak sartzen dira. Oro har, kasu motak ugariak diren arren, bi talde handi bereiz daitezke. Batetik, Espainiatik edo Frantziatik iritsitako pertsonak, legeen aldetik eta irudi sozialari dagokionez, beren Estaturen barruan *immigrante* gisa definitzen ez direnak, nahiz eta euskal nazionalismoak, printzipioz, *etorkintzat* hartzen dituen. Bestetik, Espainia eta Frantziatik at iritsitako immigrazioa, *gaur egungo immigrazio* moduan deitzen duguna, aurrekotik bereizteko.

Immigrazio berriaren kategoriaren baitan, oso egoera desberdinak biltzen dira, hainbat arrazoi dela-eta. Ugartitasun horren guztiaren artean, ondoko aldagaiek duten eragina azpimarratu behar da, elkarren arteko bereizketa analisirako bitarteko hutsa dela gogoraraztearekin batera:

- a) Lege egoera oso desberdinak bizi edo pairatzen duten gizabanakoak ezkuta daitezke kategoria horren atzean; adibidez, harrera lurraldean bizitzeko epe zehatz baterako baimena dutenak, egoera arautu egonkorragoa dutenak, beren egoera arautu ez dutenak, eta –normalean *immigrantetzat* hartzen ez direnak– herritartasuna eskuratu duten baina, jatorriz, *etorkin*ak izan diren gizabanakoak.
- b) Jatorria ere askotarikoa da, eta lotura handia izango du goiko aferarekin, hots, lege egoerarekin. Adibidez, *etorkina* Europar

Batasuneko estatu batekoa izan edo ez funtsezkoa izango da. Jatorriaren arabera, immigranteak dituen eskubideak, eta zailtasunak, asko aldatzen dira.

- c) Sexua ere albara ezinezkoa da. Jatorria edota immigrazio motari lotuta, migrazio fluxuaren arabera gizonezkoak edo emakumezkoak nabarmendu ohi dira. Adibidez, Bigarren Mundu Gerra ostean Mendebaldeko Europara iritsitako fluxua, gizonek osatzen zuten; aitzitik, gaur egun Hego Euskal Herrian nagusi den Latinoamerikako jatorria duen immigrazioan emakumeak gehiago dira.
- d) Aurreko guztiekin batera, klase soziala ere funtsezkoa da. Immigrazioaren irudi soziala, horrela, langile klasearekin zein sektore *desklasatuekin* lotu ohi da, immigrazio ekonomiko batez ari garenez; eta bestelako segmentuak (profesionalak eta abar) ahantzi ohi dira. Horrek, jakina, migrazio fenomenoaren estigmatizazioan eragin sakona dauka. Gainera, hizpide dugun immigrazioaren oinarrian, herrialde aberats eta pobretuen arteko menperatze harremanak daude.
- e) Klase soziala eta sexuarekin gertatzen den bezala, egitura sozialean garrantzitsuak diren bestelako faktoreak ere kontuan hartu behar dira, immigrazioaz aritzeko. Adina azpimarratu ohi da, sistema produktiboarekin duen lotura zuzena dela-eta. Horrez gain, sexu orientabidea, hezkuntza maila eta abar luze bat, testuinguruaren arabera, kontuan hartu behar dira, autoktonoen artean gertatzen den bezala.

Immigrazio berria etiketaren atzean, hortaz, elkarrekiko egoera desberdinak bizi dituzten pertsonak sartzen dira. Hala eta guztiz ere, kategoria horren barruan errealitate ugari metatu arren, immigrazio horri loturiko irudi sozialak elementu batzuk azpimarratzen ditu, eta beste batzuk ezkutatu.

Immigrazioaren gizarte irudikapenak, beraz, garrantzia eskuratzen du, errepresentazio horrek alboratu ezin daitezkeen ondorio sozialak dituen heinean.

Immigrazioari hainbat esanahi atxikitzen dizkiote aktore sozialek eta, beren botere kokapenaren arabera, arrakasta handiagoa edo txikiagoa izango dute immigrazioaren esanahiaren eraikuntza prozesuan. Horrela, *immigrante* etiketa hainbat aurreiritzi eta estereotipori loturik sortzen da, eta estigma bilakatzen da. Irudi horien guztien artean, indartsuenetakoa immigrazioa *arroztasunarekin* lotzea da: *immigrantea ez da gutarren parte* (ik. 1.2. atala). Immigrazioaren errepresentazio soziala, hortaz, gizarteko botere harremanen arabera eraikitzen da, klase eta genero kokapen zehatzetatik abiatuta, besteak beste. Irudikapen sozial horrek, bada, *immigrante imajinatua* du hizpide, Santamaríaren (2002: 5) esapidea erabilia. Etorकिनaren irudikapenak forma zehatza hartzen du; gure testuinguruan, 1990eko hamarkada bukaeratik aurrera, *immigrazio ez komunitarioa* nagusitu da, eta horri loturiko *soinudun diskurtsoak*⁹⁴ –edo nagusitzen den diskurtsoak– hizpide dituen gaiak ere adierazgarriak dira: *paterak*, *cayucoak*, islamiar zapia, Europako hegoaldeko muga, *mairuak*, *beltzak*, delitua, eta abar.

Soziologiatik immigrazioa aztertzea, beraz, konplexua bilakatzen da, errepresentazio eta diskurtso sozial horiek aztergai hartu behar diren heinean. Gainera, soziologoa ezin da immigrazioari lotutako irudikapen horien eraginetatik at guztiz kokatu, bere aztergaiaren parte delako. Hortaz, beharrezkoa bilakatzen da Soziologiaren papera ere problematizatzea (ik. Santamaría, 2002: 15 eta hur.). Soziologiak ere, immigrazioa aztertzen duenean, gai hori *problematizatu* egiten du, hots, arazo bilakatu; eta prozesu horretan ere botere harreman zehatzek eragin ukaezina dute, Soziologiaren kokapena bera ere ez baita neutrala: Soziologia harrera gizartetik, *mundu aberatsetik*, klase eta genero kokapen zehatzetatik egiten baita.

⁹⁴ Mernissiren (1990) arabera, legeetan eta hedabideetan islatzen den diskurtsoa da.

Immigrazioak aztertzeak dituen mugak aitatur, pasa gaitezen orain immigrazioari loturiko ereduak behatzera.

Immigrazioa aztertzerako garaian, bi ikusmolde orokor bereiz daitezke. Batetik, ikuspegi *naturalista*, zeinaren arabera, immigrazioa beti existitu izan den fenomeno den. Ikuspegi horri jarraituz, immigrazio garaikideak ez du afera berririk planteatzen errealitate honen analisisira hurbildu nahi duenarentzat. Bigarrenik, ikuspegi *historikoa* dugu. Perspektiba honek immigrazioa fenomeno berria ez dela onartzen du, baina, aldi berean, gaur egungo immigrazioaren izaera berezia azpimarratzen du: *gizarte multikulturalen* sorrera, hain zuen. Hortaz, immigrazio garaikideak gizarte multikulturala sortzen duenez, immigrazioaren azterketak arreta eskaini behar dio errealitate multikulturalaren eta eremu publikotik horri emandako erantzunen arteko aldeari (Zapata-Barrero, 2004: 10-11). Multikulturalismoa, bada, albora ezinezko errealitatea eta eredu da egungo immigrazioaren alorrean; hori dela eta, puntu berezi batean landuko dugu, aurrerago.

Immigrazioa, beraz, betidaniko errealitatea da: gizakiak lurralde batetik bestera desplazatzea, bere bizilekua aldatu asmoz, errealitate zaharra da. Hala ere, immigrazio modernoa ezin da nazio-estatuari eta horri loturiko mugaren ideia kontuan hartu gabe aztertu. Immigratzea, finean, nazio-estatu batetik beste batera mugitzea da, mugak zeharkatzea. Hori izango litzateke immigrazioaren mugapen ohikoena: estatuen artan gertatzen dena; eta hauen barrukoak, hortaz, barne-migrazio legeak sailkatzen dira. Baina planteamendu horretan, nazionalismoa lehenesten badugu, zehaztapen bat egitera behartuta gaude, estaturik gabeko nazionalismoak ere izan badirelako. Hortaz, nazionalismoaren ikuspegitik, bere lurraldera, nazio lurraldera, bizitzera iristen diren gizabanako guztiak izango dira *immigranteak*, estatu beretik etorri arren. Izan ere, etorkinaren definizioa bera (hots, *zein da etorkina?* galderari erantzuna ematea), nazio gatazkaren parte bilakatzen da, nazionalismo esanguratsuak lehian dihardutenean (ik. 1.2. puntua).

Esaten genuenez, historian zehar gizakiek bizileku berri baten bila muga zeharkatzea etengabean gertatu da, garaiaren arabera fluxuek norabide eta intentsitate desberdinak hartu dituzten arren. Halaber, mugen aldaketek ere gizakiak estatuz aldatu dituzte, hauek kokapen geografikoz aldatu ez arren. Horrekin guztiarekin batera, giza mugimendu hauek, hainbatetan, gehienetan agian, ez dira boluntarioak izan: kolonizazioak, gutxiengo politiko, erlijioso zein etnikoen kanporaketak, preso egindako pertsonen mugimenduak, soldaduen nahiz lan eskuaren erreklutamendua, edota esklaboen garraioa, gizabanakoen borondatearen aurkako desplazamendu geografiko ugarien adibideak dira.

Nazioarteko migrazioek eta fluxu horien erregulazioak bilakaera handia ezagutu dute. Mundu mailako migrazio fluxu moderno nagusiak, bada, modu desberdinetan sailka daitezke, prozesu zabal eta konplexuak barnebiltzen diren heinean. XIX. mendearen erdi aldea aipatzen da fluxu moderno hauen hasiera data gisa, 1914ra arte luzatu zen migrazio aldi bati hasiera emanez. Lehen migrazio etapa honetan Europatik abiatuak, Amerika zein Australiarako immigrazio uholdea jazo zen. Aldi horretan, gizabanakoen mugimenduak liberalizaturik zeudela azpimarratu ohi da, *merkatu librearen* sistema bultzatzen zuen liberalismoa nagusi zen eta. Hala ere, erlijio erakundeek, sindikatuak zein enpresarien elkarteak immigrazio zehatzak bultzatu zituzten; eta, immigrazioak guztiz arautuak ez egon arren, estatu batzuek immigrante batzuen sarrera ukatu zuten⁹⁵ (López Sala, 2005: 34-35).

Lehen Mundu Gerrarekin, eta 1945era arte, bigarren immigrazio aldi bat bereizten da. Etapa horretan, migrazio fluxuen arautzeari ekin zitzaion. Estaturen mugak zeharkatzeko pasaporteak exijitzen hasi zen, eta Europa zein Ipar Amerikako estatuak lehen immigrazio legeak ezarri zituzten. Bi mundu gerretan, gainera, lurralde kolonizatuak herritarrak metropolira desplazatu ziren, bertako industrian lan egitera. Etapa horretan, *1929ko krisia* gertatu zen, eta immigrazio politikak modu argian gogortu ziren. Etorkinak kopuru handitan hartu zituzten Hego Amerikako estatuak, adibidez, 1930eko hamarkadan

⁹⁵ Juduak Ipar Amerikako estatuetan, Britainia Handian edota Suedian, adibidez. Baita ekintzaile politikoak (AEBetan, nagusiki), gaixoak zein behartsuak ere.

etorkinen sarrera oztopatu zuten. Oro har, etapa horretan etorkinak jasotzen zituen estatuetan immigrazioa arautzeari ekin zitzaion, modu partzialean bada ere (Ibidem, 37-39).

Hirugarrenik, 1945etik 1973ra arteko immigrazio aldia dugu, aldaketa sakona ekarri zuena immigrazio modernoaren historian. Orduan, hazkunde ekonomikoa nabarmena handia izan zen, eta horrek lan eskuaren beharra ekarri zuen, industria berrietan lan egiteko, Europan batik bat. Aldi horretan, beraz, migrazio saldoen ikuspegitik Europa erdi eta iparraldeko estatuak etorkinen hartzaile bihurtu ziren, Hego Amerikak garrantzia galdu zuen bitartean. Migratzaile hauek Mediterraneoko Europatik (Espainia, Italia, Grezia eta Portugal) abiatu ziren, eta ondoren Magreb, Turkia eta Jugoslavia ohia ere migratzaileen jaulkitzaile bilakatu ziren. Izan ere, Afrika eta Asiako herrialdeen deskolonizazioaren eraginez, fluxu nabarmenak zuzendu ziren Britainia Handia, Frantzia, Belgika eta Herbehereetara, kolonia izandakoetatik⁹⁶. Beste fluxu bat, kopurutan askoz txikiagoa izan arren, herrialde sozialistetatik Mendebaldeko Europa eta Ipar Amerikara bideratutakoa izan zen. Kontuan izan behar dugu, Jugoslaviako eredu heterodoxoan izan ezik, estatu sozialistetan emigrazioa oso mugatuta zegoela, are debekatua ere, batzuetan (Ibidem, 39-40).

Migrazio politikari dagokienez, etapa horretan, arrazan oinarritutako immigrazio politikak alboratu ziren (adibidez, 1970eko hamarkada arte, Australiak eta Kanadak immigrazio *zuria* bultzatu zuten, *White Canada* eta *White Australia* politiken ildotik), eta estatu horietara Asiatik bideraturiko immigrazioa zuzendu zen, ondorioz. Ameriketako Estatu Batuetan, bestalde, Mexikoko zein Puerto Ricoko langileen immigrazioa bultzatu zen. Hala ere, *etorkinen integrazioaren* afera ez zen, oraindik, gai zentrala migrazio politikan (Ibidem, 42-50).

Hortaz, Bigarren Mundu Gerra osteko lehen etapan (1945-1973), etorkinentzat *ateak irekita* izan ziren: migratzailea *langile gonbidatuaren*

⁹⁶ Herrialde deskolonizatueta bizi biztanle autoktonoekin batera, metropoliko kolono zein haien oinardeko ugari itzuli ziren.

sinonimo zen, eta immigratuok behin bere enplegu betebeharrak beteta, beren herrialdera itzuliko zirela pentsatzen zen. Uste horrek porrot egin zuen 1970eko hamarkadan (1973ko *petrolioaren krisia* mugarriztat har daiteke), eta *ate itxien* (1973-1990) aldi bati hasiera eman zitzaion. Orduan, immigrazioa *arazo* moduan agertu zen –*immigrazioaren arazoa* jaio zen–, eta langile etorkinak *gonbidatu* beharrean, *kuota politikak* eta *tolerantziaren mugak* izan ziren immigrazioari loturiko eztabaidak (Zapata-Barrero, 2004: 111).

Immigrazio modernoaren laugarren aldi horretan, 1973tik aurrera, immigrazio politikoak indarra hartu zuen, babes politikoaren eskaerei loturik. Horrekin batera, Europa mailan, herrialde sozialista ohietatik abiatutako immigrazioak ere nabarmendu ziren, Poloniatik Alemaniara, edota Sobiet Batasun ohitik Israelera, adibidez. Hala ere, etapa horretako fluxu adierazgarrienak Afrika, Asia eta Latinoamerikatik Europara zuzendutakoa izan ziren. Aldi horren bereizgarria da, beraz, Europako hegoaldea etorkinen hartzaille bilakatzea. Halaber, orduan emakumeen immigrazioak garrantzia hartu zuen, zenbait estatu hartzailetan zaintzari lotutako lan eskua eskatzen baitzen. Baina migrazio politikari dagokienez, aipatu dugun moduan, legeak gogortu ziren, eta, aldi berean, *legez kanpoko immigrazioaren* irudiak zentraltasuna eskuratu zuen, diskurtso sozial zein politikoan (López Sala, 2005: 43-48). 2000tik aurrera, bestalde, immigrazio gelditzeko diskurtsoa indartu da, herrialde aberatsetarantzko immigrazioa geldituko lukeen *harresien* ideari lotuta (Zapata-Barrero, 2004: 111).

Laugarren etapa horretan, bada, immigrazioaren aurkako lege gogorrek garatu dira, baina, paradoxikoki, aldi berean *etorkinen egokitzapena* helburu moduan mahaigaineratu da. Hurrengo puntuan immigratuen egokitzapenaren afera landuko dugu.

3.2. Etorkinen egokitzapena: ereduak eta eztabaidak

Immigrazio modernoaren fluxu eta norabide desberdinek eztabaida ugariri bide eman diete; eta gaiari buruzko arretak hainbat bide hartu ditu. Horrela, XX. mendeko lehen erdian, nazioarteko migrazio fluxuak Europatik Amerikarantz zihoazenean, immigrazioaren ikerketa –asimilazioaren paradigmari loturik– Ameriketako Estatu Batuetan garatu zen, batik bat. Bigarren Mundu Gerratik aurrera, aitzitik, migrazio fluxu esanguratsuak iritsi ziren Mendebaldeko Europara eta, hori gertatu ahala, migrazioen ikerketak garrantzia eskuratu zuen kontinente zaharrea. Denborarekin, asimilazioari lotutako paradigmak alboratu, eta immigranteen integrazioa eta, modu orokorragoan, *egokitzapena* ardua nagusi bilakatu ziren. Gai horiek, halaber, immigrazio politiketan isla izatera iritsi ziren, eta *etorkinen integrazioa* nazio-estatuaren jardunaren nahiz diskurtsoaren xede bilakatu zen.

Etorkinen integrazioa kontzeptu konplexua da, eta hainbat eztabaida sortu ditu immigrazioei buruzko ikerketetan (gai horren aspektu garrantzitsuenetarako, batik bat nazioa eta nazionalismoaren ikuspegitik, ik. 1.3. puntua). Modu orokorrean azalduta, baina, integrazioak, alde batetik, immigrantea harrera gizartera iritsi osteko prozesu konplexu hori guztia barne hartzen du (Favell, 2003). Eta, horrekin batera, integrazioak aldebikotasuna exijitzen du; hots, integrazioak etorkinari eta harrera gizarteari dagokio, hizkera arruntean asimilazioaren sinonimo gisa erabiltzen den arren.

Immigranteen egokitzapena edo integrazioa, beraz, denbora kontu baten moduan ulertu izan da, baita gizarte zientzien barruan ere. Iritzi horren arabera, etorkinak gizarte batean txertatzea denbora kontua da, batez ere. Immigratuei loturiko estereotipoak, horrela, *bigarren belaunaldiak*⁹⁷ jasoko zituela pentsatzen zen, baina *hirugarren* nahiz *laugarren belaunaldiek* gaindituko zituztela. Uste hori hegemonikoa izan zen asimilazioa edo *melting pot* bezalako

⁹⁷ Migrazio gaietan maiz erabiltzen den kontzeptu horren mugak argiak dira. Izan ere, *bigarren belaunaldiko etorkin* deitzen diren horiek jada ez dira immigranteak, lurralde horretan jaio diren heinean. Uler bedi, beraz, zein zentzutan erabiltzen dugun hemen.

ereduak nagusi zirenean; eta, gaur egun, ziur aski ezin ditugu guztiz gainditutzat eman. Hala eta guztiz ere, hainbat adierazlek aurkakoa pentsatzera eramán gaitzake: etorkinen seme-alabak ere, ofizialki immigranteak ez izan arren, autoktonoen seme-alabek baino maila baxuagoak betetzen dituzte egitura sozialean, esaterako. Zentzu horretan, Telles eta Ortizek (2011) azpimarratzen dutenez, bazterkeria belaunaldien artean ere transmititzen da, immigrazioaren estigma kentzea ez baita erraza; ez da denbora kontu hutsa.

Immigrazio gaia kultura, identitatea, nazioa... bezalakoekin lotzea, bada, errealitate nahiko berria da. Izan ere, lehenengo immigrazio politiken ardura nagusiak fluxuen kudeaketa *teknikoari* buruzkoak (etorkin taldeen sarrerari loturik, nagusiki) edota lan eskuari lotutakoak (langileak erreklutatzea zein lan munduan nola txertatu) ziren. Ez zen kontuan hartzen, langilea izateaz gain, atzerritarrak kultura desberdina zekarrela berarekin (López Sala, 2005: 77). Orain dela hamarkada batzuk kultura aniztasunak aldekoak eta aurkakoak zituen bitartean, gaur egun zentzugabea litzateke aniztasuna ukatzen saiatzea. Hala ere, afera horrek badu bere alde problematikoagoa ere bai; izan ere, gogora dezagun immigranteen integrazioari buruzko ardura 1980ko hamarkadan orokortu zela, Ongizate Estatuaren krisiarekin –edo haren aurkako erasoekin– batera. Immigrazioa *arazo sozial* bilakatu ahala, hari buruzko ardurak kulturaren eremura mugitu ziren, eta immigrazioa etorkinen *adaptazioari* loturiko arazo gisa planteatu zen (ik. Cachón, 2009: 262).

Beraz, etorkinen kulturak modu esentzialistan ez ulertzea berebizikoa da; eta, horrekin batera, immigranteek iristen diren gizartean duten klase kokapena ez da ahantzi behar. Etorkinak harrera gizarteko klase sisteman modu desberdinetara txerta baitaitezke, langile zein enpresaburu gisa, adibidez. Halaber, immigranteen kulturaren afera lantzerakoan, normalean, harremanetan etorri berrien kultura harrera gizartekoarekin soilik jarri ohi da, etorkinak beste hainbat erreferentzia izan ditzakeela ahantzirik. Etorkinaren kulturak –gutxiengo egoeran dagoen kulturak–, horrela, hiru erreferentzia puntu nagusi izan ditzakeela azpimarratzen da: lehena, jaioterriko kultura, ekonomia eta politika; bigarrena, harrera gizarteko biziraupenari zein

arrakastari loturiko arazoak; eta, hirugarrena, ekonomia globalean sor daitezkeen aukerak (Rex, 1997).

Immigrazioak, beraz, beste hainbat asperturekin batera, iristen den gizartera kultura aniztasuna darama berarekin. Aniztasun hori kudeatzeko politikak eta jardunak askotarikoak dira, eta haien inguruan hainbat eredu bereiz daiteke. Immigrazioaren ondoriozko kultura aniztasuna kudeatzeko ereduaren artean, multikulturalismoa kokatzea beharrezkoa da. López Sala (2005: 77-92) jarraituz, bada, eredu horiek izaniko bilakaera azalduko dugu jarraian.

1. taula: Aniztasun soziokulturala kudeatzeko ereduak

<p>BAZTERKERIA EREDUAK (barneratzea oztopatu)</p>	<p>-Segregazioa eta diferentziazko bazterkeria</p>
<p>BARNERATZE EREDUAK (barneratzea bultzatu)</p>	<p><i>Eredu ez pluralistak (kultura bakarra)</i> -Asimilazioa -<i>Melting Pot</i></p> <hr/> <p><i>Eredu pluralistak (aniztasun kulturala)</i> -Multikulturalismoa -Interkulturalismoa</p>

Iturria: López Sala (2005: 92).

Hamarkada luzetan zehar, aniztasun kulturala lantzerakoan, bazterkeria izan da nagusi. Hari lotutako ereduaren arabera, iritsi berriek –eta gutxiengoek– beren desberdintasun kulturekin eremu publikotik at mantenduz biziraun zezaketen. Hortaz, eredu horiek gutxiengoaren azpiratze egoera mantentzea eta eliteen posizioa indartzea dute xede. Segregazioa da eredu horietatik paradigmaticoa, *arrazak* bereizita mantendu nahi dituen; eta bere muturreko adierazpena, Hegoafrikako *Apartheida*. Bestean, desberdintasunean oin hartzen duen bazterkeria, legearen zein mekanismo ez formalen (arrazakeria⁹⁸,

⁹⁸ Arrazismoa desberdintasunean oinarritzen den arren, Michel Wieviorka (1992) jarraituz, arrazismoa berdintasunarekin ere lotuta dagoela kontuan hartzea interesgarria da. Horrela, immigranteekiko arrazismoa ez da pizten hauek gizarte egituren beheko posizioak betetzen dituztenean, baizik eta autoktonoak eta immigranteak sistema produktiboan, harremanen esparruan eta abarreak berdintzen hasten direnean; eta, ondorioz, lehiatzen hasten direnean.

adibidez) bidez, immigratua gizarte esparru batzuetan soilik barneratzen da (lan merkatura, normalean), eta gainontzeko eremuetatik kanpo geratzen da. Eredu horren hainbat ezaugarri gaur egungo praktikan nabaritzen badira ere, eredu moduan guztiz alboraturik daude.

Hamarkadetan zehar, hala ere, eredu nagusia asimilazioa izan da (*akulturazioa*, *absortzioa* edota –testuinguru anglosaxoian– *anglo-conformity* ere deitua)⁹⁹, harreman etnikoei buruzko ikerketa soziologikoetan kontzeptu gakoa izandakoa 1950eko hamarkada arte¹⁰⁰. Asimilazioa, bada, immigratuari soilik dagokion prozesua da. Gainera, eredu asimilazionistak immigrantearen asimilazio prozesua ia *naturalizat* ulertzen zuen. Migratzaileak kultura, gizarte nahiz hizkuntza alorreko bere ezaugarriak alboratu behar ditu, eta iritsi den gizartearen gehiengoaren ezaugarrietara moldatu. Asimilazioak desberdintasuna desagerrarazi nahi du, beraz. Connorrek (1998: 52) gogorarazten digunez, Ameriketako Estatu Batuetan asimilazioa prozesu arrakastatsua izan bazen, etorkinek berek bultzatu zutelako izan zen, eta ez harrera gizarteak edo gehiengoaren gizarteak halakorik egin zuelako. Asimilazio politikak, Europara mugatuz, Bigarren Mundu Gerra ostean garatu ziren Frantzia eta Erresuma Batuan, 1960ko hamarkada arte, nahiz eta lehena hartu ohi den asimilazioaren adibide paradigmatikotzat.

Aferaren ikerketari dagokionez, AEBetan hasi zen asimilazioa ikertzen, 1930eko hamarkadan, Chicagoko Eskolako teorialarien eskutik. Gordonek (1964), bestalde, asimilazioaren azalpen klasikoa burutu zuen: asimilazioa maila desberdinak igaro behar dituen prozesua da, akulturaziotik (harrera gizartearen hizkuntza, erlijioa eta beste ezaugarri batzuk xurgatzea), asimilazio osora, egiturazko integraziotik (gizarte harreman primarioetan txartatzea eta diskriminazioa eta aurreiritziak desagertzea) pasatuz.

Hortaz, arrazismoa desberdintasunaren ondorio da, alde batetik, baina paradoxikoa badirudi ere, parekotasun maila bat ere behar du, aldi berean.

⁹⁹ Asimilazioan sakontzeko, adibidez, ik. Castles, 1995.

¹⁰⁰ Kontzeptuaren erabilerak izandako bilakaerarako, ik. Glazer, 1993.

Hala ere, 1950eko hamarkadan asimilazioak oinarrizko bi arazo zituela nabarmendu eta kontzeptuak kutsu ezkorra hartu zuen. Batetik, errealitateak berak immigranteen asimilazioranzko joera ia *naturala* ezeztatu zuen; bestetik, asimilazioak jatorrizko bekatua zuela mahaigaineratu zen: harrera gizartearen ustezko homogeneousun kulturala baieztatzen zuen, baina hori ez zen, inondik inora, errealitatean jazotakoa.

Asimilazioari eginiko kritika horrek kontzeptu berri bati ateak ireki zizkion, Ameriketako Estatu Batuetan batez ere: *melting pot*. Horren ekarpen nagusia immigrazioaren ondorioz harrera gizarteak ere aldatu behar duela azpimarratzea da, eta ez migratzaileak soilik. *Melting pot*-ak, horrela, fusio kulturala azpimarratzen du. Etorkinen zein bertakoan nahastearen ondorioz (eskola eta etnien arteko ezkontzak nabarmenduz), *gizarte berri* bat sortuko litzateke horrela. Asmoak asmo, hala ere, eredu berriak ez zituen AEBetako harreman etnikoak aldatu: europar jatorriko taldeen arteko nahasketa ez zen espero zitekeen bezain esanguratsua izan, eta afrikar zein latinoamerikar jatorrizkoen azpiratze egoerak aldaketa esanguratsurik gabe zirauen. Kanadan ere antzeko prozesua gertatu zen, *mosaiko etnikoaren* izendapenez, baina AEBetako ondorio berberekin: mosaikoaren ideiak etorkinekiko begirunearen kutsua izan arren, praktikan migratzaileek Kanadako bi kultura nagusien artean –ingelese eta frantsesa– aukeratzera derrigortu zituzten (Kymlicka, 1996: 30).

Desberdintasunak azalduta, segregazioa, asimilazioa eta *melting pot* ereduaren arteko antzekotasunak ere nabarmendu behar dira. Izan ere, hiru ereduak immigranteen zein gutxiengoaren aniztasun kulturala bigarren maila batean utzi zuten, eta nazio eraikuntza prozesuetan aniztasun hori kontuan hartu gabe, nazio identitateak kanpo utzi zuten, finean, bizitza sozialaren alboetara mugatuz (López Sala, 2005: 84). Ez zuten errealitatean aniztasuna aintzat hartzen, praktikan kultura bakarra baitzuten erreferente gisa hiru ereduak. Izan ere, 1960ko hamarkadaren bukaeran, pluralismo kulturalaren¹⁰¹ ereduak indarra hartu zuten. Zentzu horretan, asimilazionismoaren eta

¹⁰¹ Pluralismo kulturala [*cultural pluralism*] kulturari dagokion aniztasuna modu positiboan ulertu eta aztertzeari deritzo, oro har.

pluralismo zein multikulturalismoaren arteko ika-mikak immigrazio gaietan kulturak zentraltasun osoa hartzera eraman zuen (Giménez Romero, 2003b: 76). Edonola ere, herrialde batean pluralismo kulturala errealitate izango da immigrante moduan beste kultura batzuetako gizabanako eta familia kopuru esanguratsuak onartzen dituenean, euren partikularitasun etniko zenbait aitortuz (Kymlicka, 1996: 29). Horren adibide dira Australia, Kanada eta Ameriketako Estatu Batuak, munduko immigrazio tasa tasa altuenak dituzten estatuak.

Kultura pluralismoa, halere, kontzeptu normatibo moduan erabili ohi dugu. Horrela ikusita, gaur egun nagusi den ikuspegia dugu, eta haren arabera, kultura aniztasuna ez da *arazo* bat, edota ekidin eta desagerrarazi behar den zerbait, baizik eta harrera gizarteak aberasten dituen eta bertako nazio identitateekin bateragarria den egitatea. Eredu pluralisten artean, zabalduena eta garapen teoriko nabarmena lortu duena multikulturalismoa da, eta, beste maila batean, *interkulturalismoa* ere aipa daiteke. Multikulturalismoaren ekarpen nagusia, pluralismotik abiatuz, helburutzat gizarte berdintasuna eta aukera berdintasuna izatea da, horri diferentziarako eskubidearen printzipioa gehituz. Hori dugu, gaur egun, immigrazioari loturiko kultura aniztasunari buruzko eruedetan mugarrria. Hala ere, eredu horren barruan hainbat ikuspegi eta eztabaida antzeman daitezke; eta bere aurka egindako kritikak ere ugariak dira. Hori dela eta, hurrengo puntuan landuko dugu multikulturalismoaren afera, tarte berezia behar duela uste dugu-eta.

Pluralismo kulturala eta multikulturalismoa, batzuetan, sinonimo gisa erabiltzen dira, nahiz eta, berez, pluralismo kulturala kontzeptu zabalagoa den. Izan ere, multikulturalismoarekin batera, interkulturalismoa aipatzen da, batzuetan, beste eredu pluralista moduan. Interkulturalismoa, halere, multikulturalismoari guztiz lotutako ideia da, eta bi kontzeptuak batera aurkezten dira. Interkulturalismoa, kontzeptu gisa, 1970eko hamarkadan agertu zen Quebecen, Kanadako *multikulturalismo konstituzionalaren* eztabaidaren

testuinguruan¹⁰². Multikulturalismoaren baitan ingeles kultura eta Quebeceko nazionalismoak aldarrikatutako frantsesa ere barnebiltzen ziren bitartean, interkulturalismoa Quebecen gutxiengoak integratzeko eredia izendatzeko erabili zen.

Kontzeptuaren sorrera alde batera utzita, interkulturalismoaren berezitasuna kulturen arteko harremana eta sintesia azpimarratzea da, kulturen berezko garapena nabarmendu beharrean (multikulturalismoak egiten duen legez). Interkulturalismoak, horrela, *kultura* kontzeptu dinamiko eta aldakor gisa ulertzen du, eta multikulturalismoarekiko desberdintasun nagusia bi ereduek bilatutako helburuan aurki daiteke: interkulturalismoak, kultura gutxituen birsortzea baino, kulturen arteko sintesi berriak eraikitzea baitu xede nagusi (López Sala, 2005: 87). Espainian, Giménez Romero (2003a) interkulturalismoaren defendatzaileen adibidetzat har daiteke, zeinak kulturartekotasuna multikulturalismoa *gainditzen* duen eredu gisa planteatzen duen. Ideia horrek nolabaiteko arrakasta izan du gaztelaniazko literatura zientifikoan, hezkuntzaren eta pedagogiaren alorretan, batez ere (adibidez, ik. Bartolomé eta Cabrera, 2003; Soriano, 2004).

Hala ere, pluralismo kulturalaren baitan multikulturalismoa da eredu normatibo nagusia, eta politika zientziaren zein soziologiaren arreta handiena jasotzen duena. Jarraian, beraz, eredu horretan sakonduko dugu.

¹⁰² *Multikulturalismo konstituzionala* Kanadaren izaera bikultural eta binazionalari buruzko eztabaidaren testuinguruan proposatu zen federazioaren aldekoen partetik: Quebeceko alderdiek proposatutako Kanadaren izaera bikulturalaren aurrean (*ingeles-kanadiarrak* eta *frantses-kanadiarrak*, azken horiek ondoren *quebectar* moduan ikusiak), Kanadako federazioaren aldekoek *multikulturalismoa* proposatu zuten, ingeles eta frantses kulturarekin batera, beste batzuk ere bazeudela azpimarratzeko (indigenak, juduak, hamarkadak zeramatzen italiar jatorrikoak, etorkin berriak eta abar). Quebecen, proposamen hori probintzia frantses hiztunaren aldarrikapenak gutxiesteko amarru gisa ikusi zuten askok, quebectarren eskaerak immigranteen eskaera *etnikoekin* parekatzen zirelakoan (ik. Kymlicka, 1996: 34; nazionalismoaren ikuspegitik, ik. Fusi, 2006: 305 eta hur.).

3.3. Multikulturalismoaren auzia

Kultura aniztasuna edo multikulturalismoa gai konplexua da, hitzetik beretik hasiz.¹⁰³ Terminoa 1960ko hamarkadan sortutako neologismoa da, *Oxford Dictionary*ren arabera, nahiz eta deskribatzen duen errealitatea berria ez den, gizartearen aniztasun kulturala zein gutxiengoen existentzia afera zaharrak baitira. Izan ere, Estatuaren ideia liberalaren eta gutxiengoen arteko hartu-eman konplexua izan da hasieratik. Asmo liberala, horrela, *eskakizun etnikoen* aurrean neutrala izango zen Estatu batena izan da. Horri loturik, giza eskubideak ere horrela ulertu dira, gizabanakoaren dimentsio horretatik, eta hori dela-eta gutxiengoen eskubideak ez ziren Giza Eskubideen Aldarrikapenean agertzen (ik. Kymlicka, 1996: 15). Ildo berean, J. Stuart Millen esaldi zabaldua dugu: “Free institutions are next to impossible in a country made up of different nationalities” (in Nimni, 1999). Aniztasuna arazo gisa ulertzen zen demokrazia liberala finkatzeko. Beste ikuspegi batzuetatik, korrante iliberalek ere aniztasunaren aurka eta homogeneotasunaren alde ekiten zuten.

Multikulturalismoa, alde batetik, maila deskriptiboan erabiltzen da: kultura aniztasuna gizartearen ezaugarri bat da; gizartearen aniztasun kulturalaren deskripzio hutsa egiten da horrela, beraz. Ez da horren balorazioa egiten, eta errealitate hori onartzera mugatzen da. Baina, bestetik, erreferentzia maila normatiboari ere egiten dio, immigrazioaren ondorio den aniztasuna kudeatzeko eredu gisa, hain zuzen (dikotomia horretan sakontzeko, adibidez, ik. Zapata-Barrero, 2004: 75 eta hur.). Bigarrena –multikulturalismoa eredu gisa– da interesekoa guretzat, eredu normatibo eztabaidatua den heinean. Multikulturalismoa eredu pluralista nagusia da, aurreko puntuan ikusi dugun bezala.

¹⁰³ Euskaraz, sinonimo gisa erabiltzen dira *kultura aniztasuna* eta *multikulturalismoa*. *Euskalterm* euskal terminologia bankuak, esaterako, biak jasotzen ditu, eta bigarrena hobesten du. Termino horiek, aurrerago ikusiko den bezala, bi mailatan erabiltzen dira: maila deskriptiboan –*gizartea kulturalki anitza da*– eta eredu gisa –immigrazioaren ondoriozko aniztasun kulturala kudeatzeko eredu gisa–. Garrantzitsua da bi maila horiek bereiztea.

Kultura aniztasuna estatu orotako gizarteen ezaugarria izan da, maila handiagoan edo txikiagoan. Gizarteak kulturalki askotarikoak dira, bai *immigrazio modernoan aurretik* kultura desberdinak izan direlako lurraldean, bai hainbat jatorritako lagunak hara iritsi direlako, eta baita gizarte klasea, generoa zein adinari lotuta ere, besteak beste, desberdintasun kulturalak izan badirelako ere. Gainera, kulturak era estatikoan (historian zehar kulturak aldatuko ez balira bezala) nahiz esentzialistan (kulturak ondo zedarritutako eta barne-gatazkarik gabeko taldeak bailiran) ulertzeak, aferaz bere sakontasunean jabetzeko oztupoak ezartzen dizkigula gogoratu behar dugu, berriz ere (ik. Baumann, 2001: 105 eta hur.).

Hala ere, Bigarren Mundu Gerratik aurrera, Mendebaldeko Europan *immigrazio berriak gizarte multikulturalak* sortu ditu (aurretik AEBetan, Kanadan edo Australian, adibidez, gertatu zen bezala); areago, gaur egun gizarte multikulturalak eraikitzen ari dira Europan. Errealitate horrek *politika multikulturalak* deitzen direnen beharra sortu du, batetik; eta, 1990eko hamarkadatik aurrera, teoria politikoan funtsezkoa izan den alorra indartu du, oro har, *immigrazioaren* aspektu kulturei buruzko interes zientifikoa ugartu delarik (Zapata-Barrero, 2004: 15 eta hur.).

Multikulturalismo eredua, bada, kultura aniztasunaren *onarpen* gisa jaio zen (Kanadako *recognizing diversity*), baina, ondoren, maila normatiboa eskuratu zuen, eta orain hizpide dugun zentzua eskuratu zuen. Handik oso gutxira, Australian ere garatu zen. Biak, Australia zein Kanada, *immigranteen demokrazia liberaltzat* har daitezke, eta ez da kasualitatea eredua halako *immigrazio* estatuetan jaio izana.

Multikulturalisten aburuz, gizarte multikulturala ez da *toleratu* beharreko zerbait, gorde, zaindu eta bultzatu beharrekoa baizik. Jada aipatu dugunez, multikulturalismoak, gizarte berdintasunaren eta kohesioaren helburuarekin, diferentziarako eskubidearen bermea bilatzen du (horretan datza bere ekarpen nagusia); eta, horretarako, gutxiengo kulturek babestu beharra aldarrikatzen da, modu horretan aukeren berdintasuna bultzatzen dela

uste baita: *Berdinak gara kulturalki desberdinak izateko eskubide berak ditugulako*. Halaber, zenbait politika zehatzen bidez¹⁰⁴, gutxiengoek beren kulturak birsortzea ere bilatzen du (hor biltzen dira eredu honen aurkako kritika ugari); baina, beti ere, kulturagatiko talde bananduak edota *ghettoak* sor daitezela oztopatuz. Horretarako, immigratuek bizitza sozialean parte hartzeko gutxienekoak bermaturik izan behar dituzte, eta kultura nagusian ere txertatu beharko dira. Adibidez, gizartean hitz egiten den hizkuntza edo hizkuntzak ikastera bultzatu beharko dira gutxiengoen kideak (López Sala, 2005: 85-86).

Multikulturalismoa, ikuspegi moduan, askotarikoa da, eta interpretazio aurrerakoiak eta kontserbadoreak aurki daitezke bere baitan. Hala ere, multikulturalismoaren eztabaida garaikidean teoria liberala hegemonikoa da. Nimnik (2011) kultura aniztasunaren eremuan ezkerrek, eta bereziki ezker sozialistak, amore eman duela salatzen du, historikoki ezkerretik luzatu diren diferentziaren onarpenaren teorien ildotik jarraitu baino –adibidez, Renner eta Bauer buru zituen ikuspegi *austromarxistan* sakontzea (ik. Bauer, 1979)¹⁰⁵–, eremu hori ikuspegi liberalari utzi baitio.

Paradigma desberdinen arteko lehiak landa, multikulturalismoak ekarritako berritasun deigarria izan da aniztasun kulturalari buruzko eztabaidan estatutik gabeko nazionalismoaren aldagaia ere kontuan hartzea. Jarraian, gai horri erreparatuko diogu.

¹⁰⁴ Normalean, erlijio gutxiengoei loturiko gaiak jartzen dira adibide moduan: sikhismoaren jarraitzaileek turbantea, kaskoaren orde, motorrean eraman ahal izatea; judu nahiz musulmanek merkataritzan jaieguna igandea ez den beste egun batean egin ahal izatea; edota emakume musulmanek *hijaba* leku publikoetan eramateko eskubidea edukitzea; besteak beste.

¹⁰⁵ Renner eta Bauerren planteamendua, *nazionalismo multikultural* gisa ulertuta, egungo liberalismoaren kritika moduan aurkezten digu Nimnik (1999). Egile horrek defendatzen duenez, *austromarxistek* nazio-estatuaren aurka egin zuten, *nazioa* eta *estatua* desberdintzearen aldeko proposamenak egiten baitzituzten.

3.3.1. Multikulturalismoa eta estaturik gabeko nazionalismoa

Nazionalismoa eta immigrazioa arteko harremanak ez du arretan handiegirik jaso bi errealitateak aztertzen dituzten ikerlarien aldetik. Bi eremu hauek bata bestetik urrun garatu dira, oro har; eta multikulturalismoa immigrazioari lotu zaio, nazionalismoa arreta guneetatik at kokatuta.

Egile multikulturalista andanaren artean, esanguratsuenetakoa, beharbada, Will Kymlicka da. Kanadako filosofoaren lana funtsezkoa da multikulturalismoaren azterketan, eta bereziki multikulturalismoa estaturik gabeko nazionalismoarekin harremanetan jartzerakoan. Gai zehatz horretan 1995ean argitara emandako *Multicultural Citizenship* lana mugarria da (Kymlicka, 1996). Liburu horretan, Kymlicka gutxiengoaren eskubideak eta teoria liberala uztartzen saiatzen da, gutxiengo moduan nazio minoritarioak zein migratzaile taldeak kontuan hartuz. Finean, teoria liberalaren eta kultura-aniztasunaren arteko hartu-emanak oso eztabaidatua da, eta egile batzuk *gure garaiko paradoxa handiaz* hitz egitera iritsi dira, multikulturalismoaren desafio alboraezinak balio liberalekin kontraesanez beterik txertatzen baitira, batzuetan balio liberal horiekiko kontraesanean aritzera iristeraino (Zapata-Barrero, 2004: 14).

Ikuspegi liberal hertsia batetik, bada, Estatuaren eta gutxiengoaren arteko banaketak Estatuaren eta erlijioaren artekoa bezalakoa desberdintzea izan beharko luke: Estatuak *neutrala* beharko luke izan gizabanakoen gai etnikoetan (in Kymlicka, 1996: 16). Agerikoa denez, balizko *neutraltasun* hori ezinezkoa da guztiz, Estatuak sustrai etniko sakonak dituztelako eta, gainera, Estatu batek kontrolaturiko lurraldean gehiengo bat izango delako, haren hegemonia bizitza sozialaren alor desberdinetan egikaritutako duena, baita kulturarenean ere (ik. Baumann, 2001: 45 eta hur.). Hala ere, Bigarren Mundu Gerratik aurrera eta 1990eko hamarkadara arte (noiz multikulturalismoari buruzko ardura hedatu baitzen), liberalen artean nagusi zen ustearen arabera, gizabanakoen eskubideekin aski zen gutxiengo kultural nahiz nazionalak babesteko.

Esan dugunez, bada, Kymlickak aipatu planteamendu horrekin hautsi eta, ikuspegi liberal batetik, gutxiengoan eskubideak babestu eta kultura aniztasunaren aurrean planteamendu zehatzak garatzeko apostua egiten du. Bide horretan, Kymlickaren ekarpen nagusietakoa multikulturalismoaren eztabaidan nazio gutxiengoak kontuan hartzea izan da. Izan ere, multikulturalismoa eta multinazionalismoaren (hots, estatu beraren baitan nazionalismo ugari lehian dihardutenean) arteko hartu-emana adierazgarria da. Bai immigrazioak eta baita estaturik gabeko nazionalismoak ere nazio-estatu erredu tradizionalarentzat (kulturalki homogeneotzat hartzen zena) erronka argiak dira. Gainera,

“(…) la inmigración (…) también es un reto para los conceptos de sí y las aspiraciones políticas de aquellos grupos que se consideran a sí mismos naciones diferentes y autogobernadas en el interior de un Estado mayor.” (Kymlicka, 2003: 321).

Horrela, bi errealiteren aurrean topatzen gara: batetik, zenbait eremutan, immigrazioaren aldarrikapenak eta nazionalismo azpiestatalarenak kontraesanean jar daitezke; baina, aldi berean, egungo estaturik gabeko nazionalismo ugariak immigranteak euren proiektura erakartzen saiatzen dira, gutxiengoaren nazio horretan integratzera animatuz. Finean, estatu mailan gutxiengoa den nazionalismoak immigranteen integrazio prozesuan nolabaiteko eskuhartzea, edo kontrola, izan nahi du, hezkuntza edota hizkuntza bezalako eremuetan, batez ere (Ibidem, 322).

Kymlickak azpimarratzen duenez, estaturik gabeko nazionalismoak immigranteak bere proiektura erakartzeko zailtasunak nabariak dira: etorkinek kultura nagusian integratzeko joera izango dute, kultura hori izaten baita mugikortasun sozialerako aukera handiagoak eskaintzen dituen, abagune ekonomiko hobeak lortzeko ahalbidetzeaz gain (Ibidem, 323). Gainera, nazionalismo azpiestatalarentzat egoera are gehiago zailduz,

“(...) es bastante frecuente que los Estados animen deliberadamente a los inmigrantes (o a los emigrantes procedentes de otra parte del país) a asentarse en tierras tradicionalmente ocupadas por las minorías nacionales, como una forma de inundarles demográficamente y de restarles poder, reduciéndoles a una minoría incluso en el interior de su territorio histórico” (Kymlicka, 2003: 323).

Estatuaren asmoez gain, hala ere, immigranteen asmo eta helburuak (bizitza hobeago bat lortzea, finean) nazionalismo azpiestatalaren xedeetatik urrun kokatu ohi dira. Hau da, estatu mailan gutxiengoa den nazionalismoak berezko duen biziraupen asmoa ez du etorkinak partekatzen, normalean. Horregatik, etorkinak nazio minoritarioaren kide bilaka daitezke, baina litekeena da nazionalista ez bilakatzea¹⁰⁶ (Ibidem, 324).

Horrek guztiak, gutxiengo nazionalak immigrazioarekiko jarrera defentsiboa garatzera daramatza, immigranteekiko jarrera baztertzailletan oin hartuta, Kymlickaren ustez (Ibidem). Hori adierazi ostean, hala ere, egileak hainbat salbuespen mahaiganeraten ditu: Quebec, Katalunia, Eskozia edota Puerto Rico, adibidez. Kymlickaren aburuz, lurralde horietako nazionalismoek immigrazioarekiko jarrera postetniko eta zibikoa garatzen dute. Aitzitik, Euskal Herria eta Flandriako nazionalismoetan, immigrazioarekiko jarrera postetniko hori ez da, oraindik, hegemonikoa¹⁰⁷ (Ibidem, 325-328).

Areago, Zapata-Barrerok euskal nazionalismoa modu hertsia goan lotzen du Flandriako ereduarekin, elkarrizketa batean. Bere ustez, euskal

¹⁰⁶ Kymlickak Quebecen hori gertatu dela adierazten du. Bertara iritsitako etorkinak modu arrakastatsuan integratu dira kultura frantsesdunean, euren burua *quebeciar* gisa identifikatuz, eta Kanadarekiko baino Quebecetikiko lotura erakutsiz. Baina, hala ere, Kymlickaren aburuz, litekeena da immigranteek independentziaren alde ez egitea. Izan ere, hori gertatu zen 1995eko erreferendumean (Kymlicka, 2003: 324, 1.go oin-oharra).

¹⁰⁷ Kymlickak aipatzen dituen kasuen artean, gure ustez, euskal nazionalismoarena modu ahulagoan justifikatzen da, beste kasuetan ez bezala, erreferentzia bakarra (Díez Medrano, 1999) aipatzen baitu.

nazionalismoa –edo haren zati bat– immigrazioaren aurkako indar bilakatzeo arriskua dago, bere ikuspegitik euskal nazionalismoa *etnikoa* baita:

“Euskal Herriko nazionalismoa, zati bat behintzat, Kataluniakoa baino etnikoagoa da. Horrek, ziurrenera, bestelako erantzuna emango du. Zailagoa izango da etorkinak integratzea Euskal Herrian, eta Flandriako eredia hartzea litekeena da, Quebecekoa barik. Askoz errazagoa da Euskal Herrian eskuin muturreko nazionalismoa sortzea, immigrazioaren harira, Katalunian baino. Askoz arrisku handiagoa dago horretarako.” (Zapata-Barrero, 2010).

Hala eta guztiz ere, Kymclikaren iritziz, nazionalismoak –gehiengoarena zein gutxiengoarena– etorkinen integrazioa posizio postetniko eta multikultural batetik behatzera jotzen du, geroz eta gehiago. Zergatik? Ba gehiengo nazionalak zein gutxiengoek, beren joera demografiko beherakorrak direla-eta, immigranteak behar dituztelako. Gainera, dagoeneko argi geratu da immigrazioaren kontrol osoa ezinezkoa dela, eta immigrazio tasa bat beti gertatuko dela. Horrek nazionalismoa integrazioaren aspektu linguistiko eta instituzionala azpimarratzera eramane du, eta, aldi berean, etorkinen etnizitatearen onarpena eta egokitzapena bultzatzera (Kymlicka, 2003: 329).

Kymlickarentzat, bada, estaturik gabeko nazionalismo postetniko eta multikulturala sor dadin, ondoko baldintzak jazo behar dira:

- Gutxiengo nazionalak immigrazioaren kopuruan nolabaiteko kontrola izan behar du. Horrela, etorkinen kantitatea integratzearako oztopo ez bilakatzea bultzatuko litzateke.
- Horrekin batera, gutxiengo nazionalak integratzearen prozesuaren nondik norakoetan ere parte hartu behar du; izan ere, immigranteak gutxiengo nazionalaren kulturari integratzeo neurri batzuk beharrezkoak izan daitezke (Ibidem, 333).

Immigrazioak, horrela, nazionalismoa hauspotu dezake, immigrazioari loturiko aniztasuna kudeatzeko beharra nazionalismoaren eskaeretan txertatzerakoan. Espainian, Zapata-Barrerok (2004: 262-264) dioenez, multikulturalismoa eta estaturik gabeko nazionalismoa ez dira ia elkarren artean lotu; eta, salbuespen moduan, Katalunia aipatzen du, baina hastapenetan soilik (multikulturalismoa eta estaturik gabeko nazionalismoaren arteko harreramanerako, Kymlickaz [1996, 2003] gain, ik. Zapata-Barrero, 2008).

Kymlickak multikulturalismoaren barruan errealitate desberdinak barnebiltzen direla ohartarazten du; horren eraginez, multikulturalismo kontzeptuak maiz nahasketei bide emanez. Hori ekiditeko, kultur pluralismoaren forma nagusiak izendatzeko *multinazional* eta *polietniko* adjektiboak hobesten ditu filosofoak. Horrela, Estatu multikulturala *multinazionala* izango da bere kideak nazio desberdinetakoak baldin badira (Estatu multinazionala); eta *polietnikoa*, kide horiek nazio desberdinetatik emigratu baldin badute, eta desberdintasun horrek esangura pertsonal nahiz politikoa baldin badu (Estatu polietnikoa) (Kymlicka, 1996: 35 eta hur.). Normalean, Estatu bat multinazionala edo/eta polietnikoa izango da, baina aniztasun iturri bakoitzak eskaera diferenteei bide ematen dienez, bi maila horiek bereiztea kemeni da.

Izan ere, *multikulturalismoaren erronka* horixe baita: nazio eta etnia mailako desberdintasun horiek modu egonkor batean egokitzea, aldi berean egokitzapen hori modu etikoan eginez. Hortik abiatuz, Kymlickak bere hausnarketa eskubideen alorrera darama. Modu laburtuan, autogobernu eskubideak, eskubide polietnikoak eta ordezkapen eskubide bereziak bereiz daitezke (Kymlicka, 1996: 47 eta hur.). Lehenengoak, nazio gutxituei dagozkie; eta bigarrenak aniztasun polietnikoaren ondorio dira. Azken hauek, autogobernu eskubideak ez bezala, gutxiengo etnikoa gizartean integratzea dute xede. Ordezkapen eskubide bereziak, azkenik, behin-behineko eskubideak dira, *ekintza* edo *diskriminazio positiboari* loturikoak, eta talde desberdinek (ez

soilik nazionalak edo etnikoak) erakundeetan ordezkapena izatea bermatzea dute helburu.

3.3.2. Multikulturalismoaren mugak

Multikulturalismoaren defentsatik abiatuz, Zapata-Barrerok (2004) immigrazio berriak, gizarteen aniztasuna modu oso argian areagotu duen prozesua izanik, printzipio liberalak kolokan jartzen dituela azpimarratzen du, printzipio horiek nazio-estatuari guztiz lotuta baitaude. Izan ere, herritartasuna nazioari eta estatuari estekaturik egonda, immigrazioa errealitatea ulertzeko era horretatik at kokatzen da:

“(...) resulta una “gran paradoja histórica” que la ciudadanía, considerada como una de las categorías simbólicas de nuestra época moderna, como sinónimo de emancipación, síntesis empírica del principio normativo de igualdad y como superación de las desigualdades basadas en el nacimiento característico de la Edad Media, se esté convirtiendo en un símbolo de injusticia y desigualdad (...): *hoy en día, el criterio de acceso a los bienes que produce la sociedad está basado en el nacimiento (nacionalidad).*” (Zapata-Barrero, 2004: 45, egileak azpimarratua).

Finean, immigranteen eta estatuen arteko harremana Erdi Arokoa da: nagusi eta esklaboaren artekoa bezala (Ibidem, 113). Estatuak, horrela, herritartasunaren kudeaketaren monopolioa du. Monopolio hori funtsezkoa zaio; izan ere, estatuak, komunitate politiko gisa, bere legitimitatea herritartasunari lotutako identitate horretan oinarritzen du (Ibidem, 45). Zapata-Barreraren (2004) aburuz, zentzu horretan, herritartasuna eta naziotasunaren arteko batasuna zalantzan jarri behar da, besteak beste multikulturalismo liberalaren planteamendua modu argian oztopatzen baitu. Horri loturik, Wieviorkak (2008) multikulturalismoa zaharkitutzat hartzen du,

berez *globalak* diren errealitateei nazio-estatutik abiatutako erantzunak ematen saiatzen delako.

Multikulturalismoaren oztopo ugariak azpimarratuta, egile batzuek multikulturalismoak eta liberalismoak bat etortzeko zailtasun nabariak dituztela defendatu dute. Adibidez, ildo horren erakusgarri, Carensen (2004) multikulturalismoak defendatzen duen ideia baten aurka agertzen da, hots, immigrantei eskaera bereziak egin ahal izatearen aurka. Bere ustez, etorkinei ezin dakieke eskaera berezirik egin: herritartasunari loturiko eskubideek berdin-berdinak behar dute izan bertakoentzat zein etorkinentzat, eta ezin da inolako *akulturazio frogarik* eskatu.

1990eko hamarkada, Europan, multikulturalismoaren hamarkada izan zen bitartean, bada, 2001ean Ameriketako Estatu Batuetan burututako eraso jihadistak eta gero (ondorengo urteetan hainbat herrialdetan jarraipena izan dutenak), *Multikulturalismoaren Aroaren* amaieraz mintzo daiteke (Lloyd, 2002); eta aldi kontserbadore baten hasiera bereiz daiteke. Horrekin guztiarekin batera, azken urteetan, ordezkari politikoek multikulturalismoaren aurka egindako adierazpenek indarra hartu dute. Esaterako, 2010ean Angela Merkel Alemaniako kanzelerrak estatu horretan multikulturalismoak (Alemanian eredu multikulturalak izandako garapena alde batera utzita) porrot egin zuela adierazi zuen, zalaparta handia sortuz¹⁰⁸.

Aniztasun kulturala (eta ez eredu multikulturala soilik), horrela, gatazka guztien iturri moduan aurkeztu da ikuspegi kontserbadoretik, eta kontzeptuari zentzu negatiboa atxiki diote batzuek. Horrela,

“(…) la multiculturalidad ligada al conflicto de civilizaciones se convierte en variable explicativa de casi todos los grandes conflictos sociales, superando los clásicos de clase social entre la ciudadanía.” (Zapata-Barrero, 2004: 71).

¹⁰⁸ “Merkel says German multicultural society has failed”, *BBC News*, 2010-10-17, hemen eskuragarri: <http://www.bbc.co.uk/news/world-europe-11559451> (2011-10-03an begiratu).

Zentzu horretan, 1990eko hamarkada bukaeratik aurrera, multikulturalismoaren aurkako egileen lanak ugaritu egin dira, ikuspegi desberdinetatik (adibide gisa, ik. Azurmendi, 2003; Sartori, 2003). Sartorik (2003), kasu, immigrazioaren eta harrera gizartearen arteko harremanak elkarrekikoa izan behar duela planteatu du: etorkinak ez luke, inolako baldintzarik gabe, herritarraren estatusa erdietsiko, herritartasunak ezin baitu doakoa izan.

Teorialari horien ikuspegiak nolabaiteko arrakasta izango du. 2000ko lehen hamarraldian, beraz, “multikulturalismoaren eremua subjektu migratzaile qua ‘musulman fundamentalistaren’ kudeaketa problematikora laburtuko da, hein handi batean.” (Galfarsoro, 2012).

Baina multikulturalismoari beste alde askotatik ere egin zaio kritika. Aurreko ikuspegietatik urrun, multikulturalismoari egindako kritikak feminismotik ere luzatu dira, nazionalismoaren azterketa feministaren ildotik egin bezala. Yuval-Davisek (2010), esaterako, immigrazio testuinguruetan, multikulturalismoari buruzko eztabaidan emakumeei kultura propioaren –*etxe barruko kultura* izan ohi dena– zaintzaile eta birsortzaile papera egozten zaiela azpimarratu du. Horrek, hainbat esparrutan, emakumea eremu publikotik at kokatzea ekarri du. Halaber, multikulturalismoarekin batera egin ohi den kultura propioaren defentsak, kultura modu esentzialistan ulertu eta berau *kosifikatzea* ekar dezakeela gogorarazten digu. Gutxiengoen eskubideen aitortzak, horrela, ez du ahantzi behar gutxiengoen barruan barne-disidentziak egon badaudela, eta lehia horien artean, maiz, generoarena ahantzita geratzen dela.

Ezkerreko ikuspegi kritiko batetik ere multikulturalismoa eta *onarpenaren politikak* gogor kritikatu dira. Klase borrokak bere zentraltasuna galtzean, *gutxiengoen* borrokak (feminismoa, homosexualak, gutxiengo etniko eta arrazialak eta abar) hartu zuen bere lekua; baina, ikuspegi horren arabera, borroka horiek gizarte aldaketa orokorrean eta, hortaz, kapitalismoaren aurkako

borrokan kokatu baino, *onarpenaren* norabidean txertatu ziren, neurri handi batean. Hori da kritika horren muina: salatzen dena ez da ordura arte *gutxiengo* gisa tratatutakoen borroka legitimoa, baizik eta borroka horiek sisteman integratu daitekeen *onarpenean* oinarritzea. Zizekek, adibidez, multikulturalismoa merkatu globalaren logikaren barnean ezin hobeki txertatzen dela salatu, eta multikulturalisten *bestearekiko* tolerantzia ukatu du: multikulturalisten tolerantzia hori, esloveniarraren arabera, *Bestea* benetan *Bestea* denean amaitzen baita (Zizek, 2004: 18) (kritika horretan sakontzeko, adibidez ik. Zizek, 1998).

Laburbilduz, multikulturalismoaren planteamendu nagusia liberalismotik egindakoa izan da, multikulturalismo liberala aukera bakarra ez den arren (multikulturalismoaren ereduak berrikusteko, adibidez ik. Galfarsoro, 2012). Ikusi bezala, hala ere, ikuspegi liberalaren baitan ere, ildo desberdinak desberdindu daitezke multikulturalismoaren izaerari dagokionez. Horrekin batera, denborarekin ere, multikulturalismoaren ikuspegiak aldaketa sakona ezagutu du. Azkenik, eta lan honen helburuetara mugatuz, multikulturalismoaren txertatu diren egile batzuen ekarpena izan da immigrazioa eta nazionalismoa –estaturik gabekoa, bereziki– elkarren artean lotzea, eta hausnarketa bide berriak ireki dira horrela.

4. HEGO EUSKAL HERRIRAKO MIGRAZIOAK

Lurralde orotan bezala, historian zehar Euskal Herrira hainbat lagun etorri da bizitzera, eta beste hainbatek herrialdea utzi behar izan dute, arrazoi ugari tarteko. Ondorengo puntuetan, Hego Euskal Herrira iritsitako immigrazio aldi nagusiak izango ditugu hizpide, Euskal Herriaren egungo osaera ulertzeko ezinbestekoa baita berau kontuan hartzea. Gainera, gaur egungo immigrazio prozesua aztertzeko ere, gure ustez, halabeharrez aurretik gertatutako immigrazioak behatu behar ditugu.

4.1. *Immigrazio zaharrak*: Espainiatik iritsitako migrazioak

Migrazio mugimenduak gizateriaren historiaren parte dira, eta lurralde orotan gertatu dira, norabide eta intentsitate desberdinarekin. Euskal Herria, bada, ez da immigranteen harrera herrialdea izan azken 130 urteak arte. Aitzitik, euskal lurraldeak emigrante sortzaile izan dira, arrazoi desberdinak zirela medio (behar ekonomikoa, gerrak galdu izana eta abar). Errealitate hori XIX. mende bukaera arte mantendu zen. 1876tik aurrera, aldaketa handiak gertatu ziren Euskal Herrian (Bigarren Karlistadaren amaiera, foruen deusezte...), eta garai hartatik aurrera, lehen etorkinak iristen hasi ziren, kopuru aipagarrietan. Bizkaiko Bilboaldera Euskal Herriko nekazaritza-eremu batzuetatik eta, batez ere, Espainiako lurraldeetatik etorkin ugari iritsi ziren. Hori Euskal Herriak bizitako lehen immigrazio mugimendu aipagarritzat har dezakegu. Bigarrena, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan gauzatu zen, ordukoan Bizkaira mugatu gabe.

Euskal Herriko immigrazioa aztertzerakoan, zailtasun handiak badirela ezin da aipatu gabe utzi. Horrela, 1960ko erroldara arte, migrazioei buruzko estatistika zehatzik ez dago (Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994: 113; Garmendia et al., 1982: 125). Horri, noski, Euskal Herri osoko datuak biltzeko zailtasuna gehitu behar zaio (ik. Aztiker, 2006: 115).

XIX. mende bukaerako immigrazio garai hori iritsi arte, baina, Euskal Herriak emigrazio handia ezagutu zuen; hots, lurraldetik kanpora zihoan biztanle mugimendua, bereziki Nafarroan eta Araban, alde batetik, eta Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, bestetik. Hego Euskal Herriari erreparatuz, Nafarroak, 1900etik 1950erako tarte laburrean, bere biztanleriaren herena galdu zuen; eta Arabak, 1800etik 1950era, 100.000 biztanle galdu zituen¹⁰⁹. 1860 ingurura arte, emigrazioa Hego Amerikara bideratu zen nagusiki, nahiz eta hainbat euskal herritar Madrilera ere zuzendu ziren (laneko arrazoiak, ikasketak¹¹⁰ edota beste arrazoi batzuk zirela-eta). Adibidez, 1962an 200.000 euskal herritar zeuden Espainiako hiriburuan (Apalategi, 2006: 35).

4.1.1. Lehen immigrazio aldia: XIX. mende bukaera

Emigrazioak Euskal Herrian izandako garrantzia azpimarratu ostean, sar gaitezen orain Euskal Herriko lurraldea helburu zuen immigrazioaren aferan. Lehenik eta behin, lehen immigrazio aldi gisa izendatu dugun horretan jarriko dugu arreta. Immigrazio mugimendu hau XIX. mendearen bigarren erdian gertatu zen, eta Euskal Herrian modu nahikoa traumatikoan bizi izan zen. Kontuan izan behar da Euskal Herria ez zela immigrazioa ohitutako herrialdea eta, hala ere, aurreko garaietan kanpotarrek euskal lurraldeetako gizartean integratzeko zailtasun legal eta formal batzuk bazituztela. Horien adibide ditugu, esaterako, Bizkaiko *foru berria* delakoa, zeinari jarraituz Bizkaian behin-betiko erresidentzia lortu nahi zutenek euren jarrera moralari buruzko hainbat azterketa gainditu behar zituzten.

Jakina denez, XIX. mende bukaerako immigrazio aldi horren jatorri nagusia Espainiako lurralde nekazari pobretuak izan ziren. Euskal Herrian, Bizkaian, sortzen ari ziren lan aukerek deituta abiatu ziren, eta migrazio kopuru

¹⁰⁹ *Enbata*, "Economie basque", 2. zkia, 28-30. orr., 1967 (in Apalategi, 2006: 35).

¹¹⁰ Kontuan izan behar da Euskal Herriko unibertsitate egitura ez zela oso handia eta hainbat ikasle Madril, Valladolid edota Zaragozara zihoazela ikasketak burutzeko. Adibide gisa, Sarrrikoko unibertsitatea 1955ean sortu zen, Donostiako ESTE 1956an, eta Leioan kokatutako Bilboko Unibertsitatea 1968an (adibidez, ik. Zabala et al., 2005).

esanguratsuak osatu zituzten: Bizkaiko biztanleria bikoiztu egin zen 1857tik 1900erako tartean, eta Euskal Herriko lurralde bat gehiago izatetik, zama demografiko handia izatera igaro zen (Solozábal, 1979: 36-37). Urte horietan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako biztanleriaren erdia Bizkaian metatzera heldu zen (Ibidem). Nafarroa Garaian, aldiz, ez zen immigrazio kopuru aipagarririk gertatu, eta 1960ko hamarkada arte migrazio saldoak negatiboak izan ziren, eta, orduan ere, immigrazio tasa apalagoa izan zen (ik. García-Sanz eta Mikelarena, 2000).

Beheko taulan ikusten den legez, XIX. mende bukaeran zehar, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa emigrazio lurralde izatetik immigranteak jasoko zituzten lurraldeak izatera pasa ziren. Aldaketa hori, baina, ez zen homogenea izan, eta batik bat Bizkaian jazo zen (eta geroago Gipuzkoara hedatu zen). Araban eta Nafarroan, aitzitik, immigrazioaren bigarren aldira itxaron behar izan zen datu aipagarriak izateko. Horrez gain, Bizkaian eta Gipuzkoan biztanleriaren hazkunde handia izan zen; orotara bi herrialde hauek eta Araba kontuan hartuz, XIX. mendeko bigarren erdialdean biztanleria bikoiztuz (160.579 biztanle 1857an, eta 311.361 1900ean) (Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994: 117). Immigrazioa zein biztanleriaren hazkunde hori industrializazioari eta lurraldearen urbanizazioari guztiz loturik gertatu ziren (aspektu horietarako, ik. De Miguel, 1974).

2. taula: Araba, Bizkai eta Gipuzkoako migrazio saldoak (1861-1893)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Hirurak batera
1861-1870	-8.302	7.018	-15.490	-16.774
1886-1893	-1.819	22.665	-1.951	18.895

Iturria: Ruiz Olabuénaga eta Blanco (1994: 117)

Etorkinak, hortaz, Bilbon eta Meatzaldean kokatu ziren nagusiki. Biztanleriaren hazkundera izugarria izan zen inguru horietan. Bilbon, adibidez, 1857an 17.649 biztanle izatetik, 1900an 83.306 izatera pasa ziren (Garmendia et

al., 1982: 49). Eta arreta Ezkerraldean (meategiei loturiko udalerrien eskualdea) ipintzen badugu, ikusiko dugu biztanleria 25.000 biztanle ingurutik 230.000ora pasa zela XIX. mendeko azken laurdenean (Fusi, 1984: 43). Garai hartan, Espainiako hiriek ere (Madrilek eta Bartzelonak, bereziki) hazkundera ezagutu zuten, baina ez Bilboren adinakoa.

Ondorengo taulan, immigrazio handia ezagutu zuten Bizkaiko udalerrri batzuetako datuak batu ditugu. 1887koak dira, eta langileen datuak jasotzen dituzte:

3. taula: Bizkaiko eta kanpoko langileak (1887)

	Bizkaitar langileak	Langile etorkinak ¹¹¹
Bilbo	12.981	9.776
Barakaldo	2.593	1.988
Portugalete	894	662
Santurtzi	1.514	1.429
Trapagaran	892	2.543
Sestao	1.902	1.988

Iturria: Solozábal (1979: 128), guk moldatua.

XIX. mende bukaerarako, immigrazioak zama kuantitatibo handia hartu zuen Bizkaian. 1900. urtean, horrela, biztanleriaren %26,4 herrialdetik at jaiotakoek osatzen zuten (Fusi, 1984: 43).

Lehen immigrazioaldi horrek, beraz, aldaketa handia ekarri zuen euskal gizarte-egituran, Euskal Herrira iritsitako etorkinek klase izaera zehatza baitzuten: langileak ziren. Halaber, Espainiako lurralde zehatzetik zetozen,

¹¹¹ Solozábal 1887ko erroldan oinarritzen da. Apalategiren (2006: 120) aburuz, datuotan beste euskal lurraldeetako etorkinak ere jaso badaitezke ere, horiek oso gutxi behar lukete izan.

Gaztelatik batez ere. Lurraldeotako bizi maila euskal lurraldeetako bano baxuagoa zen, oro har.

Euskal Herrira ailegatutako etorkin haiek bizi baldintza oso gogorrek pairatu behar izan zituzten. Garaiko testigantzen artean, Dolores Ibarruri *La Pasionari*arena argigarria izan daiteke. Bizkaian industrializazioa hedatzearekin batera, herrialdeko Meatzaldean pilatutako langileen bizi baldintza latzak deskribatu zituen buruzagi komunistak:

“Una población obrera heterogénea, llegada de todas las regiones agrarias e incluso de los bajos fondos de las grandes ciudades, iba amontonándose en los inmundos barracones levantados en las cercanías de las minas por las compañías que explotaban éstas, o se hacinaba en las habitaciones de las familias mineras, establecidas ya de manera permanente. (...)

La explotación de las minas se caracterizaba (...) por el trato brutal que se daba a los obreros empleados en ellas.

Trabajaban los mineros de estrella a estrella, sin horario determinado. Salían de casa antes de amanecer y no volvían hasta bien entrada la noche.

Los barracones que las compañías mineras ofrecían como albergue a los que llegaban de otras tierras eran más bien cobijos de bestias que habitaciones humanas.” (Ibárruri, 1992: 65).

Testuinguru latz horretan, mota desberdineko gatazkak izan ziren etorkin talde desberdinen artean (hauek lurralde desberdinetakoak ziren, eta euren arteko lehiak, ugariak) eta baita etorkinen eta autoktonoen artean ere. Horrekin batera, langile mugimenduaren hastapenak ere gertatu ziren, Espainia mailako lehenengoetako langile sindikatuak sortuz eta 1879an PSOE alderdia bera sortuz Bizkaian, Euskal Herriko langileen artean eragin handia izan zuena.

4.1.2. Bigarren immigrazio aldia: 1950-1980

1950eko hamarkadatik aurrerako aldian, Euskal Herrian bi migrazio eredu bereizi ziren, modu nabarmenean, gainera. Batetik, industrializazio indartsuaren eraginez eta frankismoaren testuinguruan, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia (azken honen kasuan, modu apalago batean) etorkin ugari iritsi zen, gizartearen alor guztiak eraldatuz. Ipar Euskal Herrian, aitzitik, ez zen aldaketa ekonomiko handirik gertatu, eta hainbat herritarrek lurraldea uzten jarraitu zuten, Frantziara batez ere emigratuz, Paris eta Bordelera, batik bat. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa ez ziren industria gune bilakatu, eta bertako egitura ekonomiko ahulak (laborantzan eta, geroz eta gehiago, turismoan oinarritutakoa) emigrazioa eragin zuen. Garai hartan mugaren alde banatan bizi zen egoera desberdinaren erakusgarri, 1962an Hego Euskal Herriko bi milioi biztanle ingurutik 350.000 bat etorkinak ziren bitartean, Ipar Euskal Herrian, 200.000 biztanle inguruko lurraldean¹¹², garai hartan urtero 2.000 eta 3.000 herritarrek kanpora jotzen zuten. 1850etik 1940ra, 125.000 biztanlek Ipar Euskal Herriatik alde egin zuten (*Enbata*, “Economie basque”, 2. zkia., 28-30 orr., 1967, in Apalategi, 2006: 35).

1900dik 1950erako aldian, bestalde, Hego Euskal Herriak biztanleak irabazi zituen, nabarmen irabazi ere, batez ere 1911 eta 1930 artean¹¹³. Ondoren, 1936ko Gerrarekin, geldiupe bat izan zen, nahiz eta 1940ko hamarkadan jada migrazio-saldoak positibora jo zuen (Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994: 118-119), eta bi hamarkada geroago Nafarroan (García-Sanz eta Mikelarena, 2000). Garai hartan, hala ere, migrazio mugimendu nagusiak distantzia txikiko lurraldeen artean gertatu ziren. Horrela, Hego Euskal Herriko lurraldeen arteko migrazio mugimenduez gain (probintzia barrukoak zein Nafarroa Garaia eta Arabatik abiatutakoak), immigrazioa nagusiki Burgos, Kantabria eta Errioxa Espainiako probintzietatik gertatu zen (Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994: 122).

¹¹² 1960an, Ipar Euskal Herriko biztanleak 205.042 ziren. 150.593 Lapurdin, 33.927 Nafarroa Beherean eta 20.522 Zuberoan (Aztiker, 2006: 54).

¹¹³ Hamarkada horietan, hala ere, migrazio saldoak negatiboak izan ziren Nafarroan: -8,40koa 1900eko hamarkadan; -4,5ekoa 1910ekoan; eta -6,30ekoa 1920ko hamarkadan (García-Sanz eta Mikelarena, 2000: 127).

1950eko hamarkadatik eta, batez ere, 1960ko hamarkadatik aurrera, Euskal Herriak biztanle kopuruan gora egin zuen, garai hartan erregimen frankistak bultzatutako *desarrollismoari* lotuta. Etapa horretan, Espainiako nekazari lurralde askok exodotzat hartu dena bizi izan zuten. Termino makroekonomikoetan, hazkuntza izan zen Gipuzkoa eta Bizkaian batez ere, geroago Araba eta Nafarroan gertatuko zen bezala. Hego Euskal Herriko prozesu ekonomiko hori industrializazioari guztiz loturik egon zen. De Miguelek (1974: 251), esaterako, prozesu horren garrantzia azpimarratzen du: “Si hay algún lugar en el mundo en el que es perceptible la rapidez con que se industrializa y urbaniza, ése es el País Vasconavarro.”

Ekonomia hazkuntza horrekin batera, demografiaren alorrekoa ere gertatu zen. 1950etik 1970era, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako herritarrak 1.422.000 izatetik 2.334.000 izatera pasa ziren (De Miguel, 1974: 251). Kopuru horiek esanguratsuak ziren oso. Horrela, 1950eko hamarkadan biztanleriaren igoera %24koa izan zen, eta 1960koan %42koa (Ibidem). Herrialdez herrialde, hazkuntza demografikoa %32,54koa izan zen Bizkaian, %27,88koa Gipuzkoan eta % 17,73koa Araban (Jáuregui, 1981: 63)¹⁴.

Hego Euskal Herrian, biztanleriaren hazkuntza bi arrazoi nagusirengatik gertatu zen: batetik, Hego Euskal Herriko ugalkortasuna altua zelako garai hartan; eta bestetik, eta batez ere, 1950eko eta nagusiki 1960ko hamarkadan immigratu ugari iritsi zirelako (De Miguel, 1974: 251). Biztanle kopurua handitzearekin batera, Euskal Herriko herritarrak hirietan metatzen joan ziren, herrialdearen urbanizazio prozesua azkartuz. Horrela, biztanleria hirietan kontzentratu zen, Araban bereziki, baina baita Bizkaian eta, herrialde guztitik era sakabanatuagoan, Gipuzkoan ere; ez, aldiz, Nafarroan (Jáuregui, 1981: 65). Hego Euskal Herriko hiri-dentsitatea oso handia izan zen, hirien tamainaz gain, hiriguneak lurraldean zehar sakabanatuta daudelako, esan dugun bezala Bizkaian eta Gipuzkoan bereziki.

¹⁴ 1960ko hamarkadako igoeraren datuak. Nafarroan igoera baxuagoa izan zen: 382.932 biztanle 1950ean, eta 402.042 1960an (Jáuregui, 1981: 63).

4. taula: Hego Euskal Herriko migrazio saldoak (1940-1970)

	Biztanleriaren hazkundera	Migrazio saldoa	Biztanleria / Migrazio saldoa %
1940-50	118.790	5.925	5,0
1950-60	329.524	131.727	40,0
1960-70	569.807	274.323	48,1

Iturria: De Miguel (1974: 251).

Immigrazio handiko testuinguru horretan Nafarroa Garaiak zituen berezko ezaugarriak ere azpimarratu behar dira, herrialde horretan migrazio saldoak negatiboak izan ziren-eta 1960ko hamarkadara arte. Herrialde horretan immigrazioaren fenomenoak beste herrialdeetan baino askoz mugatuagoa izan zen, beraz. 1970eko hamarkadan, horrela, migrazio saldoaren kopuru positiboak minimoak ziren (81), Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ez bezala (García-Sanz eta Mikelarena, 2000: 127-128). Horrekin batera, Nafarroan nagusi izan ziren migrazio mugimenduak herrialdearen barnekoak izan ziren; eta hirien hazkuntzaren arrazoi nagusia mugimendu horietan bilatu behar dugu. Hala eta guztiz ere, immigrazioak eragin demografikorik izan zuen. Esaterako, 1930ean Nafarroatik at jaiotako biztanleen ehunekoak 8,3koa zen bitartean, 1970ean portzentaje hori 18,5era iritsi zen (Ibidem, 128).

Hamarkada hauetako migrazioen ezaugarriekin jarraituz, iritsi berrien jatorria ezin da aipatu gabe utzi. Hego Euskal Herri barneko migrazioak garrantzia galdu zuen bitartean, Euskal Herriaz kanpoko immigrazioa asko handitu baitzen, eta horrek oinarrizko aldaketa ekarri zuen Euskal Herriko gizarte-egiturari. Izan ere, 1950etik aurrerako immigrazioak Gaztela eta Leonen, Extremaduran, Galizian eta Andaluzian izan zuten jatorri nagusia, etorkinen hiru laurdenak lurralde hauetan jaiotakoak izan baitziren. Hortaz, aurreko etapan ez bezala, Euskal Herri ondoko immigrazio fluxuei (Gaztela eta Leongo gertuko

probintzietatik zein Errioxatik, batez ere) urrunagoko lurraldeetatik ailegatutakoa gehitu zitzaien, Galizia, Andaluzia eta Extremadura batez ere¹¹⁵.

5. taula: Etorkinen jatorri nagusiak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan (1970-XII-31)

	Erk.	Kop.	Erk.	Kop.	Erk.	Kop.	Erk.	Kop.
Araba	Gaztela eta Leon	11.843	Extrem.	3.725	Andalu.	2.675	Errioxa	2.056
Bizkaia	Gaztela eta Leon	52.052	Extrem.	16.272	Galizia	13.869	Andalu.	11.185
Gipuzkoa	Gaztela eta Leon	25.071	Extrem.	16.737	Galizia	5.775	Andalu.	2.675

Iturria: Ruiz Olabuénaga eta Blanco (1994: 125)¹¹⁶.

Immigrazioak Euskal Herriko gizarte egituran aldaketa nabariak eragin zituela esan dugu. Herritarren jatorrian arreta jartzen badugu, Hego Euskal Herriko biztanleriaren osaketak sakoneko aldaketa izan zuela baieztatu daiteke. 1973ko azterketa batek erakusten duen bezala, Hego Euskal Herriko biztanleriaren %73 zen Euskal Herrian jaiotakoa, horrela banaturik:

- %53ren gurasoak Euskal Herrian jaiotakoak ziren.
- %8k gurasoetako bat Euskal Herritik kanpo jaiotakoa zuen.
- %12ren gurasoak Euskal Herritik kanpokoak ziren¹¹⁷.

¹¹⁵ Linzek (1986: 489) ere datu hori azpimarratzen du: “En la generación de los padres la aportación castellano-leonesa era del 65%, y la andaluza y extremeña del 5%; ahora (en 1979) solo el 49% es del primer grupo frente al 20% del segundo”.

¹¹⁶ Bizkaiko kopuruak aldatu egin ditugu. Lan bereko aurreko taulan ikusten den bezala (Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994: 124), erkidego bakoitzetik Bizkaira iritsitakoak agertu beharrean, hiru herrialdeetara iritsitakoen batura ageri zen-eta.

¹¹⁷ Iberplán, *Situación y perspectivas del País Vasco-Navarro y Rioja*, 1973 (in Jáuregui, 1981: 69). De Miguelek ere (1974: 261) azterketa bera aipatzen du. Garmendia, Parra eta Pérez-Agoteren (1981: 49-50) azterketan ere, antzeko portzentajeak azaltzen dituzte.

Hortaz, 1973an Hego Euskal Herriko biztanleriaren %47 immigrazioaren oinordeko zen, maila batean edo bestean. Etorkin gehienek lan banaketaren maila baxuenetan jardun zuten, eta auzune berrietan batu zituzten.

Immigrazio mugimenduek etenaldi nabarmena izan zuten 1975etik 1980rako aldian, ziurrenik 1970eko krisiaren (hasiera batez *Petrolioaren krisia* deitu zena) ondorioz. 1980ko hamarkadako lehen bosturtekoan, immigranteen kopuruak berriz ere gora egin zuen arren, 1985etik aurrera, gutxi gorabehera, behera egin zuen, eta 1911tik lehen aldiz migrazio-saldoa negatiboa izan zen. Horretarako arrazoi desberdinen artean, aipatzekoa da Bizkaian batez ere hainbat etorkin beren jaioterrira itzuli zirela (Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994: 129). 1980ko hamarkadan, hortaz, zenbait eskualde eta sektoretan itzulera fenomenoak (oso leuna izan bazen ere) gertatu zen; eta hurrengo urteetan ere horrela jarraitu zuen¹¹⁸.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoari dagokienez, Frantziarako emigrazioa izan zen nagusi etapa guztietan zehar, migrazioen alorrean Ipar Euskal Herriaren problematika gainerako herrialdeetatik bereizten duen izaera espezifiko hartuz. Afera nagusia, hortaz, Ipar Euskal Herriaren hustea izan zen (Apalategi, 2006: 35).

Aipatu dugunez, XIX. mende bukaeran hasitako immigrazioa Bilboaldean eta Ezkerraldean metatu zen nagusiki. Hurrengo immigrazio prozesuak, baina, Hego Euskal Herriko gainontzeko lurraldeetara hedatu ziren, Gipuzkoara lehenago (herrialde horretan immigrazioa eskualde desberdinetan zehar modu nabarmenagoan zabaldu zen), eta Araban zein Nafarroan ondoren (kasu hauetan batik bat hiriburuetan metatuta). Horren arrazoia lurralde bakoitzaren industria egitura desberdina izan zen: industria non kokatu, hara zihoazen etorkinak; eta Bizkaian industria Bilbotik gertu eta Ezkerraldean metatu zen bitartean, Gipuzkoan bailara desberdinetan zehar zabaldu zen.

¹¹⁸ Errenteria-Orereta (Gipuzkoa), esaterako, 1981ean 45.000 biztanle izatetik, 1999an 39.000 izatera pasa zen (Aztiker, 2006). Jaitsiera horretan beste hainbat faktorek ere eragina izan bazuten ere, udalerrri horretan immigrazioak izaniko pisua kontuan hartuz, pentsatzekoa da hor ere itzulera fenomenoak eraginik izan zuela.

1986rako, horrela, Araba izan zen Euskal Herritik at jaiotako lagun kopuru handiena izan zuen herrialdea. Lurraldeko biztanleen %34,5 kanpoan jaiotakoa izan zen, Bizkaiko biztanleen %31,8, eta gipuzkoarren %28,3 (Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994: 149). Nafarroan herrialdetik at jaiotakoen ehunekoa baxuagoa zen, 18,5ekoa hain zuzen (García-Sanz eta Mikelarena, 2000: 128). Hala ere, Hego Euskal Herrian, oro har, kanpoan jaiotakoak biztanleriaren %30en inguruan zeuden. Immigratu biztanle gehien zituzten eskualdeak (%30eko batz besteko hori baino gehiago duten eremuez ari gara) ondorengo taulan ikus daitezke.

Hortaz, etorri berriak hirietan eta herri handietan metatu ziren, oro har, aipatu dugun bezala. Etorriekin %64, horrela, 40.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi zen 1986an (Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994: 151). Eta kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen ia erdia biztanleria hori gaintzen duten hamar udalerritan bizi zela. Hortaz, immigrazioa oso agerikoa zen Barakaldo, Basauri, Portugalete, Irun, Santurtzi eta Errenteria bezalako udalerrietan. Herri hauetako auzo jakinetan, gainera, herritarren gehiengo zabala etorri berriek osatzen zuten. Agerikoa denez, auzo horietan etorriekin arteko gizarte sare sendoak sortzen joan ziren, besteak beste inguru horietan erregio etxeek duten eragin eta garrantzia erakusten diguten bezala.

6. taula: Kanpoan jaiotako biztanle gehieneko eskualdeak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan (1986)

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Arabako Lautada: %36,7	Bilboalde (Ezkerraldea barne): %34,7	Bidaso Beherea: %35,7
Arabar Errioxa: % 32,9	Durangaldea: %31,1	Donostialdea (Oiertzualdea barne): %30,3

Iturria: Guk egina, Ruiz Olabuénaga eta Blancoren (1994: 150) datuetan oinarrituta.

Alde kuantitatibotik, Hego Euskal Herrira iritsitako immigrazioaren ezaugarri garrantzitsuenak azpimarratu ostean, immigrazioaren beste zenbait aspektu ere aipatu behar dira, modu laburrean bada ere. Maila sozioekonomikoari dagokionez, immigranteen gehiengoa maila sozioekonomiko baxukoa izan zen, nekazaritza eremuetako jatorrikoa gehienbat. Hala ere, etorkinen artean maila ertaineko sektore batzuk ere izan ziren, hiri jatorrikoak batez ere (Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994: 147-148).

Hala ere, De Miguelen (1974: 250) aburuz, “la inmigración que recibe el País Vasco no es tan típica y mayoritariamente obrera como la que se dirige a Cataluña.” Egile horren arabera, Euskal Herrira iritsitako etorkinak batez ere nekazari klase ertain txikikoak izan ziren (Ibidem, 262). Hau da, pobretutako gizarte-sektoreak izan ziren, baina ez depauperizazio egoeran zeudenak. Hortaz, etorkinek, oro har, bertakoekin partekatu zituzten hainbat lan sektore.

Hezkuntza-mailari dagokionez ere, izaera bikoitz hori gertatu zen: etorkin gehienek lehen mailako ikasketak bazituzten ere, gutxiengo batek autoktonoen adinako ikasketa maila zuen. Hala eta guztiz ere, Euskal Herrira iritsitako immigrantea ez zen, oro har, analfabetoa izan (De Miguel, 1974). Sexuari erreparatuta ere, bestalde, immigrazioaldi honetan ez dago desoreka handirik. Pentsatzekoa da aurreko immigrazioaldian (XIX. mende amaiera eta XX.eko lehen erdian), etorkin gehienak gizonetzkoak izan zirela, meategietan lan egiteko migratu zuten lehen taldeetan, batez ere. 1986an, hala ere, ez zen gizonetzkoen eta emakumezkoen kopuruetan desberdintasun esanguratsurik agertzen. Etorkinen kolektiboan, emakumeak gizonak baino gehiago izan ziren, autoktonoen artean bezala (etorkinen artean %51,37 izan ziren emakumeak; autoktonoen artean %50,35) (Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994: 154-155).

Immigrazio uholdea gertatu zen, beraz, Hego Euskal Herrian, 1950 eta 1980 urteen artean. Horrek mota guztietako erantzunak eta azterketak sortu zituen eta, horien artean, nabarmentzekoak dira euskal nazionalismoaren jarduna eta immigrazioa harremanetan jarri zuen eztabaida (ik. 2. puntua). Horri lotuta, immigrazio horren *integrazioari* buruzko eztabaida ere esanguratsua izan zen, arlo akademikoan baino, politikoan. Horrela, etorkin

horien *integrazioa* zalantzan ipini izan da, espainiar nazionalismoaren hurbileko egileen aldetik, batik bat. Iritzi horren arabera, euskal nazionalismoa *komunitate nazionalistaz* soilik arduratzen zen, eta Espainiatik iritsitako pertsonak bigarren mailako herritar moduan tratatzen zituen (ildo horren erakusgarri nagusia Escudero [1978] da). Eztabaidak eztabaida, halere, immigrazio garai hori aztertu duten lanek azpimarratzen dutenez, ezin da Hego Euskal Herrian jatorriaren araberako banaketa sozialaz hitz egin (ik. Garmendia et al., 1982; Aierdi, 1993; Fusi, 1984: 253). Izan ere, abertzaletasuna Hego Euskal Herriko gizartean integratzeko mekanismo erabilia izan arren, hainbat eta hainbat immigrantek ez zuten bide hori hautatu; eta, beste lan batean aztertu ahal izan dugun bezala, euskal nazionalismotik zein euskaratik urrun ibili diren etorkin izandako horiek ez dute, inolaz ere, beren integrazioa zalantzan jartzen (ik. Zabalo et al., 2010; Iraola et al., 2011)¹¹⁹.

4.2. Gaur egungo immigrazioa

Orain arte Hego Euskal Herriko egungo errealitate soziala ulertu ahal izateko berebiziko garrantzia izan duen prozesu sakona laburtu dugu: Espainiatik Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta, neurri apalagoan, Nafarroa Garaira iritsitako migrazio prozesua. Gertaera kate luze horrek Euskal Herriaren osaera sozialean eraldaketa sakona ekarri zuen, eta ondorioak izan zituen, halaber, kulturen, politikan, ekonomian eta abarrear. Immigrazioa, industrializazioa eta urbanizazioa elkarrekin gertatu ziren, eta baita euskal nazionalismoaren bilakaera ere, nazioaren definizio esentzialistak gainditu eta iritsi berrien integrazioaren aldeko aldarria egin baitzen.

1990eko hamarkadan sartuta, baina, Hego Euskal Herriko egoerak aldaketa sakona ezagutu zuen. 1980ko hamarkada bukaeratik, jada, egitura ekonomikoan eraldaketa handia jazo zen, eta industriak indarra galdu zuen eta, aldi berean, langabeziak gora egin zuen, besteak beste. Migrazio saldoek zentzu

¹¹⁹ Hala ere, egon badago ildo bat Espainiatik iritsitako lagunak –eta are beren ondorengoak ere– Hego Euskal Herrian baztertuak egon direla, eta gaur egun ere hala jarraitzen dutela, defendatzen duena. Gehiegi garatu ez den ildo horren erakusgarri, ik. Chacón Delgado, 2006.

negatiboa hartu zuten, eta hainbat euskal herritarrek kanpora jo zuten; Espainiara, neurri handi batean.

Immigrazio berri baten hasiera nabaritzen hasi zen orduan, oso kopuru txikitik hasiera hartan. *Immigrazio berria* deituko diogu prozesu horri, Espainiatik iritsi zen aurreko immigrazio aldietatik bereizteko. Immigrazio hori, Espainiatik kanpokoa izanik, ezaugarri berriak ditu, eta nazioarteko migrazioen logika berriaren barruan azter dezakegu. Hego Euskal Herrira berandu iritsitako immigrazioa da, batez ere Europako Mendebaldearekin alderatuz gero, eta, neurri txikiagoan, baita Espainiarekin alderatuz gero ere. Berandu iristeaz gain, gainera, eremu horiekin alderatuta, kopurutan txikia den immigrazio batez ari gara. Espainian, horrela, immigrazioa Mediterraneo aldean (Katalunia, Valentziako Erkidegoa eta Murtziako Eskualdea), Andaluzian eta Madrilen kokatu zen nagusiki; eta immigrante kopuru baxuenak, aldiz, Iberiar penintsularen ipar-mendebaldean izan ziren.

Migrazioak nazioarte mailan aztertuta, aldaketa gertatzen da 1990etik aurrera. Bigarren Mundu Gerratik ordura arte, lan eskaintza zehatzetan oin hartutako immigrazioa bultzatu zuten Mendebaldeko Europako gobernuak. *Langile gonbidatuaren* figura sortu zen, behin-behineko immigrantea bilatuz: langilea lanpostu zehatz bat betetzeko iristen zen eta, behin hura amaituta, bere herrialdera itzultzen zen. Immigrazio horrek, baina, segituan azalera zituena bere mugak, eta etorkinak lan egiten zuten herrialdean geratzen hasi ziren, lehenik, eta beren familiak hara eramaten, ondoren (adibidez, ik. Sayad, 2010; López Sala, 2005). 1990etik aurrera, bada, Europara iristen ari zen immigrazioak ezaugarri berriak eskuratu zituen. Migrazio sareei dagokionez, 1990etik aurrera ezaugarri esanguratsuenak horrela laburbil daitezke (Blanco, 2002a: 20):

- Mendebaldeko herrialdeetara doazen immigrazio prozesuetan, immigranteak estatu bakar batetik edo bitik abiatzen dira: Ameriketako Estatu Batuen kasuan, Mexiko; Finlandiakoan, Errusia; eta abar.

- Aurreko hamarkadetako migrazio fluxuak mantentzen dira: Magrebeko herrialdeetatik Frantziara, Turkiatik Alemaniara, eta abar.
- Migrazio fluxu berriak etengabe hazten dira: Txina, Kongo eta Haititik Frantziara; Poloniatik Alemaniara, Iraketik Suediara, eta abar.

Gaur egungo nazioarteko migrazioek aurrekoen ezaugarri nagusiak mantentzen dituzte, baina, aldi berean, ezaugarri berriak ere dakartzate, beraz. Migratzailearen tipologia ere aldatu da, eta *gizonezko langile immigrante* dei daitekeen figura horrekin batera, beste hainbat etorkin profil ugaritu dira: familia, familiarik gabe iritsitako adin txikikoak, bakarrik iritsitako emakumeak, eta abar. Bereziki azpimarratzekoa da migrazio aldi honetako igoeraren zioetako bat familiak batzeko politikak direla:

“la reunificación familiar constituye una de las corrientes migratorias más importantes de fin de siglo, consecuencia directa de las políticas de integración implementadas por los países de inmigración, y una de las pocas ‘puertas de entrada’ para la inmigración legal hacia los países occidentales” (Blanco, 2002a: 20).

1990etik aurrera ere beste fenomeno berri bat azaleratu zen: *immigrazio klandestino* (ik. Blanco, 2002a: 20). Ideia horrek kutsu ideologiko nabarmena du, baina bere arrakasta sozialaren islaren adibide, *legez kanpoko etorkina* kontzeptu erabilia bihurtu da. Immigrazio hori, definizioz legeetatik eta erakunde ofizialetatik at garatzen denez, zehaztasun osoz zenbatzea ezinezkoa da; eta aurreiritziek eragin handia dute haren sorrera nahiz zabalpenean. Legez kanpoko immigrazioak, garaian garaiko irudi sozial arrakastatsuei loturik (dela *patera*, dela *cayuco* eta abar) migrazioari buruzko gizarte diskurtsoan eragin handia izan du, halako moldez non immigrazioari loturiko estigma edota marka sozial bihurtu baita.

Datuek, baina, aurkakoa diote: etorkin gehieneko egoera erregularra da, hots, egoitza-baimenaren jabe dira. Baimen horren datuak eroldakoekin alderatuz, erregularizazio tasa lor daiteke, erreferentzia moduan adierazgarria izan daitekeena. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan erregularizazioa %76,5koa da eta Nafarroan %90,6koa (Ikuspegi, 2011a). Gizarte-irudiaren aurka, etorkin gehieneko egoera erregularra da, beraz.

Hego Euskal Herrira iritsitako immigrazio berria 2000. urtetik aurrera hasi zen nabarmentzen Hego Euskal Herrian. Hala ere, datuak erlatibizatzea beharrezkoa da; eta bere izaera *berria* ere bere neurrian ulertu behar da, 2000n oraindik Espainiaz kanpoko immigranteen kopurua 1920. urtekoa baino baxuagoa baitzen Euskal Autonomia Erkidegoan (Blanco, 2008: 190). Halaber, ez dugu ahantzi behar Espainia eta Hego Euskal Herriaren arteko migrazio mugimenduak etengabeak direla; hau da, immigrazio berriarekin batera aurreko migrazio mugimenduak jarraipena izan duela. Estatuaren barruko immigrazio hori, oro har, ez da gizarte diskurtsoan immigraziotzat definitzen.

2000tik aurrera Hego Euskal Herrira iristen diren herritarrak, etorkin berriak, immigrazio handia ezagutu duen lurralde batera ailegatzen dira. Termino multikulturaletan adieraziz, Hego Euskal Herrian *aniztasun desberdinek* egiten dute, oraingoan, topo: lurraldean jada bazegoen nazio aniztasuna (euskal eta espainiar nazionalismoek aldarrikatutako nazio proiektuak), eta jatorrien aniztasunari (Euskal Herrian bertan jaiotakoak eta lurraldetik at jaiotakoak) immigrazio berriak dakarrena batu zaio¹²⁰:

“(...) la inmigración extranjera al País Vasco viene a sumar diversidad étnica a una sociedad ya internamente diversa y en la que ciertos sectores de la población están inmersos en la construcción de una sociedad vasca con identidad específica y distinguible por el mantenimiento de sus tradiciones y especificidades culturales.” (Blanco, 2008: 195).

¹²⁰ Badira aniztasunaren sorburu gehiago noski. Ijitoek, adibidez, beste kultura gutxiengo bat osatzen dute, bertakoak eta ez immigratuak izan arren.

Kopurueta joz, Hego Euskal Herrian immigrazio kopuruak Espainian baino txikiagoak izan dira. 2010ean, horrela, atzerritarrak¹²¹ Espainian %12,2 ziren bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan %6,4 ziren eta %11,2 Nafarroan. Datuen esangura, hala ere, portzentajea bera baino, igoera da, hori baita Europako Mendebaldeko beste herrialdeekiko desberdintasun nagusia: 1990eko hamarkadaren bukaeran oraindik immigrante berriak oso gutxi ziren bitartean (%0,7 EAEn, %0,8 Nafarroan), kopuruak nabarmenak ziren 12 urteren ostean. Igoera bereziki azpimarragarria da Nafarroaren kasuan, Espainiako batz bestetik oso gertu kokatzen baita, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan ez bezala. Hala ere, datuak herrialdeka aztertuta, bi eredu desberdintzen zaizkigu: Nafarroa eta Araba (azken honetan atzerritarrak %8,9 dira, Nafarroako %11,2tik hurbil), batetik; eta Bizkaia eta Gipuzkoa (bietan %6), bestetik (Ikuspegi, 2011a).

Kopuruak Euskal Herri mailan hartuta, eta immigrazio berriarekin batera, Espainiatik nahiz Frantziatik iritsitakoa batuz, Euskal Herrian immigrazioak duen pisua azter dezakegu. Horretarako ondoko taula dugu:

¹²¹ Hots, Espainiako herritartasunik ez dutenak. Bertan ez dira sartzen, beraz, migratu ondoren herritartasun hori eskuratu dutenak.

7. taula. Biztanleriaren osaera jaioterriaren arabera (Ipar Euskal Herria 2008, Hego Euskal Herria 2010)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa Garaia	Ipar EH ¹²²	Guztira
Euskal Herria	66,6	71,2	77,1	73,6	58,7	71,5
Frantzia edo Espainia	23,9	21,8	15,9	13,1	31,3	19,7
Estatuetatik at, Estatuko herritartasunaz	0,6	1,0	1,0	2,0	5,6	1,6
Estatuetatik at	8,9	6,0	6,0	11,2	4,3	7,2
Guztira	100	100	100	100	100	100
Guztira (gordina)	313.819	1.152.658	705.698	630.578	282.003	3.084.756

Iturria: Aierdi (2011: 41), guk moldatua.

Taula jarraituz, immigrazio tasa baxueneko lurraldea Gipuzkoa da, eta handienekoa, berriz, Ipar Euskal Herria. Hala eta guztiz ere, herrialdeen araberako aldea handia da Ipar Euskal Herriaren barruan: 2001ean Lapurdi zen etorkinen portzentaje handiena zuen Euskal Herriko herrialdea, eta Zuberoak, aldiz, txikiena zuen (ik. Aztiker, 2006: 116).


Horrekin batera, Espainia eta Frantziatik iritsitako aurreko immigrazioek biztanleriaren osaeran pisu nabarmena dutela ikusten da, %20aren inguruan. Aldi berean, Frantzia edo Espainiatik etorritako gurasoetako bat edo biak dituztenak aipa daitezke, %24 inguru baitziren 2001ean (Ibidem, 117). Immigrazio berria soilik kontuan hartua, etorkinen portzentaje esanguratsuenak Araba eta Nafarroa Garaikoak dira; eta Ipar Euskal Herrian frantziar herritartasuna duten arren Frantziatik at jaio direnak kopuru

¹²² Jatorria Pirinio Atlantiko departamendu osoan oinarrituz eskuratu ditu Aierdik, Ipar Euskal Herriari Biarno batuz, alegia.

esanguratsua osatzen dute (%5,6). Ondokoa azaltzea ere interesgarria da: Nafarroa Garaian, XX. mendeko immigrazio fluxua txikiena izan zen Hego Euskal Herriko herrialdean, immigrazio berriaren portzentajeak nabarmenak dira. Horrekin batera, adierazgarria da immigrazio portzentaje altuenetako eskualdeak Nafarroako hegoaldekoak (Tuteralea buru) eta Arabako Errioxa direla; hots, nekazaritza funtsezkoa den eta euskara oso gutxiturik duten eskualdeak. Ipar Euskal Herrian ere, immigrazioak kopuru esanguratsuak hartzen ditu, Lapurdiko kostaldean metaturik, ziurrenik.

Immigrazio berriarekin jarraituz, Euskal Herriko portzentajea (%7,2) Espainiakoa (%12,3) baino baxuagoa da, baina Frantziakoa (%5,8) baino altuxeagoa; eta Europar Batasunekoaren (%6,5) atzekoa (Eurostat, 2011). Izan ere, nazioarteko immigrazioak Europako Mendebaldean Euskal Herrian baino lehenago indarra hartu zuela kontuan hartu behar dugu.

1.go grafikoa: EAEko atzerritarrak herritartasunaren arabera (2012)



Iturria: Ikuspegi (2012), guk moldatua.

Euskal Autonomia Erkidegoan dauden atzerriko biztanleak 151.162 lagun dira 2012an; eta jatorri nagusiak Latinoamerika –beste jaioterriekiko alde handiarekin–, Europar Batasuna eta Magreb dira, hurrenez hurren (Ikuspegi, 2012). Latinoamerikarrak nagusi izan dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako atzerritarren artean 2000ko hamarkadan zehar; eta Europar Batasuneko

estatuetakoko herritarren kopurua, berriz, 2007tik aurrera hasi zen hazten, urte hartan Errumania EBko kide bilakatzearen ondorioz (Ibidem, 4). Etorकिन herritartasunari buruzko datuak, hala ere, arretaz aztertu behar dira; izan ere, Espainiako herritartasuna –Hego Euskal Herriaren kasuan– eskuratzen duten lagunak estatistikatik desagertzen baitira. Gainera, Espainiako herritartasuna lortzeko prozesuak eta denbora tarteak desberdinak dira migratzailearen jatorriaren arabera: esaterako, latinoamerikarrek egoitza eskuratzetik bi urtera lor dezakete Espainiako herritartasuna, eta magrebtarrek, aldiz, hamar urte itxaron behar izaten dute (sakontzeko, ik. Zapata-Barrero, 2004).

Herrialdearen arabera, etorkinen jatorriaren pisua aldatu egiten da. Izan ere, lurralde bakoitzeko lan merkatuaren ezaugarriak desberdinak dira, eta immigrazioaren berezitasunak lan munduaren eskakizunen arabera izan ohi dira. Zentzu horretan, Magrebeko herritarrek Araban dute pisurik handiena (%29,2), EBko herritarrek Gipuzkoan (%31,2), eta latinoamerikarrek Bizkaian (%44,2) (Ikuspegi, 2012).

Zehaztasuna eskualde mailara eramanez, Arabako Lautadan kolonbiarrak dira talde nagusia, eta Aiaraldean aljeriarrak. Bilbon ere kolonbiarrak dira talde handiena; Getxon, berriz, boliviarrak; eta Barakaldon portugaldarrak. Lea-Artibain, berriz, senegaldarrak nabarmentzen dira. Gipuzkoaren kasuan, Donostialdean kolonbiar eta argentinarrek dute pisurik handiena, Eibar zein Azkoitian marokoarrek, Hernanin ekuadortarrek, eta Goierrin, berriz, errumaniarrek (Blanco, 2008).

Jatorriari begiratu, hortaz, oso ezaugarri desberdinak hartzen ditu Hego Euskal Herriko immigrazio berriak. Jatorriari kokapenaren aldagaia gehituz, eta horri, aldi berean, euskararen ezagutzarena, mapa desberdinak irtengo zaizkigu, Xabier Aierdik (2008) nabarmendu bezala. Izan ere, atzerritarren portzentaje handienak Araba eta Nafarroa hegoaldean (eta Gasteizen eta Bilbon) aurkitzen dira; hots, euskararen ezagutza maila baxuena duten eskualdeak.

Jatorriak sexuaren araberako desberdintasunak azaleratzen dizkigu. 2010eko datuekin, berriz ere, jatorri guztietan gizonak dira nagusi EAeko etorkinen artean, latinoamerikarren kasuan izan ezik. Hauen artean, %60,1 dira emakumeak. Beste aldean, gizonezkoak gehien diren jatorrietan, *txinatarrak ez diren asiarrak* (gizonezkoak, %69,5) eta afrikarrak (%67,4) ditugu. Gainontzeko jatorrietan, azkenik, gizonezkoen ehunekoa ez da hain nabarmena, gehiengoa izan arren (Ikuspegi, 2011a).

4.2.1. Immigrazio berriarekiko jarrerak

Immigrazioaren errealitatea estigma zehatzei atxikirik egon ohi da, immigrazioa gizarte-kokapen zehatzekin lotura baitu. Jarraian, Hego Euskal Herrira Espainiaz eta Frantziak kanpo iritsitako immigrazioak harrera gizartean sorturiko erreakzio eta erantzun batzuk behatuko ditugu¹²³.

EAeko immigrazioaren behatokiak –Ikuspegi@k izenekoa– Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako biztanleriak atzerriko immigrazioari buruz dituen jarrerak eta pertzepzioak izan ditu aztergai bere barometroetan. 2010eko ikerketan (Ikuspegi, 2011b), horrela, immigrazioa *arazotzat* hartzen du EAeko herritarren %15,5ek; baina lehen arazo moduan %2,8k ulertzen du soilik. Immigrazioa arazo gisa ikustearekin batera, beste gai garrantzitsu bat etorkinen kopuruaren pertzepzioa da. Izan ere, jauzia gertatzen da immigranteen kopuru errearen eta kopuru horren irudi sozialaren artean. Inkestatuen aburuz, Euskal Autonomia Erkidegoko etorkinen ehunekoa %16,9koa da. Datu erreala (%6,4) jakinarazi ostean, hala ere, inkestatutako lagunen %57ren iritzia da EAEn etorkin gehiegi dagoela (Alkorta, 2011: 61). Zabaldutako pertzepzioa da, beraz.


Horrekin batera, immigrazioaren paper ekonomikoari buruzko iritzia ere gai garrantzitsua da. Izan ere, 2008tik *krisi ekonomikoa* deitutakoa

¹²³ Atal honetako datuak Euskal Autonomia Erkidegokoak dira; izan ere, iturria Ikuspegi@k EAeko immigrazioaren behatokia da.

zentraltasun soziala eskuratu duen afera da, eta ekonomia gizarte-problema nagusi legez agertzen da. Gainera, hizpide dugun immigrazioa ekonomikoa da batik bat. Bada, inkestatutakoen iritzietatik immigrazioak betetzen duen funtzio ekonomikoari buruzko irakurketa anbibalentea ondorioztatzen da: gehiengoarentzat immigrazioaren ondorioz ekonomiak hobe funtzionatzen du (%47,1) eta zenbait sektoretarako immigranteak beharrezkoak ditugu (%44,9); baina, horrekin batera, inkestatutakoen %60,8 ados dago immigrazioak langabezia areagotzen duela esatearekin (Ibidem, 64).

Zentzu horretan, immigrazioari loturiko estereotipo zabaldua da etorkina gizarte zerbitzuen pilatzaile gisa antzematea, hurrengo grafikoan ikus dezakegun moduan:

2. grafikoa: Etorkinei buruzko estereotipoak (2010)



Iturria: Alkorta (2011: 67).


Aurreiritzi horiek Euskal Herriko gizartean nagusitzen diren estereotipoetako batzuk dira; eta, ziurrenik, lan honetan aztergai dugun eremu zehatzean –euskal nazionalismoan– ere islatuko dira, neurri batean edo bestean.

Horri loturik, Ikuspegiren barometroetan immigrazioak euskal nazionalismoa eta euskararengan izan dezakeen eraginari buruzko pertzepzioaz agertutako erantzunak behatzea lagungarri izan daiteke, inkestatuen artean

euskaldunak zein elebakarrak, eta baita nazio atxikimendu desberdineko lagunak ere badaudela gogoratuta. Zehazki, EAeko herritarren arabera, euskal identitatea, euskara zein euskal nazionalismoarengan immigrazioak duen eraginaz galdetzen da bertan, 2004tik hasita 2010era arte (ik. Ikuspegi, 2011b: 22-24).

Oro har, ondorio nagusia da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritar gehienek uste dutela immigrazioak ez dituela euskararen hedapena (%55,5), euskal identitatea (%57,2) edota euskal nazionalismoaren helburuak (%52,4) kaltetzen (Ibidem, 22).

3. grafikoa: Immigrazio berriaren eragina (2010)



Iturria: Ikuspegi (2011b: 23), guk moldatua.

Hala ere, gai horrekiko pertzepzioan jazotako bilakaera aipagarria da. Izan ere, 2004an hasten den serie horretan, 2008. urtean bilakaera aldatu da: immigrazioak eremu horietan eragin negatiboa duela uste dutenen kopuruak gora egin du. Zentzu horretan, 2009ko barometroan errealitate horri buruz ohartarazten zuten egileek: “(...) atzerriko pertsonen etorrerak identitatearen alderdietan modu negatiboan eragin dezakeela hautematen hasi diren iritzien oihartzuna ere hasi da antzematen, oso apal bada ere.” (Ikuspegi, 2010: 22). Eta 2010ekoan iritzi hori berresten da, gai horietan immigrazioak eragin negatiboak izan ditzakeela uste dutenen kopuruak gora egin baitu, batez ere euskarari

dagokionez. Beraz, badirudi immigrazioak euskara, euskal identitatea eta abertzaletasunaren helburuetan eragin negatiboa izango ez duelako ustea ez dela hain erabatekoa EAEko herritarren artean (Ikuspegi, 2011b: 23).

Horrekin batera, aldagai soziodemografikoen arabera, identitate auziari buruzko erantzunak aldatzen direla kontuan hartzekoa da. Gaiari buruzko iritzietan, horrela, bi profil desberdindu daitezke, baldin eta immigrazioarekiko jarrera irekiagoa edo itxiagoa den. Bi soslai hauen arteko aldeak oso txikiak dira; izan ere, bietan immigrazioarekiko jarrera irekiagoak nagusitzen dira¹²⁴. 2009ko barometroan eraikitako bi profilen arteko alde nabarmenenak estatus sozioekonomikoaren arabera dira: immigrazioarekiko jarrera uzkurrenak maila sozioekonomiko baxuko lagunen artean (5,90 puntu) jazotzen diren bitartean, iritzi tolerantetagoak maila altu (7,30) zein erdi-altukoetan (7,23) agertzen dira. Horrekin batera, ardatz sozialari loturiko ideologiaren arabera alde ere nabarmentzen da, eta beren burua eskuindartzat dutenak immigrazioarekiko jarrera uzkurrena erakusten dute (puntuaziorik baxuena: 5,52), ezkerrekoek (7,05) ez bezala. Nazionalismoari eta nazio atxikimenduari dagokionez, aldeak ez dira oso adierazgarriak; eta immigrazioarekiko jarrera itxiena espainiar nazionalistek (6,39) adierazten dute, jarrera tolerantetagoa duten euskal nahiz espainiar nazionalistak ez direnen (7,15) aurrean (Ikuspegi, 2010: 22-23).

Immigrazioak abertzaletasuna zein euskararengan izan dezakeen eraginari buruzko jarreretan, beraz, aldagai demografikoen arabera aldeak ez dira adierazgarritasun handikoak. Zentzu horretan, 2010eko barometroan, immigrazioaren eraginei buruzko jarreraren bi profiletan beste aldagai batzuk nabarmentzen dira: herriaren tamaina, ikasketa maila eta hizkuntza. Azken horri dagokionez, euskaldunek (6,10) erdaldunek (6,67) baino jarrera uzkurragoa adierazten dute immigrazioarekiko, aldeak oso txikiak izan arren (Ikuspegi, 2011b: 24).

¹²⁴ Profil horiek ondoko indizeari lotuta eraiki dira: ikuspegi negatiboenak ora hurbiltzen dira, eta positiboenak 10era. Bada, bi soslaietako atal desberdinetako puntuak 6 eta 7 artekoak dira, oro har.

Finean, immigrazioarekiko irudi soziala momentu jakinetan arrakasta eskuratu duten estereotipoen arabera eraikitzen da. Aurreiritzi horiek nagusi dira immigrazioa gai ekonomikoekin edota gizarte zerbitzuekin lotzerakoan. Bere aldetik, immigrazioa identitatea, euskara nahiz nazionalismoarekin lotzerakoan, jarrera ezkorrak ez dira nagusitzen, nahiz eta, aldi berean, azken urteetan jarrera uzkurrek gero eta indar gehiago dutela dirudien.

4.3. Laburbilduz: Hego Euskal Herria, immigrazio lurraldea

Hego Euskal Herria emigratio lurralde izatetik etorkinak jasotzera pasazen XIX. mende bukaeratik aurrera. Orduan, landa eremutik hiri eremurako migrazio prozesu zabalago baten baitan, Espainiako herritar ugari iristen hasi ziren Euskal Herriko industria gune berrietan lan egiteko, Bizkaian batik bat. 1950 eta 1980 urteen artean, bigarren immigrazio aldia gertatu zen Espainiatik Hego Euskal Herrira, aurrekoan baino kopuru handiagotan oraingoan. Etorkinak, Bizkaiko industria guneetara ez ezik, Gipuzkoako eskualde gehienetara ere iritsi ziren, eta baita Arabara ere. Nafarroan, bestalde, mugimendu mugatuagoa izan zen, hango eskualde askok lehenengo sektorera loturik jarraitu baitzuen, baina industria guneetan (Iruñea, Altsasu, Lesaka...) oso nabaria izan zen. 1980ko hamarkadan sartuta, immigrazio prozesu horrek intentsitatea galdu zuen, Hego Euskal Herria eta Espainiaren arteko noranzko biko fluxuek jarraitu duten arren.

1990eko hamarkadan, immigrazio prozesu berria hasi zen Hego Euskal Herrian, eta aurreko aldian baino urrunagotik zetorren migrazio fluxu bati hasiera eman zitzaion. Immigrazio horren jatorria Afrika eta, ondoren, Latinoamerika izan ziren, hasiera batean; eta 2000. urtetik aurrera hasi zen kopuru esanguratsuak eskuratzen. Denborarekin, immigrazio berri hori Euskal Herriko eskualde gehiagotara zabaldu zen, eta jatorriak ere ugariak izan ziren. Immigrazio berri horrek funtzio ekonomiko ukaezina bete zuen, harrera gizartean bete behar ziren –eta bertakoek egin nahi ez zituzten– sektoretan

metatu baitziren etorkinak, mota honetako immigrazio ekonomikoetan gertatu ohi den bezala. Egoera horren adibide argiak eraikuntza eta zaintzari loturiko sektoreak izan ziren, eta generoaren araberrako osaera oso desberdinak gertatu ziren sektore bakoitzean.

Hortaz, bi immigrazio mota bereiz ditzakegu: bata, zaharragoa, Espainiatik iritsi zena, eta XIX. mende bukaeran jazotako lehen momentu baten ostean, batez ere 1950 eta 1980 artean gauzatu zena; eta, bestea, 2000tik aurrera nabarmentzen dena, eta nazioarteko immigrazioaren parametroak jarraitzen dituen: *Hegoalde* behartsutik *Iparralde* aberatserako migrazioa.

Bi immigrazio prozesuon artean, antzekotasun eta desberdintasun ugari azpimarra daitezke¹²⁵. Kidetasunen artean, migrazio prozesu orok partekatu ohi dituztenak ditugu, immigrazioaren kausa eta fluxuak zabaltzeko moduak. Immigrazio ekonomikoez ari garenez, ez da ahanzi behar jendeak bizitza hobea lortu nahi duelako migratu ohi duela. Horrekin batera, bi migrazio korronteek antzeko eskema jarraitu zuten: aitzindarien ostean, *tanta efektua* deitutakoa jarraituz, gutxinaka immigrante gehiago iristen dira, gizarte-sareetan oin harturik. Bi migrazio fluxuotan, bada, gizarte egoera gogorak gertatu ziren.

Desberdintasunei dagokienez, Hego Euskal Herrian egitura ekonomikoan jazotako aldaketa sakona azpimarratu behar da. Industria sektoreak ez du XX. mendean izan zuen zentraltasuna, eta hari lotutako *bizitza osorako lanpostuaren* ideala ahuldurik dago. Immigrazio berriak, hortaz, zailtasun handiagoak izan ditzake txertatze ekonomikoaren ikuspegitik. Zentzu horretan, eredu ekonomikoak gizarteko hainbat sektore goranzko gizarte-mugikortasun prozesuetatik at uzten ditu, eta talde horretan etorkin ugari aurki daitezke, haiek metatu diren lan sektoreetan (eraikuntza, zaintza eta abar) ziurgabetasuna nagusi baita.

¹²⁵ Ondorengo azalpenerako Xabier Aierdik emandako hitzaldi honetan oinarritu gara: “Inmigración hoy: semejanzas y diferencias”, *Hezkuntza etorkinekin IX. mintegia*, UPV-EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Donostia, 2010eko martxoaren 10a.

Edonola ere, desberdintasun nagusia herritartasunari lotutakoa da. Aurreko immigrazio aldiak Estatu beraren barruko migrazioak ziren bitartean, egungoa kanpo-migrazioa da, eta horrek ageriko desberdintasuna dakar: etorkin berriek ez dute Espainiako herritartasunik. Egoera horrek gizarte kokapen ahulean kokatzen ditu migratzaileak, estatus sozial ezegonkor bati atxikirik.

Desberdintasunak desberdintasun, immigrazioaren auzian funtsezkoa da harrera gizartean diharduen nazionalismoak –edo nazionalismoek– bere lurraldera iritsitako migrazioez garatzen duten ikuspegia kontuan hartzea. Ondorengo atalean, bada, euskal nazionalismoak Hego Euskal Herrira iritsitako immigrazio berriaz eraikitako diskurtsoan sakonduko dugu.

HIRUGARREN ATALA:

**EUSKAL NAZIONALISMOAREN DISKURTSOA
GAUR EGUNGO IMMIGRAZIOAREN AURREAN.
IKERKETAREN EMAITZAK**

5. AZALPEN METODOLOGIKOA

Ikerlan honen helburua euskal nazionalismoak gai zehatz baten aurrean –gaur egungo immigrazioa– garatzen duen diskurtsoa aztertzea da. Euskal nazionalismoa errealitate zabal eta konplexua da, eta termino horrekin mugimendu politiko, fenomeno sozial nahiz sentimendu bat izenda daitezke, besteak beste. Ikerlan honetan, bada, *euskal nazionalismoa* izenarekin euskal nazioaren existentzia aldarrikatzen duen mugimendu soziopolitikoaz ari gara.

Mugimendu horrek eraikitzen duen *diskurtsoa* aztertu nahi dugu, beraz. Ez hainbeste mugimendu horren jarduerak¹²⁶, gai zehatz baten aurrean garatzen duen diskurtsoa baino; hots, afera baten aurrean eraikitzen duen kontakizuna, zeinaren bidez gai horri zentzua ematen zaion. Izan ere, aktore sozialen ekintzak ez dira ezerezetik abiatzen, ikuspegi zehatzetatik baizik. Horrela, ekintzei zentzua ematen dioten diskurtsoak aztertzea funtsezkoa da, jarduera garatzen den marko interpretatiboa ikuspegi horietan oinarritzen baita. Finean, zentzuaren ekoizpena eta zentzua bera definitzeko lehia gai politiko eta sozial esanguratsuak dira¹²⁷.

Diskurtsoa, hala ere, askotarikoa da, eta hainbat bitartekoren bidez hedatzen da. Laburbilduz, ikergai dugun eremuan ekoizpen idatzi ofiziala (eragileen agiriak, propaganda, azterketak eta abar) eta ahozko diskurtsoa bereiz ditzakegu. Ikerlan honetan, arreta bigarrenean jarriko dugu; izan ere, eremu idatziak berezko azterketa behar lukeela uste dugu, dagozkion gerturatze metodologikoen bidez. Baina, batez ere, ahozkoak *diskurtso ofizial* hertsia gainditzen du, *politikoki zuzena* denaren mugak gainditzen ditu, eta ñabardurak ikustarazten dizkigu, aldi berean. Hori dela eta, informazio iturri desberdinetara joz (alderdi nahiz sindikatu abertzaleetako migrazio arduradunak eta oinarri sozialeko kideak) abertzaleek *diotena* behatuko dugu lan honetan.

¹²⁶ Diskurtsoaren ekoizpena, eta diskurtsoa bera, ekintza dela aiantzi gabe.

¹²⁷ Diskurtsoan oin hartzen duen zentzua aztertzeko proposamen metodologikoan sakontzeko, ik. Howarth (2005).

Eta helburu horiei ekiteko ezinbestekoa iruditu zaigu metodologia kualitatiboa erabiltzea. Izan ere, metodologia horren bidez, abertzaleen diskurtsoaren ñabardurak beha ditzakegu, eta ukitzen diren gai ugariak aztertu. Finean, gerturatze kualitatiboarekin diskurtsoa sakontasunez azter dezakegu. Ikuspegi kualitatiboan txertatzen diren ikerketa tekniken artean, lan honetan sakoneko elkarrizketak eta eztabaida taldeak erabiliko ditugu.

Ikerketa praktika horien bidez, arreta ahozko diskurtsoan jarriko dugu. Diskurtso mota horrek gure azterketa aberasten duten ezaugarri batzuk ditu, diskurtso idatziak ez dituenak. Horrela, bat-batekotasunaren bidez, aktoreek errealitateari buruz egiten duten irakurketa jasotzen dugu, eta gai esanguratsuak mahaigaineratzen dira. Izan ere, iritzi pertsonalak dira jaso ditugunak, eta alderdi eta sindikatueta migrazio arduradunek, beren karguaren bidez, erakundearen *iritzi ofizialaz* egiten duten irakurketa helarazi digute. Informazio iturri desberdinak erabiliz, sektore sozial zehatz baten diskurtsoan gailentzen den ildoaz aztertze aukera dugu, beraz. Jarraian, ikergaia kokatu eta lan honen ezaugarri metodologikoak azalduko ditugu.

5.1. Aztergaiaren kokapena

Lan honen ikergaia dagoeneko zehaztu dugu: euskal nazionalismoak gaur egungo immigrazioaren aurrean garatzen duen diskurtsoa. Horren baitan, joera nagusiak aztertuko ditugu. Euskal nazionalismoa da gure ikergaia, hortaz, eta, haren barruan, gai zehatz baten aurrean egiten duen diskurtsoa; 2000tik aurrera, batez ere, Hego Euskal Herrira iritsitako *immigrazio berria*, hain zuzen.

Abertzaleentzat, printzipioz, Euskal Herritik at bertara bizitzera etorritako lagun guztiak sartzen dira *etorkin* kategoriaren azpian. Hala ere, Espainiatik iritsitako lagunek –Hego Euskal Herriaren kasuan– zein gainontzekoek oso ezaugarri desberdinak dituzte, eta euskal nazionalismoak berak ere azterketa desberdina burutzen du immigrazioaren jatorriaren arabera. Beste hainbat gairen artean, herritartasuna eta hari lotutako eskubide ugarien

afera (Espainiatik etorritakoei eragiten ez diena) eta immigrazioari loturiko estereotipo zein aurreiritziek bi immigrazio motak desberdintzea dakar¹²⁸. *Gaur egungo immigrazioa* hartuko dugu markotzat, beti ere harekiko abertzaleek garatzen duten diskurtsoa aztertuta.

Immigrazioa nazionalismoa ikertzeko eremu pribilegiatua da. Nazionalismoak, immigrazioa eta etorkinekiko jarduna garatzerakoan, haren nazioa nola ikusten duen azaleratzen du, aldi berean. Gainera, estaturik gabeko nazionalismoaren kasuan, ikerketa eremu horrek beste berezitasun batzuk ditu; izan ere, neurri batean, nazionalismo azpiestatalak aldarrikatzen duen nazioa eta etorkin talde berriak lehian sar baitaitezke, edo, aitzitik, helburu politikoekiko lotura planteatzen dezakete.

Edonola ere, Euskal Herriaren kasuan, egungo immigrazioaren eta euskal nazionalismoaren arteko harremana gutxi ikertu da oraindik eta, gure testuinguru hurbilean ere –Katalunian–, eztabaida horrek urte gutxiko ibilbidea izan du. Gainera, alderdi nazionalista azpiestatalek –Euskal Herrian zein Katalunian– ez dute immigrazioaren nazio atxikimenduari buruzko eztabaida sozialik bultzatzen (ik. Zapata-Barrero, 2005: 5), nahiz eta, Katalunian, independentziari buruzko eztabaidari lotuta immigrazioa ere azaleratu den¹²⁹.

Euskal nazionalismoak immigrazio berriarekiko duen ikuspegia gutxi ikertu bada ere, abertzaleen posizioaz egiten diren aipamen eta iradokizunetan nolabaiteko balioespen ezkorra antzeman daiteke. Oro har, euskal nazionalismoa *etniko* gisa sailkatzen da, eta, ideia horretatik abiatuz, nazionalismo hori immigrazioaren aurkakoa dela ondorioztatzen da. Adibidez, immigrazioa, multikulturalismoa eta nazionalismo azpiestatala elkarlotzeagatik ezaguna den Will Kymlickak euskal nazionalismoan nazio ulertzeko modu ireki eta liberala ez dela gailendu aipatzen du, horretan sakontzen ez badu ere:

¹²⁸ Edonola ere, Espainiatik orain dela hamarkada batzuk iritsitako migrazio fluxua funtsezko erreferentzia da euskal nazionalismoarentzat, ikusiko dugun bezala.

¹²⁹ Adibide gisa, ideia hori azpimarratzen da hurrengo erreportajearen: Cembrero, Ignacio: “Atraer al inmigrante al ‘Estat propi’”, *El País*, 2012-11-17, hemen eskuragarri: http://politica.elpais.com/politica/2012/11/17/actualidad/1353187202_909018.html (2012-11-20an begiratu).

“no todos los nacionalismos son postétnicos: el racismo sigue siendo una fuerza más fuerte tanto en el nacionalismo vasco como en el nacionalismo flamenco. (...) El concepto liberal e incluyente [de la nación], pese a tener una gran fuerza en los nacionalismo flamenco y vasco, aún no es hegemónico” (Kymlicka, 2003: 328).

Ildo beretik, Ricard Zapata-Barrerok (2010), elkarrizketa batean, euskal nazionalismoa eta Flandriakoa elkarlotzen ditu, eta, ondorioz, “Euskal Herrian eskuin muturreko nazionalismoa” sortzeko aukera dagoela ohartarazten du.

Edonola ere, Euskal Herrian immigrazioari buruzko eztabaidan abertzaletasuna, nazioa edo identitateari loturiko gaiak lehenetsun gisa aurkezten ez direla dirudi. Migrazioei loturiko ardura nagusiak, horrela, bestelako eremu batzuei (eskubide sozialak, bazterkeria, arrazismoa eta abar) loturikoak dira, oro har. Zentzu horretan, euskal nazionalismoaren jarduna ere mugatua da immigrazio berriari dagokionez. Nolanahi ere, horrek ez du ukatzen azken urteetan abertzaletasunaren edo haren gertuko sektore batzuetan immigrazioari buruzko ardura piztu izana. Gure ustez, arreta hori euskarari loturik, batez ere, azaleratu da, hizkuntzaren berreskurapenaren aldeko mugimenduan zein hezkuntzari loturiko inguruetan, batik bat¹³⁰; baina, abertzaletasunera mugatuz, beste eragile batzuetan ere isla izan du (aurrerago aipatuko ditugun alderdi eta sindikatuez gain), *naziotasunaren* lanketan dihardutenen artean¹³¹ zein gazte mugimenduan¹³², adibidez. Zentzu berean,

¹³⁰ Beste hainbat ekimenen adibide –goiztiar– gisa soilik, 2006an Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak *Aniztasunean, euskara eta immigrazioa hezkuntza sisteman* jardunaldia antolatu zuen (ik. “EAEEn ikasten duten etorkinek ez dute euskara ikasiko”, *Gara*, 2006-12-19, hemen eskuragarri: <http://gara.naiz.info/idatzia/20061219/art193979.php> [2012-10-15ean begiratua]). Urte berean, Udako Euskal Unibertsitateak eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak *Immigrazioa eta hizkuntza politika udalerrri euskaldunetan aztergai* bilkura antolatu zuten (ik. Zubeldia, Unai: “Euskal migrazio politika’ beharrezkotzat jo dute etorkinak behar bezala integratzeko”, *Berria*, 2006-12-15, hemen eskuragarri: http://paperekoa.berria.info/harian/2006-12-15/018/001/euskal_migrazio_politika_beharrezkotzat_jo_dute_etorkinak_behar_bezala_integratzeko_.htm [2012-10-15ean begiratua]).

¹³¹ *Bai Euskal Herriari* ekimenak 2010ean plazaratutako *Naziotasunari buruzko gogoeta* deiturikoan, migrazioei atal bat eskaintzen zitzaion (Bai Euskal Herriari, 2010: 6). Halaber, EHNA *Euskal Herriko Naziotasun Aitormenaren* inguruan, immigranteei ere deia egin zitzaion (“Inmigrantes se unen a Udalbiltza en la demanda de la nacionalidad vasca”, *Gara*, 2006-12-15,

2006an Euskal Herriko migratzaileak biltzeko sortutako *Anitzak ekimena* ere aipatzekoa da, immigranteen eskakizunak eta abertzaletasunarenak batu eta harremanetan jartzeko saiakera egiten zuen heinean.

Edonola ere, eragileez gain, euskal nazionalismoak immigrazioaz duen ikuspegia erakundeetan ere garatu da, maila desberdinetan. Eusko Jaurlaritzak, horrela, immigrazio planak garatu ditu 2003 eta 2007an (ik. Blanco, 2008), baina, oro har, nazioari buruzko ardura ez da esanguratsua izan horietan¹³³. Hala ere, immigrazioarekiko erakundeetatik egindako lanean, nazioaren aldagaia era lantzen hasi da, gutxinaka bada ere. Horren adibidetzat har ditzakegu, beste hainbaten artean, 2011n Azkoitiko Udalak, EAJren esku zegoena, etorkinek *errotze agiria* lortu ahal izateko *euskara eta euskal kultura ikastaroak* ezarri izana¹³⁴; edota urte berean, Bilduren eskutik, Gipuzkoako Diputazioak Migrazio eta Aniztasun zuzendaritza sortzea. Azken horri dagokionez, *immigrante* kategoriaren definizioa liskar iturri bilakatu izana esanguratsua da¹³⁵.

Erakundeetatik bultzatutako lanketa horiek, immigrazioa eta nazionalismoaren arteko hartu-emanen sakontzen dutenak, hala ere, ez dira abertzaletasunaren lehentasunezko gai moduan mahaigaineratzen. Horrela, euskal nazionalismoak immigrazioaren aurrean duen jarrera aztertzeko eragileen beren ikusmoldeak aztertzea emankorragoa dela deritzogu. Eragileen

hemen eskuragarri: <http://gara.naiz.info/idatzia/20061215/art193469.php> [2012-10-15ean begiratua]).

¹³² Adibidez, *Kamaradak gazte internazionalisten sareak*, Anitzak ekimenarekin elkarlanean, *Migrazioa eta internazionalismoa Euskal Herrian* gogoeta burutu eta kaleratu zuen (ik. Kamaradak/Anitzak, d.g.).

¹³³ Hala ere, bestelako irakurketak egin daitezke. Jeramek (2012), adibidez, 2003ko planean herritartasun eredu berri bat eratu zela defendatzen du, etorkinarentzat Espainiako eredia baino askoz irekiagoa zena.

¹³⁴ “Azkoitian etorkinek euskal kulturari buruzko ikastaroa egin beharko dute”, *Berria*, 2011-04-12, http://berria.info/albisteak/49576/azkoitian_etorkinek_euskal_kulturari_buruzko_ikastaroa_egin_beharko_dute.htm (2012-10-15ean begiratua).

¹³⁵ Ik. Ormazabal, Mikel; “Bildu abre otro enfrentamiento con el PSE por la política de inmigrantes”, *El País*, 2012-05-11, http://ccaa.elpais.com/ccaa/2012/05/10/paisvasco/1336672819_298137.html (2012-10-15ean begiratua).

artean, gainera, euskal nazionalismoarekin bat egiten duen sektore sozialean iritziak, kontzeptuak eta, finean, diskurtsoak hedatzeko gaitasun handia duten aktoreak lehenetsi ditugu: alderdi politikoak eta sindikatuak. Aztergaia kokatu asmoz, bada, arreta eragile horiek immigrazioari buruz defendatutako zenbait ideietan jarriko dugu. Oraingoan, dokumentu idatziak hartuko ditugu oinarri gisa, ondorengo puntuetan aztertuko dugun ahozko diskurtsoa kokatzeko xedearekin¹³⁶.

Horrela, migrazioak aztertzeko ikuspegi orokorrari dagokionez, immigrazioaren egiturazko irakurketa hobesten dela ikus dezakegu:

“Aukerarik ez egotearen, eskualde batzuetan gerren ondorioz bizi ezin izatearen, ezegonkortasunaren nahiz pobrezia- eta Iparraldearen eta Hegoaldearen aberastasunean lubaki gero eta handiagoa egotearen eraginez, XXI. mendea migrazio mugimendu handien mendea izango da.” (Euzko Alderdi Jeltzalea, d.g.).

Izan ere, mundu mailako begirada ezinbestekotzat hartzen da egungo immigrazioa ulertu ahal izateko:

“(..) migrazioak gehitu egin dira arrazoi politiko, ekonomiko edo ekologikoengatik (...) planetako erregioen arteko mugimendua eta estatuen barrukoa honako bi arrazoiengatik gertatzen da: batetik, egungo prozesu globalizataileak desberdintasunak areagotu egin ditu; bestetik, gatazkak areagotu egin dira ordena geostrategiko unipolar berria inposatu nahi izatean.” (Batasuna, d.g.: 1).

Prozesu global moduan aurkezten da immigrazioa, eta ez zehazki Euskal Herriari lotutako errealitate gisa. Gainera, egiturazko eta mundu mailako arrazoiekin batera, horrek guztiak immigrantearengan dituen ondorio zuzenak ere azpimarratzen dira:

¹³⁶ Ondokoa Ikasketa Aurreratuen Diploma eskuratzeko ikerlanean (*Euskal nazionalismoa eta gaur egungo immigrazioa*, 2007, UPV-EHU) aztertu genituen dokumentuen aukeraketa eta laburpena da. Ondoren aztertutako beste dokumentu batzuk ere erantsi ditugu.

“Es lamentable que durante los últimos años se hayan acrecentado los actos de discriminación y agresión (...) contra las personas inmigrantes, que junto a manifestaciones violentas, derivadas de las ofensivas, discriminatorias y excluyentes políticas, constituyan las nuevas expresiones de racismo y xenofobia.” (ELA-Inmigrazioa, 2006).

Beraz, abertzaleen dokumentuetan immigrazioa, neurri batean, urruneko problematika moduan agertzen da. Edonola ere, abertzaleek Euskal Herriak migrazio politikak erabakitzeko aukerarik ez duela ere azpimarratzen dute; eta, beraz, ahalmen horren aldarrikapena ideia garrantzitsua gertatzen da:

“(...) gure helburu estrategikoa da beste herri batzuetatik datozen pertsona eta kolektiboen ingurukoak arautuko dituen, herri bezala, euskarri politiko, ekonomiko eta kulturalak izateko eskubidea eztaba daezinezkoa aldarrikatzea.” (Batasuna, d.g.: 4).

“(...) Euskal Herriak tresnarik gabe jarraitzen du hiritartasuna, nazionalitatea eta gisa bereko gaiei heltzeko, bere biztanleek ere ez hiritartasunik ez nazionalitaterik ez baitute.” (LAB, 2003: 5).

Salaketa horrez gain, *elkarbizitza* helburu duten proposamen desberdinak mahaigaineratzen dira, eredu diferentei begira, baina pluralismo kulturala ukatu gabe:

“Inmigranteak integratzeko edo egokitzeko mekanismoak (politika publikoak); izan ere, gauza jakina da etniko, erlijioso edo kulturaltzat aurkezten diren gatazkarik gehienak injustizia edo pobrezia egoeren eraginezkoak direla. Horrenbestez, ez da onargarria integrazioaren gaia bateraezintasun kulturaltzat edo ‘zibilizazioen arteko talkatzat’ aurkeztea.” (Euzko Alderdi Jeltzalea, d.g.: 1, egileek azpimarratua).

“(…) integrazio soziala bideratzea (...), naziotasun eskubidea onartzea (jatorrizko naziotasunarekin bateragarri eginez eta Espainia, Frantzia eta Europar Batasunaren legeria diskriminatzailea salatuz), haien hizkuntza, kultura eta identitatea onartuz, gureak ere eskaintzea (...)” (Batasuna, 2006: 9).

Ikus daitekeenez, euskal nazionalismoak immigrazio berriari buruz sortutako ekoizpen idatzian orokortasuna da nagusi, oro har. Nolabaiteko ildo antzeman daiteke, baina diskurtso zehaztugabea gailentzen da, nazionalismo gisa abertzaletasunak garatzen duen nazioarekiko ikuspegiari dagokionez batik bat. Zentzu horretan, diskurtsoa gehiago zehazten denean, zalantzak sor daitezke abertzaleen helburuei dagokienez. Ondoko testua esaten dugunaren adibide izan daiteke:

“guztion artean, edozein dela gure jatorria, lortu eta egikaritu behar ditugu herri gisa beharrezkoak ditugun tresna politiko, ekonomiko eta kulturalak. Tresna subirano horiek jarraian azalduko ditugunak arautu beharko dituzte:

Euskal herritartasuna lortzea, hau da, egoitza eta naziotasuna; eta horietatik eratortzen diren eskubide politiko guztiak.

Beste herri batzuetatik etorri eta gure artean bizi diren eta jendartearen parte diren pertsona eta kolektiboen elkarbizitza eta integrazioa. (...)

[Etorrinen] Berdintasun ezaren aurrean, diskriminazio positiboa eta bere bereizgarritasunen aitortza indartu, beti ere euskal herriaren eta euskal herritarren banakako zein taldekako eskubideen kontra eragiten ez badu.” (Ezker Abertzalea, 2011).

Immigrazioaren auziak, euskal nazionalismoaren begietan, hainbat gai ukitzen ditu: eskubide sozialak, integrazioa, elkarbizitza, eta abar. Abertzaletasunak afera honen aurrean duen ikuspegia ezagutzea bilatzen denez, dokumentu idatzietara mugatu ordez, abertzaleen diskurtsoan sakonduko dugu.

Izan ere, aurreko lan batean euskal nazionalisten dokumentuak behatu genituen, eta bertan islatzen zen diskurtsoa zehaztugabea dela ondorioztatu genuen. Gainera, abertzaleek immigrazioari buruz duten ekoizpen idatzia urria dela eratorri zen ikerketa hartatik, eta, batez ere, diskurtso *politikoki zuzena* gailentzen zela, oro har¹³⁷. Hori dela eta, abertzaletasunak auzi honetan eratzten duen diskurtsoa ezagutu nahi bazen, beharrezkoa zen beste iturri batzuetara jotzea.

Behatutako dokumentu idatzietan islatzen denez, eta euskal nazionalismoa estaturik gabeko nazionalismo bat dela kontuan hartuz, nolabaiteko tentsioa aurreikus liteke abertzaleen helburu politikoen eta nazioarekiko arduraren artean. Hau da, euskal nazionalismoak, mugimendu soziopolitikoak denez, ahalik eta herritar gehien bildu nahi ditu bere proiektura; baina, aldi berean, mugimendu nazionalista denez, aldarrikatzen duen nazioaren ezaugarriak iraunarazi nahi ditu edo, gutxienez, haiekiko ardurak erakusten du, oro har. Hori dela eta, egoeraren arabera, asmo politikoen eta nazioari buruzko arduraren artean, gatazka gerta liteke; eta immigrazioak tentsio hori areagotu dezake.

Zentzu horretan, ikerlan honetako laneko hipotesi gisa ondoko hau erabili dugu:

Euskal nazionalismoak modu politikoan aztertzen du immigrazioaren fenomenoak, eta integrazio asmoak erakusten du; baina aldi berean, arriskutzat ere hartzen du euskal nazioaren zutabeen (euskara, nazioarekiko atxikimendua...) biziraupenari dagokionez.

Baieztapen horretan gai batzuk agertzen zaizkigu, lan honetan esanguratsuak izango direnak: immigrazioarekiko jarrera orokorra,

¹³⁷ Tesi honen muina den Ikasketa Aurreratuen Ziurtagiria eskuratzeko lanean (*Euskal nazionalismoa eta gaur egungo immigrazioa*, 2007, UPV-EHU), hiru sakoneko elkarrizketa egiteaz gain, alderdi eta sindikatu abertzaleen dokumentuak ere aztertu genituen.

immigranteen integrazioa, eta euskararen aferak. Jarraian, erabilitako ikerketa teknikak azaldu eta landa lanaren ezaugarritzea zehaztuko dugu.

5.2. Erabilitako ikerketa teknikak

Lan honen helburua *euskal nazionalismoaren diskurtsoa* aztertzea denez, erabili beharreko metodologia kualitatiboa da. Izan ere, metodologia kualitatiboaren bidez, errealitate sozialaren dimentsio sinbolikoa azter dezakegu, eta agenteek beren jardunei ematen dioten zentzuan sakondu. Beltránek (1991) azpimarratu bezala, errealitate sozialak, egiturazko dimentsio *gogorrarekin* batera, *ituratzat* har daitezkeen beste alde bat du, *iturra* baino errealitate sozial konplexuaren parte ere badena: Soziologiarentzat funtsezkoa da aktore sozialek eraikitako errealitate sinbolikoak ere aztertzea, haien ondorioak ez bairik gabe errealak diren heinean. Bada, gerturatze kualitatiboarekin, ikergai ditugun agenteen iritzi eta ikuskerak sakontasunez aztertzeko aukera dugu (ik. Rubio eta Varas, 2004). Metodologia kualitatiboak eskaintzen dizkigun tekniken artean, ikerlan honetarako eduki enpirikoak lortzeko sakoneko elkarrizketak eta eztabaida taldeak hobetsi ditugu¹³⁸.

Elkarrizketa ikerketa soziologikoaren funtsezko tresna da, eta hainbat modutakoak bereiz daitezke. Ikerlan honetan, *sakoneko elkarrizketaren* bidea hartu dugu; hots, galdetegi batean oin hartuta, ikerlariak zuzentzen duen elkarrizketa (elkarrizketen gidoia, ik. eranskina). Elkarrizketa zuzenduz, gai batekiko subjektu baten diskurtsoa birstortu nahi da. Ikerlan honetan, aztergaiari buruz informazio esanguratsua eskaini zezaketen lagunak elkarrizketatu ditugu: alderdi politiko eta sindikatu abertzaleetako migrazio gaietako arduradunak edo, horien ezean, alor horretan lanean diharduten kide kualifikatuak.

Elkarrizketekin batera, eztabaida taldeak ere egin ditugu. Taldeok, gaur egun, gizarte ikerketa kualitatiboetan praktika erabilia dira. Eztabaida taldeen

¹³⁸ Metodologiaren atalerako, hauetan oinarritu gara: García Ferrando et al., 2000; Ibáñez, 1986; Rubio eta Varas, 2004.

funtsa gai zehatz bati buruz 4 eta 9 lagun artean hitz egiten jartzea da, ordu eta erdi inguruko iraupenez, eta eztabaidarako gidoirik gabe. Hortaz, espresuki horretarako sortutako taldeak dira, eta ikerlari sozialak aukeratzen ditu, oro har, talde horretan parte hartu behar duten subjektuen ezaugarriak. Praktika horren helburua errepresentazio sozialak ikertzeko diskurtsoak sortzea da. Eratutako talde horrek, beraz, errealitate sozial zabalago baten diskurtsoa birsortu ohi du, eta aztergai den gizartean edo sektore sozialean gailentzen den diskurtsoa behatzea ahalbidetzen du (ik. Ibáñez, 1986). Ikerlan honetan, subjektu abertzaleek parte hartu dute eztabaida taldeetan, ezaugarri desberdinen arabera banaturik.

Bai eztabaida taldeetan eta bai sakoneko elkarrizketetan ere, hortaz, aztergai diskurtsoak izan ditugu. Areago, sektore sozial jakin batean –euskal nazionalismoan– gailentzen den diskurtsoa, zein bereizi daitezkeen diskurtso ildo nagusiak, behatu ditugu. Diskurtsoak produktu ideologikoak dira, gizarte edo sektore sozial baten produktu diren heinean; eta, aldi berean, legitimatutako diskurtso orok diskurtsoa plazaratzen duena legitimatu nahi du. Zentzu horretan, eztabaida taldeetan kideek legitimatutako diskurtsoa birsortzeko joera izaten dute, onarpena bilatzeko asmoz (ik. Callejo, 2001: 47). Sakoneko elkarrizketaren bidez, bere aldetik, diskurtso horretan gehiago sakontzeko aukera dago. Ikerlan honetan, azaldutako bi ikerketa tekniken bidez, abertzaleek gaur egungo immigrazioari buruz garatzen duten diskurtsoaren ezaugarri garrantzitsuenetan murgiltzeko asmoa izan dugu. Jarraian, helburu hori ikerlan honetan modu zehatzean nola egikaritu den ikusiko dugu.

5.3. Landa lanaren ezaugarritzea

Gaur egungo immigrazioari buruzko abertzaletasunaren diskurtsoa aztertzeko erabili dugun gerturatze kualitatiboaren bidez, hortaz, iturri desberdinetara jo dugu; zehazki, alderdi politiko zein sindikatu abertzaleetako migrazio alorretako arduradunengana –sakoneko elkarrizketan kasuan– eta euskal nazionalismoaren oinarri sozialeko jendearengana –eztabaida taldeen

kasuan-. Ikerketa teknika bakoitzaren bidez, euskal nazionalismoak garatzen duen diskurtsoaren adierazpen desberdinak aztertu ahal izan ditugu, beti ere diskurtsoan gailendu den ildoari –eta, kasu batzuetan, ildoari– jarraituz.

Sakoneko elkarrizketak, bada, alderdi politiko eta langile sindikatu abertzale nagusietako ordezkariekin egin ditugu. Zehazki, eragile horietan migrazio alorretako arduradunak elkarrizketatu ditugu, eta, halako arduradunak ez zegoenean, eragile horretan immigrazio gaian diharduen kide bat. Hortaz, militante arruntak baino, kide kualifikatuak (immigrazio gaian nolabait jantziak) dira elkarrizketatu ditugunak.

Alderdi eta sindikatueta jotzearen arrazoia aktore horiek, diskurtsoak sortu eta hedatzerako garaian, duten indar eta eraginkortasuna da. Izan ere, euskal nazionalismoa, mugimendu soziopolitiko gisa ulertuta, hainbat eragilek osatzen duten arren, alderdiek eta sindikatuak gaitasun berezia dute beren burua *abertzalezat* (edo *nazionalista, independentista...* gisa) hartzen duten subjektuen artean ikuspegiak zabaltzeko.

Alderdi politikoei dagokienez, Hego Euskal Herriko alderdi abertzale nagusietara jo dugu, hau da, beren burua *abertzale, euskal nazionalista* edota *independentistatzat* duten alderdi handienak. Nolanahi ere, landa lana egiterakoan¹³⁹, egoera politikoan aldaketa handiak jazo dira, eta horrek eragina izan du alderdiok erakundeetan duten ordezkartzan, lege egoeran zein haien arteko harremanetan. Horrela, landa lana hasterakoan, Ezker Abertzalea (orduko hartan, Batasuna izenarekin) legez kanpo zegoen Hego Euskal Herrian, Espainiako Alderdien Legearen eraginez. Horrekin batera, Aralar eta Eusko Alkartasuna erakundeetan berezko ordezkartza zuten alderdiak ziren EAEn, eta Nafarroan Nafarroa Bai koalizioko kideak ziren.

Ikerketa idazten ari ginela, aitzitik, Euskal Herriko egoera politikoan aldaketa handiak gertatu dira (ETAren borroka armatuaren amaiera, ezkerreko

¹³⁹ EAJ, Ezker Abertzalea eta ELAri egindako elkarrizketak besteak baino lehenago egin ziren, 2007ko martxoan eta ekaina artean, hain zuzen. Gainontzekoak, berriz, 2009ko abendua eta 2011ko urtarrila artean egin ziren.

abertzaleen arteko elkarlana...). Testuinguru horretan, Ezker Abertzaleak, Aralarrek eta Eusko Alkartasunak zenbait koalizio osatu dituzte beren artean: *Bildu*, Ezker Abertzalea, EA eta Alternatibaren¹⁴⁰ artean, 2011ko maiatzeko udal eta foru hauteskundeetarako; *Amaiur*, aurrekoei Aralar batuz, urte bereko Espainiako Parlamenturako hauteskundeetarako; eta *Euskal Herria Bildu*, aurreko alderdi berdinen artean, 2012ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako. Prozesu horretan, EAk, lehenago, eta Aralarrek, ondoren, Nafarroa Bai koalizioko kide izateari utzi diote. Horrekin guztiarekin batera, euskal nazionalistek erakundeetan erdietsitako ordezkaritzan ere aldaketak jazo dira.

Aldaketa handiko testuinguru horren baitan, Hego Euskal Herriko alderdi politiko abertzale nagusietara jo dugu. Jarraian, sakoneko elkarrizketen xehetasunak ditugu:

- **Aralar:** Bizkaiko batzarkidea, immigrazio gaietan aritzen dena. Elkarrizketa euskaraz egin zen, Bilbon.
- **Eusko Alkartasuna (EA):** Gasteizko koordinatzailea, migrazio gaietan aditua. Elkarrizketa euskaraz egin zen, Gasteizen.
- **Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ/PNV):** Gizarte Politikako arduraduna eta Eusko Legebiltzarreko parlamentarioa. Elkarrizketa euskaraz egin zen, Donostian.
- **Ezker Abertzalea:** *Migrazio eta aniztasuneko politikaren* alorreko arduraduna. Elkarrizketa gaztelaniaz egin zen, Donostian.

Sindikatuaren artean, bi sindikatu abertzale nagusietara jo dugu, ELA eta LABera. ELA Hego Euskal Herrian ordezkari gehien dituen langile sindikatua

¹⁴⁰ 2009an sortutako ezkerreko alderdi soberanista, jatorria Ezker Batuan duena.

da, eta LAB laugarrena, CCOO eta UGTren atzetik¹⁴¹. ELA eta LABek, beste sindikatu txikiago batzuekin batera, *euskal gehiengo sindikala* deitutakoa osatzen dute.

- **ELA:** Immigrazio alorreko arduraduna. Elkarrizketa gaztelaniaz egin zen, Bilbon.
- **LAB:** Zerbitzu Publikoen federazioko arduraduna (bigarren pertsona bat ere bazegoen, noizbehinka hitz egiten zuena: federazio bereko komunikazio arduraduna). Elkarrizketa gaztelaniaz egin zen (bigarren hizlariak euskaraz egin zuen), Bilbon.

Sakoneko elkarrizketak izanik, ikertzaileak gidoi baten laguntzaz ikergaiari buruzko galderak egin dizkie elkarrizketatuei. Elkarrizketen iraupena, batez beste, ordu bete eta ordu eta erdi artekoa izan da; eta, sexuari dagokionez, elkarrizketatutako zazpi lagunen artean, hiru emakumezko eta lau gizonezko izan dira. Elkarrizketatuetako bik, bestalde, etorkinak zirela azpimarratu zuten, bat Espainiakoa eta bestea Amerikakoa.

Sakoneko elkarrizketa hauen bidez, euskal nazionalismoak immigrazioari buruz duen diskurtsoaren ikuspegi kualifikatu bat jaso ahal izan dugu. Idatzizko diskurtso *ofizialean* ez bezala, hala ere, ideia zehaztugabeak gainditu eta *politikoki zuzena* denera mugatu gabe hitz egin dute elkarrizketatuek, oro har. Horrekin batera, abertzaleek egungo immigrazioaz eraikitzen duten diskurtsoan xehetasun nagusiak ikusi ahal izan ditugu, eta zein gai gertatzen diren esanguratsuak abertzaleentzat. Beraz, jasotako informazio hori aberasteko, eztabaida taldeen tresna ere erabili dugu.

¹⁴¹ Sindikatuen ordezkariari buruzko datu batzuk, hemen: *ELA zifratan*, http://www.ela-sindikatu.org/eu/ela/ela-zifratan?set_language=eu (2012-11-25ean begiratua); *LAB izan da 2011. urtean Hego Euskal Herrian ordezkari gabea*, 2012-02-06, <http://www.labsindikatu.org/es/sindicato-lab/101-hauteskunde-sindikalak/641-lab-izan-da-2011-urtean-hego-euskal-herrian-ordezkari-gabea-igo-duen-sindikatu> (2012-11-25ean begiratua).

8. taula: Landa lanaren laburpena

Sakoneko elkarrizketak		
EAJ	Ezker Abertzalea	EA
Aralar	ELA	LAB
Eztabaida taldeak		
<p>Lesaka</p> <p>*Ezkerreko abertzaleak</p> <p>*Immigrazioarekiko hartu-eman urria</p> <p>*Inguru euskalduna</p>		<p>Ondarroa</p> <p>*Ezkerreko abertzaleak</p> <p>*Immigrazioarekiko hartu-eman ugaria</p> <p>*Inguru euskalduna</p>
<p>Errenteria-Orereta</p> <p>*Ezkerreko abertzaleak</p> <p>*Immigrazioarekiko hartu-eman ugaria</p> <p>*Inguru erdaldunagoa</p>		<p>Derio</p> <p>*EAJ ingurukoak</p> <p>*Immigrazioarekiko hartu-eman urria</p> <p>*Inguru erdaldunagoa</p>

Iturria: Guk egina.

Eztabaida taldeei dagokienez, sakoneko elkarrizketetan lortutako informazioa osatu nahi izan dugu, eta, horrela, eragile abertzaleetako kide kualifikatuen iritziei euskal nazionalismoaren oinarri sozialeko lagunen ikuspegia batu zaie. Izan ere, ikerketa teknika horrekin, sektore sozial jakin batean gailentzen den diskurtsoa ezagutu nahi da, eta horretan sakondu. Eztabaida taldeak osatzeko bidea *elur bolaren teknika* gisa ezagututakoa izan da (ik. Valles, 1997: 215); hau da, udalerrri batean genuen kontaktuaren egitekoa izan da, bilatutako ezaugarrien arabera, eztabaida taldeetan parte hartuko zuten kideak lortzea.

Taldeak eratzeko parametroak ondoko hauek izan dira: lehenik eta behin, irizpide nagusia partaideen osaera ideologikoa izan da (ezkerreko abertzaleak edo EAJ ingurukoak izatea). Horrekin batera, kontuan hartutako beste bi parametroak ingurunean nagusi den immigrazioarekiko harremana (ugaria edo urria) eta inguruaren euskalduntasuna izan dira. Hiru irizpide nagusi horiek konbinatuz, lau eztabaida talde burutu ditugu Lesaka, Errenteria, Ondarroa eta

Derion¹⁴². Bi Bizkaian, eta bana Gipuzkoa eta Nafarroan, beraz. Irizpide orokor horiekin batera, taldeetan sexua, estatus soziala eta adina konbinatzen saiatu gara (eztabaida taldeen xehetasunetarako, ik. *b* eranskina – fitxa teknikoa).

Eztabaida taldeak osatzeko parametroei dagokienez, irizpide nagusia taldeetako partaideen ideologia izan da. Hortaz, parte hartzaileak, abertzaleak izateaz gain, ezkerreko abertzaleak izan dira Ondarroa, Errenteria eta Lesakan, eta EAJren inguruko abertzaleak, Derion. Taldeetan, euskal nazionalismoaren oinarri sozialaren iritzia bilatu dugu, eta baita inplikazio maila altuagoa dutenena ere, hots, *militantetzat* har ditzakegunak (kontaktua egiterako garaian zein eztabaiden hasieran, immigrazioaren eta abertzaletasunaren arteko hartu-emanaz hitz egingo genuela esaten zitzaien). Taldeetan bi mota horietako pertsonak, inplikazio maila altuagoko militanteak zein boto-emaile hutsak, bildu ditugu. Aurreikusten genuen bezala, lehenengok diskurtso landuagoa eratu dute; baina, edonola ere, taldeetan sortutako diskurtsoa espontaneo izan da.

Taldeen osaera ideologikoaren bidez, euskal nazionalismoaren diskurtso orokor eta nagusian sakondu nahi izan dugu, eta sakoneko elkarriketen bidez lortutako iritzi kualifikatua aberastu. Beraz, abertzaletasunaren ildo desberdinen arteko alderaketarik ez dugu bilatu, abertzaleen artean nagusitzen den diskurtsoa ezagutzea baizik. Hori kontuan hartuta, ez da beharrezkoa izan nazionalismo motaren arabera banaketan sakontzea.

Taldeak osatzeko bigarren parametroa *immigrazio berriarekiko hartu-eman*a izan da; hau da, udalerrri horretan eta, beraz, taldeko partaideek immigrazio prozesua fenomeno urrun edo gertukotzat izatea. Horrela, batetik, egungo immigrazioaren tasa baxuak dituzten bi udalerritan egin ditugu taldeak: Lesakan (%3,4¹⁴³) eta Derion (%4,1). Herri horietan antolatutako eztabaidetan parte hartutakoek oso harreman gutxi, edo batere ez, zituzten etorkinekin. Bestetik, immigrazioarekiko hartu-eman esanguratsuagoa den beste bi udalerrri

¹⁴² Eztabaida taldeak 2010eko apirila eta 2011ko urtarrila artean egin dira.

¹⁴³ Eskualdeko datua, 2008koa (Laparra et al., 2008).

aukeratu ditugu, immigrazio tasengatik baino, herri horietan immigrazioak eskuratu duen esanahi sozialari erreparatuta baizik. Kasu horretan, Ondarroan (%6,7ko immigrazio tasa) eta Erreterian (%5,3) egin ditugu taldeak¹⁴⁴. Lehena, Euskal Herriko immigrazioaz aritzerakoan maiz aipatzen den herria da, batzuetan ikur bilakatzeraino, gure sakoneko elkarrizketa batzuetan gertatu den bezala. Eta Erreteria azken urteetan immigrazioaren inguruko zenbait gatazka txiki gertatu direlako aukeratu dugu. Udalerrri horretan, immigrazio tasa Gipuzkoakoaren antzekoa den arren, maila sozialean nabarmendu da immigrazio gaia: 2009tik aurrera, auzo batean autoktono batzuen eta etorkin batzuen arteko liskar batzuk jazo dira, hedabideetan isla handia izan dutenak eta eztabaida sozialean txertatu direnak¹⁴⁵.

Hirugarren parametroa, azkenik, udalerrria *euskaldun* edo *erdaldunagoa* izatea izan da, modu lausoan ulertuta. Lesaka eta Ondarroa, horrela, inguru euskalduntzat jo ditugu, izan ere, udalerrri horietan euskararen ezagutza eta erabilerak maila altuak lortzen ditu; bi udalerrietan euskaldunak %80 inguru dira. Erreteria eta Derio, aldiz, erdaldunagoak dira, modu nabarian. Izan ere, Gipuzkoako udalerrrian euskaldunak %36,4 dira, eta Derion, %31,6¹⁴⁶. Zentzu horretan, Lesaka eta Ondarroako taldeak euskara hutsez burutu ziren, Erreteriakoa elebitan, eta Deriokoa gaztelania hutsez.

Euskara eztabaida taldeak osatzeko parametro gisa hartzeko arrazoia hizkuntzak euskal nazionalismoak nazioaz duen ikuspegian betetzen duen paper esanguratsua izan da. Horrekin batera, egindako sakoneko elkarrizketetan hizkuntzak gai gisa lortutako zentraltasuna ere kontuan hartu dugu.

¹⁴⁴ 2011ko datuak (Ikuspegi@k, 2011).

¹⁴⁵ Adibide gisa: Rodríguez, Luisma: “SOS Racismo solicita que cesen las protestas ante locales de inmigrantes”, *El Diario Vasco*, 2009-07-09, hemen eskuragarri: <http://www.diariovasco.com/20090709/pasaia-erreteria/racismo-solicita-cesen-protestas-20090709.html> (2012-05-30ean begiratua).

2012an, oraindik, gaiak pil-pilean dirau: “Iztieta-Ondartxo, arroces impuestos ¿por la integración?”, *Noticias de Gipuzkoa*, 2012-05-24, hemen eskuragarri: <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2012/05/24/opinion/tribuna-abierta/iztieta-ondartxo-arroces-impuestos-por-la-integracin> (2012-05-30ean begiratua).

¹⁴⁶ Lesakako datuak 2001ekoak dira, eta Nafarroako Estatistika Institutukoak dira (<http://www.cfnavarra.es/estadistica>). Gainontzeko udalerrietakoak, 2006koak, Euskal Estatistika Erakundeak dira (www.eustat.es).

Oro har, eztabaida taldeak 6 eta 9 lagun artekoak izan dira, kasu batean txikiagoa izan den arren¹⁴⁷. Taldeetan parte hartutako 25 lagunetatik, zazpi emakumezkoak izan dira, eta 18, gizonezkoak. Adinaz, talde batean gazteak gailendu dira, beste batean nagusiak, eta gainontzeko biak anitzagoak izan dira. Horrez gain, taldeetako hirutan denak autoktonoak ziren, eta batean Espainian jaiotako etorkin bat zegoen. Dena den, beste talde batean hiru parte hartzailek modu esplizituan *immigranteen oinordeko* zirela adierazi zuten (beren gurasoen jatorriatik ez zitzaaien galdetu).

Edonola ere, eztabaida taldeek sakoneko elkarrizketekin lortutako material enpirikoa osatzeko helburua zutela gogoratuta, egindako taldeetan diskurtso ildo nagusi berak aurkitu ditugula azpimarratu behar dugu. Zentzu horretan, bi ikerketa teknikak konbinatuz, aztergai genuen sektorearen diskurtsoaren ildo nagusiak antzeman ahal izan ditugu.

Lan honetan erabilitako ikuspegi kualitatiboaren bidez, beraz, helburua ez da talde sozial baten jarrerak birsortzea, ikergaiari buruzko diskurtso esanguratsuak lortzea baizik. Mota honetako ikerketetako laginek, beraz, unibertso baten adierazgarritasun estatistikoa bilatu beharrean, egiturazko adierazgarritasuna dute xedetzat; hau da, diskurtso esanguratsuenak ulertu ahal izateko informazioa eskuratzea dute helburu¹⁴⁸. Zentzu horretan, *euskal nazionalistez* ari garenean, ez dugu orokortzeko asmorik; izan ere, gerturatze kualitatiboak, orokortzea baino, diskurtsoen zentzuetan sakontzea bilatzen du. Jarraian, bada, euskal nazionalismoak gaur egungo immigrazioaz egiten duen diskurtsoan sakondu asmoz, lanaren alde enpirikoari ekingo diogu.

¹⁴⁷ Lesakako taldeak lau partaide izan zituen. Kopurua urria izan arren, bertan lortutako informazioa baliagarria izan zaigu, eta diskurtso koherentea osatu da.

¹⁴⁸ Ideia horiek nazionalismoari –kasu horretan, espainiar nazionalismoari– buruzko ikerketa kualitatibo batean dute sorburua: Béjar, 2008.

6. EUSKAL NAZIONALISMOAREN DISKURTSOA GAUR EGUNGO IMMIGRAZIOAREN AURREAN

1990eko hamarkadaren amaieratik aurrera, immigrazio fluxu berri bat iritsi zen Hego Euskal Herrira, Espainiaz kanpotik, eta Europaz kanpotik, kasu askotan. Immigrazio horrek ezaugarri berriak zituen, aurreko migrazio fluxuetatik (XX. mendean zehar Espainiatik iritsiak) desberdintzen zituena. Horren aurrean abertzaleek izandako erantzuna aztertu nahi izan dugu ikerlan honetan.

Helburu horrekin, arreta euskal nazionalismoaren diskurtsoa osatzen duten gai desberdinetan jarriko dugu: immigrazio prozesu horri buruz egiten den irakurketa orokorra, immigrazio zahar eta berriaren arteko hartu-emana, immigrazioak Euskal Herrian dituen eragin nabarmenenak, abertzaleengan identifika daitezkeen ardura nagusiak, kulturari loturiko eremu zabala, immigrazioa eta egitasmoko abertzalearen arteko lotura, eta aurrera begirako proposamenak. Has gaitezen, bada, abertzaleek gaur egungo immigrazioari buruz egiten duten diskurtsoan sakontzen.

6.1. Kokapena: immigrazioaren irakurketa orokorra

Alderdi eta sindikatu abertzaleek, immigrazioari buruzko hausnarketa idatzian, immigrazioa ulertzeko egiturazko begirada lehenesten dutela aipatu dugu: immigrazioa bultzatzen duten egiturazko arrazoiak dira fenomenoazaltzeko hobesten direnak, beraz. Ildo hori modu sakonean jasotzen da dokumentuetan, eta sakoneko elkarrizketetan ere isla oparoa badu. Azterketa hori immigrazioari buruzko prestakuntza dutenek mahaigaineratzen dute, eta horregatik ez da eztabaida-taldeetan hain modu agerikoan azaleratzen. Hala ere, immigrazioaren azterketa horren adibide ugari topatu ahal izan ditugu, adibidez:

“El fenómeno de las migraciones masivas tiene que ver con el modelo económico que se está imponiendo. Un modelo neoliberal, que se está haciendo con el control de los recursos naturales (...) y un proceso de no industrialización y no generación de trabajo suficiente como para que se pueda desarrollar un proyecto de vida autónomo en esos países, y como consecuencia de ello se están produciendo migraciones masivas. (...) que no son migraciones voluntarias, sino obligadas, en función de toda la necesidad económica, de que no hay medios de vida suficientes para poder desarrollar tu propio proyecto.” (LAB¹⁴⁹)

Hortaz, azterketa horretatik abiatuz, iritzi-ildo sendoa da immigrazioa mundu mailako desoreka eta injustizien ondorio dela eta, beraz, aferaren oinarria nazioarteko politika horiek aldatzean datzala. Adibidez:

“(...) garapeneko proposamenak egin behar dira, jatorrizko herrietatik eta jatorrizko herritan bultzatzeko, bertan edukitzeko oinarri ekonomiko bat, produktiboa, edukitzeko aukera lan egiteko eta duintasun bat lortzeko, eta ekiditu behar degu, eta debekatu eta oztopatu, eta borrokatu behar degu, lehenengo mundutik hirugarren munduko herriei jartzen dizkieten muga ekonomikoak eta arantzel ekonomikoak. Hor dauz benetazko arazoak.” (Aralar)

Horrekin batera, immigrazioari buruzko diskurtso orokorrak (esan nahi baita, xehetasunetan sartzen ez dena) bi maila bereizten ditu: batetik, gizartean immigrazioaz egiten den irakurketari buruzko hausnarketa dago; eta, bestetik, euskal nazionalismotik bertatik mugimendu abertzalean immigrazioaz nagusitzen den irakurketari buruz dagoen iritzia. Bereizketa hori nabarmentzen da, orduan: elkarrizketatuen arabera, immigrazioari buruzko diskurtso hegemonikoak ez dira berdinak gizartea bere orokortasunean hartuta, edo

¹⁴⁹ Sakoneko elkarrizketa egindako migrazio arduradunaren sindikatua edo alderdia agertzen da parentesien artean.

begirada euskal nazionalismora mugatzen badugu. Beste hitz batzuekin esanda: elkarrizketatutakoek iritzi hobea duten euren mugimenduaz, gizarteaz baino.

Lehenengoari hel diezaiozun, hots, abertzaleen ustez gizartean immigrazioaz gailentzen den diskurtsoari. Bada, taldeetan batez ere jasotzen den diskurtsoa da gizartean immigrazioari buruzko diskurtso ezkorra nagusitzen dela. Hau da, elkarrizketatutakoen ustez, aurreiritzietan oin hartzen duen jarrerak geroz eta indar gehiago dauka gizartean, eta batzuen ustez gehiengoarena izatera ere heltzen da.

Jarrera horren oinarrian, bestetasunarekiko izan ohi den beldurra, edo urruntasuna, azpimarratzen da. Gogora dezagun *bestearekiko* beldurra prozesu orokorra dela, eta sustrai sakonak dituela gure gizarteetan (ik. 1.2. puntua). Horrela adierazten dute, adibidez, ikerketan parte duten lagunetako bik:

“Normalean, beldurraren ondorioak ateratzen dira [immigrazioarekin harremana izatean]. Alde batetik nola integratzen diren, edo integratzen ditugun, beldurrak ditugu, eta ezezagunak izan ohi dira kultura horiek. Nik uste dut beldurrak eragin haundia daukala beraiengan eta guregan ere.” (ET: Errenteria-Orereta¹⁵⁰)

“Nire ustez, beldurra [immigrazioarekiko lehen erreakzioengatik galdetuta]. Etortzen direnetikan (...) batzuetan badugu beldur pila bat. Eta bai Lesaka aldean... edo lan munduan, hortxe esparru pila batetan nik uste badugula beldur bat, ez?, ezta ere akojonatuta, baina bai ez zarela... ez dakit, ez dakit nola esplikatuta, baino sensazio bat, urduritasuna bezela...” (ET: Lesaka)

Immigrazioaren aurkako jarreraren oinarrian, hala ere, egoera ekonomikoa –edota *krisi ekonomikoa*– aipatzen da, aho batez. Kultura edo Euskal Herriko

¹⁵⁰ ET: eztabaida taldea; jarraian, taldea egin den udalerrira zehazten da.

gizarteko talde kulturalen arteko diferentziak ere asko aipatzen diren arren, diskurtsoan egoera sozioekonomikoa gailentzen da. Esaterako:

“jendeak ez deko berez ezer immigranteen kontra, baina badeko mehatxu moduan ikusten badute presentzia hori. Adibidez, gizarte zerbitzuak galtzean, edo lanpostua galtzean, edo... Orduan, ez da ezer etnikoa, baizik eta normalean da ekonomikoa.” (Aralar)

Krisi ekonomikoak gizartean jarrera xenofoboak bultzatzen dituela eta, ardua erakusten dute hainbat alditan parte hartzaileek, aurrerago aztertuko dugun bezala (ik. 6.3.3). Normalean, orduan, partaideek gizartean nagusitzen direla dioten aurreiritzi horiek ez dira konpartitzen eztabaida-taldeetan, baina salbuespenik ere badago. Taldeetako batean, adibidez, zalantza horrek eztabaidako parte hartzaileen arteko elkarrizketa honen forma hartzen du:

“–Yo no tengo problemas [con la inmigración], pero el tema que se oye en la calle es el de la mano de obra barata...

–Sí, y todas las ayudas que dicen que tienen...

–Pues yo conozco gente, de aquí, que se ha separado para recibir las ayudas, ¡y siguen viviendo juntos! Así que tenemos de todo, fuera y en casa.

–Pero los de fuera tienen más ayudas que tú, ¿eh?” (ET: Txorierrri)

Ikus daitekeenez, talde horretan iritzi desberdinak aurki daitezke, eta eztabaidak, beraz, ez du diskurtso hegemoniko baten zantzurik erakusten. Hala ere, eztabaida horretan etorkinek laguntza sozial gehiago jasotzen dituztela dioten diskurtso hori gailendu zen, eta aurkakoa defendatzen zutenak jarrera defentsibo bati heldu zioten. Iritzi horrek arrakasta soziala eskuratu du, neurri batean, nahiz eta errealitatea bestelakoa den: ez dago laguntza berezirik immigranteentzat¹⁵¹. Baina, datuak euren alde izan arren, adierazgarria da

¹⁵¹ Immigrazioarekiko aurreiritzi horiei loturik, zenbait polemika piztu izan dira, herri batzuetan. Adibide moduan, Bermeon, lagun batzuek protesta bat burutu zuten kalean, etorkinei “laguntza sozial gehiago” eskaintzen zitzaizkiela salatuz. Horren aurrean, Udalak aurreiritzi horiei aurre egiteko kanpaina iragarri zuen (ik. Alberdi, Iñigo: “Bermeo denuncia

migratzaileek laguntza gehiago jasotzen dituztela ukatzen zutenak isilik geratu izana, azkenean.

Horren harira, euskal nazionalismoaren aurkako iritzirik ere topatu ahal izan dugu, modu isolatuan bada ere. Jarrera hori, agian, politikarien aurkako iritzi giroaren isla izan daiteke, gizarteko hainbat sektoretan eragin nabarmena lortu duena¹⁵². EAJko kide batek, adibidez, horrela kritikatzeko zuen bere alderdiko alkate bat:

“Yo he visto en la televisión a varios alcaldes, uno del mío [de mi partido] diciendo que eso [immigranteek laguntza gehiago jasotzen dituztela] es imposible, y yo pensaba, icómo puedes decir eso, si ya hemos visto que es así! Para decir mentiras, mejor callar.” (ET: Txorierri)

Ildo hori ere existitzen bada ere, ikerketan parte hartu dutenen artean gailentzen den diskurtsoak beste bide batzuk zeharkatzen ditu. Izan ere, aurreiritzi horiek ez dira azaleratzen, eta immigrazioaren bestelako irakurketa bat gailentzen da.

actitudes que ‘ponen en riesgo la convivencia’”, *Deia*, 2012-04-19, hemen eskuragarri: <http://www.deia.com/2012/04/19/bizkaia/costa/bermeo-denuncia-actitudes-que-ponen-en-riesgo-la-convivencia> [2012-07-10ean begiratua]).

¹⁵² Espainia mailan, adibidez, 2012ko iraileko Soziologia Ikerketen Zentroaren barometroan jasotzen zenez, espainiarren %26,9rentzat Espainiako arazo nagusietako bat *klase politikoa* zen (ik. Centro de Investigaciones Sociológicas, 2012).

6.2. Immigrazio zahar eta berriaren arteko loturak

Eztabaida-talde eta elkarrizketa guztietan behin eta berriz agertzen da 1950 eta 1980 arteko immigrazioaren gaia (denboran urrunegi geratzen delako, seguruan, lehen immigrazio uholdea, XIX. mende bukaerakoa, ahazturik gelditzen da, ordea). Gai errekorrentea da migrazio-fluxu hori, eta egungo immigrazio berria orduko harekin alderatzen da, etengabe. Orokorrean immigrazioaz hitz egiterakoan, hortaz, Espainiatik iritsitako immigrazioak paper sinboliko esanguratsua betetzen du euskal nazionalismoarentzat. Ikerketan parte hartu duten gehienek migrazio horrekin izandako hartu-emanak azpimarratzen dute (gaur egungo immigrazio berriarekin harreman gutxi izaten dela nabarmentzen den bezala), batzuk txikitari iritsi zirelako Euskal Herrira, beste batzuk migratzaileen semeak edo alabak direlako, edota garai horretan etorkin izandakoak euren inguruan daudelako, besteak beste. Eta ez da zalantzan jartzen biztanle mugimendu hori *immigrazioa* izan zenik, espainiar nazionalismoak eta diskurtso politikoan hori zalantzan jartzen den arren¹⁵³.

Immigrazio-fluxu horrek, berriro adieraz dezagun, eragin sakona izan zuen Hego Euskal Herriko gizartean. Kopuru aldetik oso garrantzitsua izan zen, eta, horrekin batera, hari buruzko irakurketa politikoa egin zen Hego Euskal Herrian ziharduten nazionalismo bien aldetik.

Immigrazio zahar horri buruzko diskurtsoa, baina, ez da bakarra eta erabatekoa. Oroitzapen positiboak zein negatiboak tartekatzen dira, nahiz eta, dirudienez, lehenengoak gailentzen diren. Irakurketa desberdin horiez gain, gainera, immigrazio zahar eta berriaren arteko loturak ere egiten dira.

¹⁵³ Gogora dezagun immigrazio kategoria nazioari edo *nazio-estatuari* loturik eraikitzen dela (ik. 1.2. atala). Eztabaida horrek, gainera, gaurkotasan handia du. 2012ko maiatzean, horrela, polemika piztu zen Gipuzkoako Batzar Nagusietan migrazioez hitz egiterakoan Espainiatik heldutako immigrazioa ere aipatu zelako. Adibidez, ik. Larretxea, Oihane: "Garitano acusa al PSE de 'mentir' sobre la dirección de Migración y Diversidad", *Gara*, 2012-05-29, hemen eskuragarri: <http://www.gara.net/paperezkoa/20120529/343818/es/Garitano-acusa-PSE-mentir-sobre-direccion-Migracion-Diversidad> (2012-05-30ean begiratua).

6.2.1. “Orduko hartan, denok batera”: irakurketa baikorrak

Aipatu dugun bezala, ikerketako parte hartzaileen artean, immigrazio zahar horren oinordekoak daude, logikoa denez fluxu horren kopuruak kontuan hartuta. Ikerketan parte hartu dutenak kontziente dira horretaz, eta batzuetan egitate hori azpimarratu egiten dute:

“En este momento la composición del mundo abertzale, y sobre todo de la izquierda abertzale, es en gran parte inmigrante de segunda generación. Es decir, depende cómo se incorpore la inmigración, depende de que tengamos instrumentos políticos, depende cómo definamos nuestra estrategia, [la inmigración] puede ser un factor que ayude a impulsar el nacionalismo.” (Ezker Abertzalea)

Batik bat 1950 eta 1980 artean (ondorengo fluxuak txikiagoak izan ziren) iritsitako immigrazioko lagun ugari abertzaletasunarekin bat egin zuten, euskal nazionalismoak prozesu horretatik ikasi behar duela defendatzen da, eta parte hartzaile ugari azpimarratzen dute ideia hori.

Horrekin batera, eta eragileetako migrazio alorren arduradunen kasuan bereziki, euskal nazionalismoak immigrazioaren trataeran izandako bilakaera gai esanguratsutzat hartzen da. Euskal nazionalismoaren lehen urteetako immigrazioaren aurkako ildoaren irakurketa negatiboa egiten da, baina ondoren abertzaletasunak egindako aldaketa goraiatzen da. Jarrera horren isla ondoko pasarteak izan daitezke:

“Igual onartu behar degu orain dela mende bat, bi mende ya, Sabino Aranaren garaian, arraza edo euskaldunen izaera edo odola, edo halako mobidak, pues existitzen zan arrazismoren txiki bat, edo egoten zan perspektiba etnizista bat. Baina ez dugu uste momentu honetan, eta azken mendean, behintzat azken hirurogei

urtetan-edo, askoz lehenago inkluso, halakorik gertatzen ari denik.” (Aralar)

1950-80ko immigrazio prozesuaren irakurketa positiboa egiten da. Egoera negatiboak (lehen momentuetako mesfidantzak, isekak...) ere aipatzen dira, baina, oro har, gailentzen den irudia da immigrazio zaharra, 1950 eta 1980 artekoa, ondo jaso zela. Adibidez:

“Nik 34 urte ditut eta urrun geratzen zait hori... Badakit Bilbo ingurutik eta Enkarterrin-eta harrera onik ez zitzaiela egin. Hor etorkinen eta abertzaletasunaren arteko txoke haundia egon zen. Abertzale burgesek-eta langileriaren mugimendu guzti horiek ez zituzten ondo ikusten. Hori orain dela urte asko izan zen, baina orain dela urte gutxiago ere, orain dela 30, 35, 40 urte, Gasteizeko etorkin kopurua izugarria izan zen eta hemen, nik dakidanaren arabera, oso ondo izan ziren jasoak.” (EA)

Horrela, etorkinen eta bertakoen artean, talka handirik ez zela gertatu azpimarratzen da. Horrekin batera, interesgarria da azpimarratzea aurreko immigrazioaz hitz egiterakoan, *immigrazioa* dei dezakeguna aipatzen dela; hots, etorkinak euskarara eta euskal kulturara gerturatu zirela, eta batzuk ere euskaldun bilakatu zirela:

“(…) la inmigración de los 70-80 se dio un proceso de incorporación, de hacerles sujetos de decisión dentro del propio país. Desde un planteamiento de multiculturalidad, pero desde la base de tu propia identidad.” (LAB)

“Aberasgarria da etorkinak gure gizarte honetan integratzea, bai beraientzat eta bai guretzat ere, eta horren adibidea badaukagu, nahiz eta masiboki etorri zen eta horri aurre egitea zailago izan bazen ere. Egia da 80, 70 edo 60. hamarkadan Oreretara etorritako jende bat bere kulturara mantendu zela, baina beste

asko integratu ziren hemengo kulturen eta batez ere langile mugimenduaren bidez bai aurkitu zuela bere lekua.” (ET: Errenteria-Orereta)

Integrazio kulturalaren ideia horrek badu beste aldea, batzuek azpimarratzen baitute gehiengoak ez zuela euskararik ikasi. Horregatik, integrazio politikoa da gailentzen den irakurketa, ikerlan honen kokapen teorikoan azpimarratzen dugun bezala. Horrela, eta Conversik (1997) edota Shafirrek (1995) planteatu moduan, integrazio politiko horretan langile mugimenduak eta, bereziki, euskal nazionalismo berriaren ezkertiaritasunak izandako eragina esanguratsua da, eta elkarrizketatutakoen artean ere garrantzi horren pertzepzioa nabaria da:

“Nere ustez, hor ere badu esperientzia Euskal Herriak, 50eko hamarkadako bukaeran eta 60koan (...) olatu industrial horretan, etorri zen kanpoko jende pila bat, eta horri buelta eman zitzaion, ezkerretik eman zitzaion, langile mugimendutik eta ezkerretik. Eta ordun izan zen... zailtasunak zeuden, eta ezkerrek egin zuen mugimendu bat eta nik uste dut gaur ere hortik eman beharko diogula buelta. Klase kontzientziaren aldetik.” (ET: Lesaka)

Hortaz, nahikoa zabaldua dago 1950-80ko immigrazioaren integrazio prozesua arrakastatsua izan zenaren ideia, eta gaur egungo immigrazioa begira ere irakaspen esanguratsua eskaintzen dituela. Azpimarratu egiten da, batetik, kulturaren alorrean elkarrekintza gauzatu zela. Eta, bigarrenik, etorkin ugari euskal nazionalismoarekin bat egin zutela nabarmentzen da. Izan ere, badirudi azken horri onartzen zaiola lehentasuna (nahiz eta, ikusiko dugunez, badagoen beste iritzi-ildo bat euskara guztiaren gainetik, baita nazionalismoaren gainetik ere, jartzen duena): integrazio prozesua burutzen da etorkina abertzale bilakatzen denean.

6.2.2. “*Las fiestas de los vascos*”: irakurketa ezkorrak

1950 eta 1980 artean Hego Euskal Herrira iritsitako fluxuaren irakurketa baikorra da gailentzen dena. Hala ere, diskurtso orokor horrekin batera, beste iritzi batzuek ere lekua badute; eta aurreko ikuspegi positibo horrekin bateragarriak gertatzen dira, oro har. Hau da, ez da immigrazio prozesu hori guztiz modu negatiboan definitzen, *arazo* moduan, edo euskal nazionalismoa oztopatu duen fenomeno gisa; baina, gailentzen den irakurketa baikorrarekin batera, ezaugarri negatibo batzuk nabarmentzen dira. Izan ere, ezin da ahantzi immigrazioak –edo bestelako nazio gutxiengo batek– *beste esanguratsuen* papera joka dezakeela nazionalismoarentzat (ik. Triandafyllidou, 2001); eta, euskal nazionalismoaren kasuan, Espainiak eta bertatik iritsitako immigrazioak bete du funtzio hori. Hortaz, euskal nazionalismoak ezinbestean Espainiarekin eta bere herritarrekin duen hartu-eman konplexu eta gatazkatsuen eraginez, Espainiatik iritsitako immigrazio horren aurkako iritziak ere agertu dira.

Ikuspegi negatiboen artean, batzuetan aipatzen da Espainiatik iritsitako migrazio-fluxu hori frankismoaren estrategiaren barruan kokatu behar dela. Horrela, immigrazio politikoaren ideia mahaigaineratzen da, eta immigrazio hori Espainiako Estatu frankistak bultzatutako prozesu gisa ezaugarritzen da:

“Klaro, zergatik etorri zen hainbeste jende? Lehenik, perspektiba ekonomikoak, baina nik beste faktore bat azpimarratu nahi dut, eta da Francoren mugimendu estrategikoa, nolabait Baskongadak espainolizatzeko, diseinatutako estrategia bat izan zen.” (ET: Errenteria-Orereta)

“Franco fue más listo que el copón. (...) cogió a todos, de los pueblos, y todos al Norte, para aquí y para Cataluña. Así, Derio, de ser cuatro vecinos, que conocía a todos, joder, después todos eran de Castilla, de Cáceres... en unos pocos años.” (ET: Txorierri)

Idea horrek, jada esan dugu, ez du diskurtso hegemonikoa sortzen, baina noizbehinka agertzea adierazgarria da. Izan ere, aho batezko diskurtsoa ez sortzeak ez du esan nahi 1950-80ko immigrazioaren irakurketa beti idealizatu denik. Immigrazio horrek eztabaida handiak sortu zituen euskal nazionalismoaren baitan, eta nazioa ulertzeko modua aldatzea izan zen ondorioetako bat (ik. 2.4. puntua). Gure ustez, euskal nazionalismoa, mugimendu politikoa izaki, ahalik eta herritar gehien bildu nahi ditu bere proiektura, eta helburu horretan herritarraren jatorriak ez luke izango garrantzi gehiegirik. Hortaz, euskal nazionalismoaren ikuspegitik, etorkinaren integrazio osoa nazionalismo horrekiko aldeketasuna erakutsita lortuko litzateke; eta, horrekin batera, Euskal Herriaren nazio-ezaugarritzat hartzen direnekiko (hizkuntza, ikurrak, kultura-adierazpenak eta abar) errespetua adierazita.

Adierazi dugunez, ez da immigrazio zaharra talka edo etorkin eta autoktonoen arteko konfrontazio moduan kontzeptualizatzen, baina hainbat immigrantek euskal nazionalismoarekin bat egin ez zutela gogoratzen da, batzuetan. Areago, etorkin haietako batzuek espainiar nazionalismoarekin bat egiten dutela adierazten da, eta euskal ikurren aurkako jarrerek ere lekua badutela. Kexa horren erakusgarri, ondoko aipamena dugu:

“Auzoetan, immigranteen gehiengoa dira Estatu espainoletik etorriak, eta ni auzo elkarteetan nabil, eta pankartaren edo ikurrinaren bat jarri, eta guk entzun behar izan dugu ‘de mi balcón no coloques ese trapo’, edo ‘yo no voy a participar en las fiestas de los vascos’. Esan nahi dut honekin, auzoan dagoen immigrazioa, euskal kulturarekin frontoi batekin topo egitea da.” (ET: Errenteria-Orereta)

Baina horrelako *talkak* baino gehiago, immigrazio zaharrarekiko urruntasuna da gehiagotan azpimarratzen dena. Eta gatazkak azpimarratzerakoan, ez da gehiegi sakontzen horretan. Izan ere, immigrazio zaharraz aritzerakoan, espainiar nazionalismoaren aurkako salaketa agertzen da euskal nazionalismoaren diskurtsoan, eta immigrazio hori abertzaletasunaren

aurka egiteko erabili duela esaten da. Ez da diskurtso landua, nabari da ziurrenik horri buruz ez dela gehiegi teorizatu. Are gehiago, batzuetan badirudi deserosoa dela espainiar nazionalismoak, euskal nazionalismoaren ustez, immigrazio zaharraz egindako erabilpen politikoaz hitz egitea. Agian, gaiaren konplexutasunaren kontzientzia aurki daiteke afera horretan sakontzeko uzkurtasunaren atzean. Izan ere, 1950-80ko immigrazioa eta, batez ere, espainiar nazionalismoak immigrazio horrez eginiko balizko erabilpena gai nabarmena da. Beraz, kuestio hori alboratu nahi izaten da; baina, hala ere, batzuetan, modu orokorrean azaleratu egiten da, ondoko esaldiaren modukoekin bezala:

“(...) la inmigración de los 70-80 aún hoy se sigue intentando instrumentalizar políticamente.” (LAB)

Etorrin izandakoen eta bertakoen urruntasun edo hartu-emanen gabezia, halere, ez da egunerokotasunean agertzen den *arazo* legez mahaigaineratzen. Hor nonbait omen dagoen errealitatea da, immigrazioari buruz hausnartzerakoan agertzen direnak, baina diskurtsoan zentralak gertatu gabe:

“–Garai batean etorri zirenak, pues auzo honetan, nola deitzen diogun, ‘Barrio Jaen’, hor ni joaten naiz auzo horretara, eta dire heldu pila bat, ez dituzula ikusi inoiz herriko ohituretan parte hartzen edo bizi direla herrin baino... euren seme-alabak ere ez zait iruditzen hainbertze integratu direnik...

–Segun eta zeri deitzen diozun integrazioa...” (ET: Lesaka)

Azkeneko esaldiak erakusten digun moduan, *integrazioaren* definizioari buruzko eztabaida handia da. Aurrerago eskainiko diogu lekua afera horri, baina jada azpimarratu beharrekoa da integrazioa beti zalantzan jartzen den kontzeptua dela: orohartzailea da, eta berau erabili eta ulertzeko moduak amaitezinak dira, baita ikerketa honetako partaideen artean ere.

6.2.3. Loturak eta irakaspenak

Bi immigrazioen arteko alderaketak egitean, iritzi ildo desberdinak bereiz daitezke. Batetik, esan dugu, badago iritzi bat zeinak aurreko immigrazioa idealizatzen duen. Ikuspegi horren arabera, immigrazio zaharra modu ordenatuan gertatu zen, eta Euskal Herrira lanera zetozen guztiak bertan lanpostu bat zutelako emigratzen zuten. Noski, ikuspegi hori errealitatearen idealizazioa da, 1950 eta 1980 arteko immigrazio aldiaren errealitatea gogorragoa izan zelako, eta bizi baldintza eskasak (pilaketak etxeetan, baldintza duinik gabeko lekuetan bizi behar izatea, laneko esplotazioa eta abar) oso hedatuak izan zirelako. Gainera, antzinako immigrazioen idealizazio hori aurreko beste prozesuei ere lotzen zaie, euskal herritarren emigrazioari egiten zaion bezala.

“Hay que reconocer que hubo que emigrar. El vasco siempre ha sido emigrante, pero se hacía de forma legal. Porque antes, por ejemplo, yo me fui a la mili y en el pueblo conocía a todos, volví y ¡idios!, un montón de gente nueva, Hinojal... Pero esos venían con contrato de trabajo.” (ET: Txorierri)

Mota horretako iritziak politizazio maila baxueneko kideek egiten dituzte, eta beste kide batzuen zehaztapenen bat egiten dute jarraian. Baina, hala ere, badago kide batzuen artean sentazio hori: aurreko immigrazioak ordenatuak, legalak zirelako iritzia, gaur egungo immigrazioa ez bezala, ildo horren ustez. Hala ere, ikuspegi horrek ez du diskurtso hegemonikoa osatzen, eta aurkako jarrerak ere sortzen ditu.

Espainiatik iritsitako giza fluxuaz harago, immigrazioaren irakaspenez hitz egiterakoan, Euskal Herriaren historiara jotzea ohikoa da. Hau da, euskal herritarrak emigranteak izan direla gogoratzen da, eta immigrazioa lantzerakoan hori gogoratu behar dela azpimarratzen da. Askotan agertzen da ildo hori, esaterako:

(...) izan behar gara konszienteak euskaldunak izan garela herri emigrante bat, joan garela toki aunitzetara, eta integratu garela toki guztitan baina gurea galdu gabe. Beraz guk badugu esperientzia bat ikusten dela gurea galdu gabe ere beste kultura batean ere sartzen ahal direla. Orduan, guk egin dugun bezala, kanpotik etortzen direnak ere egin ahal dutela, eta esperientzia hori izatea guretzat oso interesgarria da.” (ET: Lesaka)

Euskal herritarren immigrazio historiko zaharrago horiei egiten zaizkien erreferentziaz gain, 1950-80ko immigrazioa elementu diskurtsibo garrantzitsua da gaur egungo immigrazioaz aritzeko garaian. Hau da, immigrazio berriaren aurkako jarrera eta kexei aurre egiteko, edo horien funts gabezia azalertzeko, ikerketan parte hartu dutenek diote immigrazio zaharra aipatu ohi dutela. Adibidez:

“Etorkin asko espainiar Estatutik etorritakoak babes ofizialetako etxeetan bizi dira eta beraiek ere ez dakite, ez? Lehen esaten nuen, nire neskaren aitaren diskurtso horretan, ‘es que [a los inmigrantes] se les dan pisos de protección oficial sólo porque lleven un año’, eta esan nion: ‘baja abajo y mira lo que pone’. Eta han zegoen: *piso de protección oficial, con el yugo y las flechas*, eta esan nion: ‘Zu Galiziatik etorri zinen eta babes ofizialeko pisu bat izan zenuen’.” (EA)

Izan ere, hainbat gai islatzen da, geure ustez, immigrazio biak lotzeko joera horretan. Batetik, Euskal Herriko egungo gizartean kanpotik etorritakoek kopuru esanguratsua osatzen zutela gogorarazi nahi da. Bigarrenik, eta aurrekoarekin lotuta, immigrazioaren datuetan abertzaleek Espainiatik iritsitako herritarrak ere sartu nahi dituztela kontuan hartu behar da; eta hori gatazka iturri da Hego Euskal Herrian lehian diharduten bi nazionalismoen artean: espainiar nazionalismoak –eta horren eraginez biztanleriaren zati baten artean hedaturiko *zentzu komunak*– Espainiatik iritsitakoak *immigranteak* direnik ukatzen du. Immigrazioaren kategoria bera gatazka eremu bilakatzen

da, beraz¹⁵⁴. Eta hirugarrenik, badago beste joera bat: etorkina izan denari bere immigrante izaera gogorarazi nahi zaio immigrazio berria kritikatzeko duenean, hainbatetan subjektu horrek bere burua immigrantetzat hartzen ez duen arren.

Gai horrek indar berezia hartzen du Errenteria-Oreteran egindako eztabaida taldean. Izan ere, udalerrri hartako Iztieta-Ondartxo auzoan, 2009an liskarrak piztu ziren, bertan jazotako delitu batzuen karietara. Bizilagun batzuek etorkin talde batzuk jo zituzten arazoaren erantzule. Azkenean, gatazka immigrazioari buruzko eztabaidarekin lotu zen, eta immigranteen aurkako jarrerak lekua hartu zuten¹⁵⁵. Izan ere, auzo hori, denbora tarte oso laburrean, etorkin berririk ia ez izatetik immigrazio ikusgarria izatera igaro da (auzo horretan biltzen dira inguruko etorkin zenbait, bertan herriko meskita dago eta abar). Eztabaida taldean, protesta haietan immigrazio zaharraren oinordekoek parte hartu zutela azpimarratu zen:

“–Gainera, immigrazio berriaren aurkako manifestazio horretan, parte hartu zuten batez ere Estatu espainolek etorritako pertsonak, eta gehiengoa erdalduna da. Hau da, garai bateko immigranteak ari dira aldarrikatzen gaur egungo immigrazioaren aurka.

¹⁵⁴ Ika-mika horren adibide ondokoa dugu: jada aipatu dugu 2011n Bildu koalizioak eskuratutako Gipuzkoako Diputazioaren immigrazio politikaren inguruan sortutako eztabaida. Bada, migrazio politika garatzeko sortutako Batzordearen hasieran, gatazka nagusia *immigrante* kategoriaren zedarritzea izan da: batzuen arabera, kategoria horretan Espainiako herritartasunik ez dutenak soilik sartu behar dira (ofizialki immigrantetzat hartuak direnak); eta beste batzuentzat, aldiz, Euskal Herritik kanpoko guztiak kontuan hartu behar dira (prozesuan parte hartutako pertsona batekin izandako elkarrizketa pertsonala).

¹⁵⁵ Interneten gaiari buruzko albiste eta iritzi artikulua ugari aurki daiteke. Adibide moduan, hurrengoak kontsulta daitezke: Leizeaga, Joseba: “Iztieta-Ondartxoko gertakarien aurrekariak eta xehetasun batzuk”, *Gara*, 2009-07-14, hemen eskuragarri: <http://www.gara.net/paperezkoa/20090714/147108/eu/Iztieta-Ondartxoko-gertakarien-aurrekariak--eta-xehetasun-batzuk> (2012-05-30ean begiratu); Rodríguez, Luisma: “SOS Racismo solicita que cesen las protestas ante locales de inmigrantes”, *El Diario Vasco*, 2009-07-09, hemen eskuragarri: <http://www.diariovasco.com/20090709/pasaia-errenteria/racismo-solicita-cesen-protestas-20090709.html> (2012-05-30ean begiratu).

2012an, oraindik, gaiak pil-pilean dirau, Iztieta auzo elkarteak adierazten duenez: “Iztieta-Ondartxo, arroses impuestos ¿por la integración?”, *Noticias de Gipuzkoa*, 2012-05-24, hemen eskuragarri: <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2012/05/24/opinion/tribuna-abierta/iztieta-ondartxo-arroses-impuestos-por-la-integracin> (2012-05-30ean begiratu).

–(...) Es que manifa hortara joan zen jendea Espainian dago!
[Guk] Nahi edo ez nahi.” (ET: Errenteria-Orereta)

Nabarmentzekoa da, halaber, ikerketako bi partaide hauek etorkinen seme-alabak direla, haiek eztabaidan zehar behin baino gehiagotan nabarmendu bezala. Edonola ere, iritzi horiek ondo islatzen dute goian genioen ustea: etorkin izandakoak –edo haien seme-alabak– izan ohi direla immigrazio berriaren aurka gehien azaldu ohi direnak. Eta, horrekin batera, immigrazio mota bi hauen arteko lotura garrantzitsua da euskal nazionalismoarentzat: abertzaletasunaren ikuspegitik, immigrazioaz hitz egiterakoan Espainiatik iritsitakoa ere kontuan hartu behar da, ezbairik gabe. Areago, gaur egun oraindik ere Espainiatik etorritako fluxuak zenbatu behar direla nabarmentzen da:

“Para la estructura social vasca, para la estructura identitaria, lingüística y cultural, sigue siendo importante la inmigración que proviene de los estados.” (Ezker Abertzalea)

Hala ere, diskurtso hori maila *landuan* soilik du islarik, hau da, migrazio alorreko arduradunen aldetik, edo gaiari buruzko dokumentuetan. Eztabaida taldeetan 1950-80ko immigrazioaz asko hitz egiten den bitartean (fluxu hori immigrazioaren erreferentetzat har daiteke: immigrazioaz aritzerakoan ia beti aipatzen da-eta), gaur egungo Espainiatiko migrazioak ez dira aipatzen.

Agerikoa den moduan, immigrazio zahar eta berriaren arteko aldeak handiak dira, hala ere. Hainbat alderdi aipatzen da, baina, aurrerago ikusiko dugun moduan, egungo migratzaileekin harreman gutxi dagoela azpimarratzen den ideia nagusia da. Egungo immigrazioarekin urruntasuna handia da, beraz. Migrazio alorreko adituek berek ideia hori azpimarratzen dute, eta euskal nazionalismoaren gizarte-oinarrian oso etorkin gutxik parte hartzen dutela adierazten dute. Eztabaida taldeetan ere, immigranteekin ia harremanik ez dutela adierazten dute. Etorkinekin hartu-eman gehien duten subjektuak biltzen dituen taldea, aitzitik, Ondarroakoa da. Udalerri hori ikur bilakatu da

Euskal Herrian immigrazioaren gaia lantzerakoan. Bada, talde horretan migratzaileen erregularizazioaren afera azpimarratzen da, modu erregularrean egoteak bizitzako alderdi guztiak baldintzatzen dituen heinean.

“Beharra [enplegua] funtsezkoa da, horren bidez egiten dituzu-eta harremanak. Ni adibidez kanpokoak naiz, baina besteek, atzerritarrek izateagatik, askoz zailago dute, ez dutelako paperik. Eta nire ustez hori oso inportantea da, edozein behar egin behar dutelako, eta paperdunak beste egoera bat du. Diferentzia bat bada hori niretzako.” (ET: Ondarroa)

Adierazgarria da, geure ustez, immigranteekin hartu-eman estuenak dituen taldean (batez ere enpleguaren bidez gauzatzen den harremana), etorkinen erregularizazioaren afera azpimarratzea: ziurrenik, etorkinen euren partetik jaso dute ardura hori. Beste taldeetan ez da ia gaia aipatzen, bai, ordea, migrazio alorreko arduradunen aldetik, Espainiako Atzerritarren Legea eta erregulazioaren afera ekidin ezin daitekeen gaia baita.

Edonola ere, bi immigrazioen arteko hartu-eman gatazka iturri da. Zalantzan agertzen da ea bi immigrazioak parekatzerik ote dagoen. Izan ere, euskal nazionalismoaren *teoriari* jarraituz gero, Euskal Herritik kanpo etorritako guztiak dira etorkinak. Baina horrek talka egiten du Espainiako Estatuak (Hego Euskal Herriaren kasuan) egiten duen definizioarekin. Eta bigarren zedarritze horrek lege mailako ondorioak dituela ezin da ahantzi; hots, ondorio praktikoa *gogorragoak* dituela. Mota horretako zalantzak, hortaz, ugariak izan dira:

“–(...) beharrezkoa izango zen, jende aunitz hasteko lanean koordinatuki immigrante talde aunitzekin, eta batez ere gaur egungoak.

–Baino desberdinak dira. O sea, etortzen zena hona Extremaduratik fabrika batera edo etortzen dena Afrikatik Tuterako baratzerara.

- Nik ez dut ikusten hainbertzekoa...
- Bada diferentzia!
- Jatorriaren diferentzia.
- Niretzat bertze gauza bat da. Es que ez du deus ere ikustekorik, edo nola aldarrikatzen ahal ditu bere eskubideak [immigrante berriak]?
- Jende horrek ez badu País Vasco entzuten...” (ET: Lesaka)

Atal honekin amaitzeko, badugu ebatzi beharreko beste gai bat: zein da, ikerketan parte hartu dutenen aburuz, integrazten immigrazio errazagoa, zaharra edo gaur egungo immigrazio fluxu anitza? Edo, beste hitz batzuekin esanda: zein immigraziok sortzen dizkio zailtasun gehiago euskal nazionalismoari?

Gai horri dagokionez, iritzi desberdinek isla badute. Batetik, aurreiritziak eta immigrazioaren ikuspegi negatiboa nagusitzen denean (gizarteko sektore batzuetan gertatzen den legez), egungo immigrazioaren barneratze, egokitzapen edo integrazioa egiteko zail gisa antzematen da. Hurrengo pasartean, iritzi ezkor horiek agerikoak dira, eta beloaren aferak garrantzia hartzen du (aurrerago landuko dugu gai hori):

“Para mí la inmigración de ahora es peor, porque la de antes... pues venían a trabajar, y ya está, pero la de ahora vienen a imponer, que si velos, túnicas... [Se debería hacer] Como hacen los franchutes, vístete como quieras, pero quieto, la cara descubierta, eh.” (ET: Txorierri)

Aspektu kulturala edo erlijiosoa azpimarratzen duen iritzi horrekin batera, egungo immigrazioak euskal nazionalismoari sortzen dizkion zailtasunak nabarmentzen dituztenen artean, badago beste ildo bat. Horrek arreta batik bat Latinoamerikan jatorria duen etorkinengan jartzen du, eta immigrazio horrek Espainiarekin duen lotura azpimarratzen du. Hau da, immigrazio zaharrari egiten zaion kritika nagusia (Hego Euskal Herria

zapaltzen duen naziotik zetorrela eta, hortaz, Espainiako nazio-egitasmoa bultzatzen zuela) immigrazio berriari luzatzen zaio, arrazoi bera dela-eta: Espainiarekin duen lotura:

“Ba nik ez daukat hain argi [immigratio zaharra problematikoagoa izan zenik], ze latinoamerikanoek badute lotura handia Espainiarekin. Hizkuntza, batez ere, eta erlijioa, eta gero ere nola esaten duten ‘la madre patria’ eta horrelakoak...” (ET: Ondarroa)

Hala eta guztiz ere, iritzi hori minoritarioa izan da. Gehiengoaren arabera (hori da, behintzat, modu argian nagusitu den ikuspegia), gaur egungo immigratio prozesuak sortzen dituen erronkak *errazagoak* dira euskal nazionalismoarentzat; izan ere, immigratio zaharra Espainiatik zetorren, eta espainiar nazionalismoaren eragina prozesu hartan argia izan zitekeela pentsatzen da:

“Inklusio kontsiderazen dut lehen etorri zen jende horrekin zailago izan zela, kontsideratzen zutelako Espainian zeudela. Eta euskara ez zuten behar ezertarako!” (ET: Ondarroa)

“–Bai, egia da zailtasunak ekartzen dituela immigratioak, baina egingo dugu aurrera, baina benetan kalte egin duena izan da Espainiako immigratioa. Ze oraingoaz ezin da hitz egin kalteaz, ez. –Hombre, ez lehengoak ez oraingoak ez datoz guri kalte egitera, hori argi utzi behar da. Baina oraingoak sentitzen dira... gutxiago bezala, ez dute pentsatzen guri gailendu behar direla, izan dute jarrera askoz hobea onartzeko hemengoa.” (ET: Ondarroa)

“Seguramente la inmigración de los 50-80 tenía unas características muy específicas, venía por el empleo o la industria vizcaína, pero también venían con una identidad determinada, una identidad nacional española, como no podía ser de otra manera. Eso no pasaría nada, si esa identidad fuera a Alemania,

como sucedió, sucede cuando se inscribe dentro de una política de imposición, y en ese sentido creo que la inmigración de nuevo cuño no tiene esa seña de identidad como podría tener en los años 60-70.” (LAB)

Baina, arestian esan dugun bezala, immigrazio zaharraren irakurketa positiboa da gailentzen dena. Hortaz, orduko immigrazioak euskal nazionalismoari erronka zailagoak sortu bazizkion eta, neurri handi batean, abertzaletasunarekin bateragarri gertatu bazen, egungo immigrazioak euskal nazionalismoaren proiektuarekin bat egiteko baldintzak badaudela azpimarratzen da. Horretarako, bada, tresna politikoak eskura izatea erabakigarri bilakatzen da:

“Si en esa inmigración de los 60-70 se ha conseguido [incorporarla], quizá mayor incorporación o integración en el ámbito vasco que el que se ha podido producir en Cataluña, pensamos que en este nuevo fenómeno de inmigración, las posibilidades de realizar esta política son mucho más eficaces, podrían ser mucho más efectivas. Claro, no se puede hablar de euskaldunización en la zona no vascófona de Navarra cuando no la hay. Al final, ¿cuánto dinero inviertes en las políticas de inmigración? Es determinante.” (LAB)

Espainiatik iritsitako migrazio fluxu zaharra funtsezko erreferentzia da, beraz, euskal nazionalismoarentzat. Finean, harrera gizartetik abiatutako begirada da abertzaleen diskurtsoan gailentzen dena, eta ikuspegi horri loturiko ardurak, irakurketak dira egiten direnak. Jarraian, bada, euskal nazionalismoak immigrazioak Euskal Herrian sortzen dituen eraginez egiten duen irakurketa behatuko dugu.

6.3. Immigrazioaren eraginak Euskal Herrian: aniztasuna, ekonomia, euskara

Ikerketaren atal desberdinetan, gai ugari aipatu dituzte parte hartzaileek, immigrazioaren fenomenoak konplexua baita eta hainbat alderdi barne biltzen baititu. Gai horien artean, batzuk modu berezian nabarmentzen dira. Jarraian, gehien azpimarratutako gaien artean, immigrazio berriak Euskal Herrian, oro har, eta euskal nazionalismoarengan, zehazki, elkarrizketatuen ustez izan ditzakeen eraginez ariko gara.

Eragin hauek modu nabarmenean aipatzen dira, baina badira beste gai batzuk *ardura* moduan planteatzen direnak; hots, euskal nazionalismoarentzat edo Euskal Herriarentzat *arrisku* legez ahotan hartzen dira. Hori hurrengo puntuan (ik. 6.3.) landuko dela kontuan izan behar da, beraz.

Momentuz, halere, arreta bi gai nagusitan ipiniko dugu: lehenik eta behin immigrazioari buruzko diskurtsoan nabarmentzen diren ekarpen positiboak. Hauek, batez ere, bi dira; bata sozioekonomia eta lan eskuari dagokiona, eta bestea aniztasunaren –batez ere kultura-aniztasunaren– areagotzeari lotutakoa. Eta, ekarpen positibo horiek azpimarratu ostean, euskararen gaian geldiuena egitea beharrezkoa izango da. Izan ere, hizkuntzak esangura berezia hartzen du euskal nazionalismoarentzat immigrazioari buruzko diskurtsoa eraikitzerakoan. Kasu horretan, bi aspektutan sakonduko dugu: euskal nazionalismotik hizkuntzari aitortzen zaion egitekoan, batetik; eta immigrazioak euskararengan duen balizko eraginari buruzko diskurtsoan, bestetik.

Alta, immigrazioak Euskal Herriari, ikuspegi abertzale batetik, sortzen dizkion ondorioei buruzko diskurtsoa modu erlatiboan ulertu beharra dago. Izan ere, batzuetan handitzen den arren, immigrazioa fenomeno sozial mugatua da Hego Euskal Herrian. Kuantitatiboki, ez da fenomeno erraldoia, eta, beraz, ez da euskal nazionalismoaren lehentasuna, modu argian. Horrela, askotan elkarrizketatuek immigrazioak Euskal Herrian sortzen dituen ondorioei buruz aritzerakoan, berauek erlatibizatu beharra azpimarratzen dute:

“Askotan esaten dugu ‘gure kultura babestu behar dugu, eta kanpotik datorrenak gure kultura erasotzen du’, edo ‘ez dio interesatzen eta berea mantentzen du eta inposatzen du’. Baina euskaldun asko, eta abertzale asko, egin duten politikengatik, gure kultura baztertua izaten ari da, eta adibidez PNV egon da boterean 30 urte, ez dira egon PP eta PSOE, eta zer egin dute? Ze eredu dago? Ba globalizazioarena. Orduan, ezin zaio etorkinari errua bota, nahiz eta egunerokotasuna beraiekin degu, eta talka egiten degun...” (ET: Errenteria-Orereta)

Hala eta guztiz ere, immigrazioak harrera gizartean –kasu honetan, Euskal Herrian– sortzen dituen eraginez ari bagara ere, ikerketan zehar immigrazioak etorkinen jatorrizko herrialdeetan sortzen dituen eraginak ere aipatzen dira. Aurreko atalean azaldu dugunez, ideia horrek gaiari buruzko euskal nazionalismoaren dokumentu idatzietan badu islarik: immigrazioaren egiturazko azterketa egiten bada, ezinbestekoa da arlo hori ere aipatzea. Bada, ikerketako partaideek ere afera hori azpimarratzen dute, batez ere immigrazioari buruzko teorizazioa eginga duten kideen aldetik. Ildo horren erakusgarri, ondoko iritzia har dezakegu:

“Una consecuencia fundamental de la inmigración es la descualificación de la fuerza de trabajo de los países de procedencia, en la medida en que la gente que se marcha es la más dinámica, o la que tiene más posibilidades.” (LAB)

Azterketa orokor horren ostean, baina, gai zehatzagoak aipatzen dira. Eta diskurtso hori, euskal nazionalismoaz ari garenez, abertzaletasun horrentzat esanguratsuak diren gaien inguruan eraikitzen da.

6.3.1. Ekarpen nagusiak: aniztasuna eta lan-eskua

Immigrazioaren ekarpenez aritzerakoan, immigrazioak aniztasuna areagotzen duela nabarmentzen da lehenik eta behin. Aniztasuna, zentzu horretan, batez ere kultura-aniztasun gisa ulertzen da. Ideia horrek, bada, lotura handia du diskurtso *politikoki zuzenarekin* eta horri lotutako diskurtso aurrerakoi eta *irekiarekin*. Diskurtso horrek, bada, ez dakar inolako arriskurik, eta zentzu komunari lotutako diskurtsotzat ere har daiteke; edo, beste modu batera adierazita: diskurtso hegemonikoaren isla da.

Bada, aipatu dugunez, immigrazioak dakarren kultura-aniztasuna da gehien azpimarratzen den immigrazioaren alderdi positiboa: immigrazioak janzkera, gastronomia, hizkuntza, ikuspegi... berriak dakartza berarekin; kolore gehiago, finean. Esaterako:

“Nik uste dut harrera gizartearentzat, guretzat, gauza positibo asko agertzen zaizkigula. Nik uste dut kultura aniztasuna berez positiboa dela, edozein gizarterentzat. Berez, gaur egungo etorkinik gabe, kultura monolitikoaz hitz egitea oso folklorikoa da ia.” (EA)

Jarrera guztiz baikor horrekin batera, halere, normalean kultura-aniztasun hori Euskal Herriko berezko ezaugarriekin bateragarri bilakatzeko nahia azpimarratzen da. Jarrera multikulturalista antzematen da, hortaz. Beraz, immigrazioa berez modu positiboan azter daiteke, baina ekintza politiko zehatzak beharrezkoak dira aniztasun hori gertatzeko:

“[Immigrazioa] aberasgarria izan leike Euskal Herriarentzat, beste errealitatetik etortzen diren kulturak, galdu barik gurea. Baina bai tradizioa mantentzen, baina tradizioa moldatzen be, eh (...) Kulturatik, etorriko diren perspektibak, kulturak, baliabideak eta ideiak aberasgarriak izango dire ondo hartzen baditugu eta ondo barneratzen baditugu, oreka baten, por supuesto.” (Aralar)

Izan ere, aniztasunaren balorazio positiboa ia betebehar soziala da, xenofobotzat edo eskuineko populistatzat hartua nahi izan ez bada, behintzat. Baina jarrera orokor horrek zehaztasunak eskatzen ditu, eta beharrezkoa da, horrela, integrazioa, egokitzapena, multikulturalismoa edo interkulturalismoa bezalako kontzeptuak argitzea. Hori aurrerago egingo dugu (ik. 6.4. puntua).

Immigrazioak, Euskal Herriaren ikuspegitik, dakarren beste ekarpen nagusi moduan ekonomiari loturiko aspektuak ditugu. Izan ere, immigrazio ekonomiko batez ari gara, eta mundu mailako desoreka sozioekonomikoen ondorioz gertatzen da: herrialde pobretuetatik aberatsetarako migrazioa da. Gauza jakina da immigrazioak harrera gizarteentzako onura ekonomiko handiak izaten dituela, nahiz eta immigrazioa *arazo sozial* gisa aurkezten denean, aspektu hori azterketatik at geratzen den. Horregatik, maiz ideia hori azpimarratzen dute elkarrizketatuek:

“En principio, el que la gente pueda venir a trabajar a Euskal Herria supone que, en la medida en que trabajan, hay producción de riqueza, y eso es una mejora en las propias posibilidades de Euskal Herria.” (LAB)

Kultura-aniztasuna eta lan eskuaren gai elkarlotuz, interesgarria da erakunde publikoen jardunarekiko kritikoa den iritzi ildoak. Izan ere, abertzaleen diskurtsoan agertzen den ikuspegi baten arabera, ofizialki integrazioa, kulturartekotasuna eta antzeko ideiak aldarrikatzen den arren, errealitatean etorkinak lan esku gisa erabiltzen dira, eta bestelako gaiak horren pean geratzen dira:

“Niri azken urteetako esperientziak erakutsi nau ez dela hain zaila beraiekin [immigranteekin] lan egitea, beraiek gure kulturara hurbitzea eta beraien kulturarekin ere eroso sentitzea, alde batera utzi gabe berea. (...) Ze erakundeek jartzen dute teknikari bat, plan bat... baina sistemaren helburua ez da etorkinak integratzea,

baizik eta eskulan bat, geroz eta merkeagoa, hor edukitzea, eta beraietaz ez dute bilatzen kulturantzatasun bat, baizik beraien lan esku merkeaz aprobetxatzea.” (ET: Errenteria-Orereta)

Euskal nazionalismoak immigrazioaz egindako ekoizpen idatzian ideia hori askotan azpimarratzen da. Onura ekonomikoen beste aldean, baina, langile etorkinen esplotazio ekonomikoa dago. Egoera horrek garrantzia badu euskal nazionalismoak immigrazioari buruz eraikitzen duen diskurtsoan; adibidez:

“(…) ondorio kezkarriak dira ba guk harrera gizarte bezala eraikitzen ditugunak. Marginalidade poltsa horiek... eta horrek ondorioak izango ditu epe laburrean, izaten ari da ya, eta hori kudeatu egin beharko da, zalantza gabe.” (EA)

Izan ere, immigrazioaz hitz egitea gizarte egituraren kokapen zehatza duten subjektuen arteko elkarrekintzaz aritzea da. Immigrazioan, hortaz, botere harreman zehatzak islatzen dira, eta langile etorkinak menperatze egoera pairatu ohi dute. Hori kontuan hartu beharrekoa da immigrazioen eraginez hitz egiterakoan, gizarte desberdintasunean oin hartzen duen errealitate batez ari garen heinean. Ideia hori modu desberdinetara islatu da ikerketan zehar. Modu sinpleagoan, batzuetan:

“–(...) los trabajos que aquí no se quieren hacer, hacen ellos. Eso también hay que decirlo.

–Claro, claro [*aho batez*].” (ET: Txorierri)

Eta era sistematikoago eta teorizatuago batean, beste batzuetan:

“La política de inmigración está inserta dentro de las políticas económicas globales (...) a la inmigración se la utiliza como mano de obra barata, como un ejército de reserva, para condicionar también las propias condiciones laborales de los trabajadores y trabajadoras de los países de destino, y como consecuencia, son

plenamente instrumentalizadas por el capital a favor de sus propios intereses, vía economía sumergida (...) en régimen de explotación pura y dura.” (LAB)

Modu batera edo bestera esanda, etorkinen azpiratze egoera azpimarratzen dute elkarriketatuek. Eta, bestelako ondorioez gain, arreta euskal nazionalismoaren planteamendu politikoan jartzen badugu, egoera horrek zailtasunak dakartzkio euskal nazionalismoari: nola landu etorkinen artean nazio ikuspegia, edota euskara, etorkin gehienek lehentasun gehienak sozioekonomikoak badira? Erronka edo zalantza hori behin eta berriz agertu da ikerketan zehar.

Horregatik, batzuetan *larrialdi sozial* horiek konpondu arte, euskal nazionalismoak immigrazioarekiko garatzen duen agenda politikoak itxaron beharko duela defendatzen da batzuetan. Izan ere, orain arte aipatu ditugun ideiek ez dirudite euskal nazionalismoaren bereizgarri: immigrazioari buruzko analisi orokorrak dira, eta berauetan ez da osagai nazionalista gehiegi antzematen.

6.3.2. Euskararen egitekoa eta haren gaineko eragina

Orain arte aipatu ditugun ideiak immigrazioaren ekarpen moduan gehien azpimarratzen diren aspektuak ditugu. Euskal nazionalismoarentzat, baina, badaude esangura berezia hartzen duten gai batzuk; eta horien artean, ez bairik gabe, euskara da nabarmenetarikoa. Izan ere, ikerketako parte hartzaile guztiek azpimarratu dute gai hau, eta erakutsitako ardura handia izan da arlo horretan.

Hizkuntzaren papera euskal nazionalismoan: estrategia politikokoaren lagungarri edo nazionalismoaren muin

Euskal nazionalismoak euskal nazioaz egiten duen definizioan, euskara funtsezko elementua da. XX. mendeko bigarren erditik aurrera, *arrazan* eta, ondoren, etnien oin hartzen zuten nazioaren zedarritzeak gainditu, eta euskara bilakatu zen euskal nazioaren oinarri euskal nazionalismoarentzat, lan honetan jada aipatu dugun bezala (ik. 2.4. puntua). Bilakaera konplexu hori laburbilduz, gaur egun euskal nazionalismoarentzat euskara euskal nazioaren definiziorako elementu garrantzitsuena da; baina, hala ere, bere egoera soziolinguistiko ahula dela-eta, errealitatean elementu sinboliko gisa funtzionatzen du, eta hizkuntzari lurraldea batzen zaio nazioa zedarritzerako garaian (ik. Zabalo eta Mateos, 2005).

Horrek eztabaidak ere eragin ditu euskal nazionalismoaren baitan. Izan ere, euskal nazionalismoa mugimendu politikoa da, eta, ondorioz, helburu politikoa lehenean ditu (Estatua erdiesteko estrategia indartzea, autonomia egitura sendotzea eta abar, ildoen arabera). Baina naziotasuna hizkuntzarekin parekatzen duten sektoreen aburuz, aitzitik, euskal nazioaren funtsa litzatekeen euskara eta horri loturiko *nazioa –nazio euskaldunaz* hitz egiten da– indartzea izan beharko luke mugimendu nazionalistaren lehentasuna, boterearen edo hegemoniaren eskuratzearen gaineratik. Beste modu batean azalduta: bigarren ikuspegi horren arabera, nazionalismoaren lehentasuna hizkuntzari loturiko nazioegintzan dago. Hortaz, ildo horrek hizkuntza-nazionalismorako joera erakusten du¹⁵⁶.

Hala eta guztiz ere, hizkuntza-nazionalismoaren planteamendua inolako talde politikorik ez du bere egin, eta hausnarketaren eta lan intelektualaren

¹⁵⁶ Hizkuntza nazionalismo horren defendatzaile ezagunenetakoa Joxe Manuel Odriozola (2008) da. Bere planteamenduak hainbat artikulutan aurki daitezke; adibidez: Odriozola, 2012. Euskal nazionalismoaren izaerari buruz eta, bereziki, nazionalismo horretan euskarak izan beharreko egitekoari buruzko eztabaida interesgarria, zeinean Odriozolak ere parte hartzen duen, hemen topa daiteke: Lapiko Kritikoa kolektiboa: “Abertzaletasuna, nazio eraikuntza eta independentismoa. Eztabaida”, *Lapiko Kritikoa*, hemen eskuragarri: <http://basque.criticalstew.org/?p=8310> (2012-05-06an begiratua).

eremuan garatu da, batik bat. Zentzu horretan, ezin da euskal nazionalismo linguistiko batez hitz egin, momentuz. Hala ere, ezin da ukatu pentsamenduaren eremutik at ere eragina baduela hizkuntza-nazionalismotik gertu dagoen diskurtsoak; eta, adibidez, geure ikerketan azaleratutako zenbait planteamenduk hizkuntza-nazionalismoaren proposamenarekin nolabaiteko lotura dutela dirudi. Hala gertatu da eztabaida-talde batzuetan, Errenteria-Oreretakoan bereziki. Gaiari buruzko eztabaida intelektualaren kontzeptualizazioak modu hertsian jarraitu gabe, debate horren bi ildo nagusiak azalerratu ziren, nahikoa modu argian. Batetik, partaide batzuen aburuz, euskal nazionalismoaren egiteko nagusia euskararen alorrean kokatu beharko litzateke; eta, beraz, iritzi horren arabera, etorkinek euskal nazioarekin bat egin dezaten, immigratuok euskara ikas dezaten bultzatzea izan beharko luke euskal nazionalismoaren lehen egitekoa. Elkarrizketatuetako batek, immigrazio zaharraren oinordeko, horrela kontatzen zuen abertzaletasunera gerturatzeko bere prozesua:

“Ni naiz Euskal Herriak jasandako lehen immigrazio uholdearen produkto bat. Nire aita immigrantea da, Salamancakoa, eta nire ama Asturiasekoa. (...) Inportantea da jakitea non gauden. Hau Estadorik gabeko nazio bat gara, burujabetzaren bila gaude (...) Independentzia-eta aldarrikatu arren, ez da gauzatzen, bertakoek benetan sinesten ez dugulako. Euskal Herriaren bizkarrezkurra da euskara. (...) niretzat, dena ulertzeko izugarri inportantea izan zen hizkuntza, konturatzeko hau ez zela Espainia. Inportantea da hizkuntza, eta hemengo baloreak bere bidez barneratzen dira, eta ondoren politikoki bakoitza kokatuko da alde batean edo bestean”
(ET: Errenteria-Orereta)

Iritzi horrek islatzen duen ikuspegiaren aburuz, hortaz, naziotasunaren funtsa hizkuntza da. Baina ez modu sinbolikoan soilik, planteamendu teoriko legez, nazio egitasmoaren gune moduan baizik. Bere ibilbide pertsonaletik abiatuz (Euskal Herria nazio moduan ulertzeko, funtsezkoa izan zitzaion euskara ikastea), kide horrek euskal nazionalismoaren proiektua hedatzeko

euskara bultzatu behar dela azpimarratzen du, baita immigranteen artean ere, noski. Jarrera horrek eztabaida-taldeko kide batzuen onarpena jaso zuen. Diskurtso hori, hortaz, hizkuntza-nazionalismotik gertu kokatzen da, gure ustez. Gainera, *alderdi politikoekiko* urruntasuna eta mesfidantza ere agerikoa zen diskurtso horretan, eta ekinbide politikorako eremu pribilegiatu gisa maila mikroa (auzoa) lehenesten zen. Finean, mugimendu nazionalistaren helburu estrategiko nagusi legez, hizkuntzan oinarritutako lana eta kulturaren zentratutako naziogintza azpimarratzen dira ildo horren aldetik.

Diskurtso horren azalera baina, hala ere, gure ikuspegitik interesgarriagoa da horren inguruan sortu zen eztabaida, hizkuntza-nazionalismoaren molde horri, neurri batean, euskal nazionalismoaren lehenetsun moduan botere politikoa eskuratzea dela defendatzen duen ildo kontrajarri baitzaio¹⁵⁷. Bigarren ikuspegi horrek, horrela, ekintza politikoaren maila makroa (nazioa) hobesten du; eta, euskara gai garrantzitsutzat hartzen badu ere, funtsezko eremu gisa hegemonia politikoa eskuratzeko estrategia edo prozesua azpimarratzen du. Ondoko pasartean, eztabaida hori ondo islatzen da:

“–¿Qué se necesita para la integración? Pues, poder político. Tú si tienes poder político, puedes hacer políticas lingüísticas o de integración. Los que están ahora [PSE eta PP aipatzen ditu], están desnaturalizando el tema de la lengua. Si nosotros tuviésemos el poder político, podríamos plantear políticas de integración, valorando el euskera, etcétera, etcétera, en su justa medida. Entonces, con todos estos sectores que vienen de fuera, con esa política de integración, se trataría de no crear guetos, como los que tenemos en este pueblo, y de intentar atraerlos, para que valoren tu lengua, tu cultura... El poder político es lo que necesitamos.

–Zuk diozu udal edo nazio boterea berreskuratu behar dugula legislatzeko eta abar, hori oso ondo dago, baina bitartean iruditzen

¹⁵⁷ Ez gara sartuko hemen bigarren ikuspegi horrek isla dezakeen euskal nazionalismo motaren definizioan (euskal nazionalismo motetan sakontzeko, ik. Zabalo, 1998). Hala ere, badirudi bigarren ikuspegi hori, hedatze politikoa lehenesten duena, euskal nazionalismoaren teorizazio eta praxitik gertuago dagoela.

zait oso inportantea AEK-k egiten duena immigranteetzako taldeak sortuz, eta bitartean guk ere indibiduo bezala zerbait egin behar dugu, auzoetan edo alderdietan, sin necesidad de lograr cuotas de poder...

–Ya, pero enfrentarte tú solo cuando tienes una política en contra, está condenado al fracaso...

–Hombre, pero no se arregla todo con el poder...” (ET: Errenteria-Orereta)

Bi ildoek, beraz, hizkuntzak euskal nazionalismoan duen garrantzia azpimarratzen dute; baina ikuspegi batetik euskalduntzea lehentasun politiko gisa planteatzen da, bestetik nazio eraikuntza bultzatzeko botere politikoa lortzea lehenesten den bitartean. Gainera, azken iritzi-ildo horren arabera, euskara bultzatu behar da, baina “bere neurrian”; hortaz, bestelako lehentasunak ere egon daitezkeela uler daiteke. Beste ildoaren aburuz, aitzitik, hizkuntza lehentasuna da, eta ezin da nazio eraikuntzaz hitz egin euskara prozesu horren muinean ipinita ez bada.

Adierazi dugunez, ika-mika hori ezkerreko abertzaleek osaturiko eztabaida-talde batean gertatu zen, modu argienean (baina ez bertan bakarrik). Horrela, abertzaletasunaren ildo horretako bi ardatz islatzen direla dirudi, hizkuntzari onartzen zaion garrantziari dagokionez, bederen. Alde batean, immigrazioak kulturaren eremuan izan ditzatekeen eraginak azpimarratzen dituen gurek, zeinak batez ere euskararekiko ardura azpimarratzen duen. Ildo horrek abertzaletasunaren egitekoa euskararen aldeko lanarekin parekatzen du ia, eta hizkuntza-nazionalismotik gertu kokatzen da. Beste alde batetik, ondorio sozialak, eremu sozioekonomikoa azpimarratuz, lehenesten dituen ardatza azaleratzen da.

Laburbilduz, horrela, euskararen egitekoa ezbaian dago. Hala ere, azpimarratu beharrekoa da euskal nazionalismoarentzat, oro har, immigrazioak euskarengan izan dezakeen eragina esanguratsua dela, eta horrek ardura izaera ere hartzen duela (ik. 6.3.4. puntua).

Euskararen gaineko eragina, erlatiboa

Ukaezina da Euskal Herriko gizarteko zenbait sektoretan (euskalgintzaren zati baten artean, batez ere), immigrazioaren gorakada arduraz ikusten dela euskarari dagokionez. Immigrazioak, horrela, euskararen egoera okertu dezakeela pentsatzen da. Hala ere, ardura hori ez da, guk dakigula, eragile euskaltzale edo abertzaleen bidez plazaratu, eta iritzi hori norbanakoek mahaigaineratu dute, hausnaketa moduan. Adibidez, Gotzon Garate zenak forma eman zion sentipen horri, iritzi artikulu batean, eta, besteak beste, ondokoa azaldu zuen:

“Alde batetik pozgarria da. Etorकिनak besoak zabalik hartu behar ditugu. (...) Euskal Herrian, ordea, etorkinek kultura arrotza eta hizkuntza arrotza sartzen dituzte. Euskara galtzorian daukagu. Etorकिनen etorrera euskararentzako azken ezpata izan liteke, etorkinen kopurua gero eta handiagoa izango baita. (...) Ba al dago erremediorik gaitz honentzat? Bakar bakarra Euskal Herriak independentzia lortzea. Independiente bagina euskara Beharrezkoa egingo genuke. Orduan etorkinen kontua euskarari ezpata sartu gabe konponduko genuke.” (Garate, 2006).

Gure elkarrizketatuen artean, aitzitik, immigrazioa euskarekin lotzerakoan ez da agoniaren diskurtsoa gailentzen. Euskararen berreskuratze prozesua agerikoa izan arren, eremu geografiko eta sozial jakinetan zokoratuta dago, eta, ezaguna denez, egoera diglosikoa pairatzen du Hego Euskal Herrian, gaztelaniaren mesedetan. Gainera, kopuruz hizkuntza txikia da, 800.000 eta 1.000.000 hiztun artekoa. Egoera erlatiboki ahul horrek, baina, ez du hizkuntzaren galeraren beldurra azpimarratzen duen diskurtsoa nagusi bilakatu gure ikerketan parte hartu dutenen artean.

Diskurtso hori nagusi ez izatea, baina, ez du esan nahi immigrazioak euskara eta euskal kulturarengan izan dezakeen balizko eragin negatiboari buruzko ardurarik ez dagoenik. Izan ere, zalantzak agertzen dira elkarrizketatuen artean, eta euskararen egoera gutxitua nahiz hizkuntza txikia izatea azpimarratzen da. Halaber, zalantza edo ardura hori, Euskal Herriak berezko estatu bat ez izatearekin ere lotzen da:

“Kuestio nazionaletan, herriaren nortasunaren gaietan, hau da, nik nere nortasuna dakat, eta ezin det bertan behera utzi etortzen delako izugarritzko masifikazio bat, eta gaur egungo immigrazioarekin arrisku hori badakagu, debildade puntu batetik abiatzen garelako, gu ez gera Espainia, kulturalki oso matxakatuta gaude, orduan debildade horretatik ateratzeko oso zaila daukagu. Eta ez kanpotarra hartzeko mehatxu bat bezala, baina gure kultura mantentzeko mehatxu bat izan daiteke.” (ET: Errenteria-Orereta)

Hala eta guztiz ere, immigrazioak euskararengan izan dezakeen eragina aztertzerakoan, ia erabateko diskurtsoa da eragina oso desberdina izango dela Euskal Herriko inguruaren arabera; hots, baldin eta ingurune euskaldunez edo erdaldunez ari garen. Izan ere, momentu oro elkarrizketatuak kontziente dira euskararen egoeraz, eta immigrazioaren euskararen gaineko eragina euskara bizitza sozialean erabiltzen den eremu geografikoetan soilik nabarituko dela azpimarratzen duen diskurtsoa gailentzen da:

“Nik ez dut uste horrek [immigrazioak] izan behar duenik inongo arazorik [euskararentzat]. Etorकिनak, etortzen direnak Lesakara ba askok ikasten dute euskara, Lesakako euskalkia. Agian, joango balira Bilbora ez... Ez dakit zenbaterainoko eraginik izaten ahal duen, ez dakit. Ez dut uste etorkin gehiago egoteagatik Bilbon erabiliko dela euskara guttio.” (ET: Lesaka)

“Agian Lazkaon egoera beste bat izango da, baina Gasteizen, Bilbon edo Donostin nik ez dut uste etorkinen kopuruak

euskararen egoera baldintzatuko duenik, ezta gutxiago ere. Hori hemen bizitza osoa daramagunon eskutan dago, eta euskaldunon eskutan.” (EA)

Hortaz, gaur egun euskara bizitza sozialean presente ez dagoen inguruetan ezin daiteke immigrazioaren eragina nabaritu. Zonalde horietan, hizkuntzaren egoera hain da gutxitua, zaila dela immigrazioa bezalako faktore *berri* batek euskararen egoeran izan dezakeen eraginari buruzko pertzepzio sozial indartsua sortzea. Diskurtso hori oso hedaturik dago, eta, finean, ondoko ikuspegia da iritzi horren atzean topa daitekeena: euskarari buruzko arduraren egunerokotasunean erabiltzen den inguruetan da, batez ere –nahiz eta ez soilik–, esanguratsua.

Arreta inguru euskaldunenetan ipinita, hortaz, euskara eta immigrazioa bateragarri egitekotan, zonalde horietan gertatuko dela defendatzen da:

“Es que, nire ustez agitz desberdina da Lesakara etorri, holako herri txiki batera, edo seguru, dudarik gabe, Bilbon, edo Iruñean, edo holako hiri handi batean, hemen ikusten dut posibleago, azkenean jende hori euskalduntzea...” (ET: Lesaka)

Jarrera horrekin batera, immigrazioak euskararengan izan dezakeen eraginari buruzko diskurtsoan, errealitatearen ondoko konstatazioa beti agertzen da: euskara ez da Euskal Herrian bizitzeko *beharrezkoa*. Taldeetan azpimarratzen denez, inguru batzuetan oso lagungarria da, ia beharrezkoa leku gutxi batzuetan (Ondarroan horrelako iritzia agertzen da). Baina gure elkarrizketatuen artean modu argian gailendu den diskurtsoa da euskararen *arazoa* (haren egoera gutxitua) ezin zaiola immigrazioari leporatu. Ideia garrantzitsua da hori, horrela euskarari buruzko arduraren immigrazioaren aurkako jarrerarekin lotzea ekiditen edo, bederen, zailtzen baita. Egoera hori izanik, hortaz, etorkinak, gainontzeko herritarrak legez, euskalduntze prozesuan ere kontuan hartzea aldarrikatzen da:

“Es que politikariek, edo jendarteak berak, honetaz hitz egiten duenean, badirudi euskararen arazoa etorkinak direla! Eta zenbat eta zenbat euskaldun daude euskararik hitz egiten ez dutenak! Segur aski, etorkinak baino askoz gehiago. (...) Ez dut uste immigrazioak euskararengan inongo eragin negatiborik duenik, ez neurri berezirik hartu behar denik, baizik eta gizarte mailan erabaki dugun euskalduntze prozesu horretan segitu beharko dugu, adibidez eskoletan, eta hor ulertzen dut ere etorkinak sartzen direla.” (EA)

Hala ere, egoera idealizatu gabe, sor daitezkeen arriskuak ere agertzen dira: biztanleriaren zati batean, euskararen egoera zailak immigrazioarekin lotura izan dezakeela sinesten duen pertzepzioa hedatzea, hain zuzen. Izan ere, gizartean zein euskal nazionalismoaren oinarri sozialean, immigrazioari lotutako pertzepzio ezkorrek duten eragina ardura esanguratsu moduan agertzen da abertzaletasunaren diskurtsoan, aurrerago ikusiko dugunez. Eta beldur hori ere euskarari lotuta mahaigaineratzen da. Izan ere, immigrazio alorrean, kulturari eta nazioari loturiko politika nagusiak definitzeko ezintasunaren eraginez, sentipen hori areagotu daitekeela pentsatzen da. Horregatik, euskal nazionalismoaren egiteko garrantzitsua jendartean pertzepzio horiek zabaldu ez daitezen lan politiko eta ideologikoa egitea dela defendatzen da. Ez dira guztiz argitzen egiteko horren ezaugarriak, baina ardura hori, berriro diogu, maiz agertzen da gure ikerketan parte hartu dutenen artean:

“El problema es que hay políticas del Estado en las que asume casi la exclusividad en cuestiones lingüísticas y la exclusividad en ciudadanía, que hacen que el inmigrante sea un problema para la normalización del euskera. (...) Nosotros sí que consideramos que eso hay que ajustarlo bien en la visión abertzale. Porque si no al final se cae en lógicas xenófobas y de culpar al otro, al inmigrante, de cuestiones que no es responsable.” (Ezker Abertzalea)

Lesaka bezalako inguru oso euskaldunetan ere, euskara hil edo bizikoa ez dela azpimarratzen da. Horrela, maila teorikoan euskara ikastea beharra dela esaten denean, jarraian diskurtso hori ez dela benetako errealitate batean oinarritzen esaten da. Finean, teorikoki eta modu idealean, euskal nazionalismoak euskararen integrazio funtzioa azpimarratzen du; hots, Euskal Herrian guztiz *integratzeko*, euskalduntzea beharrezkoa dela. Baina Euskal Herriaren errealitateak, eta baita euskal nazionalismoaren kidegoarenak ere (gure ikerketan bertan, erdaldunak ugariak dira), ikuspegi ideal hori teoriara mugatzera eramaten ditu, modu argian, gainera (salbuespena hizkuntza-nazionalismoaren aldeko joera duen iritzia litzateke, diskurtso heterodoxoaren itxura hartzen duena). Horrela, Lesakan izandako elkarrizketa horren adibide da:

“–Etortzen zarenean herri batera, nahi baldin baduzu bertan bizi eta bertakoekin harremanetan jarri gutxienekoa egin behar duzuna da hizkuntza menperatu. Ez da beraiekin komunikatzeko, gero ez dizut erraten ohitura guztiak edo kultura guztia zureganatzea, edo bereganatzea, zure jatorrizkoa ahanzte. Baina dudik gabe oinarrizko batzuk... gu orain joango baldin baginen Alemaniara seguraski ikasi beharko genuke alemanez solasean edo...

–Nire ustez hor ere bada fallo ttiki bat. Ta da kanpotik etortzen direnean, iruditzen zait, ez duela beharra ikusten, ‘euskara ikasi gabe bizi ahal naiz’.

–Ez. Hala da, ze zu joaten zara Kataluniara, eta denak ikusten dira katalanez.

–Bai, bai.

–Orduan, etortzen danak esaten du ‘pues bueno, egin egingo dut gaztelaraz’. (...) Gainera, euskara da hizkuntza arrunt zaila ikasteko...” (ET: Lesaka)

Finean, Euskal Herria ez da Alemania... ezta Katalunia ere. Eta immigrazioa eta hizkuntzari buruzko diskurtsoan, errealitate horren isla modu

argian azaltzen da. Hortaz, euskara immigranteen artean bultzatzerakoan, *kontuz* ibili beharraren diskurtsoa oso hedaturik dago, elkarrizketatuak hizkuntzaren egoera ahularen jabe direlako, ziurrenik; eta, ondorioz, euskara modu *naturalean* inposatzea zaila dela kontziente direlako. Adibidez:

“Nik uste dut euskarak eta euskal kulturak izan beharko luketela duten lekua, baina kontu handia izan beharko genuke espainiar kulturak gurekiko askotan izan duen jarrera hori ekiditeaz.” (EA)

Horrekin batera, eta jada esan bezala, ez da euskarari buruzko agonia diskurtsorik eraikitzen, edo ez dugu halakorik topatu. Aitzitik, diskurtso baikorra ere gailentzen da, batzuetan (baikorregia, agian, hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa behatuz gero), arriskurik antzematen ez duena:

“Guk beraien kultura onartzen badugu, eta ikasten badugu beraietaz, ba beraiek ere euskararekiko eta, oso jarrera baikorra dute. Ni irakaslea naiz, eta egunero ikusten dut. Azkenean kanpotik etorri diren umeek askoz jarrera baikorragoa dute gasteiztar askok edo gehienek baino.” (EA)

Izan ere, elkarrekikotasuna behin eta berriz azpimarratutako ideia dugu. Migratzaileak euskal kulturara gerturatzeko funtsezkoa da, ikuspegi horren arabera, bertakoek ere etorkinekiko eta euren kulturekiko gertutasuna izatea. Integrazioaren izaera bikoitz hori –etorkinari zein harrera gizarteari eragiten diona– agerian geratzen da, beraz, hizkuntzaz aritzerakoan ere bai:

“Nosotros partimos de un doble reconocimiento. Sería el contrato, la alianza, en la construcción de la identidad: reconocimiento del euskera como lengua nacional, y reconocimiento en el ámbito comunitario de las otras lenguas no euskaldunes.” (Ezker Abertzalea)

Horrela, euskara eta immigrazioa lotzen dituen diskurtsoan, jarrera baikorra azpimarratzen dutenen aldean, euskal kultura (euskarari loturiko kultura moduan ulertuta) berreraiki eta modernizatzeko beharra ere azpimarratzen da. Eta prozesu horretan, Euskal Herrian dauden adierazpen kultural guztien arteko elkarrizketa beharrezkoa dela nabarmentzen da. Taldeen arteko elkarrizketa, jarrera ireki eta harreman horrek, iritzi hori eusten dutenen ustez, immigranteak euskal kulturara gerturatzea izan dezake ondoriotzat, beraz:

“Nik ez dut uste politika babestzaile berezirik beharko duenik euskarak. Garbi dago ere ezin garela geratu fandangoan, arin-arinean, eta hori jarri gure kulturaren ardatz. Ez, uste dut aurrera egin behar dugula, gauzak mantendu behar dira, baina euskal kultura gaur egun oso kultura anitza da, eta euskara ardatz izanda aurrera egin beharko dugu, kulturen arteko ezagupenean. Eta etorkinek ez dute euskararekiko jarrera ezkorrik izango beraiena onartzen badugu, errespetatzen badugu, eta beraien kulturaz ere gurea aberasten badugu.” (EA)

Hala ere, nabarmendu beharrezkoa da eztabaida zein elkarrizketetan zehar, hizkuntza euskal nazionalismoarentzat funtsezko gai gisa azaleratu dela. Izan ere, *integraziorako* edo immigrazioarekiko beste edozein lanketa proposatzerako garaian, elkarrekintza ezinbestekoa da, eta hartu-eman horren oinarrian, hizkuntzak albora ezinezko eginkizuna dauka:

“Nik ikusten detena da, batez ere arazo nagusiena aunitzetan dago hizkuntzan. Hemen badire, hori, eslovako horiek, eta aunitzetan gaztelera badakite juxtu-juxtu, eta orduan beraiekin harreman normalak izateko ya hizkuntzak zailtzen dizu pila bat. Orduan ya berez ez zara joan behar berarekin kafe bat hartzera. Ze ba, zer egin behar duzu, kafea hartu tipoakin ez? Ezin da solastu... Eta beste aldetik ere, ikusten duzu dela tipo raro bat, etorri dena kanpotik eta... Hori ere igual garelako herri ttiki bat, itxia

[*barreak*], baino, batzuetan zaila da, hastea hor harremanetan; eta beti haiek akabatzen dute beraien aldetik, eta gu ba gure aldetik.”
(ET: Lesaka)

Laburbilduz, immigrazioa lantzerakoan, euskara albora ezin daitekeen alorra da euskal nazionalismoarentzat. Hizkuntzan paper esanguratsua betetzen du abertzaletasunak euskal nazioaz egiten duen irakurketan; eta, ondorioz, bere xedea immigranteak euskal naziora, euskal nazio egitasmora, gerturatu edo integratzea izaki, euskara landu beharreko elementu bilakatzen da. Horra arte, beraz, geure landa-lanean gailendu den diskurtsoa, hortik aurrera bi ardatz bereizi baitaitezke: ildo baten arabera, lehentasuna botere politikoa eskuratzea da, eta euskararen afera estrategia horren baitan kokatu behar da.

Lehenengo diskurtsoa gailentzen dela iruditu zaigu. Izan ere, euskal nazionalismoa fenomeno eta mugimendu politikoa da, errealitate politikoan eragitea (eta, beraz, boterearekiko ardura) helburutzat duena, ezinbestean. Bide horretan, euskara ahantzi ezinezko gaia da (euskal nazionalismoaren nazioaren zedarritzean funtsezko papera betetzen duen heinean), baina, aldi berean, euskara modu hertsian lantzeak (naziokidetzat hartzeko euskalduntasuna¹⁵⁸ betebehar bilakatuz, edota etorkinekiko jarduna hizkuntzara mugatuz) euskal nazionalismoaren asmo politikoak oztopatzen ditu. Horrela, neurri batean, hizkuntza-nazionalismorantz jotzen duen ildo bat bigarren maila batera mugatzen da, eta egiteko nagusitzat ildo nagusiaren kritika hartzen du bere gain.

Gatazka hauek guztiak, hala ere, ez dituzte euskarak immigrazioaren aferan ñabardura guztiak barne biltzen. Izan ere, garrantzia eskuratzen du abertzaleek, immigrazioaren eragina dela-eta, euskararekiko erakusten duten ardura. Atal hori aurrerago landuko dugu.

¹⁵⁸ Hots, euskal hiztuna izatea.

6.4. Immigrazioari buruzko ardura nagusiak

Atal honetan, euskal nazionalismoak bereziki *ardura* moduan aztertzen dituen gaiak jorratu nahi ditugu. Izan ere, euskal nazionalismoa mugimendu zabala da, eta bere ardurak ez dira nazionalismoari edo nazio aferari buruzkoak soilik. Erakunde sindikalek, adibidez, langile immigranteen bazterkeria egora azpimarratzen dute, beste ezeren gainetik; eta eztabaida-taldeetan ere mota horretako ardura orokorrak (edozein herritarrek, euskal nazionalismoarekin bat egin edo ez, bere egin ditzakeenak) ere agertu dira, noski. Horrela, esaterako, immigrazioari buruzko diskurtsoan behin eta berriz agertzen da etorkinek pairatzen duten lege egoeraren salaketa. Batzuetan, bazterkeria hori gainditzeak euren eragileen lehentasun izan behar duela aldarrikatzen dute elkarrizketatuek:

“El principal desafío o reto que se debería tener es que a las personas inmigrantes se las considere que son unas personas con los mismos derechos a cualquier persona que reside en Euskal Herria. Cualquier persona residente en Euskal Herria debería tener los mismos derechos, independientemente de su lugar de origen. Si estás en Euskal Herria, tienes los mismos derechos tanto laborales, como sociales, incluso civiles y políticos.” (ELA)

Immigranteen egoera hain da larria, zenbait sektorerentzat horrek izan behar duela lehentasuna. Mota horretako diskurtsoek, halere, asmo zintzotik eginagatik, politikoki zuzena denaren muga barruan gera daitezke, agian. Izan ere, euskal nazionalismoak estatu propioa eskuratzerakotan, diskurtso horiek egikaritutako diren jakitea ezinezkoa baita orain. Edonola ere, atal honen ondorengo puntuetan, ardura horien guztien artean, geure ustez diskurtsoan nazionalismoari loturak agertzen dituztenak azpimarratu nahi ditugu, auzi nazionalari hain lotuta ez dauden bestelako ardurak oso ugariak eta garrantzitsuak diren arren.

6.4.1. Euskal Herriak eskumenik ez izatea

Euskal nazionalismoak immigrazioari buruz eratzten duen diskurtsoan, albora ezinezko gaia da arlo horretako eskumenak ez daudela Euskal Herrian edo bertako erakundeen esku. Esan dezakegu ardura hori oso modu esanguratsuan agertzen dela abertzaletasunak immigrazioaz garatzen duen diskurtsoan. Izan ere, estaturik gabeko nazionalismoen kasuan funtsezkoa da arazo hori: mugimenduok aldarrikatzen duten nazio markoetatik ezin ohi da immigrazioarekiko berezko jarduerarik garatu. Immigrazio politikak estatuen esku daude, eta bertatik nazio egitasmora zehatzak bultzatzen dira. Horrek, maiz mesfidantza sortzen du estaturik gabeko nazionalismoaren aldetik, estatuak, immigrazio politikaren bidez, immigranteak bere nazio egitasmora batu nahi dituela uste baitu (ik. 1.3. puntua). Gogora dezagun, estaturik gabeko nazionalismo batzuen kasuan (Quebec aipatu ohi da), immigrazioaren eztabaida nazio aldarrikapenarekin lotzea izan da horren ondorioa; hots, immigrazioa nazio ikuspegi propiotik lantzeko beharra, independentzia edo autogobernurako arrazoi moduan planteatzea (adibidez, ik. Zapata-Barrero, 2008).

Horrek guztiak, hala ere, beste alde bat ere izan dezake. Izan ere, eskumen gabezia azpimarratzerakoan, euskal nazionalismoak immigrazioari buruzko neurriak zehazteko ardura bere gainetik kentzen du. Hori, gainera, berarentzat esanguratsua izan daitekeen arlo batean gertatzen da, batez ere: nazioari ikuspegiei dagokienez: naziotasunaren definizioa, nazio kulturaren zedarritzea, immigrazioaren integrazio prozesuaren helburu nazionalak, eta abar.

Bada, euskal nazionalismoaren kasuan kexa hori oso nabaria da: abertzaletasunak bere nazio proiektua immigrazioan lantzeko ezintasuna nabari du, eta berau salatzen du. Erakundearen arabera salaketa hori aldatu egiten bada ere (adibidez, ezker abertzaleko eragile batzuek nazio erakunderik ez dela azpimarratzen dute, eta Euzko Alderdi Jeltzaleak, berriz, eskuduntza horiek ez daudela Euskal Herriko erakundeen esku), kexaren funtsa bera da: immigrazioa Euskal Herritik lantzeko ezintasuna. Esaterako:

“Guk benetan ez daukagu eskumenik, bitartekorik, erabakitzeke ze immigrazio politika garatu nahi dugun, eta ez hori bakarrik, ze hizkuntza politika nahi dugun Euskal Herrirako, ze hezkuntza politika, eta horrek zein eragin duen, ere bai, etorkinak hemen jasoak diren moduan.” (LAB)

Euskal nazionalismoak, horrela, berak eraiki ez duen eta kontrolatzen ez duen joko zelai batean jardun behar duela azpimarratzen da. Eta hori *arazo* bat da abertzaletasunarentzat; izan ere, Euskal Herrian eragin nabaria izan dezakeen auzi batean, euskal nazionalismoak neurri handi batean aldarrikapenetara mugatu behar duela salatzen da.

“(…) hay que tener en cuenta que hay unas políticas europeas de inmigración, que condicionan nuestra capacidad de maniobra. Y luego, también, están las políticas del Estado, que es quien realmente decide las políticas inmigración. Entonces, el impacto de las políticas de inmigración en Euskal Herria es importante y, sobre todo, el problema es que no tenemos capacidad para condicionar el modelo, para hacer una aportación propia, y eso es un problema.” (LAB)

Beraz, immigrazioan eragiteko gaitasun instituzionala ez izatearen ondorio nagusia da euskal nazionalismoak arlo horretan garatzen duen jarduna diskurtso mailara mugatzen dela, nagusiki. Horrek, diotenez, zailtasunak sortzen dizkio euskal nazionalismoari immigranteak bere nazio egitasmora erakartzeko. Finean, gailentzen den arduraren ondokoa da: euskal nazionalismoak bere nazio ikuspegia immigrazioan lantzeko aukerarik ez badu, espainiar nazio egitasmoa da etorkinen artean garaile aterako dena. Esaterako:

“Hor bertze faktore bat, kanpotik ailegatzen diren immigranteak, ailegatzen dire Espainiar Estatura, bidaltzen dituzten Ministeriora, eta ministeriotik ematen dioten informazioa da, pues

espainiar informazioa, eta gero erraten dute lana eta horrela baldin baduzu ematen dizute UGT eta holako sindikatuen informazioa (...) Ailegatzen zara toki batera, ez duzu puta idearik non zauden eta ‘hemen lagunduko dizute’, eta toma, horrela ematen dute beraien ikuspuntua eta gero horri buelta ematea... Ni adibidez, ibiltzen naiz lan munduan, eta immigrante gehienak UGTn eta Comisionesen afiliatuta daude, gehienak. Zer ba? Horregatik jasotzen dituzte jasotzen dituzten laguntzak Estatuaren partetik...” (ET: Lesaka)

Immigrazioa Hego Euskal Herriko markoan landu ordez, Espainia mailan lantzearen ardura hori, beraz, lotuta dago *beldur demografikoa* dei dezakegunarekin. Izendapen horrekin euskal herritarrak –edo abertzaleak– gutxi izatearen sentipena izendatu nahi dugu. Izan ere, batzuetan horrelako sentrazio bat mahaigaineratzen da (nahiz eta, ondoren, immigrazioari buruzko diskurtsoan ez duen esangura handirik eskuratzen) adierazten duena euskal herritarrak hain gutxi izanda, balitekeela Euskal Herrian bertan gutxiengo bilakatzea. Iritzi hori, normalean, ez da oso modu argian azaleratzen, esaldi solteetan baizik. Hala ere, ondoko pasartea sentrazio orokor horren adibidea da:

“(...) beraiek [etorkinak] etortzen dire bertze lurralde batetikan eta ez dute kontzientzia hori, hau denik Euskal Herria edo denik zerbait desberdina. Ez dakit, beraientzat da lur puska bat dagoena Espainiar Estatu barrenean edo dena dela. Orduan, baldin badira aunitz... Azkenean ya berez euskal herritarrok gutti gara eta kopuru handi horretan igual egiten ahal duna da relatiboki gu oraindikan guttiago izatea, ez dakit. Nik alde horretatik ikusten dut arazoa.” (ET: Lesaka)

Baina, esan dugun bezala, beldur demografikoaren diskurtso hori ez da gailentzen; edo, gutxienez, ez da orain aipatu dugun era argi horretan ageriko bilakatzen. Zentzu horretan, mota horretako iritzien atzean, hainbat ikuspegi dagoela kontuan izan behar dugu. Izan ere, esanahi zehatz edo zuzenen gainetik,

euskal herritar/euskaldun kontzeptuak modu nahasian erabiltzen dira, eta hizkera arruntean bi izendapenak Euskal Herrian bizi diren herritarrak edota euskal hiztunak izendatzeko baliatzen dira, hitz bat edo bestea erabilita. Are gehiago, batzuetan, badirudi elkarrizketatuek *euskaldunak* eta *euskal herritarrak* aitzaten dituztenean, abertzaleak dituztela buruan. Edonola ere, eta goiko pasartean agertzen den moduan, *ardura demografiko* horren oinarrian dagoena ondokoa da: Euskal Herriak berezko estatua ez edukitzeagatik edota immigrazioa Espainiak kudeatzen duelako migratzaileak, finean, espainiar nazio egitasmoarekin bat egitea. Izan ere, euskara, talde sentimendua eta abarraren gainetik, euskal nazio proiektuari buruzko ardura da gailentzen dena.

6.4.2. Etorkinek espainiar nazionalismoarekin bat egitea

Euskal nazionalismoarentzako beste ardura nagusi bat espainiar nazionalismoak immigrazioa bere nazio egitasmora batzeko egiten duen edo egin dezakeen saiakerarekin lotzen da. Nolanahi ere, ardura hori, garrantzitsua izanagatik, ez da gaur egungo lehentasun politiko gisa aurkezten, etorkizunean lantzeko edota kontuan hartu beharreko gai moduan baizik.

Hortaz, euskal nazionalismoak immigrazioari buruz eraikitzen duen diskurtsoan, ondoko aferak garrantzi berezia hartzen du: Euskal Herriak bere estatua –edo antzeko aitortza– ez izatearen ondorioz, immigratuek ez dutela zergatik jakin behar Espainiaz eta Frantziatz desberdina den nazio batera iritsi direla, euskal nazionalismoak aldarrikatzen duen bezala. Eta errealitate hori abertzaletasunaren asmo guztientzat galga da:

“(…) zaila da herri zapaldu bat garela konturatzea. Zapal dutako kultura, hizkuntza eta beste daukagula, eta Espainian badaude, ze integrazio emango da?” (ET: Ondarroa)

Izan ere, kontziente dira *naturaltasunez*, agian, ez dela Euskal Herriaren nazio izaera antzematen, estatu muga ofizialen eragina sakona den heinean.

Izan ere, Billigek (1995) erakutsi bezala, estatuak hainbat tresna dituzte, egunerokotasunean erabiltzen direnak, eta ageriko izaera nazionalista hartu gabe, haien nazio egitasmoa gizartean hedatzen dute, modu eraginkorrean. Estaturik gabeko nazionalismoak, berriz, bere nazioa aldarrikatzen eta modu agerikoagoan *eraikitzen* jardun behar du. Estatuak erdietsi ez duen nazionalismoak aldarrikapenezko jarrera izatera behartua dago; eta bere alde egiten duenak ere jarrera aktiboagoa izan behar du. Bestelako eraginik izan ezean, hortaz, iritsi berriari errazago zaio nazio egitasmo ofizialari (estatuak ordezkatzeko duenari) atxikitzea. Aldi berean, halere, kontuan hartzekoa da estaturik gabeko nazionalismoa hegemonikoa den eskualdeetan, harekin bat egiteko prozesua errazagoa izango dela. Halaber, estaturik gabeko nazioaren ezaugarritzat hartzen diren elementu kulturalak (hizkuntza, batez ere) gizartean posizio menperatzailea betez gero, nazio horrekiko atxikimendua errazten da. Taldeetako batean, horrela ondokoa diote arazo horri buruz:

“–Baina nire ustez [etorkin] batzuk etortzen dire, ez dakite nora etortzen diren...

–Bertze batzuk bai. Nik jakin dut adibidez brasildarrak eta perutarrek sartu dituztenak euren seme-alabak ikastolan... jakinen dute zerbait, ez? Lesaka da herri euskaldun bat...” (ET: Lesaka)

Euskal nazionalismoak, hortaz, zailagoa dauka immigranteak bere nazio egitasmora erakartzeko, bere nazio proiektua babesten duen estatua duen espainiar nazionalismoarekin alderatuz, eta problematika hori azaleratzen du, gure elkarrizketatuek egin dute bezala. Hori da, behintzat, immigrazioari buruzko diskurtso abertzalean gailentzen den iritzia; oso zabaldua dagoela dirudiena, gainera. Paradoxikoki, ildo horrekin bat ez datozenak immigrazioarekiko urruntasun handiena erakusten duten lagunak izan dira, normalean hezkuntza maila apalagokoak eta adinduak:

“Pues, por ejemplo, si se plantea alguna reivindicación seria de autodeterminación, o más autonomía, esos [immigranteak] irán

con el que más les convenga, con quien sea mejor para su situación, como es normal. No veo más problema.” (ET: Txorierri)

Izan ere, immigrazioa espainiar nazionalismoaren proiektuaren aldeko bilaka daitekeela uste dutenak sektore politizatuenak izan dira, gure ikerketan parte hartu dutenen artean. Izan ere, aurkakoa izan da gailendu den diskurtsoa; hau da, geure elkarrizketatuen artean, espainiar nazionalismoak immigrazioa bere interes politikoetara ipini nahi duela salatzen duena izan da nagusitasuna eskuratu duen ikuspegia:

“Al PP-PSOE le interesa que haya guetos, potenciar el españolismo, y ante eso necesitamos poder político, porque mientras no lo tengamos va a ser muy difícil que se planteen políticas de integración a toda la gente que venga a Euskal Herria.”
(ET: Errenteria-Orereta)

Puntu honen hasieran azaldu bezala, espainiar nazionalismoaren eraginari erakutsitako beldurra estatuaren aldarrikapenarekin lotuta dago. Horrela, estatua “immigrazioa Euskal Herriko gizartean integratzeko” beharrezko tresna gisa aurkezten da, hots, immigranteak euskal nazionalismoaren nazio egitasmoarekin bat egiteko bitarteko moduan. Izan ere, abertzaletasunak funtzio hori bete ezean, espainiar nazionalismoak egingo duela kontziente dira-eta. Beraz, Euskal Herriak bere estatua ez izatearen eraginez, euskal nazionalismoak bere burua ahultasun egoeran ikusten du immigrazioaren alorrean, beste hainbatetan bezala. Horren aurrean, abertzaletasunak bere egitekoa mugaturik ikusten du. Hau da, immigrazioan eragiteko gaitasunik gabe, euskal nazionalismoaren egitekoa beste maila batzuetara mugatzen da, testuinguruaren arabera, esanguratsuak gerta badaitezke ere: harremanak egiten saiatzea, kontzientziazioa, lan ideologikoa, teorizazioa, aldarrikapena, mobilizazioa, eta abar. Finean, erabaki eskubidea ere arlo horretan beharrezkoa dela aldarrikatzen duten ahotsak agertzen dira:

“[Euskal Herrian] No tenemos capacidad para decidir las condiciones de acogida, en una cosa tan sencilla como la ciudadanía. Es decir, la inmigración viene a un ‘país’ que es España, el cual decide las políticas de inmigración, las políticas de cupo, a qué ámbitos geográficos dirige esos flujos. Y nosotros lo único que tenemos es la aceptación, no tenemos ninguna posibilidad de decidir el cupo, no tienes ninguna capacidad de maniobra. Esto es un problema añadido, en la medida en que un problema tan sensible como el de la inmigración se puede convertir en arma política, se puede instrumentalizar en un país como el nuestro, en el que no tenemos instituciones propias ni capacidad de decisión sobre ese ámbito.” (LAB)

Finean, immigrazioan eragiteko gaitasun eza da salatzen dena. Eta *arazo* hori espainiar nazionalismoak immigrazioaz egin dezakeen balizko erabilpen politikoari lotzen zaio. Beraz, euskal nazionalismoak immigrazioaz garatzen duen diskurtso nagusian, beldur hori ez zaio gaurkotasunari lotzen, eta epe ertainerako zalantza moduan mahaigaineratzen da.

Aurrera begira, bada, immigrazioa kontuan hartu beharreko gaia izango dela iritzi zabaldua da. *Krisi ekonomikoaren* eraginez, immigrazio kopuruak apaldu badira ere, geure elkarrizketatuen artean, oro har, immigrazioak etorkizunean gora egingo duen pertzepzioa nagusi da. Hortaz, egoera horren aurrean euskal nazionalismoak jardun zehatza garatu behar duela azpimarratzen da. Zentzu horretan, Euskal Herriaren balizko autodeterminazio edo independentzia prozesu bat aipatuta, proposamen orokorrez gain, espainiar nazionalismoak immigrazioa independentziaren aurka egiteko balia dezakeela ardura nagusia da:

“(…) hemos comentado el riesgo de utilización política de la inmigración. Por ejemplo, que en un proceso de autodeterminación, se puede instrumentalizar la inmigración existente en el Estado español para poder producir un cambio

político diferente al que existiría de no existir esa inmigración. (...) En consecuencia, hay que tenerlo en cuenta en el propio proceso. Pero si no hay una instrumentalización detrás, no tiene sentido que haya trabas al derecho de ciudadanía.” (LAB)

Arreta berezia merezi du sindikalgintzak. Eremu horretan egindako sakoneko elkarrizketetan zein taldeetan parte hartu duten sindikalisten artean, ikuspegi hedatua da etorkinak Espainiako markoa hobesten duten sindikatuetera batzen direla batez ere. Hainbat arrazoi eskaintzen da egoera hori azaltzeko (UGT eta CCOOk Espainiako lan alorreko laguntzak eta ikastaroak kudeatzen dituztela, sindikatu horiek aspalditik dituztela immigratuak artatzeko bulegoak eta abar), baina azpimarratzen den ondorioa komuna da: hainbat etorkinek eragile soziopolitikoekin duten lehen harremana Espainia markotzat hartzen duten eragileekin egiteak zailtasunak dakartzkio euskal nazionalismoari. Ondoko pasarteak diskurtso horren isla argia da:

“no hacemos el ejercicio previo de las personas que vienen sin papeles, cómo conseguir papeles. Y luego tampoco tenemos un modelo sindical, como el que pueden tener Comisiones y UGT, con un planteamiento de utilización de la formación y los cursos de inserción, etc., (...) entonces tenemos un déficit respecto a la asistencia de las personas inmigrantes. No por eso creo que vayamos a cambiar el modelo sindical para que eso pueda ser posible. Pero quizás sí tengamos que resolver esa cuestión a través de organizaciones específicas que se dedican a este tipo de cuestiones, Harresiak Apurtuz y tal. Pero sí es cierto que lo que te he dicho es un obstáculo a la hora del acercamiento a la inmigración. Porque UGT y Comisiones no tienen ningún inconveniente para trabajar este tema, y cuando un inmigrante llega aquí refuerzan el concepto de que llega a España. Eso es quizás un déficit que nosotros debemos resolver.” (LAB)

Eragile sindikal abertzaleek (ELAk ere antzeko iritzia plazaratzen du UGT eta CCOO sindikatuei buruz), beraz, kontziente dira berriki iritsitako etorkinak, batez ere, euskal nazionalismoaren nazio proiektura erakartzeko duten eginkizunaz. Izan ere, lehen hartu-emanak garrantzitsua dirudi. Normalean, etorkinak harrera gizartean izan ohi duen lehen harreman *ofiziala* administrazioarekin izan ohi da (bere egoera arautzeko, adibidez), baina, lanpostuak duen zentraltasunaren eraginez, batzuetan sindikatuen egitekoa ere esanguratsu bilakatzen da. Edonola ere, immigrazioaren kudeaketa estatuaren eskuduntza denez, Espainiako estatuko erakundeekin izan da lehen kontaktu ofiziala. Prozesu horretan, bada, estatuko hizkuntza erabiliko da, eta bestelako tresnen bidez (dokumentu ofizialetako sinbologia, immigratuari helarazitako informazioetan ageri diren mapak eta abar) ere estatuaren nazioa hedatuko da, intentsitate desberdinarekin (ik. Zapata-Barrero, 2008).

6.4.3. *Gizartean xenofobia areagotzea*

Immigrazioaren aurkako jarrera gai konplexua da. Immigrazioaren aurkako iritzia forma desberdinak har ditzake, ageriko eta arrazistenetatik ezkutuenetara arte. Izan ere, *bestetasunarekiko* urruntasuna erakustea fenomeno zabaldua da gizabanako nahiz kolektiboetan. Gainera, nazionalismoaren ezaugarritzean, bestetasunarekiko hartu-eman kontraesankor horrek ondorio sakonak ditu (ik. 1.2. puntua).

Bada, euskal nazionalismoak immigrazioaz eraikitzen duen diskurtsoan, Euskal Herriko gizartean immigrazioak jarrera eta erreakzio ezkorak sortzen dituela-eta, ardura handia da. Hau da, gure elkarrizketatuen artean, Hego Euskal Herrian immigrazioaren aurkako jarrerak geroz eta zabaldago daudela dioen diskurtsoa nagusi da. Ondoko pasartea gure ikerketan parte hartu dutenen artean zabaldutako arduraren adierazgarri da:

“Zailtasunak dire nola ulertarazi jendeari kanpotik etortzen dana, immigrantea dana, ez dala etortzen gure lanpostua kentzera, ez

dala etortzen gure gizarte ongizatea kaltetzera edo kentzera, baizik eta aportatzera. Eta hemen daude mito asko, komunikabideek daukate batez ere, nire ustez, errua (...).” (Aralar)

Hortaz, elkarrizketatuak kontziente dira immigrazioari buruzko aurreiritzi batzuek izandako arrakastaz. Halere, immigrazioaren aurkako jarrera ez da hegemonikoa Euskal Herriko gizartean, berau ez da *bereziki* xenofoboa. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, esaterako, biztanleen %15,5ek immigrazioa *arazotzat* ikusten duten arren, %2,8k diote euren lehen arazoa dela (Ikuspegi, 2011b). Baina, aldi berean, badirudi zenbait aurreiritzik nolabaiteko arrakasta soziala ere lortu dutela: %57rentzat, kasu, Euskal Autonomia Erkidegoan immigrante gehiegi dago (Alkorta, 2011: 61) (ik. 4.2.1. atala).

Beraz, gure elkarrizketatuek ere gizartean immigrazioaren aurkako jarrerak lekua irabazten ari direla uste dute. Ardura handia erakusten da afera horri dagokionez:

“Askotan jendeak uste du, eta uste horiei aurre egin behar zaie, etorkinak besteek baino eskubide gehiago dituztela etorkin izateagatik, eta hori benetan guk uste baino askoz errotuago dagoen diskurtsoa da.” (EA)

Diskurtso hori gizartean hedatzeko arrazoiei dagokienez, gai desberdinak azpimarratzen dituzte ikerketan parte hartu dutenek. Batetik, diskurtsoan oso agerikoa da, autokritika moduan agertuta, elkarrizketatuek immigranteekin hartu-eman oso gutxi dituztela azaltzen dute. Horrekin batera, hala ere, urrunagora ere jotzen da, eta erakundeen lana edota komunikabideak aipatzen dira:

“(...) badago faktore bat kontuan hartzeko, dela komunikabideek jokatzeko duten papera. Pizten duzu telebista ta matxakatzen dizute... (...) egin dutela mobida bat de la ostia, dagoela kriston gataska soziala, beti immigrazioarekin. Kataluniako herri batean

ez dakit zer. Eta beti ikusten dut tertuliak ari direla solasean, ta ematen du badela gatazka bat izugarria, ta beti jartzen duten irudia da exaltatua, beti ‘es que vienen aquí’, ‘kentzen dizkigute gure laguntza sozialak’, ez dakit zer, ‘guk hemen ez dugu etxebizitzarako eta etortzen dire kanpotikan eta beraiei ematen diete etxea’... Beti azpimarratzen duten ikuspuntua da da hori (...) hori ere da faktore bat...” (ET: Lesaka)

Zentzu horretan, immigrazioa eta egoera sozioekonomikoa modu estuan lotzen dira elkarrekin. Izan ere, immigrazioaren aurkako aurreiritzien eta xenofobiaren oinarrian, ikerketako partaideek arrazoi sozioekonomikoak azpimarratzen dituzte. Hau da, euren aburuz, arrazakeria ekonomiko batez ari gara, batez ere. Esaterako:

“Recogiendo un poco lo que se vive en la calle... Hemos pasado ahora unos años de boom económico, y la gente aceptaba, vivía como algo positivo que viniera gente de fuera a trabajar y tal. Pero ahora la gente empieza ‘qué pasa, esta gente está cobrando aquí y nuestros hijos en el paro’. Entonces, se está viendo esto como un problema, y luego hay empresas, en concreto en la construcción, que les sale más barato traer portugueses a las obras y tal. Entonces, si que hay una sensación entre la gente que se está poniendo en contra, con la situación económica y tal.” (ET: Errenteria-Orereta)

Hizpide dugun immigrazioa ekonomikoa denez, immigrazioaren irakurketa ekonomikoa da, neurri handi batean, egiten dena. Eta ikerketan agertzen den bezala, irakurketa ekonomiko hori aurreiritzietan eta klase ikuspegi zehatzetatik (klase kokapen zehatza duten immigranteen aurka eginez, edota bazterkeria sozialaren erantzuleztat etorkinak eurak hartuz, adibidez) egiten da. Errealitate horren adibidetzat, ondoko datua aipa daiteke: Araba, Bizkai eta Gipuzkoako biztanleen %60,8k uste du immigrazioak langabezia

areagotzen duela (Alkorta, 2011: 64). Pertzepzio hori modu agerikoan faltsua izan arren, bere arrakasta soziala handia dirudi.

Nabarmentzen ari garen ardura edo beldur hori gizarteko alor ugartan antzeman daitekeela dirudi, eta ez, bereziki, euskal nazionalismoaren baitan. Hau da, diskurtsoan ugaria den beldur horrek gizarte osoari egiten dio erreferentzia. Alta, ez dago adostasunik euskal nazionalismoaren gizarte oinarrian immigrazioaren aurkako iritzi horiek nagusi diren baieztatzeko garaian. Izan ere, iritziak kontrajarriak dira afera horretan. Alde batean, horrela, batzuek euskal nazionalistak immigrazioarekin irekiagoak direla defendatzen dute (espainiar nazionalistak baino, edo bi multzo hauetatik at gera daitezkeenak baino): “Nire pertzepzioa da jende abertzaleak badakala mentalidade irekiago bat” (ET: Errenteria-Orereta). Ziur aski, kasu horretan, ezkerreko abertzaleez ari bada ere, badirudi immigrazioarekiko “irekiagoak” izatearen oinarrian, abertzaletasuna baino, klase soziala eta horri lotutako kapital kulturala jartzen dela. Izan ere, baieztapen hori (“abertzaleak immigrazioarekiko irekiagoak direla”) funtsatzeko ondoko arrazoibideak eskaintzen dira: asko bidaiatzea, beste kulturekiko interes handiagoa izatea, eta abar. Horrela, beste aldean, aurkako ikuspegiak ere islarik badu gure elkarrizketatuen artean:

“Ez dut uste desberdintasunik dagoenik abertzaleen eta espainiar nazionalisten artean. Nik uste dut azkenean pertsona bakoitza dela, bakoitzak beldurrak ditu, bere ideologiaren gainetik. Hori da indibidualismoaren oinarria, sistema kapitalista honek bultzatzen duena. Eta hortik datoz beldurrak. Eta abertzalea edo ez? Bueno, ba bai, denak gara oso aurrerakoiak, denak gara oso irekiak, baina gero hori pertsonaz pertsona aldatu egiten da. Oso inportantea da immigrantek ezagutzea, eta orduan bai aldatu egiten direla beldur horiek.” (Aralar)

Hortaz, euskal nazionalismoa immigrazioarekiko jarrera xenofoboak izateaz ez da salbatzen, bigarren iritzi ildo horren arabera. Izan ere,

immigrazioarekiko jarreran, funtsezkoa da etorkinekiko gertutasuna, eta geure elkarrizketatuek nabarmentzen dutenez, euren eta etorkinen arteko hartu-emanak ez dira, oro har, batere ugariak (salbuespenak daude, Ondarroan gertatzen den bezala). Zentzu horretan, geure ikerketan, goian aipatu ditugun immigrazioari buruzko aurreiritzi horiek ere agertu dira, politizazio maila baxueneko eta adin altueneko kideen artean, batez ere. Ondoko kexak, adibidez, horren isla dira: “¡Si los de fuera reciben muchas más ayudas que los de aquí!” (ET: Txorierri). Izan ere, gizarte laguntzen gaiak zentraltasuna eskuratzen du immigrazioari buruzko aurreiritziei dagokienez, baita geure elkarrizketatuen artean ere (mota horretako aurreiritziak defendatzen dituztelako edo, aitzitik, estereotipo horien arrakastarekiko ardura adierazten delako). Gogora dezagun uste horrek hedapen handia lortu duela; Euskal Autonomia Erkidegoan, horrela, %68,8 dira etorkinek gizarte babeserako sistemaren laguntza gehiegi jasotzen dutela uste dutenak (Ikuspegi, 2011b). Ondoko pasarteak ere pertzepzio sozial hori –eta horrek sortzen duen ardura– mahaigaineratzen du:

“Askotan nik pena haundia sentitu izan dut, pena, amorrua, eta sua nire barruan, babes ofizialeko etxebizitzak zozketatzerakoan arabiar bati pisua tokatu ezkeror denak txistuka hasten ziren. Baina jende asko. Bueno, niri horretaz hitz egiteak ia lotsa ematen dit. Hau da, hemen kriterio batzuk daude, eta hemen enpadronatuta badago eskubidea dauka, ya está. Hainbeste jendek gai horien inguruko ignorantzia izatea, ba penagarria iruditzen zait.” (EA)

Aurreiritzi horien guztien atzean, egoera sozioekonomikoaren ondorioez gain, klase ikuspegi zehatza ere badago. Izan ere, immigrantea klase kokapen batekin lotzen da, gizarte estratifikazioko posizio baxuenekin, alegia. Eta *neoliberalismoa* dei daitekeenaren eraginak sumatzen dira immigrazioa, laguntza sozialak eta azken hauek porrotarekin edota alferkeriarekin lotzen direnean, gizarte sistemaren banaketa desorekatu eta injustuarekin baino. Horrela, etorkinaren aurka ez etorkina izateagatik, baizik eta batik bat bere klase kokapenagatik ekiten dela adierazten da, batzuetan:

“Si vinieran inmigrantes millonarios seguro que nadie ponía ninguna pega, pero la mayoría de la gente viene en una situación económica, social y laboral bastante floja, tienen que pasar por bienestar social, y hay se da la utilización política por parte del Estado. Me preocupa que pueda haber una reacción de sectores más conservadores con el mensaje ese populista en contra: ‘fuera los inmigrantes, tenemos que trabajar nosotros’, y eso sí me preocupa, aparte de las influencias culturales que pueda haber, esa opinión en la calle que dice ‘qué hace aquí tanta gente de fuera habiendo tanta gente en el paro.’” (ET: Errenteria-Orereta)

Beraz, egoera ekonomikoaren okerraldiak, laneko prekariedade eta behin-behinekotasunaren hedapenak zein langabeziak immigrazioaren aurkako iritzi horiek indartu ditzaketela azaleratzen da, behin eta berriz, gure ikerketan parte hartu dutenen artean. Egoerak okerrera jarraitzen badu, ondorioz, immigrazioaren aurkako diskurtsoak zabandu daitezkeela uste da, eta immigrazioaren erabilpen politikoa ere orokortu daitekeela¹⁵⁹. Gainera, Europako zenbait herrialdetan eskuin-muturra edo eskuineko populismoa, haien diskurtsoa immigrazioaren aurkako jarrerari lotuz, lortzen ari den eragina ere zalantzak sortzen ditu gai honi buruz aritzerakoan. Ondoko pasarteak gure ikerketako partaideen artean, modu batean edo bestean azalduta, azaleratu den ezinegonaren isla dira:

“Uste dut arrazismo estrukturala dagoela, guk eraikia, eta batez ere eskoletan ikusten dena. Etorkin guztiak, edo ijitoak, eskola batzuetan biltzen dira, besteetan ez dugulako etorkinak egotea. Hori arriskutsua da, eta Europan jarrera horren ondorioak argi ikusi genitzake. Arazo hori larria da, eta uste dut zalaparta asko sortuko duela aurrerago.” (EA)

¹⁵⁹ Euskal Autonomia Erkidegoan gerta daitekeen immigrazioaren erabilera politikoa ondoko artikulua honetan aztertzen da: Fernández, June: “La tentación de usar la inmigración para ganar votos asoma en Euskadi”, *eldiario.es*, 2012-05-31, hemen eskuragarri: <http://www.eldiario.es/zonacritica/2012/05/31/la-tentacion-de-usar-la-inmigracion-para-ganar-votos-asoma-en-euskadi/> (2012-06-08an begiratu).

Edonola ere, ez dugu ahantzi behar immigrazioari loturiko gatazkarik ez dela gertatzen Hego Euskal Herrian. Hedabideetan immigrazioa modu estigmatizatuan landu arren, eta pertzepzio sozialean, neurri batean, *immigrazio gehiegi* dagoelako irudia nabarmendu arren, errealitatean Euskal Herrian ez da jatorriaren araberrako gatazka sakonik jazotzen. Immigrazio tasak baxuak dira, Espainiarekin zein Europako mendebaldeko herrialdeekin alderatuz; eta immigrazioarekiko tolerantzia indizeek ere immigrazioaren aurkako jarrerak hegemonia eskuratu ez duela erakusten digute (adibidez, ik. Ikuspegi, 2011b; Oleaga, 2011). Beraz, badirudi immigrazioaren atzerritarren eta, finean, desberdina denaren aurkako jarreraren hedapenak ez lukeela euskal nazionalismoaren immigrazioari buruzko diskurtsoan leku berezirik izan behar. Gai horrekiko elkarrizketatuen artean, oro har, sumatutako ardura, berriz, esanguratsua iruditu zaigu, ezbairik gabe kontuan hartu beharrekoa.

6.4.4. *Euskararen integrazio funtzioa, zalantzan*

Euskara funtsezko osagaia da euskal nazionalismoak euskal nazioaz egiten duen irakurketan. Horrela, euskara, abertzaleei soilik ez badagokie ere, gai esanguratsua da euskal nazionalismoak jorratzen dituen arlo guztietan, eta baita immigrazioan ere, geure elkarrizketatuen iritziek nabarmendu duten moduan. Hala ere, ardura horrek hainbat forma hartzen ditu, eta hitz desberdinez adierazten da.

Gorago aztertu dugun bezala (ik. 2.4. puntua), euskal nazionalismoak aldarrikatzen duen nazioa zedarritzerako garaian, euskara elementu nabarmenatariko da. Halaber, gure ikerketan gailentzen den diskurtsoaren arabera, euskal nazionalismoak euskarari paper esanguratsua egozten dio immigrazioa lantzerakoan; baina, aldi berean, hizkuntzaren gainetik helburu politikoak eta, beraz, barauk eskuratzeko prozesua dago. Horrekin batera, eta arreta euskararengan ipiniz, geure ikerketan nagusitu den diskurtsoa izan da immigrazioak euskararengan duen eragina erlatibizatzeke joera: euskararen

egoera objektiboki ahula izaki, ez da immigrazioak euskararengan izan dezakeen eragin negatiboa gehiegi azpimarratzen, oro har.

Euskara eta immigrazioa elkarlotzen dituen diskurtsoak beste aspektu bat azpimarratzen du, hizkuntzaren integrazio funtzioa, alegia. Izan ere, immigrantea iristen den gizartean egin beharreko egokitze prozesuan – *integrazione* izena hartu ohi duenak–, hizkuntza behar-beharrezkoa izan ohi da; hau da, herrialde bateko gizartean txertatzeko, bertako hizkuntza jakitea bultzatu eta eskatu ohi da. Hizkuntzak, ondorioz, ukatu ezin daitekeen funtzio soziala betetzen du immigratuaren integrazio prozesuan. Herrialdeko hizkuntzak bat baino gehiago direnean, baina, afera zailtzen da; are gehiago, hizkuntzetako bat estatuarena denean, eta bestea estatuko eremu batean soilik mintzatzen denean. Etorkinaren integrazioaren ikuspegitik, hizkuntza nagusia, gizarteko eremu guztietara edo gehienetara (harreman sozialak, enplegua, administrazioarekiko harremanak, bizitza kulturala eta abar) txertatzeko baliagarri dena, ezinbestekoa da integrazio sozial osoa eskuratzeko; ez, ordea, hizkuntza gutxitua. Finean, gogora dezagun etorkinarentzat egiturazko integrazioa (egitura sozialari dagokiona) behar-beharrezkoa den bitartean, integrazioaren bestelako aspektuak (integrazio kulturala, politikoa...) lagungarriak direla, baina ez berebizikoak.

Errealitate horrek, bada, zailtasun nabariak dakartzkio euskarari nahiz immigrazioa integratzeko haren funtzioari; eta arazo horrek esangura berezia eskuratzen du euskal nazionalismoaren immigrazioari buruzko diskurtsoan. Izan ere, euskal nazionalismoak euskarari aitortzen dion esanahiaren eta immigranteak hizkuntza horri aurreikus diezaiokeen funtzionaltasunaren arteko aldea handia eta agerikoa da. Euskal nazionalismoarentzat, euskara nazio hizkuntza da, nahiz eta, hizkuntzaren egoera ahula dela-eta, euskara jakiteko betekizuna baino, haren aldeko jarrera ipintzen den abertzalearentzako zein euskal herritarrarentzako betebeharraren moduan. Edonola ere, euskal nazionalismoak arlo horretan garatzen duen planteamendu teorikoaren eta praxiaren arteko aldea handia da.

Euskara immigrantea Euskal Herrian integratzeko beharrezkoa ote den galdetuta bada, elkarrizketatuek hasieratik azpimarratzen dute autoktono gehienek ere ez dutela hizkuntza menperatzen. Izan ere, Euskal Herrian “euskaraz %30ak dakigu, eta beste guztiek ez dute esaten integraturik ez daudenik.” (EA). Hortaz, hori azpimarratuta, aho bateko erantzuna da “nola eskatuko diegu etorkinei euskara ikas dezaten bertakoek ez baldin badakite?”. Ondorioz, arlo horretan nahiko ikuspegi malgua topatu dugu, euskal nazionalismoaren planteamendu teorikoarekin talka egiten duena, baina bere praktikaren koherentea dena, aldi berean. Galdera horri emandako erantzunetako bat, gai horretan topatu dugun posizioa laburbiltzen duena, ondoko hau da:

“Ez, ez dugu esaten hori, eh? Ez, ez da jakin behar [azken hitza azpimarratuz], baizik eta egin behar dena da euskara ez izatea oztopo bat etorkizunean. Jende askok ez du jakingo, eta jende askok gaur ere ez daki, baina abertzaleak dire. (...) Sentimentuak errazago hartzen direla herri baten hizkuntza ezagutzen baduzu? Bai. Orduan euskarak laguntzen du integratzeko? Jende askok ez du jakingo euskara etorkizunean, baina ez dute oztoporik izango Euskal Herriko biztanleak izateko. Orduan, ez dut uste jakin behar [azken hitza azpimarratuz] dala derrigorrez, baina nik uste dut jakitea erreztuko lukeela. Asko.” (Aralar)

Pasarte honetan, euskararen paperari buruzko diskurtsoan azpimarratzen diren zenbait aspektu agertzen dira, eta baita diskurtso horretan nabari den nahasmena ere. Izan ere, euskara Euskal Herrian *integratzeko* mesedegarria bada ere, ez zaio hizkuntzari obligazio kutsua aitortu nahi. Euskara betebeharrarekin lotu dadila ekidin nahi da, ikerketan parte hartutakoen artean. Halere, aldi berean, elementu garrantzitsutzat hartzen da euskal naziotasunaren ezaugarritzean. Hortaz, kontraesana agerikoa da euskal nazionalismoak euskarari egozten dion egiteko garrantzitsuaren (euskal naziotasunaren hauspoa izatea) eta, ondoren, berekiko garatzen den planteamendu malguaren artean.

Euskarak etorkinak Euskal Herriko gizartean integratzeko bete lezakeen papera, beraz, zalantzan jartzen da. Izan ere, diskurtsoan euskararen zentraltasuna ukatzen duten jarrerak ere agertzen dira, diskurtso nagusia osatzen ez badute ere. Lehenik, horrela, euskara Euskal Herriko inguru euskaldunenetan soilik garrantzitsua dela azpimarratzen da, ez lurralde osoan:

“Depende de dónde vivas [euskara garrantzitsua da]. En Ondarroa, todo mundo habla euskera, y aquí ni nosotros.” (ET: Txorierri)

“Lekuaren arabera. Amezketan pakistandar bat iritsiko da eta bi urtetan euskaldunduta egongo da, eta beste lekutan? Ba ez dakit. Nik uste dut ezin zaiola eskatu etorkin bati euskara ikastea hemen integratzeko, badaude beste elementu integratzaile batzuk. Gasteizetaz ari naiz, eh? (EA)

Beraz, inguruaren eragina azpimarratzen da. Eta horrekin batera, berriro diogu, euskara ez da ipintzen immigranteen integrazio prozesuaren gune moduan. Lagungarria da, baina ez da *beharrezkoa*. Izan ere, euskarari buruzko diskurtsoan zuhurtzia nabari da, kontuz ibiltzeko nahia.

Bigarrenik, hizkuntzak naziotasuna hedatu eta finkatzeko izan dezakeen zentraltasunari buruzko zalantza ere mahaigaineratzen da: nahiz eta ildo nagusiak euskararen egitekoa azpimarratzen duen, beste iritzi batzuek euskarak naziotasunerako duen indarra zalantzan jartzen dute. Izan ere, denek onartzen dute euskararik jakin gabe, norbait euskal nazioko kide izan daitekeela, eta baita abertzalea ere; eta, beraz, etorkinari ezin zaiola euskara ikastera derrigortu. Baina beste aspektu bat ere aipatzen da: euskarak ez darama berarekin, berez, euskal naziotasunarekiko atxikimendua, euskara jakin liteke-eta euskal nazioko kide sentitu gabe:

“–Es muy positivo que la chavalería estudie, el 80%, en el modelo D, la inmigración de fuera se irá integrando así.

–Ya, pero yo trabajo en una escuela, casi todos en modelo D, o B, saben hablar euskera, ipero son más españoles que la...!

–Hombre, también tienes que entender que ser español es una opción política...

–Quería decir españoles culturalmente, la música que oyen, la forma de vida... no lo quería decir despectivamente, sino que culturalmente se sienten españoles.” (ET: Errenteria-Orereta)

Eztabaidak eztabaida eta zalantzak zalantza, hala ere, kontraesan handiekin, euskarak esangura handia eskuratzen du euskal nazionalismoaren diskurtsoan, eta gai garrantzitsu moduan mahaigaineratzen da immigrazioari dagokionez. Izan ere, azpimarratzen den beste ideia bat da norbait –etorkina, kasu honetan– euskalduntzen denean, *plus* bat aitortzen zaiola. Hau da, immigrazioaz hitz eginda, euskalduntzea *integratio osoaren* sinonimotzat jotzen da:

“(...) euskaraz hitz egitea integratio modurik hoherena da. Finean, inork ez diolako ukatuko [etorkin bati] pertenenzi sentimendurik, edo pertenenzia bera, euskaraz hitz egiten azaltzen bada.” (EAJ)

Halako kasuetan, immigrantea eredu bilakatzen da. Eta ez bakarrik gainontzeko etorkinen aurrean, baita bertakoen aurrean ere:

“Euskara funtsezkoa da. Badago hemengo [Euskal Herriko] jendea, euskaraz dakiena, eta bere semeei ez diena euskara egiten! Hori bai ez dudala ulertzen! Eta oso jende majoa da, eh? Eta gero beste batzuk kanpotik etorri eta euskaldundu, hiru edo lau urtera, eta hori bai poza!” (ET: Ondarroa)

Izan ere, prozesu hori gertatzen da hizkuntza gutxitu edo txikiekin: bizitza sozialerako ezinbestekoak ez direnez, ikuspegi praktikotik ahulak diren

bezala, pertenezia sentimenduaren eta identifikazio sortzaile gisa, aldiz, indartsuak dira. Hala ere, horrekin batera, euskara integrazioarako beharrezkoa ez dela azpimarratu egiten da: lagungarria da, baina ez ezinbestekoa:

“(…) euskara ez da baldintza bat integratzeko, baina baldin badaukate bai da ziurtagiri bat. Eta guk, abertzale bezala, ez dut inolako zalantzarik horren bila joan behar dugula.” (EAJ)

Hortaz, diskurtso horretatik ateratzen ondorio da euskal nazionalismoak immigrazioa euskarara hurbildu nahi duela, bere ustez hizkuntza funtsezko elementua delako, baina, aldi berean, zuhurtziaz jokatu behar duela azpimarratuta. Ondorioz, adierazten da “totem horiek [euskara eta integrazioa lotzea] malgutasunez hartu behar ditugula, eta ez hain era kategorikoan hitz egin.” (EA). Geure elkarrizketatuen artean, beraz, euskarak migratzaileen integrazioa ziurtatzen du, baina, aldi berean, ezin da exijitu hura ikastea.

Horrekin batera, afera garrantzitsua da erantzukizunarena. Hau da, euskararen egoera ikusita, okerrera egitearen erruduntzat etorkinak jo daitezke? Gai hau, nagusiki, eragile abertzaleen artean immigrazioaren gaia lantzen dutenek aztertzen dute. Izan ere, gizarteko sektore batzuetan gai horrek sor dezakeen arduraz¹⁶⁰ kontziente direla dirudi, etorkinari euskararen egoeraz errua botatzea ekidin behar dela azpimarratzen baitute:

“para participar de forma plena en el ámbito social del país, en Euskal Herria, necesita tener conocimiento de la cultura y la lengua vasca. Ese es un planteamiento de incorporación, o de integración, que se podría hacer desde las instituciones públicas. En realidad el problema no lo tiene la persona que llega de otro país que no sabe euskera, sino que tampoco hay instrumentos para que pueda, en un tiempo relativamente corto, participar de esa realidad social. Entonces, evidentemente no es que sea una

¹⁶⁰ Nahiz eta, berriro esango dugu, gure ikerketan parte hartu dutenen artean, ardura hori ez den nabarmendu.

exigencia por nuestra parte, sino que participar en una sociedad requiere el conocimiento de las lenguas, o la lengua, de esa sociedad. Puede que se vea ese como un problema, y no estoy en plan defensivo, en países como Cataluña o Euskal Herria, pero no se ve como problema ni en Andalucía, ni en Alemania, ni en ningún otro sitio. No hay dificultades específicas en Euskal Herria que no las haya en Andalucía o en Cataluña.” (LAB)

Gainera, goiko pasartean adierazten den bezala, euskararen gaia *arazo* moduan ikus daitekeela adierazten da. Izan ere, elkarrizketatu gehienek erakutsi dute, modu batera edo bestera, horri buruzko zalantza; eta gai horretan zuhurtziaz jokatu behar dela azpimarratzen da. Hala ere, diskurtsoan nagusitzen den ideia –batez ere immigrazio gaietan dihardutenek azpimarratzen dutena– zera da: euskararen egoeraz errua etorkinari botatzea akatsa dela.

Mota horretako *arazoak* ekiditeko, beraz, epe ertain-luzeko proposamenak egiten dira, batez ere hezkuntza sistema baita aipatzen dena. Izan ere, etorri berri gehienek euskararik ez dutela ikasiko onartzen da, eta *itxaropena* seme-alaben gain jartzen da:

“Noski euskarak laguntzen duela integrazioan, baina benetan diot, nik ez dut uste lehen generazioko etorkinentzat beharrezkoa denik. (..) Baina egia da bigarren eta hirugarren generazioetan euskara guztiz elementu integratzaile beharrezkoa dela.” (EA)

Hortaz, immigrazioarekiko ardura esanguratsu bat eremu zehatz honetan topa dezakegu: immigranteek euskara ez ikastea onartzen da, Euskal Herriko gizartearen gehiengoa euskaldun ez den bezala (beste gauza bat da errealitate hori eraldatu nahi izatea), baina haien seme-alabak euskalduntzeari berebiziko garrantzia aitortzen zaio.

Diskurtso horrek, bada, bi alderi erreferentzia egiten die. Batetik, agerikoagoa den bezala, euskarari etorkizunari eta harrera gizarte euskaldun zein euskaltzalearen ardurei loturik dago: arazoa izan liteke Euskal Herrian gazte belaunaldi erdaldun gehiago sortzea. Baina, bestetik, immigrazioari gehiago estekatzen zaion bigarren aspektu bat dugu. Izan ere, euskarak kokapen sozialarekin eta mugikortasun sozialarekin lotura estua ere badu: lanpostu zehatz batzuetan (administrazioa, irakaskuntza, jendaurreko lan batzuk...) beharrezkoa da euskaraz jakitea; eta, hizkuntza ez jakitea, lan eremu eta kokapen sozial zehatz horietara iristeko oztopo gisa ikus daiteke. Prozesu hori, immigranteekin berekin baino gehiago, batik bat beren seme-alabekin gerta daitekeela uste da.

Ondorioz, dirudienez, aurreikusten diren arazo horiek ekiditeko, etorkinen ondorengoak euskaldundu beharra azpimarratzen da:

“Azkenean, orain jende askok gorrotatzen du Euskal Herria, gorrotatzen du abertzaletasunaren planteamentuak, bere bizitzan euskara oztopo bat dalako. Adibidez, lanpostu bat aurkitzeko, horretaz adibide asko euki ditugu. Hori ezin da gertatu hemendik 20 urtera, ezin da gertatu, immigrazio berri honekin. Horregatik, euskara oztopo batean bihurtzen bada, txarto goiaz, eta orduan saiatu behar gara ba etortzen diren guztiak zuzenean euskara ikastera. Denak zuzenean. Bestela hemendik 20 urtetara egongo gara orain gauden moduan. Eta etorkin berriak ba horrela jasoko dute euskara eta horrela izango dute abertzaletasunaren planteamentuak.” (Aralar)

Euskararekiko mesfidantza nahiz herra euskal nazionalismoaren aurkako jarrerarekin lotzen da, zalantzarik gabe. Eta, horrelako jarrerak aldatzea oso zaila ikusten denez, abertzaleek etorkinen –zein halako jarrerak dituztenen– seme-alabengan jartzen dituzte beren itzaropenak. Finean, immigrazioari buruzko diskurtso orotan, immigratuaren barneratzea, egokitzea izaten da

helburutzat; jarraian, arreta immigranteen integrazioaren gai korapilatsuan jarriko dugu.

6.5. Kulturari buruzko eztabaida: etorkinen integrazioa

Azken hamarkadetan immigrazioari buruzko eztabaidan kulturak garrantzi handia eskuratu du. Izan ere, immigrazioari buruzko azterketen ardura esanguratsu bilakatu da, European bederen, immigrazioak sortutako gizarte multikulturala. Gainera, nazionalismoaren aldetik ere kultura afera nabarmena da, nazionalismoak bere nazioa ezaugarri kultural jakin batzuei lotuta zedarritu ohi baitu. Jarraian, bada, abertzaleek immigrazioaz garatzen duten diskurtsoan azpimarratzen dituzten gai kulturalak behatuko ditugu: immigranteen integrazioa, multikulturalismoa, hezkuntza sistema eta, azkenik, erlijioa.

6.5.1. *Integrazioaren hamaika aurpegiak*

Immigranteen integrazioa kontzeptu eztabaidatua da, eta immigrazioari buruzko ikasketetan asko jorratu da. Izan ere, egile batzuentzat kutsu ezkorra du, eta alboratu beharreko kontzeptua da; baina, aldi berean, nolabaiteko arrakasta soziala lortu du: immigrazioaz hitz egitea, integrazioaz aritzea da, neurri batean. Hala ere, egia da azken aldian gero eta modu kritikoagoz behatzen zaiola *immigratioari*, eta, horren orde, gero eta gehiago erabiltzen da kultura-artekotasun kontzeptua (ik. 3.2. puntua).

Edonola ere, garrantzitsua da integrazioak erreferentzia gizarteko bi alderdiri egiten diola: harrera gizarteari eta immigranteei. Eta integrazioaren definizio erabilienean erakusten digutenez, integrazioa bi alde horiei dagokien prozesua da, aldebiko izaera duena, beraz. Errealitate horretaz jabetzeak, baina, ez gaitu ondokoaz ahaztera eramane behar: integrazioak kokapen sozial desberdina duten aldean arteko prozesua da; eta botere-harreman bat dago horren atzean. Finean, integrazioa harreman edo prozesu asimetriko bat da,

etorkinak egiten dituen ahaleginak ezin baitira inolaz ere parekatu harrera gizarteak, teorian, egin behar dituenekin.

Nolanahi ere, integrazioa kontuan hartu beharreko kontzeptua da, eta gure elkarrizketatuen artean, maiz agertu da, bere arrakasta sozialaren erakusle. Kontzeptua erabiltzeak, hala ere, ez du esan nahi modu bakarrean ulertzen denik. Aitzitik, gure taldeetan adiera desberdinak atxiki zaizkio integrazioari. Orokortuz, eragileetako immigrazio arduradun gehienek kontzeptuari buruzko hausnarketak eta zalantzak plazaratu dituzte, immigrazio gaien aritzen direnen artean gertatzen den bezala:

“Integrazioa... hitz oso mamitsua da, ez? Gauza bat da kontzeptu hori nola ulertzen dugu, eta bestea, hori lortzeko ze neurri hartu behar diren. Gehienetan, jendeak integrazioaz hitz egiten duenean, asimilazioaz hitz egiten du. Hau da, kultura minoritarioak bere egin behar du kultura maioritarioa. Eta hori ez da modelo integratzaile bat, hori asimilazionista da.” (EA)

Eta eztabaida-taldeetan ere mota horretako iritziak jaso dira, integrazio kontzeptuaren higaduraren erakusgarri, agian:

“sozialki begiratuta, niri hor ematen dit beldurra integrazio hitza erabiltzen denean, ze ematen du esaten dugula ‘zu nire herrira zatoz eta egingo dezu nik esaten dudana’. Eta da kontzeptu bat ez dudala batere maite, nahiago dut elkarbizitzaz hitz egitea.” (ET: Errenteria-Orereta)

Izan ere, integrazioaren adiera hori, integrazioa asimilazioarekin parekatzen duena, oso zabaldua dago. Azkenean, *integrazioa* erabiltzeko dugun moduak immigrazio gaien bilatzen den helburua azaleratzen du, neurri batean; eta, hainbatetan, integrazioa asimilazioaren sinonimo moduan erabiltzen da. Orduan, egokitzapen prozesua etorkinari dagokio soilik, eta harrera gizarteak ez du ia egitekorik. Asimilazioaren diskurtso hori, gaur egun, ez da *politikoki*

zuzena; adibidez, ez da asimilazioa aldarrikatzen, normalean. Baina kontzeptu hori ez aldarrikatzeak ez du esan nahi bere esanahiaren alde ez egiteak. Esaterako:

“–Lo que tienen que hacer [los inmigrantes] es amoldarse a las normas de aquí, que eso no lo hacen ellos ni los que vienen de Salamanca ni los gallegos. Y eso es lo que tenían que hacer, todos. Por lo menos no renegar de estos, ‘yo tengo mi pueblo, mi nación’...”

–Es que no se integra ninguno, ni estos [etorkin berriak] ni los españoles tampoco.” (ET: Txorierri)

Esan dugunez, immigrazio gaietan aritzera ohituta daudenek asimilazioa, integrazioa, multikulturalismoa... bezalako kontzeptuak desberdintzen dituzte, baina eremu horietatik at, kontzeptuen arteko nahasmena oso handia da. Horrela, immigrazioarekiko jarrerari loturik garatu da, gure ikerketan parte hartu dutenen artean, integrazioaren adiera bat edo bestea; eta integrazioaren esanahi asimilazionista immigrazioarekiko jarrera itxiei lotuta adierazi da.

Iritzi desberdinak azaleratu dira, hortaz; eta integrazio kontzeptuarekiko zalantzak ere azpimarratu dira, ikusi dugunez. Adibidez, parte hartzaile batzuek hitza erabili dute, eta aldi berean kontzeptuarekiko zalantzak azpimarratu dituzte. Edonola ere, gure ikerketan parte hartu dutenen artean, integrazioaren adiera konplexuago bat nabarmendu da, eta alde bikotasunaren ideiarri bide eman zaio:

“(…) izugarri inportantea iruditzen zait beraiekin harremana edukitzea, gure kultura, hizkuntza, komunitatera erakartzeko, auzoan, fabrikan... eta ez dakit horri nola deitu, akoplatu, adaptatu, integratu, nahi duzun bezala, baina beraiek ere zerbait egin behar dute, eta guk ere, bertakoak bezala.” (ET: Errenteria-Orereta)

Izan ere, integrazioak bi alderen arteko harremanari egiten dio erreferentzia; hartu-eman asimetriko bati, aipatu dugunez. Zentzu horretan, *integrazioaz* hitz egin edo berau aldarrikatzen den arren, gure taldeetan nabarmendu den kexa izan da etorkinen eta bertakoen arteko harremanak oso urriak direla. Erlazio gabezia horren egiaztapena argia izan da, eta baita egoera horrek edozein integrazio prozesu oztopatzen duela ere.

Harremanen mailan, arazo nagusi horrekin batera, bertakoen jarrera ere aipatu da. Izan ere, immigranteari atxikitzen zaion estigma eta horri loturiko aurreiritzien eraginez, etorkin ez direnek migratzaileekin harremanak izateko mesfidantza erakutsi ohi dutela azpimarratzen da. Zailtasunak zailtasun, halere, aldebikotasunaren ideiak indarra hartzen du euskal nazionalismoak *integrazioaz* eraikitzen duen diskurtsoan: integrazioak etorkinen eta bertakoen egitekoa behar du izan, bi aldeek parte hartu behar baitute prozesu horretan:

“Integración mutua. (...) Es evidente que nosotros tenemos una cultura, yo si voy a un país que tiene una determinada cultura desde luego lo que tendré que intentar es asumir la cultura de ese país también. No voy a imponer la mía, ni permanecer cerrado como si estuviese blindada con mi cultura. También es cierto que en el país de destino, teniendo en cuenta que también hay más [inmigrantes], tendremos que facilitar que haya esa integración mutua. Tú tienes que respetar mi cultura, pero yo también tengo que respetar tu cultura. Yo creo que ese es un paso que hoy en día todavía no se ha conseguido.” (ELA)

Baina aipatu berri dugun pasartean modu argian ikusten denez, *integrazioaz* hitz egiterakoan nabarmendu den gaia kulturarena izan da, ezbairik gabe. Integrazio prozesua hizpide hartzean, integrazio kulturala da azaleratzen dena, eremu ekonomiko, sozial zein politikoaren gaineratik. Eta askotan hitzetan adierazten ez den arren, horrelako planteamenduen atzean, euskarari buruzko ardura ezkututzen dela dirudi.

Hala ere, integrazioaren dimentsio kulturala modu argian gailendu arren (integrazioaren ardura gai kulturalekin lotzen baita), aldi berean zalantzan jartzen da zer den *kulturalki integratuta* egotea:

“Haurren kasuan (...) baina ez bakarrik etorkinekin, ze A ereduko ikastetxe pila daude. A ereduko publikotan, etorkinak ditugu, eta A ereduko pribatutan sasi-elite hori... Horiek integratuta daude? Badaude gasteiztar pila bat, A eredukoak, ez dakidala integratuta dauden, baina jende askok esango luke hauek bai daudela integratuta, eta A ereduko etorkinak ez.” (EA)

Izan ere, *integratuta egotea* zer den gatazka iturri da edonon, eta baita Euskal Herrian ere. Baina Euskal Herriko kasuan, eztabaida horri berezitasun batzuk batzen zaizkio, bertan nazio egitasmo desberdinen arteko lehia esanguratsua delako. Finean, gizarte batean *integratzea* zer den, gizarte horretako botere posizioan dagoenak (daudenek) definitzen du(te). Horrela, integratzea gizarte horretan normaltzat hartzen denarekin, neutraltzat hartzen denarekin, bat egitea da. Etorkinak, prozesu horretan, kokapen subalternoa betetzen du, baina harrera gizartearen baitan ere *integrazioaren* definizioa ez da gizarte guztiaren aldetik egiten.

Hori kontuan hartuta, integrazioa klase, genero, nazio... ikusmolde zehatzekin lotuta dago; eta horregatik ez da *integrazioaz* hitz egiten atzerritar aberatsen kasuan (ez zaie *immigrante* kategoria ezartzen), adibidez. Nazio auzian zentratuz, integrazioaren ulerkera desberdina bultzatzen dute euskal nazionalismoak edo espainiar nazionalismoak, helburu diferenteak bilatzen dituztelako. Bada, euskal nazionalismoak bere nazio egitasmoarekin bat egitea bilatzen du, euskararen aldeko jarrerarekin edo, ahal bada, euskalduntzearekin batera. Eta hori gertatzen ez denean, zalantzan jartzen da integrazioa, goiko pasartean egiten den bezala.

Nolanahi ere, integrazio kulturalak lehentasuna eskuratzen du euskal nazionalismoaren diskurtsoan. Izan ere, *euskal kulturaren* eta, batez ere,

euskararen txikitasuna eta egoera ahula dela eta, gai garrantzitsu moduan azaleratzen da, gure elkarrizketatuen artean, Euskal Herrira iristen diren etorkinak euskara eta euskal kulturara batu beharra.

Horrekin batera, integrazio prozesua erraztu edo zailtzeko hainbat faktorek eragiten dutela ere azpimarratzen da; eta, horien artean, herriaren tamaina azpimarratzen da. Izan ere, integrazioa gertatzeko bertakoen eta etorkinen arteko harremanak gertatu behar dira, eta elkarrizketatuek nabarmendutako arazoa da hartu-eman horiek, beren kasuan, oso urriak direla. Edonola hori, harreman horren ezinbestekotasuna modu nabarian azpimarratzen da, eta berau herri txikietan errazagoa dela agertzen da:

“–Bueno, ni ere etorkina izan naiteke, hona etorri nintzen lan bila... baina herri modun oso onartuta sentitu naiz, oso jende zabala da, eta ni hemen beti ondo sentitu naiz, eta erraztasunak izan ditut beti. Jendeak egin behar du zabaldu, aukerak emon, eta lanean elkarrekin bazaude zubiak eraiki. Ni hemen beti ondo sentitu naiz, eta euskal herritarra naiz. Eta herri honetan, kanpotik etorri eta, paperak alde batera utzita, a nivel humano, herri honetan erraztasun asko dituzu.

–Baina zuk euskaraz dakizu.” (ET: Ondarroa)

Integrazioarekin amaitzeko, prozesu hori bultzatu eta burutzeko zein neurri behar den ere eztabaida iturri da. Oro har, ez da gehiegi zehazten etorkinaren integrazioa lortzeko ze neurri zehatz beharrezko den. Maila sozialari dagokionez, adibidez, *diskriminazio positiboa* aipatzen da, hots, immigranteek mailaketa sozialean betetzen duten behe-kokapena gainditzeko politiken beharra. Hala ere, horren aldeko hitzekin batera, mota horretako neurriek kontrako iritzi ugari sortuko lituzketela mahaigaineratzen da, aldi berean:

“Eta beste aldetik, zer egin behar da integraziorantz joateko, politikak benetan integratzaileak izan daitezen ze neurri hartu behar dira. Ba nik uste dut, momentuz, eta adibidez, diskriminazio

positiboa beharrezkoa dela... Hau oso deserosoa izan daitekeen diskurtsoa da.” (EA)

Edonola ere, eta esan dugunez, integrazioaren adiera kulturala lehenesten da; edo horri eskaintzen zaio garrantzi handiagoa, bederen. Integrazio kulturalari loturik, ondorioz, multikulturalismoa edo interkulturalismoa bezalako kontzeptuek ere lekua badute immigrazioari buruzko diskurtsoan.

6.5.2. *Kultura aniztasunaren korapiloa*

Immigrazioaren auzian, azken hamarkadetan, errealitate horri loturiko aspektu kulturelek eskuratu dute zentraltasuna, esparru sozial, politiko eta abarrekoen gainetik (ik. López Sala, 2005; Zapata-Barrero, 2004; De Lucas, 2009). Horrela, immigrazioari loturiko aniztasun kulturalaren *kudeaketa* bilakatu da, immigrazioari dagokionez, aztergai nagusi. Immigranteen integrazioaren gaian (kontzeptu hori oso eztabaidatua izan arren) batik bat integrazio kulturala azpimarratzen den bezala, beste eredu eta kontzeptu batzuk nagusitzen dira, azken hamarkadetan, immigrazioari buruzko ikerketetan: multikulturalismoa eta, maila apalagoan, interkulturalismoa (ik. 3.2. puntua).

Edonola ere, kultura-aniztasuna¹⁶¹ gai esanguratsua gertatzen da gure elkarrizketatuen artean, immigrazioa kultura berriekin lotzen baita, janzkera, erlijio, janari, hizkuntza, ohitura eta abar diferenteekin:

“–Ari gara denbora guztian hizkuntzaz, baina, adibidez, Bilbon ikusten dituzu beste kulturetako jendeak, itxurak, beloa-eta, eta hor bai konturatzen zara beste talde batzuk daudela. Gehiago azpimarratzen dugu hizkuntza aldetik, baina hori ere kontuan hartu beharko litzateke...”

¹⁶¹ Maila deskriptiboan ari gara. Aniztasun kultural hori lantzeko ereduaz aritzeko, *multikulturalismo* erabiliko dugu.

–Bai, bai, hiri handietan oso diferentea da, han den-denak dira leku askotakoak, adibidez Madrilen, eta hau bezalako herri txiki batean desberdina da...” (ET: Ondarroa)

Immigranteen integrazio kontzeptuarekin gertatzen zen bezala, multikulturalismoari buruzko adostasunik ez dugu antzematen euskal nazionalismoaren diskurtsoan. Multikulturalismo kontzeptua, horrela, batik bat immigrazioarekin lanean dabiltzanen ahotan topatu dugu, eta integrazioa baino askoz gutxiago erabili da. Beharbada, multikulturalismoaren defentsarik argiena egiten duen eragilea LAB izan daiteke. Irakaskuntza arloko bere ponentzian, esaterako, ideia horren aldarrikapen erabatekoa egiten du:

“Multikulturalismoa. (...) Diskriminazio ezaren printzipioan oinarritua dago (...), desberdintasun eskubidean eta bestearen aitortzan. Bazterkeriaren egoera eta era ezberdinen gaindipena ekartzen du eta baita ere itxurazko inklusio ereduena.

Jendartean kolektiboen arteko interazioa ematen da era positibo batean, bakoitzak bere identitate kulturala mantenduz. Ikusten dugunez, praktika hau da elkarren aitortzaren filosofia hoberen jasotzen duena, eta, horregatik, LABek termino hau erabiltzearen alde egiten du aniztasunaren kudeaketaz hitz egiterakoan.” (LAB-Irakaskuntza, 2010: 9).

Hala ere, immigrazioa teorikoki lantzeraz ohituak daudenen artean ere, iritzi desberdinak azaleratu dira, eta bi mutur berezi dira: batetik, multikulturalismoa *gizartearen zatiketarekin* eta ghettoen sorrerarekin lotuta ikusi, eta kulturen arteko sintesia aldarrikatzen duten planteamenduekin bat egiten duena. Eta, bestetik, etorkinen eta bertakoen arteko helburuen bateragarritasuna azpimarratu, eta multikulturalismoaren aldarrikapena azpimarratzen duena. Edonola ere, geure elkarrizketatuen artean, ez dugu ildo nagusirik topatu, eta badirudi multikulturalismoa, neurri batean, eztabaidatzeke eta lantzeke dagoen kontzeptua dela.

Multikulturalismoa gainditu beharreko planteamendutzat ikusten dutenen arabera, eredu horrek gizartearen banaketa kulturala areagotzen du, eta kohesio sozialerako galga argia ere bada:

“Nik uste dut ez dugula modelo estanko horietara joan behar. Modelo multikultural hori, Alemanian eta Frantzian, Paris inguruan, egin diren modelo horiek, guztiz estankoak eta kultura frantsesa ongi babestu beharra eta, hori frakaso hutsa da, demostratu da. Eta gaur egun gauzak naturaltasunez hartzen baditugu, eta gure aurrean beraien kultura duten pertsonak ditugula ulertzen badugu, nik uste dut ez dagoela inongo [arazorik].” (EA)

Finean, multikulturalismoaren aurkako planteamendu horietan, eredu horren aurka eginez interkulturalismoa aldarrikatzen dutenen arazoibideak azaleratzen dira: talde kulturalen birsorkuntza bultzatuz, multikulturalismoak kultura publiko komuna oztopatzen omen du, eta talde desberdinez osatutako gizarteari bide ematen dio. Errealitatean, halere, bi ereduak nahiko antzekoak dira, *pluralismo kulturala* deitzen denaren barruan kokaturik, eta euren arteko desberdintasun nagusia ereduaren ikuspegiaren datza; interkulturalismoak kulturen arteko sintesia bilatzen duen bitartean, multikulturalismoak kultur taldeen birsorkuntza azpimarratzen du (ik. López Sala, 2005: 87). Edonola ere, ikuspegi interkulturalistaren eragina sumatzen den multikulturalismoaren aurkako posizio horiek, nagusiki, hezkuntza munduko kideek mahaigaineratu dituzte; izan ere, interkulturalismoak arrakasta handia eskuratu baitu hezkuntzaren eremuan.

Interkulturalismoaren aldeko planteamendu horrekin batera, hala ere, multikulturalismoaren defentsa ere egiten da, aldi berean. Bi ildoak mahaigaineratu arren, gure elkarrizketatuen artean, multikulturalismoaren aldeko jarrerak isla argiagoa izan du. Hau da, nahasketa, mestizajea... bezalako kontzeptuen ordez, kultura desberdinen aitortzea, onarpena, birsorkuntzarako aukerak azpimarratzen dira. Eta, horrekin batera, baita partekatutako eremu

publikoan, gizartean diren kultura desberdin guztien arteko plazan, bertako kulturak bete beharreko egitekoa ere. Izan ere, planteamendu interkultural batzuetatik hori ukatu arren, multikulturalismoak eremu komun horren beharra azpimarratzen du, ereduaren xedekak kohesio eta justizia sozialak baitira (ik. Kymlicka, 1996).

Hortaz, gure elkarrizketatuen artean, planteamendu multikulturalak isla izan du, diskurtso nagusi bilakatu ez bada ere. Bertan, multikulturalismoaren ideia nagusia den *onarpenak* paper zentrala betetzen du (Euskal Herrian bizi diren kulturen aitortza); eta, hortik abiatuz, *aliantzaren* ideiak ere indarra eskuratzen du. Batzuetan, kontzeptuaren defentsa egiten da, ideia guztiz argitu gabe:

“(...) [La inmigración es] un reto para redefinir la lucha de liberación nacional y la lucha por la conquista de la soberanía, en la medida en que la vieja inmigración se suma a la inmigración extracomunitaria, y que viene de un universo cultural, identitario, geográfico y político muy diferente. (...) Y es un reto importante para redefinir la idea de nosotros como sujeto vasco, que tiene planteado el reconocimiento como pueblo. (...) tenemos la obligación de ganarnos a esas personas al proyecto de construcción nacional. (...) Lo que estamos tratando de ver es (...) cómo construimos un nacionalismo a partir de la idea de la multiculturalidad. El reconocimiento de la diversidad cultural, en el que todos, a pesar de la diversidad comunitaria existente, reconozcamos que pertenecemos a un único pueblo y que éste tiene derecho a la existencia.” (Ezker Abertzalea)

Beste batzuetan, multikulturalismoaren adiera politikoa eta subjektu desberdinen aliantza hainbeste azpimarratu gabe, ereduaren aldeko jarrera ere erakusten da; eta kultura guztiek euren lekua izan behar dutela azpimarratuta, *euskal kulturaren* zentraltasunaz ohartarazten da:

“Bultzatu behar da eta utzi behar diogu bakoitzari bere oinarritzko kultura indartzea, bultzatzea, azpimarratzea, ta lantzea. Hori bai, landuta elkarlana euskal kulturarekin. Esaten dutenean, ‘no, es que immigranteek oso txarto daukate euskara ikasteko’, gezurra da. Zu joaten zara Lekeitiora, edo euskaldun herrietara, eta daukazu ume txikiek dakite euskara eta beren berezko hizkuntza, eta gero joaten zara Barakaldora...” (Aralar)

Izan ere, multikulturalismoan (*etorkinen integrazio* kontzeptuarekin gertatzen den bezala) ezin da alboratu *normaltasunaren* edota gizarteko gunearen definizioa: planteamendu multikulturala kokapen sozial zehatz batetik egiten da, gizartean botere posizioa betetzen duen taldearen –*gehiengoaren*– aldetik, hain zuzen. Eta, beraz, euren ezaugarri edo adierazpenen *onarpena* gutxiengoei egiten zaie. Horregatik, Erresuma Batuan, adibidez, multikulturalismoaren eztabaidak beltzei, asiarrei edota bestelako gutxiengoei dagokie, eta ez ingeles/britainiar kultura hegemonikoari. Gatazka horretan, beraz, euskal nazionalismoan multikulturalismoa defendatzen denean, euskara eta *euskal kultura* ezarri nahi dira kultura hegemonikoaren kokapenean, edo kultura komun publikoaren paperean¹⁶². Hori da abertzaletasunaren planteamendua, baina euskararen egoera soziolinguistiko menperatuak, *multikulturalismo euskaldun* dei daitekeen hori oztopatzen du. Geure elkarrizketatuek euskarak, multikulturalismo horretan, bete beharreko zentroaren papera aldarrikatu beharra dute, beraz (Erresuma Batuan, adibidez, kultura ingeles/britainiarrarekin beharrezkoa ez dena); eta behar horrekin, euskarak egiteko hori burutzeko izango dituen gabeziez kontziente direla erakusten dute, aldi berean.

¹⁶² Multikulturalismoa, estatu mailara eramanez, estaturik gabeko nazionalismoak aldarrikatutako nazioa ere gutxiengoen pare jar dezake. Gogora dezagun kontzeptua Quebeceko nazionalismoari aurre egiteko jaio zela. Horregatik, estaturik gabeko nazionalismoa eta kultura-aniztasuna bateragarri egiteko, eta estaturik gabeko nazionalismoa eta immigrazioaren arteko lehia ekiditeko, immigrazioa estaturik gabeko nazioaren markotik lantzea proposatzen da batzuetan (ik. Kymlicka, 2003).

6.5.3. *Hezkuntza sistemaren arazoak*

Immigrazioari loturiko kultura-aniztasuna euskarari lotzen zaio, honez gero aztertu dugun moduan. Hizkuntzaren egoera soziolinguistiko menperatuaren kontzientzia oso zabaldua dago, eta hainbat proposamen mahaigaineratzen da euskarak bizitza sozialean zentraltasuna erdiesteko. Edonola ere, euskararen berreskurapena eskolari lotzen zaio; eta geure elkarrizketatuen artean, immigrazioari begira, esangura berezia aitortzen zaio hezkuntza-sistemaren egitekoari. Izan ere, eskola eta immigrazioaren arteko harremana, ikerketa honetan agertzen ari diren gai gehienak ez bezala, lehentasunezko –ia larrialdiko– afera moduan azaleratzen da. Funtzio ugari egotzen zaio eskolari eta, horien artean, belaunaldi berriak euskalduntzea edo *etorkizuneko euskal herritarrak* sortzea¹⁶³ azpimarratzen dute abertzaleek.

Nolanahi ere, eskolari garrantzi handia aitortzen zaio eta, horrekin batera, hezkuntza-sistemari buruzko iritzi nahiko ezkorra hedaturik dago: gure elkarrizketatuen artean, hezkuntza-sistemak etorkinak Euskal Herriko gizartean integratzeko duen egitekoa behar bezala betetzen ez duela iritzi hedatua da. Horrela, immigrazio gaian, Hego Euskal Herriko hezkuntza-sistemak abertzaleen ustez bete behar lukeen funtzio nagusienetakoa ez du betetzen, etorkinen seme-alabak euskalduntzea, alegia:

“A mi me llama la atención, que todavía hoy en día se dice que (...) igual ahí hay un problema en educación, por los modelos lingüísticos, porque está llegando gente de Sudamérica, de países latinoamericanos... y que el tema del euskera... (...) no me parece que sea una opción, por ejemplo, el imponer un modelo lingüístico, que porque sean personas inmigrantes, pues modelo lingüístico A. Pues no. Yo creo que una manera seguramente de integrarte será la lengua. Además una forma de no ir generando guetos. (...) La política de integración tendría que ser que haya un

¹⁶³ Hezkuntzaren soziologian, eskolako funtzio sozialen artean nabarmendu ohi da *etorkizuneko herritarrak* sortzea, hau da, eskolaren funtzio politikoa.

alumno aquí, otro aquí, y otro aquí. Y bueno, en cuanto a la lengua, lo que tendrían que hacer es fomentar clases de apoyo, para estas personas.” (ELA)

Finean, euskal nazionalismoak euskarari egozten dion egiteko esanguratsua (etorkinen integrazioa bermatzea) egikaritzeko eginkizuna duen erakunde moduan ikusten da hezkuntza-sistema. Eta, helburuak horiek izanik, gure ikerketan modu argian gailentzen den diskurtsoa da eskolak euskal nazioari begira dituen xedeetan hankamotz gelditzen dela. Izan ere, *ghettoa* behin eta berriz agertzen den ideia da: immigranteen seme-alabak eskola jakinetan biltzen dira; eta ikastetxe horietan A eredia irakasten da, oro har:

“Ezin dana onartu da orain immigrante gehienek biltzea ikastetxe baten, ghettoak sortzen, eta normalean A ereduan. Hori da errepikatzea orain dala 50 edo 80 urte geneukan arazoa.” (Aralar)

Izan ere, aurrera begira etorkinen seme-alabak euskalduntzen ez duten eredutan biltzeak ondorio ezkorrak izan ditzakeela defendatzen da. Euskara ez menperatzeak, jakina denez, lan-eremu batzuetara sartzeko zailtasunak ekar ditzake, eta behin egungo etorkinek goranzko mugikortasun soziala ezagututa, bere seme-alabek lan eta gizarte mailako espektatiba altuagoak izango dituztela aurreikustekoa da. Euskara, egoera horretan, *arazo* gisa kontzeptualizatua izan daiteke, laneko aukerak murrizten dituen elementu moduan antzematen baldin bada¹⁶⁴. Euskara gorrotatzea, gainera, euskal nazionalismoaren aurka egitearen sinonimo moduan ere ulertzen da:

“Etorkizunean ezin dugu aurkitu pertsonaren bat gorrotatuko duena hizkuntza lanpostu bat aurkitzen ez duelako, porque

¹⁶⁴ Horri lotuta, adierazgarria da 1950 eta 1980 urteen arteko immigrazioari buruz egin dugun beste ikerketa bat. Bertan, garai hartan Hego Euskal Herrira iritsitako lagunak dira partaideak, euskal nazionalismoarekin bat egin ez dutenak eta euskararik ikasi gabekoak. Ikerketaren helburua, 30 urte baino gehiagoren buruan, etorkinek euren integrazio prozesuaz zein irakurketa egiten duten jakitea izaki, arazo nagusi moduan euskara agertzen da, etorkinek euren seme-alaben lan aukerentzako oztopotzat ulertzen dute-eta hizkuntza (ik. Zabalo et al., 2010).

gorrotatzen badu hizkuntza, gorrotatuko du abertzaletasuna.”
(Aralar)

Bada, esan bezala, hezkuntza-sistemak immigrazioaren auzian betetzen duen paperari buruzko irakurketa biziki ezkorra egiten da, euskararen egoera azpimarratuz, alde batetik; eta baita etorkinen seme-alaben etorkizuna baldintzatzen duela ulertzen delako ere, bestetik:

“Nik uste dut razismo estruktural bat dagoela (...) badaude A ereduko eskola ghetizatu batzuk, eta hortik [ikasleak] ateratzen dira DBHra izugarritzko frakaso eskolarra gainean izanda. Badaude Gasteizen etorkinentzat eskolak, klase guztiak ghetizatuak direnak (...) Eskola publikoak dira, beraz, guk erabaki dugu immigrazioarekin ondorio batzuk egotea. Ondorio horiek dira etorkinek izugarritzko marjinazioa dutela, hasieran akademikoki, ta gero laboralki eta abar, hau da, hau da kate bat, ez? Frakaso eskolarretik, institutura joaten dira, inolako integrazio gabe, euskara jakin gabe, eta hortik kalera doaz...” (EA)

Finean, hezkuntza-sistemak funtzio sozial zehatzak betetzen dituen moduan, disfuntzioak ere baditu; eta, geure elkarrizketatuen artean, eskolaren disfuntzioak dira esangura berezia eskuratzen dutenak. Horrela, lehenik eta behin, hezkuntza-sistemak etorkinen seme-alabak (beste hainbat ikaslerekin geratzen den modu berean) ez dituela euskalduntzen salatzen da, modu orokortuan. Eta, horrekin batera, etorkinen ondorengoen artean *ghetto* modukoak sortzen ari direla ere azpimarratzen da.

6.5.4. *Eta erlijioa, zer?*

Multikulturalismoari buruzko eztabaidan, testuinguruaren arabera, hainbat gai nabarmentzen da: janzkera (beloari buruzko eztabaida, adibidez, Frantzian garrantzia eskuratu zuena), hizkuntza, eremu publikoen erabilera, generoaren araberrako desberdintasunak, taldeen ordezkapen politikoa, eta abar luze bat. Gai horien artean, erlijioa nabarmentzen da batzuetan, eta zuzenean erlijioa hizpide ez duten eztabaidetan ere bere eragina agerikoa da. Izan ere, eztabaida horietan, gizartearen parte batek bilatzen duen laikotasuna, estatuaren izaera akonfesional ofiziala zein erlijio talde batzuen asmoak lehian sartzen dira. Dena dela, erlijioa erreferentziatzat hartzen duen eztabaidak gehienetan islamaz ari dela kontuan izan behar da, eta batzuetan iritzi horien atzean ikuspegi islamofoboak ere ezkututzen direla.

Eztabaida luze eta konplexu horretan murgildu gabe, ikerketa honen asmoetarako interesgarria da jakitea euskal nazionalismoak, immigrazioa lantzen duenean, zein esangura aitortzen dion erlijioari. Bada, lehenik eta behin, azpimarratzekoa da erlijioak ez duela arretarik jasotzen eragile abertzaleen aldetik. Izan ere, euren idatzietan, gai hau ez da ia aipatu ere egiten. Multikulturalismoa, hortaz, euskal nazionalismoaren helburuen indartzearekin eta, batez ere, euskararekin lotzen da, modu argian; eta erlijioari ez zaio ia erreferentziarik egiten.

Hortaz, euskal nazionalismoaren immigrazioari buruzko diskurtsoan, erlijioa inola ere ez da nabarmentzen. Gure elkarrizketatuek, zentzu horretan, ez dute erlijioaren gaia azpimarratu; eta *immigrazioaren arazoak* (hots, euren diskurtsoan *arazo* gisa mahaigaineratzen zirenak) aipatzerakoan ere, arreta beste gai batzuei eskaintzen zioten. Edonola ere, erlijioarekin lotura duten hainbat aferak, immigrazioari buruzko eztabaidan, nabarmentasun soziala eskuratu dute, hedabideen eraginez, batzuetan. Horrela, erlijioaren gaia gure ikerketan parte hartu dutenen artean eztabaidatzerakoan, ildo desberdinak azaleratu dira: alde batetik, eta diskurtso nagusia osatuz, edozein erlijioaren

aurkako jarrera azpimarratzen dutenen ikuspegia dago; eta, beste aldetik, maila apalagoan, erlijio islamiarra *arazo* gisa kontzeptualizatzen duen ikuspegia.

Bada, gure elkarrizketatuen artean nagusitu den diskurtsoaren arabera, erlijioa kontu pertsonal gisa ulertzen da eta, hori dela-eta, immigrazioaren lanketan, erlijioaren garrantzia ukatzen da. Gutxieneko batzuk (giza eskubideak, gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna eta abar) betez gero, ez da erlijioari loturiko arazo gehiagorik nabarmentzen:

“Niretzat erlijioa kontu pertsonala da. Berdin zait ze erlijio den, ingurukoei bakean uzten diguten bitartean. (...) Egia da ere erlijio batzutan jarrera oso gogorrak, giza eskubideen aurkakoak agertzen direla, baina ez dut uste erlijio kristauak eredurik emateko lekuan dagoenik. (...) Beraz lekzioak, gutxi. Giza eskubideen errespetua mantentzen den bitartean nik ez daukat arazorik.” (EA)

Gaiarekin urruntasuna azpimarratzen da, beraz, eta erlijioa ardura nagusia ez dela azpimarratzen da. Izan ere, kontuan hartu beharrekoa da erlijioari buruzko ardura kontserbatismoarekin zein eskuin politikoarekin lotzen dela, askotan. Europako eskuineko zenbait mugimenduk, esaterako, immigrazioaren (zehazki, jatorri musulmanekoaren) aurka ekiteko, *Europaren oinarri kristauak* aldarrikatzen dira. Hortaz, parametro horietatik aldentutako diskurtsoa azaleratu da. Baina horrek ez du esan nahi immigrante batzuen erlijio-sentimenduen irmotasunak eragozpenik sortzen ez duenik. Horrela, euren ezkertiaratasuna gehien azpimarratzen dutenen aldetik, immigrante musulmanekin izandako ika-mikak azpimarratzen dira. Ondoko pasartea ildo horren erakusgarri da:

“–Ez da problema handiena. Beloarekin orain dagoen mobida hori... Niri erlijioa egon daitekeen arazo gutxienekoa iruditzen zait, egunerokotasunari begira...”

–Pues yo tengo dos compañeros de trabajo islamistas¹⁶⁵. Desde el comité de empresa tenemos una política muy abierta, en todos los sentidos. Y las experiencia, con estos compañeros ha sido muy dura. Gente joven que tiene unos esquemas en la cabeza, que la mujer en casa, agradecimiento al patrón... y eso que desde el comité se hace una política de integración, de irtelos ganando poco a poco... Y la religión, mal rollo. (...) En la mezquita les decían ‘cuidado con éstos que son comunistas’, así que fíjate... [*barreak*].

–Ba nik uste dut erlijioa ez dela hain inportantea, baditu bere berezitasunak eta bere kontraesanak, adibidez emakumearen gaiarekin, nik ez det ulertzen, baina gizarte guztiek daukate beraien erritmoa aldatzeko... Baina nik ere ez det ulertzen nikaraguenseak hain sinistunak izatea. Nola da posible?” (ET: Errenteria-Orereta)

Beraz, erlijio-sentimendu batzuk ulertzeko zailasuna azpimarratzen da. Teorikoki, maila ideialean, erlijioak ez dira kontuan hartzen, edo haiekiko *ezer txarrik* ez dela azpimarratzen da; baina etorkin talde jakin batzuk *problematikoagotzat* hartzen dira, modu inplizituan, euren erlijioa dela-eta. Finean, modu horretako ikuspegietan, maiz, erlijioaren eta kulturaren ulerkera esentzialistak ikusten dira, halako *arazoetan* azaleratzen direnak (ik. Baumann, 2001: 93 eta hur.). Adibidez, islamiar erlijioako immigrazioa emakumearen zapalkuntzarekin lotzen da.

Hala eta guztiz ere, jatorri jakinekiko irudi sozial eta estigmak agertzen diren arren, erlijioaz gailentzen den diskurtsoa da erlijio-sentimenduak norbanakoaren eremura eramane nahi dituenak. Baina gatazka, egotekotan, erlijio baten jarraitzaileek esparru publikoa aldarrikatzen dutenean gertatzen da; eta, horri dagokionez, ez da jarrera argirik definitzen, aztertutako diskurtsoetan.

Diskurtso nagusi horrekin batera, halaber, beste bat azaleratu da, hain zuzen, erlijioari lotutako kultur adierazpenekiko ezinegona erakusten duena.

¹⁶⁵ *Musulmanak* esan nahi du.

Jarrera hori immigrazioaren asmo asimilazionista batean oinarritzen da, eta harrera gizarteak immigranteari bizitza kulturalaz duen ikuspegia inposatzeko legitimitatea azpimarratzen du:

“–A mí lo que me jode es lo que ha pasado en Bilbao, que quieren llevar a una criatura a la escuela con velo o no sé que. Oye, si has venido aquí, debes adaptarte a las normas, y si no te vas, no vas a imponer aquí las normas de fuera.

–Pero exigen, eh.

–Claro, como somos tan tolerantes... Es que yo no entiendo. Si vienes aquí y eso aquí no se lleva... Los franchutes en eso tienen toda la razón. El velo prohibido y punto.” (ET: Txorierrri)

Ikuspegi horretan immigrazioarekiko asimilazio-asmoa agerikoa da. Jada ikusi dugunez, aztergai dugun diskurtso abertzalean, xenofobiak gizartean gero eta arrakasta handiagoa duela-eta ardura erakusten da. Bada, modu horretako immigrazioaren aurkako iritziak, batez ere kultura eta erlijioa azpimarratzen dutenak (*haserre*en jopuntu nagusitzat musulmanak izanik) gure elkarrizketatuen artean ere agertu dira, iritzi isolatu moduan bada ere. Hala ere, immigrazioarekiko jarrera *itxi* hori ez zaio euskal nazionalismoari lotzen; hots, etorkinen aurkako kexua ez da euskal nazioari edo nazionalismoari sor diezaizkiokeen balizko arazoetan oinarritzen. Aitzitik, landu gabeko eta, oro har, gizarteko sektore batzuetan aurki daitekeen diskurtso antiimmigrante landugabearen isla da. Horri loturik, iritzi hori –nahikoa modu isolatuan, berriro diogu– politizazio maila apaleko kideek mahaigaineratu dute. Izan ere, beloa bezalako gai hain mediatikoari loturik, bestelako iritziak dira nagusitu direnak:

“–Nik pentsatzen dut, beloarekin, dela beraien gauza, eta nahi duenak eraman dezala...

–Bai, beloa beraiak eramaten dute nahi dutelako.

–Baina, zergatik?

–Ba ohitura hori daukatelako!” (ET: Ondarroa)

Zentzu horretan, ez dugu pentsatu behar erlijioa eta immigrazioa lotzerakoan beti ondorio negatiboak lortzen direnik. Izan ere, immigrantearen erlijioa (islama, berriro ere) ezaugarri positibo moduan ere mahaigaineratzen da beste batzuetan. Ondoko pasartean, esaterako, lan munduan bertakoekin batera ari diren etorkin musulmanen erlijio sinesmenez hitz egiten da, begirunea eta nolabaiteko miresmena ere erakutsiz:

“Beharrea [lanean] ordu pila bat sartu ostean, herrira iritsi eta meskitara doaz! Jende langile-langilea, jatorra, eta oso sinestuna ere...” (ET: Ondarroa)

Edonola ere, geure elkarrizketatuen artean, erlijioa ez da gai garrantzitsua izan. Ez da, inolaz ere, eremu esanguratsu gisa azaltzen. Izan ere, kulturari loturiko ardura euskarari loturiko doa; eta, aldi berean, diskurtsoan zentraltasuna eskuratzen duen gaia beste bat da: politika, hain zuen. Jarraian, eremu hori aztertuko dugu.

6.6. Immigrazioa eta abertzaletasuna: immigrazioa, auzi politikoa

Euskal nazionalismoak immigrazioari buruz eraikitzen duen diskurtsoan hainbat gaik garrantzia eskuratzen duela ikusi dugu: aurretik Euskal Herrira iritsitako migrazio-fluxuen balorazioa, immigrazioak Euskal Herrian dakartzan ondorio nagusiak, immigranteen aurkako jarrerak hedatzea, kulturaren afera, eta abar. Guztiek dute dimentsio politikoa, argi dagoenez. Hala eta guztiz ere, nazionalismoa, mugimendu politikoa den heinean, immigrazioaren irakurketa politikoa hobesten duela aurreikus daiteke. Alegia, euskal nazionalismoak immigrazioaz eraikitzen duen diskurtsoaren xede nagusia etorkinak bere nazio egitasmora batzea da. Aldi berean, immigrazioari buruz aritzean, euskal nazionalismoak euskal nazioaz duen ikuspegia ere argitu behar du, eta naziotasuna zein herritartasunaren definizioa gaurkotu.

Errealitate horrek, halere, ez du ukatzen hainbatetan gure elkarrizketatuen artean agertu den iritzia: immigranteen egoera soziala larria edo, gutxienez, bertakoena baino kaskarragoa izaki, lehentasuna arlo sozialak izan beharko lukeela, politikoaren edota nazionalismoari lotutakoaren gainetik. Ondoko iritzia gure elkarrizketatuen artean nabarmendu den ikuspegi baten isla da:

“Lehenengoa iruditzen zaitena da immigranteek badutela gaixoek nahikoa beraien bizimodua ateritzeko, gero ya hortikan preokupatzera ze ideologia edo hartuko duten hemen...” (ET: Lesaka)

Egoera sozial ahul horretan oin hartuta edo, iritzi ildo baten arabera, lehentasuna gizarte auziak izan behar du, nazio gatazkaren gainetik. Jarrera horrek nolabaiteko isla dauka eztabaida taldeetan, baina ez da guztiz gailentzen:

“Igoal, politiketaz hitz egiteko, lehenengoa lana izango litzateke arlo soziala lantzea, eta ondoren etorriko da beste guztia, euskara,

nazio ikuspegia... (...) lehenbizi lana eta behar basikoak asetu. Ze bestela ezin diegu eskatu ez dakit zer, eskeini ere eskeini behar zaie.” (ET: Errenteria-Orereta)

Arlo sozialaren lehentasuna egiaztatzen da, beraz, partaide batzuen aldetik. Haatik, nazionalistak nazio egitasmo desberdinen arteko lehian ere sartu behar du, ezinbestean, eta hori da gailentzen den diskurtsoa. Izan ere, estaturik gabeko nazionalismoak ezarritako nazio definizioaren aurka ekiten du, eta gailentzen den nazio egitasmoaren (Estatuarena) aurrean, proposamen alternatiboa plazaratzen du.

6.6.1. Euskal nazionalismoaren jardunaz: autokritika

Euskal nazionalismoaren jarduera politikoa eta immigrazioa harremanetan jartzean, azpimarratzen den lehen gaietako bat da etorkinen parte hartzea txikia dela mugimenduan. Iritzi hedatua da hori, bai alderdi eta sindikatuetakoa kideen artean, eta baita oinarri sozialaren artean ere. Oro har, bertakoen eta etorkinen arteko hartu-eman urria dela azpimarratzen da, eta komunikazio gabezia hori are agerikoagoa dela eragile abertzaleen baitan. Adibidez, bere erakundean migratzaileek parte hartzen ote duten galdetuta, horrela erantzun zuen elkarrizketatuetako batek:

“Ez, ez, oso gutxi. Baten bat badago. Baina ez, zentzu hortan, eta onartzen dut, oso jarrera ia folklorista daukagu. Beltz bat Alkartetxean ikustea ba... Nik uste dut Euskal Herria orokorrean beste lurralde batzuetatik oso urruti dagoela zentzu horretan. Lehendakari beltz bat filmetan-eta ikusten dugu farre egiteko, txiste bezala erabiltzen dugu. Ba hor gaude, Euskal Herria hor dago.” (EA)

Eta hartu-emanak ugariak ez direnez, abertzaleentzat zaila da immigrazioaren errealitateari loturiko jardun sendorik garatzea:

“Ba badugu egitekorik, sozialki diot. Baina arazoa da guk [abertzaleek] ez dakigula zeintzuk diren beraien [etorkinen] arazoak, beraien kezka eta abar.” (ET: Errenteria-Orereta)

Harreman ezarekin batera, edo haren ondorioz agian, gure ikerketan parte hartu duten eragile gehienek ez dute immigrazioari edo etorkinei begirako egitura berezirik. Alderdi eta sindikatu batzuek baduten arren¹⁶⁶, gehienek gizarte politikaren barruan edo zeharkako gai gisa lantzen dute, lantalde zehatzik gabe. Parte hartzeari dagokionez, sindikatu abertzaleen kexua da Espainia mailako sindikatuak (CCOO eta UGTk, batik bat) immigranteen lehen harrera “beregantzen” dutela, eta etorkin gehienek sindikatu horietan parte hartzen dutela. Hala ere, salbuespenak ere azpimarratzen dituzte¹⁶⁷.

Egoera horretan, euskal nazionalismotik –edo eragile abertzale bakoitzetik– immigrazioa nola lantzen den hausnartzerakoan, jarrera autokritikoen isla esanguratsua izan dute gure elkarrizketatuen artean. Oro har, nagusitzen den diskurtsoaren arabera, euskal nazionalismoak ez du ekinbide zehatz eta egokirik garatu immigrazioarekiko. Areago, alderdi politikoak etorkinen auziarekiko urrun daudela mahaigaineratzen da behin baino gehiagotan, eta politika orokorrak baino gehiago, eguneroko ekintza txikiak beharrezkoak direla. Ondoko iritziak jarrera hori islatzen du, aldi berean alderdi politikoak mesfidantzaz behatzen dituen:

“Nik ez det sinesten alderdien makro politika horietan, nik gehiago sinesten det norberaren ekintza txikietan, horrela errealitateak aldatzeko, norberaren eremu txikietatik hasita.” (ET: Errenteria-Orereta)

¹⁶⁶ Ezker Abertzaleak, adibidez, Aniztasun eta Migrazioen Alorra izeneko egitura du gaiari begira. ELAk ere immigrazioari zuzendutako egitura badu.

¹⁶⁷ LAB, esaterako, arrantza sektorean gehiengo duen sindikatua da, eta azken urteetan etorkin ugari ari da lanean arlo horretan.

Edonola ere, kritika –edo autokritika– nagusia da immigrazioaren auzian abertzaleek estrategia eta politika zehatzik ez dutela, nazioaren ikuspegitik:

“Euskal Herrian, bai ezker abertzale ofizial horretan, Aralarren, Eusko Alkartasunan, Eusko Alderdi Jeltzalean, adibidez ekologiarri edo abiadura handiko trenari, edo beste mila gauzei buruz, diskurtso nahiko kohesionatua ikus dezakegu, baina etorkinen inguruko diskurtso kohesionaturik inondik inora ez da agertzen alderdi politikoetan [abertzaleetan].” (EA)

Zentzu horretan, aurrera begira, egoera horrek ondorio negatiboak izan ditzakeela azpimarratzen da; izan ere, immigrazioa nazio egitasmoari lotuta lantzeko zailtasunak daudela nabaritzen da: arlo sozialaren lehentasuna azpimarratzen da, edo etorkinentzat nazio afera lehentasuna ez dela izango adierazten da, besteak beste. Baina, aldi berean, jarrera horrek kontraesana dakar abertzalearentzat, nazio arazoari lekua eskaintzera derrigortuak baitago, estaturik gabeko nazionalismo bateko kidea den heinean. Edonola ere, euskal nazionalismoak immigrazioari begirako ildo zehatzik ez duela iritzi hedatua da ikerketa honetan parte hartu dutenen artean. Ezker Abertzalera mugatuz, adibidez, ondoko iritzia esandakoaren adibide da:

“Ezker abertzaleak, nik uste det, ez daukala politika bat gai honen inguruan, nahiz eta hausnarketa batzuk egin, baina uste det hori dela beste lehentasun batzuk, zailtasun batzuk, dituelako.¹⁶⁸ Baina nik uste det gaiari heldu behar diogula, batez ere [boterera, Udalera] iristen geranerako, eduki behar degu gai hau oso landuta, eta ez arazo moduan ikusita, zerbait aberasgarri gisa baizik.” (ET: Errenteria-Orereta)

Hortaz, erakundeetara iristerakoan immigrazioa nahitaez landu behar dela kontuan hartuta, gai horrekiko posizio zehatza garatu beharraz

¹⁶⁸ Elkarrizketa egiterakoan, ezker abertzaleko eragile gehienak legez kanpo zeuden Hego Euskal Herrian, Espainiako Alderdien Legea zela-eta. Hizlaria horri buruz ari da.

ohartarazten da. Hala eta guztiz ere, kritika hori ez da bakarrik erakundeetatik kanpo zegoen Ezker Abertzalearen kontua. Aitzitik, gure ikerketan gailendu den diskurtsoa da immigrazioa nazio ikuspegitik (nazio egitasmoari begira, esan nahi da) lantzeko zailtasunak dituela euskal nazionalismoak, orokorrean hartuta. Arestian aztertu dugunez, zenbait arrazoi gertatzen da horretarako, eta gehien errepikatutakoa Estatu propioa ez edukitzea da. Horren ondorioa da abertzaletasunak immigrazioa arlo sozialetik, ezkertartasunaren ikuspegitik eta abarretik lantzen duela, baina nazio arazoari begira mugatuago aurkitzen dela.

Hala ere, beste kritika bat ere nabarmendu da gure elkarrizketatuen artean. Horren arabera, euskal nazionalismoak ez du gainditu ikuspegi *etnozentriko* moduko bat, eta euskal herritartasunaren definizioan ez ditu immigranteak aintzakotzat hartzen. Kritika hori egiten dutenen arabera, jarrera hori ez da diskurtso idatzietan islatzen, baina euskal nazionalismoaren oinarri sozialetan oso hedaturik dago, eta zenbaitetan beste isla batzuk ere baditu. Esaterako:

“Anekdotak bat kontatuko dut, baina azken finean alderdi politiko abertzale guztion jarrera dena. PNVk orain dela lau urteko kanpainan, jarri zuen bere kartel elektoral batean neska saharauiar bat baserritarrez jantzita, eta inguruan zeuden langile bat, kirolari bat... jende asko agertzen zen. Baina erdian agertzen zen neska saharauiarra euskaldunez jantzita. Eta hori da alderdi abertzaleok immigrazioari buruz daukagun ikuspuntua, kontzeptu guztiz etnozentrista da. Klaro, guztioi gustatzen zaigu Gineatik etorritako neskato bat baserritarrez jantzita ikustea, hori argi dago. Baina alderdi politiko batek bere kartel elektoralean hori jartzen duenean horrek esanahi bat dauka. ‘Bai, neska hau jatorra eta polita da, baina euskaldunez jantzi dugu’. Zergatik ez dago bere saharauiar jantziekin?” (EA)

Euskal nazionalismoak immigrazioarekiko duen jarrera irekia zalantzan jartzen da, beraz. Izan ere, errealitate multikulturalaren onarpenik ez dagoela

salatzen da, eta immigrazioari trataera folklorikoa ematen zaiola. Kritika hori maila sozialera ere hedatzen da. Izan ere, maiz bertakoak eta, batez ere, abertzaleak kanpotarrekiko itxiak direla adierazten da. Finean, aitortzen da, migratzaileak euskal nazionalismora erakarri nahi baldin badira, eurekiko interesa eta hartu-emana ere eduki behar dela; eta ez da hori antzematen:

“–Nik uste dut funtsezkoa dela errespetua. Eta askotan gara super itxiak, iruditzen zaigu bakarrik gurea dela ona, eta gurea mantentitu behar dugula, eta horregatikan, gurea mantendu behar dugulako, uste dugu mantendu behar garela itxita, eta orduan galtzen diogu errespetua etortzen diren gauza berri horiei, kultura berriei, ohitura berriei. Eta ixten gara, eta horrek egiten du gu gure aldetik joatea, eta besteak bazter batean uztea...

–Bai, nahi dugula beraiek integratzea, baina gu beraiengana integratu gabe, ez? Nik uste dut horrek ere baduela bere garrantzia.” (ET: Lesaka)

Euskal nazionalismoaren aurkako kritika horrek, autokritika ere badena, molde gogorragoa ere hartzen du. Azaletik immigrazioareiko irekia, aurrerakoia, tolerantzia... agertu arren, abertzaletasunak oraindik ere immigrazioarekiko jarrera itxia duela adierazten da, ez egitura politikoetan edo diskurtso ofizialetan, gizarte oinarrian baizik. Jarrera batzuen ezkerreko izaera ukatzera ere iristen da horrela:

“(…) nik uste dut abertzaletasunarengan beldurra ematen didan konnotazio etnozentriko hori, arriskutsua dena, eta askotan bere burua ezkertiarizat duen jende asko gai honen inguruan hitz egingo balu European, eskuin-muturreko alderdi batean egongo litzateke, eta Euskal Herrian ezkerreko alderdi batean dago!” (EA)

Edonola ere, abertzaletasunak immigrazioarekiko egiten duen balorazioa ez da negatiboa guztiz, eta alde positiboak ere agertu agertzen dira. Esaterako,

mugimendu sozialetan duen presentzia dela eta, euskal nazionalismoak (ezkerrekoak, bereziki) aferarekiko gertutasuna ere baduela defendatzen da:

“Ezker abertzalea, herri mugimendu bezela ikusita, bai uste det gai hau lantzen duela, baina naturalki. Ez det esan nahi ondo egiten denik, edo asko, baina herri mugimenduetan lan eginez nik bai uste det daukagula kontaktu gehiago, bai [lantegietako] komiteen bitartez, bai auzoetan... bai uste det daukagula kontzientzia bat, zer bait egin behar hori.” (ET: Errenteria-Orereta)

Horrekin batera, gure elkarrizketatuen artean nabarmendu den beste iritzi ildo bat, sendo agertu dena, ondoko hau izan da: abertzaleek gertutasun handiagoa erakusten dutela immigrazioarekiko espainiar nazionalistek baino. Izan daiteke euskal nazionalismotik espainolismoa neurri batean estigmatizaturik ikustea eta ikusmolde hori immigrazioaren auzira hedatzea; hala eta guztiz ere, immigrazioari loturiko iritzi horrek abertzaleen artean nolabaiteko arrakasta baduela dirudi:

“Nik uste det jende abertzalearen eta jende espainolaren artean badagoela alde bat. Nire pertzepzioa da jende abertzaleak badakala mentalidade irekiago bat, adibidez Euskal Herrian beti elkartasun handia erakutsi da beste herriekiko, politikoa, baina baita ere ekonomikoa eta abar, brigadistak, misioneroak eta egon den guzia. Eta abertzaleak, daukan arazoaren kontziente, nik uste det hobeto ulertzen duela bestearen arazoa, espainolak baino. Orokorrean hartuta, eta ez ezker abertzalera mugatuta, eh.” (ET: Errenteria-Orereta)

Finean, euskal nazionalismoak immigrazioaren auzia nola lantzen duen pentsatuz, zalantzak eta kritikak agertzen dira abertzaletasunaren diskurtsoan, nahiz eta, aldi berean, aspektu baikorrago batzuk ere azpimarratzen diren. Edonola ere, praktikan zailatasun horiek leku esanguratsua hartu arren, euskal

nazionalismoaren nazio egitasmoa ez da ikusten immigrazioarekiko bateraezina izango balitz bezala.

6.6.2. Abertzaletasuna eta immigrazioa, bateragarriak

Nazioaren ikuspegitik, euskal nazionalismoak immigrazioa lantzerako garaian zailtasunak dituela antzematen da, geure ikerketan parte hartu dutenen artean. Estaturik gabeko nazionalismo batez ari garenez, nazio egitasmoari begira muga argiak azpimarratzen dituzte elkarrizketatuek. Edonola ere, horrek ez darama immigrazioarekiko jarrera ezkor eta itxi orokortu batera. Hau da, zailtasunak azpimarratu ostean, eta, goian ikusi bezala, kontraesanak azpimarratuta, euskal nazionalismoak immigrazioa lantzeko izan ditzakeen zenbait indargune ere nabarmentzen da.

Etorkinekin hartu-eman gehiago izan duten elkarrizketatuen artean, gertuko harremanen maila azpimarratu egiten da: immigranteak herrialdearekin, nazio egitasmo batekin edo-eta proiektu politiko batekin bat egiteko, oinarria bere duintasuna bermatua izatean datzala adierazten dute. Esan gabe joan badaiteke ere, gai garrantzitsutzat aurkezten da hau batzuetan. Adibidez, Ondarroako eztabaida taldean, lagun batek kontatu zuen nola arrantzale lankide batek, afrikarra bera, kontatu zion Andaluzian aritu zela lanean, legez kanpo, oso egoera txarrean; eta Euskal Herrian, aitzitik, gustura zegoela. Lankide afrikar horrek hitz batzuk bazekizkien euskaraz, eta eztabaida taldeko kideak ondorio argia ateratzen zuen: “Funtsezkoa da paperak eta egoera duin bat ziurtatzea ondoren Euskal Herriarekiko nolabaiteko lotura bat sortzeko.” (ET: Ondarroa).

Gai hori bi mailatan egikaritzen da. Maila *mikroan*, gertuko eta zuzeneko hartu-emanen oinarritzen dena; eta maila *makroan*, harrera gizartetik eta haren erakundeetatik migratzaileari eskaintzen zaion trataerari dagokiona. Bigarren horri lotuta, ikerlari batzuek azpimarratzen dutenez, estaturik gabeko nazionalismoek (eta, Euskal Herriarekin batera, Quebec, Katalunia eta Eskozia

aipatzen dira) Mendebaldeko estatuek baino trataera hobea eskaintzen diete immigranteei, estatuen oinarria herritar nazionalen eta ez-nazionalen arteko bereizketa zurruna baita (ik. Hepburn, 2011; Jeram, 2012).

Horrekin batera, hainbatetan ondoko beste ideia hau nabarmentzen da abertzaletasunetik immigrazioaz eraikitzen den diskurtsoan: etorkin askok haien jaioterrietan gatazkak –sozialak, nazionalak edo dena delakoak– bizi izan dituzte, batzuetan haietatik ihes iristen dira Europara; eta, beraz, egitate hori Euskal Herriko gatazka ulertzeko lagungarri izan daitekeela defendatzen da. Adibidez:

“–Berek duten egoera gogorarekin, beharrean hainbeste ordu, paperak... nola erakutsi hemen borroka bat dagoela? Oso zaila da...

–Senegaldarrak hona etorri eta badakite zer den konfliktoa, hau da, bere herrian badago konflikto inter-etnikoa, eta egiten dute lotura hori hango konfliktoarekin eta hemengoaren artean.” (ET: Ondarroa)

Argudio hori ahula izan badaiteke ere, abertzaleen artean nolabaiteko arrakasta duela dirudi, migratzaileen errealitatearen eta harrera gizartearen (kasu honetan, Euskal Herriaren) arteko lotura erraza ahalbidetzen baitu.

Edonola ere, eta plano orokor batean, garrantzitsua da kontuan hartzea euskal nazionalismoaren diskurtsoan, immigrazioaren eta abertzaletasunaren arteko bateragarritasuna azpimarratzen dela. Ideia inportantea da hori euskal nazionalismoarentzat, modu argiagoan antzematen dena koadro politikoetan gizarte oinarrian baino. Alegia, arazoak eta ahuldadeak ukatzen ez badira ere, egoera horren aurreko erantzuna ez da immigrazioaren aurkako jarreraren defentsa. Ez dira, adibidez, *bertakoak lehendabizi* edo antzeko diskurtsoen zantzurik aurkitzen, edota, modu leunago batean, migrazio-fluxuak etetea iradokitzen. Aitzitik, euskal nazionalismoak, bere adierazpen desberdinetan,

erantzun positiboa ematen saiatzen da, eta jarrera itxi eta defentsiboak saihesten saiatzen da. Adibidez:

“Eusko Alkartasunaren eta immigrazioaren artean ez dago inolako txokerik. Nik uste dut elementu aberasgarri gisa ulertzen dugula, abertzaletasun internazionalista bat... ez dakit nola esan... (...) Uste dut derrigorrez naturaltasunez uztartu behar direla Euskal Herrian dauden kultura desberdinak, eta gure proiektu politikoak guztiz bat egiten du kontzeptu horrekin. Batzutan buenismo horretan erortzen gara, ‘dena ona da’, beraz hor gauza asko daude kudeatu behar direnak, baina kontu handiz eta diskurtsoak zainduz.” (EA)

Beraz, immigrazioa modu ezkorrean ulertzen duten diskurtsoak zein ikuspegiak alboratzeko saiakera nabaria da¹⁶⁹. Hau da, immigrazioa eta nazio arazoaren arteko harremanean, erantzun politikoa da gailentzen dena: onartzen da abertzaletasunaren bide bakarra dela immigranteak euskal nazionalismora erakartzea eta haren nazio egitasmoarekin bat egitea. Jarrera eraikitzaile orokor horrek bide desberdinak hartzen ditu; baina euskal nazionalismoan, oro har, partekatzen den ikuspegia da haren helburuetako bat etorkinen atxikimendua lortzea izan behar duela, eta ez immigrazioaren aurkako diskurtsoak eraikitzea.

Goiko pasartean agertzen zen bezala, diskurtso horrek ahuldade batzuk baditu; horien artean, sinesgarritasun nahikorik ez izatea. Zentzu horretan, immigrazioarekiko jarrera irekia ekintzetan isla erdiestea garrantzitsua dirudi, *diskurtso xaloaren* irudira ez mugatzeko.

Edonola ere, euskal nazionalismoak immigrazioaz duen diskurtsoan indar berezia du immigrazioa eta abertzaletasuna bateragarri direla. Eta, zehazki, euskal nazionalismoaren egitekoa proiektu abertzalean etorkinak kontuan hartzea eta, aldi berean, migratzaileak erakartzea dela. Zentzu

¹⁶⁹ Eragileetako migrazio alorretako kideekin eginiko sakoneko elkarrizketetan, adibidez, nabaria izan da euren taldeetako kideen artean immigrazioaren aurkako jarrerak ekidin edota alboratzeko nahia.

horretan, bi maila azpimarratzen dira, *politikoa* dei dezakegun bat, eta kulturala. Lehengoaren arabera, immigranteek ere euskal nazionalismoaren nazio proiektuaren onuradunak izango direla sentitu beharko lukete:

“(...) politiko mailan, abertzale eta independentista moduan, eskumen guztiak eta soberania eukiko bagenu, kapazak izango ginateke herritartasunari lotutako politikak, extranjeria legea, asilo legea-eta, desberdin egiteko. Alde horretatik konbentzitu behar ditugu etorkinak gu gerala kapazak emoteko haiei aukera gehio independenteak izanda.” (Aralar)

Garrantzia eskaintzen zaion ideia horrekin batera, azpimarratzen den bigarren maila kulturari loturikoa da. Izan ere, abertzaletasunak, atxikimendu politikoarekin batera, migratzaileen *lotura* kulturala ere bilatzen du. Lokarri hori hainbat modutara egikaritu daiteke, baina, nolana ere, garrantzitsua suertatzen da:

“Kultura aldetik nola konbentzitu etorkin guztiei gure kultura berea izan behar dala. Hori ez da erraza, denbora behar da. Agian etorkinak beraiek ez, baina seme-alabak bai, eta hori izan behar da bidea. (...) etorkinen kultura onartu behar da, bultzatu behar degu haiek mantentzea beraien kultura, baina maitatzen geurea be, gure kultura eta gure izaera, eta holan elkarlana egin. Hori uste dugu posiblea dala. Denborak luze joko du.” (Aralar)

Finean, euskal nazionalismoa eta immigrazioa aurkariak ez direla azpimarratzeko nahia da nagusitzen dena. Horri jarraituz, abertzaletasunaren diskurtsoan etorkinak berak defendatzen duen nazio egitasmora erakartzearen beharra nabarmentzen da; eta, prozesu horretan, bai maila politikoak eta bai kulturak ere garrantzia badute. Lehengoari begira, migratzaileak abertzaletasunera atxikitze lan politikoa azpimarratzen da, baina, horrekin batera, etorkinen artean euskal kultura zabaltzearen beharra ere azpimarratzen

da. Bigarren helburu hori, dena dela, modu *hipotetikoagoan* mahaigaineratzen da, eta immigratuengan baino, itxaropenak seme-alabengan jartzen dira.

6.6.3. Naziotasunaren auzia

Immigrazioaz hausnartzerakoan, gai zentralak dira herritartasun eta naziotasunarenak. Sakonago azaldu dugun legez (ik. 1.2. puntua), herritartasunak komunitate politikoko kideei egiten dien erreferentzia, eta naziotasunak herritartasun hori lortzeko baldintzei. Finean, sinonimoak ez badira ere, elkarren artean hertsiki lotutako kontzeptuak ditugu. Naziotasunaz ari garenean, bada, nazionalismoak aldarrikatzen duen nazioko kide bilakatzeko ezaugarriez ari gara.

Ikusi dugunez, euskal nazionalismoak naziotasuna zedarritzeko garatu dituen moduetan, bilakaera oso handia izan da haren sorreratik gaurdaino (ik. 2. puntua). XX. mendeko bigarren erditik aurrera, euskara bihurtu zen euskal naziotasunaren oinarria, nahiz eta praktikan maila sinbolikoa bete zuen eta, horrela, abertzaletasunarekiko atxikimendua izan zen elementu nagusia. Denborarekin, baina, lurralde irizpideak indarra hartu du, eta afera eztabaidatua bada ere, esan dezakegu euskal herritar izateko baldintza nagusia Euskal Herrian bizitzea dela, baieztapen horri egin dakizkion ñabardura guztiekin.

Edonola ere, immigrazioak beti dakar naziotasunari buruzko eztabaidaren azkartzea, ez Euskal Herrian soilik, noski. Izan ere, jaioterriz –eta, gehienetan, kulturaz– desberdinak diren subjektuen etorreraren ondorioz, ordura arte indarrean zeuden naziotasunaren definizioak berriz planteatu beharra izaten da. Gainera, gure kasuan, estaturik gabeko nazionalismo batez ari gara; eta afera hori guztia, Estatuaren bide erakundetu eta formaletatik at, mugimendu nazionalistaren baitan garatzen da, mekanismo ahulagoen bidez. Zailtasun eta ezaugarri propioak ditu gai honetan nazionalismo azpiestatalak, beraz.

Gauzak horrela, gure ikerketan naziotasunaren gaia nabarmendu da, herritartasuna Estatuari lotu ohi baitzaio. Horrekin batera, adierazgarria izan da espainiar nazionalismoak euskal nazionalismoaren aurka erabilitako klixek bat ere agertzea: abertzaletasunak etorkinak –espainiarrak, batik bat– *baztertu* eta *kanporatu* nahiko lituzkeela (ik. Zabalo et al., d.g.). Euskal nazionalismoaren aurkako elementu hori, hortaz, gure elkarrizketatuen artean agertu da, txantxa moduan bada ere:

“–Claro, es que encima hay Peña que piensa que cuando logremos el poder les vamos a meter a todos a un tren y ‘venga, fuera de aquí’, y no, eso ni por el forro va a ser así [barreak].

–No, no, claro que no [*aho batez*].” (ET: Errenteria-Orereta)

Hori argitu ostean, hala ere, naziotasuna gai konplexua dela azpimarratzen da. Ondoko pasartean, adibidez, naziotasunak dimentsio ugari (identifikazioa, kultura, etnia...) ukitzen dituela azpimarratzen da:

“Katalunian, Banyolesen, etorkin kopurua oso handia da, eta han 10-11 urteko umeen futbol talde bat zegoen, eta hasi ziren Kataluniako eskolen arteko txapelketa bat jokatzen. Etorri ziren Bartzelonako eskola pribatu bateko ikasleak, eta Banyoleseko ikasle hauek, guztiak beltzak, arabiarrak, guztiak katalanez hitz egiten zuten, eta partidua hasi zenean (nire lagun bat han zegoen), Banyoleseko taldeko ume batek galdetu zuen: ‘¿Pero no era sólo entre catalanes?’ Klaro, ikusten zuen besteek ez zutela katalanez hitz egiten (katalanak ziren) eta beraiek, denak beltzak, arabiarrak... beren burua zeukaten katalantzat guztiz. Eta ikusi zituztenean beste umeak, denak gazteleraz, txuri-txuriak, eta beren uniformeekin... uste zuten kanpotarrak zirela.” (EA)

Baina konplexutasun hori mahaigaineratuta, gure elkarrizketatuen artean gailendu den diskurtsoa izan da lurraldean bizi diren guztiak

naziokidetzat hartu behar direla. Lurraldean oin hartzen duen naziotasunaren definizioak indarra du, ondoko pasarteek erakusten duten moduan:

“Nik neuk bertan bizi diren hiritar guztiak nazio horren parte direla uste dut.” (EA)

“Ba [etorkinak] euskal herritarrak dira, hemen urte batzuk bizitzen daramatzate, eta kanpokoak baina euskal herritarrak dira.” (ET: Errenteria-Orereta)

“Nosotros consideramos que cualquier persona que venga a Euskal Herria forma parte de esta sociedad, con plenos derechos y con plenos deberes y obligaciones (...) Nuestro planteamiento siempre ha sido que son vascas todas las personas que viven y trabajan en Euskal Herria, no hay ningún planteamiento restrictivo. En consecuencia, per se, vivir y trabajar en Euskal Herria te da derecho a la ciudadanía de Euskal Herria.” (LAB)

Gure elkarrizketatuen artean orokortu den diskurtsoaren arabera, beraz, euskal herritarra Euskal Herrian bizi dena da, nahiz eta ideia hori hainbat modutan formulatzen den. Ikuspegi hori euskal nazionalismoaren artean finkaturik dago, beraz. Baina, aldi berean, baieztapen horrek ahuldadeak badituela ere azpimarratzen da. Izan ere, horrela esanda, badirudi euskal herritartasuna aukera ideologiko hutsa dela; eta gaur egun, errealitatean, hala da. Hori dela eta, naziotasunari buruzko diskurtsoan gehien sakontzen dutenek euskal herritartasun ofizialik ez dela existitzen azpimarratzen dute:

“Nosotros no podemos ofrecer derechos de ciudadanía propios, eso viene impuesto, y nosotros unimos el derecho a la ciudadanía a la nación, ese derecho es por pertenecer a una determinada nación, y es como consecuencia de que esa nación tiene un estado propio que posibilita gestionar ese derecho de ciudadanía, esos derechos sociales o esos derechos económicos.” (LAB)

Diskurtso horrek, beraz, immigrazioaren afera abertzaletasunaren diskurtsoarekin lotzen du. Izan ere, euskal herritartasuna lortzeke dagoen aldarrikapen moduan aurkezten denez, etorkinen eskaerak ildo horri lotu nahi dira, eta bertakoen eta migratzaileen arteko *aliantzaren* ideari bide ematen dio, aurrerago ikusiko dugunez. Gainera, euskal nazionalismoaren aldarrikapen nagusiarekin lotura ere egiten da horrela: Estatu propioarekin. Edonola ere, nabarmentzekoa da Espainiako herritartasuna ez dela azpimarratzen, eta herritartasun horrek oinarrizko desberdintasuna markatzen du bertakoen eta immigrante askoren artean.

Naziotasunari buruzko diskurtsoa, hala ere, ez da horretan agortzen, eta herritartasuna –komunitate politikoari eta hortik eratorritako eskubide zein betebeharrei loturiko maila– eta naziotasuna –nazioarekiko atxikimendua– bereiztearen aldeko ahotsak ere izan ditugu gure elkarrizketatuen artean, diskurtso hegemonikoa osatu gabe, alta:

“Gauza bat da sentimentu bat, abertzale sentitzea, nazio bat garela edo independenteak izan behar garela pentsatzea, eta beste gauza bat da hori izatea argudio bat oztopatzeko pertsona baten nahia, bizimodu duin bat aurkitzeko aukera leku baten. Horrela ginatete etnizistak seguraski. Nazio bat sortu behar degu, baina herritarren artean, eta ezin diogu jarri edonorri nazioaren baldintza herritar izateko. Esan dudan moduan, herritar da hemen lan egiten duena eta hemen bizi nahi duena, gero konbentzitu behar diogu proiektu politikoa edo gure estatua nazio bat dala. Hori da gure lana politikoa moduan eta abertzale moduan, eta sentimendu hori helarazi eta ikastarazi immigrante guztiei, baina ez izan muga bat herritar izateko.” (Aralar)

Naziotasuna eta herritartasuna banatuta, horrela, euskal nazionalisten eginbeharra litzateke naziotasunarekiko atxikimendua herritarren artean, eta

baita etorkinen artean ere, hedatzea¹⁷⁰; eta herritartasunak, bere aldetik, biztanle guztien eskubideen alorrari egingo lioke erreferentzia. Banaketa horrekin, nazio sentimendu diferenteak batu ahalko lirateke, herritartasun beraren inguruan. Edonola ere, banaketa teoriko hori estatuen jardunarekin kontraesanean doa, Mendebaldeko estatuetan, bederen, naziotasuna eta herritartasuna batera baitoaz. Hala ere, bereizketa hori ez da gehiegi nabarmendu abertzaleek immigrazioaz garatzen duten diskurtsoan.

Behin euskal herritarra Euskal Herrian bizi den oro dela argituta, ikerketan parte hartu dutenen artean iritzi nagusia da ezin dela euskal herritar izateko baldintzarik ezarri, bertako biztanlea izatearen frogaz gain:

“Ofizialki jaso beharko bagenu nonbaiten, nik uste dut hemen enpadronatuta egotearekin nahikoa izan beharko lukeela.” (EA)

“Ez daude baldintzak herritar izateko. Azkenean, baldintza bakarra da herri baten bizitzea, lan egitea. (...) paperak, odola... ez dira baldintza. Baldintza da nahia bilatzeko bizimodu duin bat nahi duzun lekuan. Eta erabakitzen baduzu Euskal Herrian, hori nahikoa da.” (Aralar)

Izan ere, lehen azaldu dugun legez, euskal herritartasuna ez da ofizialki existitzen eta, beraz, elkarrizketatuak maila normatiboan eta nahiei loturik ari dira gai honetan. Ikusi ahal izan dugunez, euskal nazionalismoak ez du immigranteentzako itxita dagoen naziotasun irizpideen defentsarik egiten. Aitzitik, diskurtso teoriko irekia garatzen du, immigrazioarekiko zubiak eraiki nahi dituena. Edonola ere, kontuan hartzekoa da gai honetan zehaztasun maila txikia dela, eta abertzaleek hipotesien mailan hitz egiten dutela, neurri handi batean.

¹⁷⁰ Ibarretxe lehendakariak 2003an bultzatutako Autonomia Estatutu Proposamenak, esaterako, naziotasunaren eta herritartasunaren arteko bereizketa jasotzen zuen.

6.6.4. Zer egin? Abertzaleen egitekoa

Euskal nazionalismoak, bere nazio egitasmoa garatzeko, herritarren gehiengoaren babesa behar du eta, hortaz, ahalik eta herritar gehien batu behar ditu bere egitasmora. Immigrazioaren auzia, beraz, ikuspegi horretatik aztertzen da; baina, aldi berean, ez dugu adierazi nahi ikuspegi utilitarista hutsa gailentzen denik eta, adibidez, gehiengo sozialak etorkinen aurkako jarrerak eskatuko balitu, modu errazean abertzaleek halako jarrerak defendatuko lituzkeela¹⁷¹. Aitzitik, eraginkortasun politikoaren ikuspegi hori balio eta ideologia zehatzei ere lotzen zaizkio, eta ildoaren arabera zentzu desberdina hartzen duten kontzeptuen inguruan garatzen da: demokrazia, ezkertiaratasuna, giza eskubideak, berdintasuna, eta abar.

Beraz, abertzaleen diskurtsoan asmo argia agertzen da: immigrazioa euskal nazionalismoarekin bateragarri egiteko nahia. Eta horretarako proposamen desberdinak mahaigaineratzen dira. Lehenik eta behin, horrela, batzuetan esan gabe doan ideia bat aipatzen da, immigranteei Euskal Herriko nazio gatazkaren berri eman behar zaiela, alegia. Izan ere, abertzaleak kontziente dira eurei dagokiela lan hori:

“(…) konbentzimenduaren bitartez iruditzen zaigu garrantzitsuena dela horixe lortzea: beraiek [etorkinak] konturatu daitezela gu herri berezi bat garela. Hau da, kontestu espainol batean bagaude ere, euskaldunak garela eta euskaldunak izaten jarraitu nahi dugula, gehiengo batean behintzat. Eta nahi genukeena errealitate horretara hurbiltzea da, eta hori onartzea. Eta beraiek ez badira, beren gazteak eta umeak hori onartzea.” (EAJ)

“Izan behar dugu kapazidadea saltzeko gure produktua, gure sentimendua, eta hori da egin behar duguna. Azkenean errazena da oztopoak jartzea gu bezalakoa ez danari, eta zailena da

¹⁷¹ Zentzu berean, gogora dezagun immigranteetako askok ez dutela Espainiako herritartasunik. Beraz, gure ustez, haiei buruzko diskurtsoa ezin da botoak lortzearen ikuspegi hutsetik ulertu.

asmatzea modua konbentzitzeko hori gure proiektua ona dala.”
(Aralar)

Finean, eremu horretan guztiz azaleratzen da estatua erdietsi duen eta ez duenaren arteko aldea: estaturik gabeko nazionalismoak aldarrikatzen duen nazioa –zein nazio gatazka– ikusgarri egin behar du, eta are gehiago agian errealitate horretatik urrun bizi daitekeen etorkinarekin. Estatuak, aitzitik, bide normalizatuen bidez, eta nazionalista gisa agertu gabe, garatzen du bere nazio egitasmoa, Billigek (1995) azaldutako *nazionalismo arruntaren* bidez. Euskal nazionalismoaren kasuan, bada, immigrazioaren auzian azpimarratzen da etorkinak beren proiektura erakartzea ezinbestekoa dela. Izan ere, onarpena nahitaezkoa da helburu horretara gerturatu ahal izateko:

“Guk daukagun esperientzia hurbilak esaten digu¹⁷², guk daukagun zailtasun guztiakin, hau da, hizkuntza berria eta kultura diferentea eta hori dena, jendeak sumatzen badu beraiek onartzeko prest gaudela, eta prezio hori ordaindu behar badute ere, prest daudela ariketa hori egiteko, eta gainera harro.” (EAJ).

Immigratuak erakartzearen xedea erabatekoa da abertzaleek immigrazioaz duten diskurtsoan. Helburu horretara bideraturiko diskurtsoak, horrela, hainbat argudio erabiltzen ditu, euskal nazionalismoaren ildoaren arabera aldatuko direnak. Dena dela, gure elkarrizketatuen artean Estatu propioa immigranteen bizi egoeraren hobetzearekin lotzen duena azpimarratzen da. Diskurtso horrek ere forma desberdinak hartzen ditu, ildoaren arabera; eta ondokoak, esaterako, ezkerreko ikuspegitik garatzen du diskurtso hori:

“(…) igual pentsatzen ahal dugu kanpotik etortzen diren guztiak ez duela gure kontzientzia nazionala. Ta gure lana izan behar da lan ideologikoa egitea, esplikatu hau Euskal Herria dela (...) eta gero ezkerreko ikuspuntu batetikan, helburua dela estatu bat sortzea,

¹⁷² 1950 eta 1980 urteen arteko migrazio fluxuaz ari da.

eta beraien estatus sozialetikan komenigarria izango dela, eta badutela irabazteko etorkizuneko marko batin, gaur egungo markoan baino.” (ET: Lesaka)

Euskal nazionalismoari konbentzimendu lana, edo lan ideologikoa, dagokiola azpimarratzen da, hortaz. Baina, aldi berean, etorkizunerako lelo edo proposamen teoriko gisa izatera ezin dela mugatu ere azpimarratzen da. Zentzu horretan, immigrazioa babes sozialarekin lotzen da maiz, nahiz eta, ikusi dugun bezala, etorkinen aurkako estereotipoek gai horretan oin hartzen duten gizarteko sektore zabaletan:

“(…) beldur gabe esan behar dugu hemen belar artifizialedun futbol zelaiak regatzeko dirua dagoen bitartean, ezin dugu inor zubipean lotan utzi. Beraz, beharra duen edonori, hemengoa edo kanpokoa izan, laguntza eman behar zaio.” (EA)

Gai batzuek besteek baino zentraltasun handiagoa eskuratu arren, abertzaleen diskurtsoan indarra hartzen du Estatu propio batek immigrazioarekiko abertzaleen lana erraztuko lukeela, eta horrela estaturik gabeko nazionalismoak dituen zailtasunak gaindituko liratekeela:

“(…) habría que hacer un planteamiento ofensivo en el ámbito educativo-cultural, en el ámbito identitario, en el económico y sociolaboral, es decir, que [los inmigrantes] se sientan parte del país al que vienen, y requeriría un esfuerzo doble, del que requeriría de tener unas instituciones propias en las que todo el mundo sabe a qué país viene. Así que cuanto antes construyamos un estado propio mejor.” (LAB)

Idea hori esanguratsua gertatzen da abertzaleek immigrazioaz egiten duten diskurtsoan; eta bi mailatan nabarmentzen da bere garrantzia. Batetik, Estatu propioak immigranteentzako onurak ekarriko dizkiela defendatzen duen diskurtsoa agertzen da. Bigarrenik, harrera gizarteari –kasu honetan, Euskal

Herriari eta, euskal nazionalismoaz ari garenez, euskal nazioari– begira, Estatuaren bidez euskal nazioaren ezaugarriak normalizat hartuak izango liratekeela azpimarratzen da:

“Gu Estatu bat bagina, ez genitun izango ditugun arazoak. Izango genituzke beste batzuk, baina jendeak jakingo luke Euskal Herrira datorrela eta hemengo hizkuntza euskara dela, eta eskolara joango zen eta euskara ikasiko zun. Gure arazoa da ez daukagula hori.”
(ET: Errenteria-Orereta)

Bigarren ikuspegia nabarmentzen da gehienbat, baina immigranteei begira ere diskurtsoak eraikitzearen beharrak garrantzi handia hartzen du. Zentzu horretan, euskal nazionalismoaren baitan bide desberdinak planteatzen dira etorkinak bere proiektura erakartzeko. Izan ere, diskurtso ildo batek migratzaileekiko *konbentzimendu lana* azpimarratzen du, baina ez du xehetasun gehiagorik eskaintzen. Beste aldean, immigrazioarekiko diskurtsoa eraikitzearen prozesu horretan, kontzeptu berri bat lehenesten da: *aliantzaren* ideia, alegia.

Aliantzaren diskurtsoa Ezker Abertzalearen immigrazioari buruzko idatzietan garatzen da, eta migrazio arduradunek defendatzen dute, eragile horretako kideek zein LAB sindikatukoek. Ezkertiar abertzaleekin egindako eztabaida taldeetan, aldiz, kontzeptu horrek ez du garrantzirik eskuratzen, eta ia ez da agertzen, oro har.

Edonola ere, *aliantzaren* ikuspegiarekin, immigranteen eta bertakoen eskakizun eta beharren artean lotura bat sortu behar dela aldarrikatzen da; hau da, abertzaleen eginkizuna dela etorkinek euren eskakizunak abertzaleen aldarrikapenekin lotuta ikustea. Zentzu horretan, prozesu horren xedea etorkina abertzaletasunaren aldarrikapenetara batzea da:

“(…) cómo hacer que la gente que viene de fuera se sienta parte de este país e incluso se incorpore al planteamiento reivindicativo de

capacidad de decidir. (...) Hay que contar con ellos, eso no se puede hacer sustituyendo a las personas, sino generando una política de incorporación.” (LAB)

Koadro politikoetatik at, etorkinen eta abertzaleen arteko lotura ere azpimarratzen da, eta askotan harremanen arloak eskuratzen du lehentasuna. Ondorengo pasartean, adibidez, immigrazio zaharra adibidetzat jartzen da, immigrazio berriarekiko lanketari begira:

“Hemen egiten dira galiziarren festa, andaluzena, errioxarrena... eta guk hor jarri ditugu pankartak. Galiziako festan, euskaraz eta galegoz, *Bi herri, borroka bat*, eta errioxatarren egunean jarri genuen *Errioxatarrak ongi etorri Euskal Herrira*. Orduan, erakutsi behar da errespetua, goxotasuna, eta gu abertzaleak garenez ba gure ikuspegia markatu ere.” (ET: Errenteria-Orereta)

Hala ere, *aliantzaren* planteamendu teorikoa errealitatean garatzeko zailtasunak ere azaltzen dira. Gogora dezagun abertzaleek autokritika egiten dutela haien eta immigranteen arteko hartu-emanak eskasa delako. Hurrengo kasuan, esaterako, harreman horrek zentzu politikoa eskuratzeko beharra –eta zailtasuna– azpimarratzen dira:

“–Adibidez udal hauteskundeak, eta hor ditugu herrian beltzak, eta kapazak izango bagina programa elektoralean, adibidez, euren benetako beharrak jasotzeko. Ondarru batean, azkenean, poblazioaren parte bat bere eskubideak guztiz urratuta ditu, guztiz, eta euren gaiak ere kontuan hartu beharko lirateke. Programan badago atal bat emakumeena, gazteena, eta zergatik ez kanpokoentzat beste bat?

–Guk hori nahi bagenu gauzatu, ezingo genuke. Botorik emateko aukerarik ez edukitzea, eta paperik ez edukitzea, guk ezin dugu ezer egin horren aurrean!

–Ez, klaro, baina ezin dena egin, kartel elektoralean denak zuriak ateratzea, ze herrian ez gara denak zuriak!” (ET: Ondarroa)

Finean, euskal nazionalismoaren diskurtsoan abertzaletasunak immigranteak bere egitasmora erakarri behar dituela azpimarratzen da. Ideia hori garrantzitsutzat hartzen da, eta horregatik aho batez abertzaleek etorkinekiko konbentzimendu lana, edo lan ideologikoa, egin behar dutela adierazten dute.

Ideia orokor horretatik aurrera, hala ere, abertzaleek bide desberdinak hartzen dituzte. Alde batetik, migratzaile eta abertzaleen arteko loturak azpimarratzen dira, gehiegi zehaztu gabe, eta *euskal kulturara gerturatzea*, *Euskal Herria nazioa dela ikustaraztea* eta antzeko ideiak aipatzen dira. Ildo hori diskurtsoan gailendu da, baina, horrekin batera, beste bat ere agertu da: *aliantzarena*, alegia. Diskurtso hori oraindik gehiegi hedatu ez dela dirudien arren, garrantzia eskuratu dezakeela dirudi¹⁷³. Haren arabera, bertakoak eta etorkinak –gizarteko beste hainbat sektore bezala– zapalduak dira, arrazoi desberdinak direla eta; eta, hortik abiatuz, bien arteko akordioa –*aliantza*– defendatzen da. Ikuspegi hori jarraituz, adibidez, herritartasunaren afera immigrantei soilik dagokiela ukatzen da: Euskal Herriko herritartasunik ez dagoenez, bertakoek ere herritartasun hori eskuratu behar luketela defendatzen da.

Edonola ere, diskurtso horrek, praktikoan baino, maila teorikoan funtzionatzen duela dirudi. Izan ere, ikusi dugun azken transkripzioak (Ondarroako eztabaida taldekoak) erakusten duen legez, egunerokotasunean abertzale eta migratzaileen arteko hartu-eman politikoak urriak dira.

¹⁷³ Adibidez, 2012ko azaroan Sortu ezker abertzaleko alderdi berriaren eratze prozesua abiatu da. Bertan, *Oinarri ideologikoei* buruzko ponentzian (lan hau idazten ari garen unean, oraindik behin-betiko testu gisa onartu ez dena), etorkinen eta bertakoen arteko *aliantza* aldarrikatzen da, testuan zehar, atal desberdinetan. Antolakundearen helburu estrategikoak zehazterakoan, horrela, *Euskal Herri anitza* izeneko bat aipatzen da, zeinean jatorri desberdineko subjektuen arteko *aliantza* aipatzen baita (Sortu, 2012: 23).

ONDORIOAK

7. ONDORIOAK

Ikerlan honetan, estaturik gabeko nazionalismo batek –euskal nazionalismoak– errealitate sozial zehatz baten aurrean –immigrazioa– garatutako jarrera izan dugu aztergai. Gure ikergaia euskal nazionalismoa izan da, beraz; eta, zehazki, nazionalismo horrek Hego Euskal Herrira iritsitako *immigrazio berriaren* aurrean duen posizioa. Izan ere, lurralde orotan gertatzen den moduan, migrazio fluxu ugari bizi izan dira Euskal Herrian, bai bertatik kanpora, eta baita lurraldera lagun berriak iristen zirelako ere. Baina azken immigrazio prozesuaren ezaugarri nagusia bere jatorria izan da: aurreko prozesu modernoetan ez bezala, immigrazio honen jatorria ez baita Espainia izan.

Edonola ere, nazionalismoak immigrazioaren aurrean garatzen duen erantzuna aztertzerakoan, nazionalismo horren ezaugarrietan sakondu dezakegu. Izan ere, immigranteak nazio egitasmoan barneratzeko –edo errefusatzeko– moduek (bere horretan gai garrantzitsua izateaz gain) nazionalismoaren izaeraren beraren ezaugarri esanguratsuak agertzen dituzte. Bada, *bestetasunarekiko* jarrera behatzearen bidez, abertzaletasuna aztertu dugu.

Lanean zehar nabarmendu den bezala, immigrazioaren afera ez da lehenetsua euskal nazionalismoarentzat. Izan ere, azken urteetan eragile batzuek migrazioei zuzendutako egiturak sortu badituzte ere, immigrazioa oraindik ere ez da nabarmentzen abertzaleen jarduera nahiz diskurtsoan. Hizpide dugu immigrazio fluxua berria delako, etorkinen kopurua mugatua delako edota bestelako arrazoen eraginez, euskal nazionalismoak ez du afera hau azpimarratzen; eta estaturik gabeko beste nazionalismo batzuetatik (Flandria, Quebec...) aldentzen da arlo honetan. Izan ere, abertzaleek ez dute beren nazio aldarrikapena arrazoitzeko argudioen artean immigrazioa aipatzen; eta, zentzu horretan, immigrazioaz euskal nazionalismoak duen jarrera ez da diskurtso egituratu eta sistematizatu batean egikaritzen.

Aitzitik, alderdi edo mugimendu politiko beraren baitan ere iritzi desberdinak –are kontraerriak ere– aurki daitezke. Finean, diskurtso anitz batez ari garela ez dugu ahaztu behar, bide ugari jarraitzen duena, euskal nazionalismoaren baitan diharduten eragile eta ildoak askotarikoak diren heinean. Hala ere, lan honetan euskal nazionalismoaren diskurtsoan gailentzen den ildo jarraitu dugu, eta arreta oro har azpimarratzen diren ideietan jarri dugu.

Zentzu horretan, gaur egungo immigrazioari buruzko euskal nazionalisten diskurtsoan, hainbat gai agertzen zaigu, batzuk nazio egitasmoari eta beste batzuk ardatz sozialari lotuagoak. Lehenengoen artean, euskarari buruzko ardura nabarmentzen da, eta, horrekin batera, immigratuak euskal nazionalismoaren proiektura batzeko asmoa. Ardatz sozialari dagokionez, nagusitzen den ardura argia da: Euskal Herriko gizartean –eta baita abertzaletasunaren oinarri sozialean ere– etorkinekiko jarrera uzkurak hedatu zein areagotzea. Horrekin guztiarekin batera, eta azken hamarkadetan Euskal Herritik at ere gertatzen den moduan, immigrazioa batik bat kulturaren ikuspegitik behatzen da, eta multikulturalismoaren eztabaida agertzen da, horrela. Baina abertzaleek kultura aniztasunaz eraikitzen duten diskurtsoa zehaztugabea da oso; eta integrazioa, egokitzapena, kulturartekotasuna, multikulturalismoa bera zein antzeko kontzeptuak modu nahasian erabiltzen dira (gaiari buruzko eztabaidetan, akademikoetan barne, arrunta den moduan, bestalde).

Hainbat gai ukitzen du, beraz, euskal nazionalismoak egungo immigrazioari buruz eraikitzen duen diskurtsoak. Maila orokorrean hitz eginda, azpimarratu beharreko lehen ideia diskurtso horren zentzu orokorra da: abertzaletasuna ez da immigrazioaren aurkako jarrera batetik abiatzen. Hau da, immigrazioari buruzko diskurtso abertzaleak ez die zentraltasunik aitortzen immigrazioak –orokorrean– edota immigranteak –modu zehatzean– euskal nazioari ekar diezazkioketen balizko arazoei; eta, ondorioz, euskal nazionalismoaren diskurtsoaren muinean ez dago immigrazioa mugatzearen aldeko jarrerarik, adibidez.

Izan ere, aurkako helburua topatu dugu: immigrazioa modu ezkorrean (edo itxian) ulertzen zuten diskurtso eta ikuspegiak alboratzeko saiakera. Gure ustez, euskal nazionalismo berriak (XX. mendeko erdialdetik aurrerakoak) izan duen jarrerari eusten zaio horretan guztian. Hasierako nazionalismoak ukatu egin zuen Espainiatik zetorren immigrazioa, eta XX. mendeko 1950eko hamarkadatik aurrera sortu zen nazionalismo berriak, aldiz, deitoratu egin zuen jarrera hura, Aranaren xenofobiarekin batera, eta ez bakarrik onartu, baizik eta bere mugimenduan integratzeko deia egin zien etorkinei. Ildo horri jarraituta, gaur egun ere jarrera arrazional bat dago euskal nazionalismoaren barruan diskurtso eta ikuspegi negatiboak alboratzeko, hortaz.

Jarrera hori agerikoagoa izan da elkarrizketatu ditugun alderdi eta sindikatuetakako arduradunen artean, baina, oro har, diskurtsoan gailendu da. Horrela, euskal nazionalismoaren gizarte oinarrian immigrazioa arazo gisa ulertzearen arriskuak –eta egoera horrekiko prebentzioa– azpimarratu dira. Ideia horren arabera, argudio *ideologikoekin* batera (demokrazia, giza eskubideak, ezkertiaratasuna, eskubide sozialak...), euskal nazionalismoaren xedeak etorkinak bere proiektura erakartzea izan behar du, ezinbestean, eta bestelako posizioek helburu hori zaildu besterik ez lukete egingo.

Finean, jarrera *politikoa* aurkitu dugu. Errealitatearen azterketa zehatzak baino, irakurketa politikoa gailentzen da; hots, botereari bideraturiko diskurtsoa. Ildo horretan, kontuan hartzekoa da euskal nazionalismoa ez dela mugimendu politiko txiki edo minoritarioa, hainbat botere eremutan esku hartzen duena baizik. Hori dela eta, abertzaleen diskurtsoa ez da bere mugimenduaren mugak indartzera bideratzen (lehen euskal nazionalismoarekin gertatzen zen bezala); aitzitik, ahalik eta herritar gehienek atxikimendua bilatu nahi du, eta espektatiba horrekin dihardu.

Immigrazioari buruzko diskurtsoan, horrela, ez da kutsu defentsiboa nabarmentzen; alta, gaia lantzeko proposamenak mahaigaineratu beharra iritzi argia da. Beste kontu bat da helburu horretan abertzaleek eskuratutako

arrakasta, immigrazioari buruzko proposamenak oraindik ere ez baitira oso zehatzak.

Ahuldade horrekin batera, hala ere, beste bat ere aipatu beharra dago. Izan are, nahiz eta erakunde batzuk abertzaleen esku dauden edo egon diren (udalak, foru aldundiak, Eusko Jaurlaritza...), immigrazioari buruzko politika nagusiak (herritartasuna guztien artean nabarmentzen da) estatu mailakoak dira eta, ondorioz, euskal nazionalismoaren diskurtsoa zenbait gaitan ez da errealitatean gauzatzerik izan. Zentzu horretan, abertzaletasunaren muga hori azpimarratzekoa da, zalantzan geratzen baita euskal nazionalistek estatu propiorik erdietsiko balute, aldarrikatzen duten immigrazioarekiko jarrera estatu horretatik ere bultzatuko luketen, edo beren oraingo diskurtsoa administrazio maila baxuetarako ote den.

Idea horri loturik, ikerlanean nabarmendu denez, abertzaletasunak immigrazioa nazioaren egitasmoari begira lantzeko zailtasunak dituela dirudi. Izan ere, hainbat arrazoi aipatzen da egoera hori azaltzeko, baina Euskal Herriak berezko Estaturik ez edukitzea errepikatzen da gehien. Horren ondorioa da abertzaletasunak immigrazioa arlo sozialetik, giza eskubideei loturik, ezkertiaratasunaren ikuspegitik eta abarretik lantzen duela (hots, berez nazionalista ez den eragile batek egingo lukeen bezala), baina nazio arazoari begira mugatuago aurkitzen dela. Edonola ere, ezinbestean, abertzaleek nazioari buruzko ardura eta ikuspegia ere landu behar dute, eta hainbat ideia agertzen da horri begira.

Bigarren ondorio nagusia da euskal nazionalismoaren diskurtsoan Espainiatik iritsitako immigrazioak –eta, batez ere, 1950 eta 1980ko fluxuak– betetzen duen paper garrantzitsua. Izan ere, abertzaletasunak immigrazioari buruz eraikitzen duen diskurtsoan, *immigrazio zahar* deitu dugun hori erreferentzia ekidinezina da. Immigrazio prozesu hori maiz aipatzen da, eta immigrazio berriarekiko alderaketak ere ugariak dira, hainbat gairi buruz (harreman sozialak, euskara, abertzaletasunarekiko atxikimendua eta abar)

aritzera¹⁷⁴. Duela hamarkada batzuk soilik jazotako prozesua izanik, immigrazio horren bizipenak oraindik presente daude herritarren artean, dela zuzenean migrazio hori bizi zutelako (etorkin gisa zein harrera gizartearen kokapenean), dela familiaren bidez jaso dutelako, edota haren ondorioak (auzoak, erregio etxe eta jaialdiak, immigrazio hari buruzko komentario eta eztabaidak, eta abar) gizartearen agerikoak direlako.

Bada, Espainiatik iritsitako immigrazioa elementu sinboliko zentrala da euskal nazionalismoarentzat. Izan ere, immigrazioari buruzko diskurtsoan immigrazio prozesu hori ere sartzerakoan (kanpo-migrazio gisa ulertuta, gainera), immigrantearen kategoria abertzaletasunaren ikuspegiaren arabera *nazionalizatzen* da, aldi berean. Hau da, immigranteak Euskal Herritik at etorritako guztiak direla azpimarratzen denean, Euskal Herria nazioa dela aldarrikatu nahi du euskal nazionalismoak, era berean. Aitzitik, espainiar nazionalismoak –eta haren eraginez biztanleriaren zati batean hedaturiko *senak*– Espainiatik iritsitakoak *immigranteak* direnik ukatzen du. Immigrazioaren definizioa (zein den *immigrantea* eta zein *emigrantea*) nazioaren eremuaren zedarritzeari lotutako gatazka eremu bilakatzen da, hortaz.

Aurreko immigrazio aldiari loturik, hala ere, iritzi desberdinak agertu zaizkigu. Laburbilduz, bi diskurtso ildo nagusitu dira: batek immigrazio horren irakurketa baikorra egiten duen bitartean, bestearentzat immigrazio zaharra ondorio negatiboak, batez ere, eragin zituen prozesua izan zen.

Lehenaren arabera, arazoak gertatu zirela onartu arren, immigrazio horren *integrazioa* azpimarratu nahi da. Oro har, ez zen arazo handirik gertatu; eta, euskal nazionalismoari dagokionez, hainbat etorkinek abertzaletasunarekin

¹⁷⁴ Adibidez, deigarria egin zaigu eztabaida taldeetako kideei immigrazioaz hitz egingo genuela esaterakoan, elkarrizketatuek zein immigrazioari buruz ariko ginen galdetu izana. Gainera, immigrazio zaharrarekiko hartu-emana handiagoa izan zela dirudi: hainbat anekdota agertu da, eta bizipen on zein txarrak ugariak izan dira. Gaur egungo immigrazioari dagokionez, aldiz, oro har errealitate urrun bati buruz ariko balira legez egin dute; eta batzuetan komunikabideetatik jasotako kasuak zein ikuspegiak azaleratu dira. Zentzu horretan, egungo immigrazioaz kontatutako adibide negatiboak hedabideen bidez jasotakoak izan dira, norberaren bizipenak izan ordez.

bat egin zutela nabarmentzen da. Izan ere, ildo horrentzat funtsezko ideia da hori: immigrante ugari abertzale egin ziren. Finean, bide hori *integratio osoaren* adibidetzat aurkezten da, eta, bestelako aukeren gainetik, integratiorako bide politikoa hobesten da.

Horrekin batera, hala ere, beste diskurtso bat ere antzeman dugu, aurrekoarekin lehian dagoena, nolabait. Ikuspegi honen arabera, aurreko integratio aldian aspektu negatiboak nagusitzen dira. Beraz, Espainiatik iritsitako integratioa guztiz soluzionatu gabeko arazo gisa aurkezten du, Euskal Herriko gizartean ondorio ezkorrak eragin dituen. Euskara da gehien aipatzen den gaia; izan ere, etorkinaren integratioa termino kulturaletan ulertzen da, euskarari loturik, batik bat.

Edonola ere, bi diskurtso hauetatik, Espainiatik iritsitako migratio prozesuaren irakurketa baikorra egiten duena gailentzen da: integratioaren balizko ondorio negatibo zein arazoak baino, prozesu haren ekarpenak azpimarratzen dira, eta integratio berriarekiko *irakaspen* gisa aurkezten dira. Izan ere, orokorrean, integratio zaharra gaur egungoa baino erronka zailagoa izan zela defendatzen dute abertzaleek (Espainiatik zetorrelako, batik bat, baina baita kopuruetan handiagoa izan zelako ere). Hainbat arrazoi aipatzen da integratio fluxu haren egokitzapen prozesua azaltzeko (langile mugimenduaren eragina azpimarratzen da, adibidez); baina, oro har, ondoko ideia gailentzen da: Euskal Herriko gizarteak integratio aldi hori ondo jaso bazuen, oraingoa ere *integratu* ahal izango du. Euskal nazionalismoaren diskurtsoan, beraz, integratio zaharra etsenplua da, eta gaur egungo integratioaz aritzeko erreferentzia albora ezina.

Abertzaleentzat, gaur egungo integratioaz hitz egiterakoan, integratio zaharra elementu sinboliko ekidinezina baldin bada, modu argian nabarmentzen den beste gai bat euskara da. Izan ere, integratio dela-eta abertzaleek dituzten ardura nagusien artean, euskarak leku esanguratsua betetzen du.

Modu orokorrean azalduta, euskararen eta abertzaletasunaren arteko harremana gatazkatsua da. Batetik, euskarak funtsezko papera betetzen du euskal nazionalismoak euskal naziotasunaz egiten duen definizioan, eta euskara euskal nazioaren ikur nagusia da, horrela. Baina, aldi berean, euskararen egoera ahula dela eta, praktikan euskarari loturiko eskakizunak leuntzen dituzte abertzaleek; eta, neurri batean, paper sinbolikoa betetzen du, praktikoa baino gehiago.

Immigrazioaren auzian, bada, euskara hainbat mailatan nabarmentzen den gaia da euskal nazionalismoarentzat. Batetik, immigrazioak euskararengan izan dezakeen eraginari buruzko ardura dugu; eta, bestetik, euskarak etorkinak integratzerako duen balizko egitekoa.

Lehenengoari dagokionez, lan honetatik eratortzen den ondorio nagusia da immigrazioa euskararen okertzearekin modu argian ezin dela lotu. Bestelako iritziek ere lekua duten arren, ez da euskarari loturiko agoniako sentipena nabarmentzen; eta, batez ere, euskararen *arazoak* ez zaizkio immigrazioari egozten. Euskararen egoera kaskarraren kontzientzia eta egiaztapena argia da; baina abertzaleek, immigrazioaz egiten duten diskurtsoan, hizkuntzaren errealitate hori eta immigrazioarena bereizteko saiakera kontzientea egiten dute. Izan ere, badirudi euskararen egoera gutxituak berak laguntzen duela immigrazioak hizkuntzarengan izan ditzakeen balizko eragin negatiboari buruzko pertzepzioa apaltzen: euskara autoktono gehienek ez dutenez ezagutzen, zaila egiten da afera hori immigrazioarekin lotzea, eta are zailagoa etorkinak errealitate horren erruduntzat aurkeztea.

Hala ere, horri loturik, bigarren ondorio bat ere azpimarra dezakegu euskara eta immigrazioaren arteko hartu-emanen. Izan ere, maila idealean, euskal nazionalismoak etorkinak integratzeko euskarari funtzio esanguratsua aitortzen dio. Abertzaleen ikuspegitik, euskarak nazio ezaugarrietan hain leku nabarmena duenez, immigranteak euskal nazioaren kide bilakatzeko euskara ezinbestekoa da. Baina, aipatu dugunez, asmoen eta errealitatearen arteko jauzia agerikoa da hizkuntzari buruz hausnartzerakoan, eta euskarak etorkinak

integratzeko bete beharreko funtzioa zalantzan jartzen da. Areago, gaur egungo etorkin gehienak euskaldunduko ez direla onartzen da, eta espektatibak migratzaileen seme-alabengan jartzen dira. Gai honetan ere aurreko immigrazioaren alderaketa egiten da; hots, immigrazio zaharra erreferente gisa aurkezten da. Ondorio ideala litzatekeena –migratzaileak euskalduntzea– ez denez helburu errealtzat hartzen, egingarria izan daitekeena azpimarratzen da: immigranteen ondorengoen euskalduntzea. Beraz, ideia horri loturik azpimarratzen dute abertzaleek hezkuntza sistema immigrazioari buruzko beren diskurtsoan: eskolaren egiteko nagusi legez azpimarratzen da etorkinen seme-alabak euskalduntzea. Izan ere, abertzaleen diskurtsoan mahaigaineratzen den ardura nagusietako bat etorkinen seme-alabak euskal kulturarekiko urrun mantentzearena da.

Euskal nazionalismoak gaur egungo immigrazioari buruz garatzen duen diskurtsoaren baitan azaltzen den beste gai bat, euskarari oso loturik doana, kultura-aniztasunarena da. Izan ere, azken hamarkadetan, immigrazioa eta kultura lotzen dituen ikuspegia nagusi izan da, Mendebaldeko herrialdeetan oro har, eremu sozialean zein akademikoan. Ikusmolde hori jarraituz, egungo nazioarteko migrazioek dakarten berritasun esanguratsuen gizarte multikulturalen sorrera da. Hau da, immigrazio fluxu berriek, beren jatorria eta intentsitatea dela eta, harrera gizarteak modu sakonean eraldatzen ari dira, eta aldaketa hori bereziki adierazgarria da kulturari dagokionez.

Abertzaleen diskurtsoan, aipatu dugun bezala, euskarak eskuratzen du zentraltasun osoa kultura gaietan, eta bestelako gai kulturei (erlijioa, janzkera, etorkinen hizkuntzak, talde eskubideen aitortza eta abar) ez zaie garrantzi handirik aitortzen; eta, aipatzekotan, bigarren maila batean geratzen dira. Bada, arlo horretan bereziki nahasia eta zehaztugabea agertzen da euskal nazionalismoaren jarrera. Oro har, aniztasun kulturalaz aritzeko, kontzeptuen esanahia guztiz argitu gabe, interkulturalismoa, multikulturalismoa, integrazioa, “etnizismoaren gainditzea” eta antzeko ideiak erabiltzen dituzte ikerketan parte hartu dutenek. Migrazio gaietan arduradunen aldetik ere ez dago erabateko adostasunik. Horrela, alde batean Ezker Abertzalea eta LABen

ildoa dugu, zeinean multikulturalismoaren defentsa argia egiten den, kontzeptu gisa, eta etorkinen eta bertakoen arteko *aliantzaren* proposamenari loturik. Baina eremu horretatik at, aniztasun kulturalaz aritzeko kontzeptu ugari erabiltzen da.

Edonola ere, erabilitako terminoak ugariak badira ere, abertzaleen diskurtsoa pluralismo kulturalaren ildoan kokatzen da. Izan ere, immigrazioarekiko jarrera defentsibo eta uzkurak gainditu nahi baldin badira, ezinbestekoa da kulturaren eremuan ere etorkinak onartzea. Zentzu horretan, hitz desberdinekin bada ere, gailentzen den ideia da immigranteen kulturak edo kulturek nolabaiteko onarpena izan behar dutela Euskal Herrian, eta baita euskal nazionalismoaren ildo desberdinen egitasmoetan ere.

Aniztasuna onartu beharra aitortzen da, beraz. Eta, horri lotuta, multikulturalismora hurbilduz, etorkinen kulturek ere espazioa izan behar dutela defendatzen da¹⁷⁵. Eremu horretan, hala ere, ahuldade batekin egiten du topo abertzaletasunak, immigrazioaz eraikitzen duen diskurtsoan modu argian agertzen dena: etorkinen ezaugarri eta adierazpen kulturalak onartzeko, babesteko edo integratzeko (ildo multikulturala edo integratzailea lehenesten den alde batera utzita orain) zertara *integratuko* diren, edo babesa nondik *onartuko* den, zehaztu behar da. Hots, normaltasunaren definizioa –botere harreman desberdinen ondorio dena– burutzen duen gunea definitu behar da. Eta abertzaleek gai honi buruz egiten duten diskurtsoan zentro hori zalantzan dago. Izan ere, ez dago argi aldarrikatutako multikulturalismo horretan (aldarrikatzen denean), euskarak nahiz euskal kulturak zein paper beteko duen; alegia, multikulturalismoan zehaztu behar den eremu publiko komuna euskalduna izango den, edo, aitzitik, elebiduna –Hego Euskal Herriaz ari gara eta– irudikatzen den.

Gai horretan zehaztaperen maila desberdinak bereiz daitezke. Izan ere, ildo batek kultura publiko komunak batez ere euskalduna izan behar duela

¹⁷⁵ Hala ere, berriro diogu, ezin da euskal nazionalismoak, mugimendu zabal gisa ulertuta, multikulturalismoaren printzipioekin bat egiten duela adierazi.

defendatzen du; baina, Hego Euskal Herriaren errealitate kulturala kontuan hartuz, helburu hori aurrera begirako asmo gisa aurkezten du. Zehaztaper mailez harago, hala ere, abertzaleek multikulturalismoaz lantzen duten ikuspegiak arazo hori mahaigaineratzen du: euskarak eta euskal kulturak Hego Euskal Herriko gizartean duen kokapenaren eraginez, zaila da *multikulturalismo euskaldun* batez aritzea, eredu ideal gisa ez bada; eta, hori dela eta, abertzaleek multikulturalismoaz garatzen duten diskurtsoa zehaztugabea da, oro har, eta horretan ez da sakontzen.

Edonola ere, kulturak immigrazioari buruzko diskurtso abertzalean leku esanguratsua betetzen duen arren, eremu horrek ez du nagusitasun erabatekorik lortzen. Oro har azalduta, euskal nazionalismoa mugimendu politikoa denez, helburu politikoak hobesten ditu, eta, ondorioz, immigrazioaren irakurketa politikoa lehenesten da. Hau da, euskararen auzian, esaterako, hizkuntza ezaugarri funtsezkoa den arren –eta, beraz, euskararen aldeko lana ere abertzaleen lehentasuna den arren–, helburu politikoak gailentzen dira: kasu honetan, etorkinek abertzaletasunarekin bat egitea. Izan ere, afera horretan tentsioa eta eztabaida den arren, euskal nazionalismoak immigrantearen integrazio politikoa azpimarratzen du beste ezeren –integrazio kultura, linguistikoa...– gainetik. Alegia, haren xedea da migratzaileak euskal nazionalismoarekin bat egitea, eta euskal nazioko kide sentitzea. Prozesu horretan, euskararen aldeko jarrera izango duela pentsatzen da; baina ez da, inolaz ere, euskara abertzale bilakatzeko baldintza gisa planteatzen. Zentzu horretan, gogora dezagun euskalduntzeari begirako espektatibak migratzaileen seme-alabengan jartzen direla. Finean, gai honetan euskal nazionalismoak etorkinak autoktonoak bezala tratatzen dituela dirudi: asmo politikoa lan kulturalari gailentzen zaio.

Zentzu horretan, batzuetan euskal nazionalismoa *etnikotzat* hartzen dela ikusi dugu. Berez, nazionalismo etnikoak eta zibikoak *tipo idealak* dira eta, hortaz, errealitatean ezin da aurkitu nazionalismo etniko edo zibiko pururik. Baina, praktikan, nazionalismoaren banaketa hori kutsu normatiboarekin erabiltzen da, eta analisirako tresna baliagarri baino, zalantzan jarri beharreko

dikotomia bilakatzen da, gure ustez. Edonola ere, erabilia eta garrantzitsua da nazionalismoari buruzko ikasketatan; eta, ildo horretan, adierazgarria iruditzen zaigu egile batzuek, Kymlickak (2003: 328), adibidez, immigrazioa eta euskal nazionalismoaren arteko hartu-emanaz aztertzerakoan, abertzaletasunaren izaera itxia –eta nazioaren ideia liberalaren aurkakoa– aipatu izana, horri buruzko azterketa sakonik egin ez bada ere¹⁷⁶. Bada, lan honetan lortutako ondorioa bestelakoa da: abertzaleak, euskal nazionalismoaren historiaz eta hari loturik hartu duen kutsuaz kontziente izanik, ziur aski, *eskakizun etnikoak* ukatu nahi dituzte. Horren adibide da euskararen edota *integrazione kulturalaren* garrantzia, oro har, erlatibizatu nahi izana, eta gaur egungo diskurtsoan etnizitatea –hots, arbaso komunen ustea– ez nabarmentzea. Izan ere, lehen ondorioan aipatu dugun legez, euskal nazionalismoak immigrazioarekiko ildo irekia jorratu *nahi* du.

Euskal nazionalismoak gaur egungo immigrazioaz egiten duen irakurketan, beraz, ikuspegi politikoa azpimarratzen da, gainerako arloen (kultura, baina baita gizartea nahiz ekonomia) gainetik. Ikuspegi horrek ondorioak ditu nazionalismo ororentzat esanguratsua den gai batean, naziotasunaren definizioan, hain zuzen. Izan ere, gure ikerketan nabarmendu denez, abertzaleek gai hori jorratzen dutenean (gai hau lantzeko nolabaiteko prestakuntza eduki beharra dago), herritartasuna eta naziotasuna banatzen dituzte, oro har. Horrela, herritartasunaren ikuspuntu aurrerakoia gailentzen da, eta euskal herritartzat Euskal Herrian bizi diren lagun guztiak hartzen dira. Naziotasuna, aitzitik, herritartasunarengandik bereizten da; ziurrenik, Estatu propioa ez izateagatik, Estatuak naziotasuna eta herritartasuna parekatzen saiatzen baitira. Naziotasuna, horrela planteaturik, ikuspuntu nazionalistari dagokio; eta Euskal Herriko nazioarekin lotura sentitzea –edo norberak bere burua nazio horretako kideatzat hartzea– lotzen da naziotasunaren ideia horrekin. Beraz, abertzaleen egitekotzat hartzen da euskal naziotasuna

¹⁷⁶ Iritzi horren adibide gisa, gogora dezagun Zapata-Barrerok ere, elkarrizketa batean, euskal nazionalismoa *etnikotzat* hartzen duela, eta, horren ondorioz, euskal nazionalismoa immigrazioarekiko itxia izan daitekeela ohartarazten duela: “Zailagoa izango da etorkinak integratzea Euskal Herrian [Katalunian baino], eta Flandriako eredia hartzea litekeena da.” (Zapata-Barrero, 2010).

herritarren artean –eta etorkinen artean– hedatzea, baina herritartasunaren ikuspegi irekia ukatu gabe.

Beraz, euskal nazionalismoak immigrazioaz aritzerakoan azpimarratzen dituen gaiak naziotasunaren dimentsioari lotutakoak dira, herritartasunari buruzkoak baino gehiago. Euskal Herriak immigrazioa kudeatzeko eskumenik ez izatea, etorkinek espainiar nazionalismoarekin bat egitea, edota euskarak immigranteak Euskal Herriko gizartean *integratzeko* bete beharreko balizko funtzioa zalantzan jartzea, horrela, naziotasunari dagokionez abertzaleek nabarmentzen dituzten ardura nagusiak dira. Herritartasunari lotutako kezka batzuk esanguratsuak gertatzen dira euskal nazionalismoaren diskurtsoan, beren ezkertiaratasuna azpimarratzen dutenen aldetik batik bat; adibidez, gizartean immigranteen aurkako xenofobia hedatzea. Beldur hori lan munduari erreferentzia eginez eta etorkinekin kokapen soziala (laneko eremua, batez ere) partekatzen duten sektore sozialetan antzematen da; izan ere, euskal nazionalismoaren diskurtsoan nazionalismoari lotu ohi zaizkion gaiz gain, beste hainbat mahaigaineratzen da.

Finean, euskal nazionalismoak gaur egungo immigrazioaz eraikitzen duen diskurtsoan asmo politikoa gailentzen da. Estaturik erdietsi ez duen nazionalismoa denez, aldarrikatutako nazioaren ezaugarriekiko kezka erakusten du; baina, ardura horren gaineratik, helburu politikoak lehenesten ditu. Immigrazioari dagokionez, xede politikoak azpimarratzeak etorkinak ere bere proiektura erakarri nahi izatea esan nahi du, eta horretarako immigrazioarekiko jarrera defentsibo eta itxi oro gainditu behar da. Hala ere, abertzaleek ez dute beren diskurtsoa ikuspegi utilitarista batean oinarritzen, eta, aitzitik, zenbait ideal eta baliotara joz (justizia, elkartasuna, giza eskubideak, demokrazia, ezkertiaratasuna eta abar) argudiatzen dute beren posizioa, ideologiaren edo eragile motaren (alderdi edo sindikatu) arabera, besteak beste.

Nazionalismo orok alderdi etnikoak eta zibikoak ditu, eta testuinguruaren arabera, zein garai jakin horretan nazionalismo horren baitan gertatzen den indar harremanaren arabera, ezaugarri batzuk edo besteak

indartzen ditu. Euskal nazionalismoaren kasuan, bilakaera ukaezina izan da: XIX. mende amaieran sortzean immigrazioari itxitako mugimendua izatetik, 1970eko hamarkadan etorkinen integrazioa aldarrikatzera pasa zen. 2000 urtetik aurrera iritsitako migrazio fluxu berriak, aurrekoetatik ezaugarri oso desberdinak dituenak, garapen horretan zein leku betetzen zuen ikusi nahi genuen; hau da, immigrazio berriak euskal nazionalismoarengan zein erantzun sortzen zuen. Bada, abertzaleek egungo immigrazioak euskal nazionalismoari zailtasun bereziak dakarztekiola azpimarratzen duten arren, beren diskurtsoan immigrazioa eta abertzaletasuna bateragarri egiteko nahia azpimarratzen dute. Izan ere, nazioaren ikuspegi *etniko*, immigrazioarekiko jarrera itxi, kultura propioarekiko ardura eta bestelakoen gainetik, euskal nazionalismoak immigranteak bere proiektura erakartzea bilatzen du.

7.1. ONDORIOAK LABURBILDUZ

Lan honetako ondorio nagusiak azaldu ostean, jarraian konklusio horiek banan banan, eta modu eskematikoan, azalduko ditugu. Ondoko azalpena, beraz, aurreko puntuaren laburpena da; eta, bertan, euskal nazionalismoak gaur egungo immigrazioari buruz eraikitzen duen diskurtsoan nagusi diren atalak jasotzen dira:

- Euskal nazionalismoaren diskurtsoan immigrazioarekiko jarrera defentsiboak ekiditen dira, eta immigrazioaren ondoriozko balizko *arazoek*, horrela, ez dute diskurtsoaren muina osatzen. Aitzitik, jarrera politikoa gailentzen da, eta jendea –etorkinak barne– erakartzeko helburua erakusten da, boterearekiko ardura duen diskurtsoa sortzeaz gainera. Hala ere, ideia horren ahuldadea zehaztasunik eza da: nazioaren egitasmoari begira, batez ere, euskal nazionalismoak diskurtsoa definitzeko zailtasunak ditu.
- Abertzaleentzat, immigrazioaz aritzeko erreferente nagusia Espainiatik XX. mendean iritsitako migrazio fluxua da. Immigrazio prozesu horren

bizipenak oraindik presente daude herritarren artean, eta gaur egungo immigrazioaz hitz egiteko erreferentzia sinboliko argia da. Prozesu horri buruzko irakurketa bat bakarra ez den arren, immigrazio zaharraren irakurketa baikorra egiten duen iritzia nagusitzen da, eta gaur egungo migrazio prozesuarekiko irakaspentzat har daitekeela azpimarratzen da. Gainera, euskal nazionalismoak indar berezia egiten du Espainiatik iritsitako fluxuak *ere* immigrazioari buruzko eztabaidan txertatzeko; izan ere, horrela immigrantearen kategoria bere nazio ikuspegiaren arabera *nazionalizatzen* du.

- Euskara gai garrantzitsua da abertzaleen immigrazioari buruzko diskurtsoan, eta nagusiki bi mailatan aipatzen da. Batetik, immigrazioak euskararengan izan dezakeen eraginari dagokionez, ondorio nagusia da euskararen egoeraren errua ez zaiela etorkinei egozten. Euskararen errealitate soziolinguistikoa ahularen eraginez, hizkuntza kaltetzen beste hainbat gai azpimarratzen dira immigrazioa baino lehen, eta abertzaleek ez dute, oro har, euskararen egoera immigrazioarekin lotzen.
- Euskarari loturiko bigarren ondorioa nazio hizkuntzat hartzen denak immigrazioa integratzeko garaian bete beharreko funtzioari buruzko zalantza da. Euskararen egoerak berau etorkinen integrazio mekanismo nagusi gisa aurkeztea oztopatzen duenez, diskurtso abertzalean gaur egungo immigrante gehienak ez direla euskaldunduko onartu, eta espektatibak seme-alabengan jartzen dira. Bide horretan, hezkuntza sistemaren egitekoa nabarmentzen da.
- Euskal nazionalismoaren diskurtsoan garrantzitsua den beste gai bat, euskararekin lotura handia duena, aniztasun kulturala da. Arlo honetan, abertzaleen diskurtsoa nahasia eta zehaztugabea da; baina, oro har, *pluralismo kulturalaren* ildoan kokatzen da: immigranteen kulturek Euskal Herrian nolabaiteko onarpena izan behar dutela onartzen da. Horri loturik, hala ere, euskal nazionalismoaren diskurtsoaren puntu ahul bat mahaigaineratzen da; izan ere, etorkinaren adierazpen

kulturalak onartu, bultzatu edo integratzeko, onarpena *nondik* gauzatuko den –edo *zertara* integratuko den– zehazten da, aldi berean. Nazio kultura ezbaian ez dagoen testuinguruetan, prozesu hori inplizitua da (horri buruz eztabaidatzea ez da beharrekoa), baina abertzaleek gai hori problematizatzeraz derrigortuak daude, errealitate kulturalaren eraginez. Edonola ere, auzi horri eskaintzen zaion konponbidea kulturari buruzko diskurtso zehaztugabea da.

- Kulturak immigrazioari buruzko diskurtso abertzalean leku esanguratsua betetzen duen arren, immigrazioaren irakurketa politikoa hobesten da, kulturari lotutakoaren eta beste guztien gainetik. Horrela, *immigranteen integrazioari* dagokionez, hizkuntzaren gainetik, integrazio politikoa lehenesten da; hau da, kasu honetan, etorkinak euskal nazioarekin bat egin dezala lortzea. *Eskakizun etnikoek* ez dute lekurik, beraz. Hala ere, euskal nazionalismoaren diskurtsoan asmo politikoaren eta kulturalaren arteko tentsioa azaleratzen da.
- Immigrazioa auzi politiko gisa hartuta, herritartasuna eta naziotasuna funtsezko gaiak dira. Estatuek biak berdintzen saiatzen diren arren, euskal nazionalismoaren diskurtsoan, estaturik gabeko nazionalismoa denez, bi kontzeptu horiek desberdintzearen alde egiten da. Zentzu horretan, herritartasunaren ikuspuntu aurrerakoia gailentzen da, eta euskal herritartzat Euskal Herrian bizi diren guztiak hartzen dira, inolako eskakizunik gabe. Naziotasuna, aitzitik, herritartasunarengandik bereizi eta ikuspuntu nazionalistari lotzen zaio: Euskal Herriko nazioarekiko lotura sentitzearekin lotzen da. Abertzaletasunaren egitekoa, beraz, nazioarekiko atxikimendua bultzatzea da.

7.2.AZKEN GOGOETAK

Euskal nazionalismoak gaur egungo immigrazioari buruz eraikitzen duen diskurtsoan asmo politikoa gailentzen da. Beraz, abertzaleen helburu nagusi gisa agertzen da etorkinak beren nazio egitasmoarekin bat egitea; eta, bide horretan, hainbat gai azpimarratzen dira: euskara, aniztasun kulturalaren auzia, espainiar nazionalismoaren eragina, Euskal Herriak arlo horretan eskumenik ez izatea, eta abar.

Edonola ere, abertzaleen diskurtsoan bi ardatzen arteko tentsioa gertatzen da, aldi berean neurri batean kontraesankorrak izan daitezkeen bi xede bilatzen baititu. Alde batetik, euskal nazionalismoak, mugimendu politikoa denez, bilatzen duen helburu politikoa dago: herritarrak, eta etorkinak, bere nazio egitasmora biltzea. Baina, beste aldetik, abertzaleek euskal nazioaren eta haren ezaugarrien nolabaiteko defentsa ere egiten dute. Beraz, bi asmoen artean gatazka gerta litekeela pentsa daiteke, baldin eta euskal nazionalismoak immigrazioa bere helburu eta egitasmoarentzako oztopotzat hartzen badu. Bada, lan honetatik ondorioztatzen denez, euskal nazionalismoak, bere diskurtsoan, ez du immigrazioaren irakurketa hori egiten, oro har. Immigrazioarekiko jarrera defentsiboak ekidin nahi dira, modu argian. Diskurtso horretan, hainbat faktorek eragiten dute, baina, gure ustez, bi gutxienez ezin dira aipatu gabe utzi.

Lehenik eta behin, euskal nazionalismoaren diskurtsoan bere historiak gaur egun oraindik ere eragin handia duela dirudi. Izan ere, hasierako euskal nazionalismoak etorkinen aurka izandako jarrerak (Sabin Aranaren planteamenduak, *euskal arrazaren* ideia, *maketoen* aurkako ikuspegia...) euskal nazionalismoaren aurkako klixea sortu du, neurri batean, abertzaleek immigrazioarekiko duten posizioaz. Iritzi horri jarraituz, abertzaletasuna, berez, immigrazioaren aurkakoa izango balitz bezala ikusten da, eta XX. mendeko bigarren erditik aurrerako bilakaera, euskal nazionalismo berriaren sorrerarekin, alboratuta gelditzen da. Euskal nazionalismoak, noski, ez du bat egiten jarrera horrekin, eta aurkakoa azpimarratzen du (1970etik aurrera

abertzaletasunak etorkinak kontuan hartu dituela, adibidez); baina, edonola ere, klixerik hori presente dagoela eta diskurtsoan eragiten duela iruditu zaigu. Horrela, euskal nazionalismoak, kontzienteki, ez du nazionalismo *etniko* edota *itxi* bat legez agertu nahi (baina arrisku horren jabe da), eta diskurtso malgu eta irekia eraikitzen saiatzen da.

Bigarrenik, hizpide dugun immigrazio prozesuak Hego Euskal Herrian duen pisuak ere abertzaleen diskurtsoa dena izateko bultzatzen duela dirudi. Izan ere, immigrazio kopuruak Hego Euskal Herrian ez dira handiak, hamarkada batean hazkundera esanguratsua izan den arren; eta, arazo bakanak kenduta, ez da autoktono eta etorkinen arteko gatazka girorik nabarmentzen. Areago, abertzaleek, beren diskurtsoan, immigrante eta bertakoen arteko harremanak oso urriak direla azpimarratzen dute. Beraz, horrek guztiak euskal nazionalismoa immigrazioa *urrunetik* behatzera darama, ikuspegi politikoari eta nazioari dagokionez, batez ere. Etorkinen kopurua haziz gero, euskal nazionalismoak immigrazioarekiko diskurtsoarekin jarraituko lukeen zalantzazkoa da, beraz. Edonola ere, horrek ez du esan nahi, zuzenean, immigrazioaren hazkuntzak euskal nazionalismoa nazioarekiko ikuspegia aldatzera eta etorkinekiko jarrera itxia izatera eramango lukeenik; izan ere, immigrazioaren irakurketa politikoa sakontzera ere eramán dezake (eta, adibidez, Espainiarekiko harreman berriak, edo independentzia, errealitate hori kudeatu ahal izateko aldarrikatzea).

Euskal nazionalismoaren diskurtsotik eratortzen den beste ideia bat nazionalismo horrek naziotasuna definitzeko duen ikuspegiari lotutakoa da. Horrela, gaur egungo immigrazioaz aritzerakoan, naziotasuna zedarrizteko lurraldean oinarritutako irizpidea gailentzen da. Aurretik erabilitako irizpideek (etnizitatea, hizkuntza...) indarra galtzen dute immigrazio berriaz aritzerakoan, ziur aski, gaur egungo etorkinekin operatibotzat hartzen ez direlako. Horrela, Euskal Herrian nagusi denarekiko¹⁷⁷ hizkuntza, kultura, erlijio, ohitura...

¹⁷⁷ Puntu hori konplexua eta gatazkatsua da euskal nazionalismoarentzat. Izan ere, *gehiengoaren kultura*, eta *gehiengoa* bera (termino kulturaletan ulertuta), ez dago argi nola ulertzen duen abertzaletasunak. Teorian, euskara aipatzen da; baina euskaldunak herritarren %30 inguru direnez, praktikan ikuspegi hori moldatzen du abertzaletasunak.

desberdinak izan arren, euskal herritartasuna bizitokiari eta, beraz, lurraldeari lotzen zaio. Immigrazio berriak lurralde nazionalismoan sakontzen duela dirudi, beraz. Izan ere, naziotasuna lurraldean oinarritzen duen ikuspegia nagusi izan ezean, immigrazio berria euskal nazionalismoarekin bat egitea asko zailduko litzateke, gure ustez.

Edonola ere, lan honetan euskal nazionalismoaren diskurtsoa izan dugu aztergai, eta abertzaletasuna eta immigrazioaren arteko harremanari dagokion ikergai zabal horretan, beste hainbat eremutan murgiltzea interesgarria izan daitekeela uste dugu. Adibidez, abertzaletasunaren baitan gailentzen den diskurtsoa behatu nahi izan dugunez, gure helburuetatik kanpo geratu da euskal nazionalismoaren arteko ildoen arteko desberdintasunetan sakontzea. Horrekin batera, diskurtsoa ikertzea funtsezkoa bada ere (praxiak horretan oin hartzen baitu), gure ustez euskal nazionalismoaren *praktika* ere aztertzea garrantzitsua izan daiteke. Zentzu horretan, azken urteetan eragile abertzale desberdinak erakunde ugariaren gidaritza eskuratzen ari direnez, hemendik aurrera, eremu hori euskal nazionalismoa eta immigrazioaren arteko hartu-emana ikertzeko esparru egokia izango da, gure ustez.

Amaitzeko, etengabe aipatu dugun, baina, berez, aztertu ez dugun eremu batean jarri nahi dugu arreta, etorkinengan, hain zuzen. Izan ere, euskal nazionalismoaren diskurtsoak berezko asmo, helburu, nahi eta abarrak dituen kolektibo heterogeneo bati buruzkoak dira, zehaztu ezinak gure lanean. Kontziente gara etorkinen diskurtsoetan sakontzea egin beharreko bigarren pausua dela gai hau bere osotasunean ulertzen hasteko, eta adi jarraitu beharreko ikerketa esparrua izango da, beraz.

BIBLIOGRAFIA

Ahedo Gurrutxaga, Igor (2006): *El viaje de la identidad y el nacionalismo vasco en Iparralde (1789-2005)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, 2. liburukia.

Aierdi, Xabier (1993): *La inmigración en el espacio social vasco: Tentativa de descodificación de un mundo social*, Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Aierdi, Xabier (2008): "Hego Euskal Herriko atzerri immigrazioa", *Jakin*, 165: 11-29.

Aierdi, Xabier (2011): "Immigrazioa Euskal Herrian", in Gaindegia, *Gaindegia txostena 2010*, Andoain: Gaindegia, 41-48.

Albite Rueda, Pedro (2008): "Migrazioak, kultura-aniztasuna eta estaturik gabeko nazioak. Euskal Herriaren erronkak", *Jakin*, 165: 31-73.

Albite, Pedro (2005): "Els reptes de la immigració per a Euskal Herria", *Europa de les nacions*, 56: 26-29.

Alkorta, Eider (2011): "Ikuspegi@k Immigrazioa Barometroaren bilakaera: etorkinekiko jarrera", in Moreno, Gorka eta Aierdi, Xabier (koord.): *EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria*, Bilbo: Ikuspegi@k – Immigrazioaren Euskal Behatokia, 59-70.

Álvarez Dorronsoro, Ignasi (1993): *Diversidad cultural y conflicto nacional*, Madril: Talasa.

Alvite, Pedro (1997): "La construcción social de la inmigración extranjera en Hego Euskal Herria", *Mugak*, 42-47.

Amurrio Vélez, Milagros (2003): *Genero, nazio eta nazio hezkuntza: ikastoletako irakasleria*, Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Anderson, Benedict (1993): *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*, Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica [lehen argitalpena, ingelesez, 1983an].

Anderson, Benedict (2008): *Bajo tres banderas. Anarquismo e imaginación anticolonial*, Madril: Akal [lehen argitalpena, ingelesez, 2005ean].

Apalategi, Jokin (2006): *Los vascos, de la nación al estado*, Iruñea: Astero [lehen argitalpena, frantsesez, 1977an].

Arana Goiri, Sabino (1980): *Obras completas*, Donostia: Sendoa (3 liburuki), 2. edizioa.

Aranda, José (1998): “La mezcla del pueblo vasco”, *Empiria. Revista de metodología de ciencias sociales*, 1: 121-177.

Argemí, Aureli (2005): “Nova immigració: impacte en nacions sense estat d’Europa. Panorama global”, *Europa de les nacions*, 56: 17-23.

Armstrong, John A. (1982): *Nations Before Nationalism*, Chapel Hill: University of North Carolina Press.

Aubarell, G. eta Zapata-Barrero, Ricard. (ed.) (2004): *Immigració i qüestió nacional*, Bartzelona: Mediterrània.

Aztiker (2006): *Euskal Herria datuen talaiatik*, Tafalla: Txalaparta/Udalbiltza.

Azurmendi, Joxe (1979): *Arana Goiri-ren pentsamentu politikoa*, Donostia: Hordago.

Azurmendi, Mikel (2003): *Todos somos nosotros: etnicidad y multiculturalismo*, Madril: Taurus.

Bai Euskal Herriari (2010): *Euskal Herria nazio gisa bizirauteko gudan. Naziotasunari buruzko gogoeta, hemen eskuragarri: <http://baieuskalherriari.org/gogoeta/gogoeta-baieuskalherriari.pdf> (2012-10-15ean begiratua).*

Balibar, Etienne (1991): “Racismo y nacionalismo”, in Balibar, Etienne eta Wallerstein, Immanuel: *Raza, nación y clase*, Madril: IEPALA, 63-110.

Barquín, Amelia (2009): “¿De dónde son los hijos de los inmigrantes? La construcción de la identidad y la escuela”, *Educación*, 44: 81-96.

Bartolomé, Margarita eta Cabrera, Flor (2003): “Sociedad multicultural y ciudadanía. Hacia una sociedad y ciudadanía interculturales”, *Revista de Educación*, zenbaki berezia: 33-56.

Bastida Freixedo, Xacobe (2007): “La senda constitucional. La nación española y la Constitución”, in Carlos Taibo (zuz.): *Nacionalismo español: esencias, memoria e instituciones*, Madril: Libros de la Catarata, 113-158.

Bastida, Patricia eta Rodríguez, Carla (ed.) (2010): *Nación, diversidad y género. Perspectivas críticas*, Rubí (Bartzelona): Anthropos.

Batasuna (2005): *Marco Jurídico-Político de los derechos de nacionalidad y ciudadanía* (txostena).

Batasuna (2006): *Euskal Herria ezkerretik eraiki* (txostena).

Batasuna (d.g.): *Euskal Herriarentzako migrazioen erronkak. Testuingurua. Esku-hartze politikorako ildo estrategikoak* (txostena).

Bauböck, Rainer (1996): "Social and Cultural Integration in a Civil Society", in Rainer Bauböck, Agnes Heller eta Aristide Zolberg (ed.): *The Challenge of Diversity: Integration and Pluralism in Societies of Immigration*, Avebury: Aldershot, 67-132.

Bauer, Otto (1979): *La cuestión de las nacionalidades y la social democracia*, Mexiko Hiria: Siglo XXI.

Bauman, Zygmunt (1997): *Modernidad y Holocausto*, Madril: Sequitur.

Bauman, Zygmunt (2007): *Identidad*, Buenos Aires: Losada.

Baumann, Gerd (2001): *El enigma multicultural. Un replanteamiento de las identidades nacionales, étnicas y religiosas*, Bartzelona: Paidós [lehen argitalpena, ingelesez, 1999an].

Béjar, Helena (2007): "La investigación cualitativa aplicada al estudio del nacionalismo: el discurso neoespañolista", *Empiria. Revista de metodología de ciencias sociales*, 13: 11-34.

Béjar, Helena (2008): *La dejación de España. Nacionalismo, desencanto y pertenencia*, Madril/Buenos Aires: Katz.

Beltrán, Miguel (1991): *La realidad social*, Madril: Tecnos.

Beltza [Emilio López Adán] (1974): *El nacionalismo vasco (1876-1936)*, Hendaia: Mugalde.

Bhabha, Homi K. (2000): "Narrando la nación", in Fernández Bravo, Álvaro (bil.): *La invención de la nación. Lecturas de la identidad de Herder a Homi Bhabha*, Buenos Aires: Manantial, 211-219.

Bilbeny, Norbert (2009): "La integración social en sociedades pluriculturales con inmigración. Concepto y límites", in Boladeras, Margarita (koord.): *Ciudadanía y derechos humanos. Gobernanza y pluralismo*, Bartzelona: Horsori, 49-68.

Billig, Michael (1995): *Banal Nationalism*, London: Sage Publications.

Blanco Fernández de Valderrama, Cristina (2002a): "Migraciones

internacionales y País Vasco”, in Blanco Fernández de Valderrama, Cristina (ed.): *La inmigración: nuevas realidades, nuevos desafíos. Consideraciones para el análisis de la inmigración extranjera en el País Vasco*, Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Blanco Fernández de Valderrama, Cristina (2002b): “Los inmigrantes y su integración. Apuntes en torno a una creciente nebulosa de conceptos, modelos y políticas”, in García Castaño, F.J. eta Muriel López, C. (ed.): *La inmigración en España: contextos y alternativas. Actas del III Congreso sobre la Inmigración en España*, Granada: Laboratorio de Estudios Interculturales, 71-80.

Blanco Fernández de Valderrama, Cristina (2008): “Inmigración extranjera en el País Vasco. Estrategias políticas para la gestión de la diversidad”, *Política y Sociedad*, 45 (1): 187-203.

Blanco, Cristina (1990): *La integración de los inmigrantes en Bilbao*, Bilbo: Bilboko Udala.

Blanco, Cristina (2000): *Las migraciones contemporáneas*, Madril: Alianza.

Bourdieu, Pierre (1985): *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*, Madril: Akal.

Bourdieu, Pierre (2010): “Prefacio”, in Sayad, Abdelmalek: *La doble ausencia. De las ilusiones del emigrado a los padecimientos del inmigrado*, Rubí (Bartzelona): Anthropos. 13-17

Breuilly, John (1990): *Nacionalismo y estado*, Bartzelona: Pomares-Corredor [lehen argitalpena, ingelesez, 1982an].

Breuilly, John (2008): “Introducción”, in Gellner, Ernest: *Naciones y nacionalismo*, Madril: Alianza, 11-62.

Brubaker, Rogers (1992): *Citizenship and Nationhood in France and Germany*, Cambridge MA: Harvard University Press.

Bruni, Luigi (1988): *ETA, historia política de una lucha armada*, Tafalla: Txalaparta, 1.º liburukia.

Cachón Rodríguez, Lorenzo (2009): “La cuestión (sociológica y política) de la «integración» de los inmigrantes”, in Cachón Rodríguez, Loreneo: *La «España inmigrante»: marco discriminatorio, mercado de trabajo y políticas de integración*, Rubí (Bartzelona): 261-269.

Callejo Gallego, Javier (2002): “Observación, entrevista y grupo de

discusión: el silencio de tres prácticas de investigación”, *Revista Española de Salud Pública*, 76 (5): 409-422.

Callejo, Javier (2001): *El grupo de discusión: introducción a una práctica de investigación*, Bartzelona: Ariel.

Carens, Joseph H. (2004): “La integración de los inmigrantes”, in Zapata-Barrero, Ricard eta Aubarell, Gemma (bil.): *Inmigración y procesos de cambio: Europa y el mediterráneo en el contexto global*, Bartzelona: Icaria, 393-420.

Castells, Manuel (1998): *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. Volumen 2: El poder de la identidad*, Madril: Alianza, 2. liburukia [lehen argitalpena, ingelesez, 1997an].

Castles, Stephen (1995): “How national-states respond to immigration and ethnic diversity”, *New Community*, 21 (3): 293-308.

Centro de Investigaciones Sociológicas (2012): *Barómetro de Septiembre*, hemen eskuragarri: http://datos.cis.es/pdf/Es2954mar_A.pdf (2012-10-07an begiratu).

Chacón Delgado, Pedro José (2006): *La identidad maketa*, Donostia: Hiria.

Connor, Walker (1998): *Etnonacionalismo*, Madril: Trama [lehen argitalpena, ingelesez, 1994an].

Conversi, Daniele (1997): *The Basques, the Catalans and Spain. Alternative routes to nationalist mobilisation*, Londres: Hurst & Co.

Conversi, Daniele (2002): *Immigration and statelessness: Political Participation of Immigrants and their Descendants in Catalan and Basque Mobilizations (1959-1978)*, ECPRren 14. workshop-erako prestatutako ponentzia, Turin, gaia: “Political Participation of Immigrants and their Descendants in Post-War Western Europe”.

Conversi, Daniele (2007): “Homogenisation, nationalism and war: should we still read Ernest Gellner?”, *Nations and Nationalism*, 13 (3): 371-394.

Corcuera, Javier (2001): *La patria de los vascos. Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*, Madril: Taurus.

De Blas Guerrero, Andrés (zuz.) (1997): *Enciclopedia del nacionalismo*, Madril: Tecnos.

De la Granja Sainz, José Luis (1995): *El nacionalismo vasco: un siglo de historia*, Madril: Tecnos.

De la Granja Sainz, José Luis (2008): *Nacionalismo y II República en el País Vasco. Estatutos de autonomía, partidos y elecciones. Historia de Acción Nacionalista Vasca: 1930-1986*, Madril: Siglo XXI, 2. edizioa [lehen edizioa, 1986an].

De Lucas, Javier (2009): "Inmigración, diversidad cultural, reconocimiento político", *Papers*, 94: 11-27.

De Miguel, Amando (1974): "Estructura social e inmigración en el País Vasconavarro", *Papers*, 3: 249-273.

De Pablo, Santiago; Mees, Ludger; eta Rodríguez Ranz, José Antonio (1999): *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco*, Bartzelona: Crítica, 1.º liburukia.

Díez Medrano, Juan (1999): *Naciones divididas. Clase, política y nacionalismo en el País Vasco y Cataluña*, Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas [lehen argitalpena, ingelesez, 1995ean].

Doty, Roxane Lynn (1996): "The Double-writing of Statecraft: Exploring State responses to Illegal Immigration", *Alternatives*, 21: 171-189.

Douglass, William A. (2004): "Sabino's sin. Racism and the founding of Basque nationalism", in Conversi, D. (ed.): *Ethnonationalism in the contemporary world. Walker Connor and the study of nationalism*, Londres: Routledge, 95-112.

Douglass, William A.; Lyman, Standford M.; eta Zulaika, Joseba (1994): *Migración, etnicidad y etnonacionalismo*, Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Draper, Theodore (1972): *El nacionalismo negro en Estados Unidos*, Madril: Alianza.

Eguiguren, Jesús (1994): *El socialismo y la izquierda vasca. 1886-1994*, Madril: Ed. Pablo Iglesias.

ELA (d.g.): *Lan egiten baduzu, eskubideak dituzu* (propaganda liburuskua).

ELA-Inmigrazioa (2006): "A propósito del día internacional del racismo y la xenofobia", hemen eskuragarri: <http://www.ela-sindikatu.org/es/actualidad/opiniones/a-proposito-del-dia-internacional-del-racismo-y-la-xenofobia> (2012-12-01ean begiratua).

Elorza, Antonio (1978): *Ideologías del nacionalismo vasco 1876-1937 (de los "euskaros" a Jagi Jagi)*, Donostia: L. Haranburu.

Escudero, Manu (1978): *Euskadi: dos comunidades*, Donostia: L. Haranburu.

Esteban Sánchez, Valeriano eta López Sala, Ana María (2009): "La crisis de los 'acomodos razonables' en Quebec: la Comisión Bouchard-Taylor", *Revista Internacional de Filosofía Política*, 33: 191-210.

Estornés Zubizarreta, Idoia (d.g.-a): "Francisco Ulacia Beitia", *Auñamendi Entziklopedia*, hemen eskuragarri: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/137533> (2011-09-27an begiratua).

Estornés Zubizarreta, Idoia (d.g.-b): "Partido Republicano Nacionalista Vasco", *Auñamendi Entziklopedia*, hemen eskuragarri: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/122698> (2011-09-27an begiratua).

Etxebarrieta Ortiz, José Antonio (1999): *Los vientos favorables. Euskal Herria 1839-1959*, Tafalla: Txalaparta.

Eurostat (2011): "6.5% of the EU population are foreigners and 9.4% are born abroad", *Statistics in focus*, 34, hemen eskuragarri: http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-11-034/EN/KS-SF-11-034-EN.PDF (2012-11-15ean begiratua).

Euzko Alderdi Jeltzalea (d.g.): *EAJ/PNVren immigrazio alorreko jarduera plana 2004-2007: XXI. mendeko migrazio fenomenoak eta mugimenduak* (fotokopiatua).

Ezker Abertzalea (2011): *Herri Programa 2011. Migrazio politika* (bestelako zehaztasunik gabe).

Fanon, Frantz (1999): *Los condenados de la tierra*, Tafalla: Txalaparta [lehen argitalpena, frantsesez, 1961ean].

Favell, Adrian (2000): *Philosophies of Integration: Immigration and the Idea of Citizenship in France and Britain*, Basingstoke: Macmillan.

Favell, Adrian (2003): "Integration Nations: The Nation-State and Research on Immigrants in Western Europe", *Comparative Social Research*, 22: 13-42.

Fenton, Steve (2011): "The sociology of ethnicity and national identity", *Ethnicities*, 11 (1): 21-17.

Fernández Soldevilla, Gaizka eta López Romo, Raúl (2010): “¿Enemigos internos o nuevos aliados? Los inmigrantes y el nacionalismo vasco radical (1959-1979)”, *Alcores*, 10: 193-217.

Fusi, Juan Pablo (1979): *El problema vasco en la II República*, Madril: Turner.

Fusi, Juan Pablo (1984): *El País Vasco. Pluralismo y nacionalidad*, Madril: Alianza.

Fusi, Juan Pablo (2003): *La patria lejana. El nacionalismo en el siglo XX*, Madril: Taurus.

Fusi, Juan Pablo (2006): *Identidades proscritas. El no nacionalismo en las sociedades nacionalistas*, Bartzelona: Seix Barral.

Galfarsoro, Imanol (2012): “Kulturaniztasuna eta naziontasuna: identitatearen politikak vs. politikaren identitatea”, *Hausnart*, 1: 26-54.

Gallastegi Gudari, Eli (1993): *Por la libertad vasca*, Tafalla: Txalaparta.

Garate, Gotzon (2006): “Etorkinak New Yorken eta Euskal Herrian”, *Gara*, 2006-08-31, <http://gara.naiz.info/idatzia/20060831/art178491.php> (2012-11-15ean eskuragarri: hemen begiratua).

García-Sanz Marcotegui, Angel eta Mikelarena Peña, Fernando (2000): “Evolución de la población y cambios demográficos en Navarra durante el siglo XX”, *Gerónimo de Uztariz*, 16: 125-138.

Garmendia, Jose Mari (1983): *Historia de ETA*, Donostia: L. Haranburu, 1.go liburukia [lehen argitalpena, 1979an].

Garmendia, José A.; Parra, Francisco; Pérez-Agote, Alfonso (1982): *Abertzales y vascos. Identificación vasca y nacionalista en el País Vasco*, Madril: Akal.

Gayo Cal, Modesto (2010): “¿Es posible escapar del nacionalismo?”, *Papers*, 95 (2): 341-361.

García Ferrando, Manuel; Ibáñez, Jesús; Alvira, Francisco (2000): *El análisis de la realidad social: métodos y técnicas de investigación*, Madril: Alianza.

Gellner, Ernest (1964): *Thought and Change*, Londres: Weidenfeld and

Nicholson.

Gellner, Ernest (2008): *Naciones y nacionalismo*, Madril: Alianza, 2. edizioa [lehen argitalpena, ingelesez, 1983an].

Gil Araújo, Sandra (2006): *Las argucias de la integración. Construcción nacional y gobierno de lo social a través de las políticas de integración de inmigrantes. Los casos de Cataluña y Madrid*, Doktorego Tesia, Madril: Universidad Complutense de Madrid.

Giménez Romero, Carlos (2003a): “Pluralismo, multiculturalismo e interculturalidad”, *Educación y Futuro*, 8: 9-26.

Giménez Romero, Carlos (2003b): *Qué es la inmigración: ¿problema u oportunidad?, cómo lograr la integración de los inmigrantes?, ¿multiculturalismo o interculturalidad?*, Bartzelona: RBA.

Glazer, Nathan (1993): “Is Assimilation Dead?”, *The ANNALS of the American Academy of Political and Social Science*, 530 (1): 122-136.

Gordon, Milton (1964): *Assimilation in American life: the role of race, religion, and national origins*, New York: Oxford University Press.

Guibernau, Montserrat eta Rex, John (ed.) (1997): *The Ethnicity Reader. Nationalism, multiculturalism and migration*, Cambridge: Blackwell.

Habermas, Jürgen (1989): *Identidades nacionales y postnacionales*, Madril: Tecnos.

Hamberger, Astrid (2009): “Immigrant Integration: Acculturation and Social Integration”, *Journal of Identity and Migration Studies*, 3 (2).

Hammar, Thomas eta Lithman, Yngve Georg (1989): “La integración de los inmigrantes: experiencias, conceptos y políticas”, in OCDE: *El futuro de las migraciones*, Madril: MTSS, 347-385.

Hastings, Adrian (2000): *La construcción de las nacionalidades. Etnicidad, religión y nacionalismo*, Cambridge: Cambridge University Press [lehen argitalpena, ingelesez, 1997an].

Heiberg, Marianne (1989): *The Making of the Basque Nation*, Cambridge: Cambridge University Press.

Hepburn, Eve (2011): ““Citizens of the region.” Party conceptions of regional citizenship and immigrant integration”, *European Journal of Political*

Research, 50: 504-529.

Herrera, Encarna (1994): "Reflexiones en torno al concepto de integración en la sociología de la inmigración", *Papers*, 43: 71-76.

Herrera, Encarna (1997): "La incorporació d'immigrants a societats d'arribada", *Revista catalana de sociologia*, 6: 23-23.

Hobsbawm, Eric (2004): *Naciones y nacionalismo desde 1780*, Bartzelona: Crítica, 2. edizioa [lehen argitalpena, ingelesez, 1990ean].

Hobsbawm, Eric (2009): "Naciones y nacionalismo en el nuevo siglo", in Eric Hobsbawm: *Guerra y paz en el siglo XXI*, Madril: Público [lehen argitalpena, ingelesez, 2006an].

Hobsbawm, Eric eta Ranger, Terence (ed.) (2002): *La invención de la tradición*, Bartzelona: Crítica [lehen argitalpena, ingelesez, 1983an].

Hollinger, David A. (1995): *Postethnic America: Beyond Multiculturalism*, New York: Basic Books.

Hordago, Equipo de (1979): *Documentos Y*, Donostia: Lur arg. (18 liburuki).

Howarth, David (2005): "Aplicando la Teoría del Discurso: el Método de la Articulación", *Studia Politicae*, 5: 37-88.

Huici, Vicente (1981): "Ideología y política en Arturo Campión", *Príncipe de Viana*, 163: 641-687.

Ibáñez, Jesús (1986): *Más allá de la sociología. El grupo de discusión, teoría y crítica*, Madril: Siglo XXI.

Ibárruri La Pasionaria, Dolores (1992): *El único camino*, Madril: Castalia [lehen argitalpena, 1963an].

Ignatieff, Michael (1993): *Blood and Belonging: Journeys into the New Nationalism*, New York: Farrar, Straus and Giroux.

Ikuspegi – Immigrazioa (2010): *2009 Barometroa. Atzerriko immigrazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrerak*, Bilbo: Ikuspegi, hemen eskuragarri: http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/investigacion/eus/bar_2009_eus.pdf (2012-03-08an begiratua).

Ikuspegi – Immigrazioa (2011a): "Migrazio-fluxuen urrezko hamarkada",

Immigrazioaren begirada, 38, hemen eskuragarri: <http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/panoramicas/eus/pan38eusweb.pdf> (2012-10-30ean begiratua).

Ikuspegi – Immigrazioa (2011b): *2010 Barometroa. Atzerriko immigrazioaren inguruko pertzepzioak eta jarrera*, Bilbo: Ikuspegi-Immigrazioa, hemen eskuragarri: <http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/barometros/2010/barometro2010eus.pdf> (2012-03-08an begiratua).

Ikuspegi – Immigrazioa (2012): “Atzerritar biztanleria EAEn 2012”, *Immigrazioaren begirada*, 46, hemen eskuragarri: <http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/panoramicas/eus/pan46eus.pdf> (2012-10-30ean begiratua).

Ikuspegi@k – Immigrazioaren behatokia (2011): *Municipios de la CAPV y su porcentaje de extranjeros. Año 2011*, hemen eskuragarri: http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/tablas/castellano/2011/munis/municipios_porcent_extranj_2011.pdf (2012-12-05ean begiratua).

Iraola, Iker; Mateos, Txoli; Zabalo, Julen (2011): “Discursos sobre la integración. La inmigración al País Vasco en los años 1950-1970”, *RIPS Revista de Investigaciones Políticas y Sociológicas*, 10: 115-130.

Jáuregui Bereciartu, Gurutz (1981): *Ideología y estrategia política de ETA*, Madril: Siglo XXI.

Jeram, Sanjay (2012): “Immigrants and the Basque nation: diversity as a new marker of identity”, *Ethnic and Racial Studies*, DOI:10.1080/01419870.2012.664281

Juaristi, Jon (1997): “La invención de la nación. Pequeña historia de un género”, *Claves de Razón Práctica*, 73: 2-9.

Kamaradak/Anitzak (d.g.): *Migrazioa eta internazionalismoa Euskal Herrian* (liburuska), hemen bertsiotuta: <http://kamaradak.wikidot.com/migracion-e-internacionalismo-en-euskal-herria> (2012-10-15ean begiratua).

Kedourie, Elie (1966): *Nationalism*, Londres: Hutchinson University Library.

Kintana Goiriena, Jurgi (2007): *Sabino Arana Goiri, Euzkadiren aita (1865-1903)*, Donostia, Elkar.

Kohn, Hans (2005): *The Idea of Nationalism. An Study in its Origins and Background*, New Brunswick: Transaction, 3. edizioa [lehen argitalpena, 1944an].

Koopmans, Ruud eta Statham, Paul (2000): "Migration and Ethnic Relations as a Field of Political Contention: An Opportunity Structure Approach", in Koopmans, Ruud eta Statham, Paul (ed.): *Challenging Immigration and Ethnic Relations Politics: Comparative European Perspectives*, Oxford: Oxford University Press, 13-56.

Koopmans, Ruud eta Statham, Paul (2001): "How national citizenship shapes transnationalism. A comparative analysis of migrant claims-making in Germany, Great Britain and the Netherlands", *Reveu Européenne des Migrations Internationales*, 17 (2): 63-100.

Kymlicka, Will (1996): *Ciudadanía multicultural. Una teoría liberal de los derechos de las minorías*, Barcelona: Paidós [lehen argitalpena, ingelesez, 1995ean].

Kymlicka, Will (2003): *La política vernácula. Nacionalismo, multiculturalismo y ciudadanía*, Barcelona: Paidós [lehen argitalpena, ingelesez, 2001ean].

LAB (2003): *Atzerritarren Legea 14/2003 eta langile inmigranteen eskubideak* (txostena).

LAB-Irakaskuntza (2010): *Migrazioak eta aniztasuna. Irakaskuntzako V. Nazio Batzarra* (txostena).

Laparra, M., Martínez de Lizarrondo, A., eta García de Eulate, T. (2008): *Encuesta inmigración en Navarra*, Iruñea: Nafarroako Gobernua, hemen eskuragarri: <http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/9EC8F91B-05DC-4655-9E18-DCB7311F82AE/189322/encuestainmigracion2008.pdf> (2012-10-15ean begiratua).

Larronde, Jean-Claude (1977): *El nacionalismo vasco, su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*, Donostia: Txertoa.

Letamendía, Francisco (1997): *Juego de espejos: conflictos nacionales centro periferia*, Madril: Trotta.

Linz, Juan J. (1985): "From primordialism to nationalism", in Tiryakian, E. eta Rogowski, R. (ed.): *New Nationalisms of the Developed West*, Londres: Allen & Unwin.

Linz, Juan José (1986): *Conflicto en Euskadi*, Madril: Espasa-Calpe.

Llera, Francisco (1984) : “El sistema de partidos vascos: distancia ideológica y legitimación política”, *REIS Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 28: 171-206.

Lloyd, J. (2002): “The end of multiculturalism”, *New Stateman*, 2002ko maiatzaren 27a: 21-23.

López Adán, Emilio (1978): *Del carlismo al nacionalismo burgués*, Donostia: Txertoa.

López Romo, Raúl eta Fernández Soldevilla, Gaizka (2011): “Nacionalismo radical y exclusión étnica”, *Cuadernos de Alzate*, 44: 9-30.

López Sala, Ana María (2005): *Inmigrantes y Estados: la respuesta política ante la cuestión migratoria*, Rubí (Bartzelona): Anthropos.

Máiz, Ramón (2004): “Per modum unius: Más allá de la dicotomía nacionalismo cívico vs. nacionalismo étnico”, in A. Gurrutxaga: *El Presente del Estado-nación*, Bilbo: EHUko Argitalpen Zebitzua, 107-130, hemen eskuragarri:

http://www.usc.es/cipoad/PaxinaMaiz/index_archivos/documentos/Nacionalismoetnicovscivico.pdf (2010-05-10ean begiratu) [On line bertsio erabil da].

McCrone, David (1998): *The Sociology of Nationalism*, Londres/New York: Routledge.

Mees, Ludger (1989): “La izquierda imposible. El fracaso del nacionalismo republicano vasco entre 1910 y 1913”, *Historia contemporánea*, 2: 249-266, hemen eskuragarri: http://www.historiacontemporanea.ehu.es/so021-con/es/contenidos/boletin_revista/00021_revista_hco2/es_revista/adjuntos/02_14.pdf (2011-09-28an begiratu).

Mees, Ludger (1992): *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1903-1923)*, Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.

Mernissi, Fátima (1990): *Marruecos a través de sus mujeres*, Madril: Eds. Del Oriente y del Mediterráneo.

Moreno Cabrera, Juan Carlos (2008): *El nacionalismo lingüístico. Una ideología destructiva*, Bartzelona: Península.

Moreno, Gorka eta Aierdi, Xabier (koord.) (2011): *EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria*, Bilbo: Ikuspegi@k – Immigrazioaren Euskal Behatokia, hemen eskuragarri: http://www.ikuspegi-immigracion.net/documentos/anuarios/anuario_2010_eus_ok.pdf (2011-11-

30ean begiratua).

Moulines, C. Ulises (2008): *Manifestu nazionalista, are separatista ere esango nioke, estutuz gero*, Tafalla: Txalaparta [lehen argitalpena, gaztelaniaz, 2001ean].

Nimni, Ephraim (1999): “Nationalist multiculturalism in late imperial Austria as a critique of contemporary liberalism: the case of Bauer and Renner”, *Journal of Political Ideologies*, 4 (3): 289-314.

Nimni, Ephraim (2011): “Izquierda y emancipación nacional hoy”, in Ibarra, Pedro eta Cortina, Mercè (bil.): *Recuperando la radicalidad. Un encuentro en torno al análisis político crítico*, Bartzelona: Hacer, 107-112.

Núñez Seixas, Xosé Manoel (1998): *Movimientos nacionalistas en Europa en el siglo XX*, Madril: Síntesis.

Núñez Seixas, Xosé Manoel (2010): *Patriotas y demócratas. El discurso nacionalista español después de Franco*, Madril: Libros de la Catarata.

Odriozola, Joxe Manuel (2008): *Abertzaleak eta euskara. Edo nazio euskaldunaren gainbehera*, Donostia: Elkar.

Odriozola, Joxe Manuel (2012): “Nazionalismo linguistikoa”, *Berria*, 2012-03-15, hemen eskuragarri: http://paperekoa.berria.info/iritzia/2012-03-15/004/001/nazionalismo_linguistikoa.htm (2012-04-25ean begiratua).

Oleaga, José Antonio (2011): “Immigrazioarekiko Tolerantzia-indizea”, in Moreno, Gorka eta Aierdi, Xabier (koord.): *EAEko immigrazioari buruzko 2010eko urtekaria*, Bilbo: Ikuspegi@k – Immigrazioaren Euskal Behatokia, 71-82.

Özkirimli, Umut (2010): *Theories of Nationalism: a critical introduction*, Basingstoke/New York: Palgrave-Macmillan, 2. edizioa.

Pastor, Jaime (2012): *Los nacionalismos, el Estado español y la izquierda*, Torrejón de Ardoz (Madril): La Oveja Roja.

Penninx, Rinus eta Martiniello, Marco (2006): “Procesos de integración y políticas (locales): estado de la cuestión y algunas enseñanzas”, *REIS Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 116: 123-156.

Penninx, Rinus (2004): “Integration of migrants. Economic, social, cultural and political dimensions”, European Population Forum 2004ra aurkeztu komunikazioa, Geneva, gaia: Population Challenges and Policy Responses, hemen eskuragarri:

http://www.unece.org/pau/docs/pau/2004/PAU_2004_EPF_BgDocPenninx.pdf (2012-02-15ean begiraturua).

Pérez-Agote, Alfonso (1989): “Hacia una concepción sociológica de la nación”, in Pérez-Agote, Alfonso (ed.): *Sociología del Nacionalismo*, Bilbo: EHUko Argitarapen Zerbitzua/Eusko Jaurlaritza.

Penchaszadeh, Ana Paula (2008): “La cuestión del extranjero. Una mirada desde la teoría de Simmel”, *Revista Colombiana de Sociología*, 31: 51-67.

Ramírez Goicoechea, Eugenia (2000): “El estigma de Beraun: conflicto, espacio y alteridad”, *Zainak*, 19: 109-124.

Renan, Ernest (2004): *Zer da nazioa?*, Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua [lehen argitalpena, frantsesez, 1882an].

Renobales, Eduardo (2005): *ANV. El otro nacionalismo*, Tafalla: Txalaparta, 2. edizioa.

Rex, John (1997): “The problematic of multinational and multicultural societies”, *Ethnic and Racial Studies*, 20 (3): 455-473.

Rex, Jonh (2002): “Multiculturalismo e integración política en el Estado nacional moderno”, *Isegoría*, 26: 29-43.

Rivera, Antonio (2003): *Señas de identidad. Izquierda obrera y nación en el País Vasco, 1880-1923*, Madril: Biblioteca Nueva.

Rubio, María José eta Varas, Jesús (2004): *El análisis de la realidad en la intervención social. Métodos y técnicas de investigación*, Madril: Editorial CCS.

Rubiralta Casas, Fermí (1997): *El nuevo nacionalismo radical. Los casos gallego, catalán y vasco (1959-1973)*, Donostia: Gakoa.

Rubiralta Casas, Fermí (2000): “Nazionalismo erradikal berria (1959-1974): Galizia, Katalunia eta Euskadiko kasuen ikerketa konparatzailea”, *Uztaro*, 32: 103-116.

Ruiz Olabuénaga, José Ignacio eta Blanco, M^a Cristina (1994): *La inmigración vasca. Análisis trigeracional de 150 años de inmigración*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Ruiz Vieytez, Eduardo J. (2006): *Minorías, inmigración y democracia en Europa. Una lectura multicultural de los derechos humanos*, Valentzia:

Tirant lo Blanch.

Sánchez-Prieto, Juan María (1993): *El imaginario vasco. Representaciones de una conciencia histórica, nacional y política en el escenario europeo 1833–1876*, Barcelona: Ediciones Internacionales Universitarias.

Santamaría, Enrique (2002): *La incógnita del extraño. Una aproximación a la significación sociológica de la “inmigración no comunitaria”*, Rubí (Barcelona): Anthropos.

Santiago, José A. (2001): “Las transformaciones de la identidad nacional y la cuestión de la territorialidad en perspectiva comparada. Los casos de Quebec y el País Vasco”, *Política y Sociedad*, 38: 153-171.

Sarrailh de Ihartza, Fernando [Federiko Krutwig] (2006): *Vasconia*, Iruñea: Astero [lehen argitalpena, 1963an].

Sartori, Giovanni (2003): *La sociedad multiétnica. Pluralismo, multiculturalismo y extranjeros*, Madrid: Taurus [lehen argitalpena, italieraz, 2001ean].

Sassen, Saskia (2003): *Contrageografías de la globalización. Género y ciudadanía en los circuitos transfronterizos*, Madrid: Traficantes de Sueños.

Sayad, Abdelmalek (2010): *La doble ausencia. De las ilusiones del emigrado a los padecimientos del inmigrado*. Rubí (Barcelona): Anthropos.

Serrano Pascual, Araceli (1995): *Identidades étnicas versus identidades cívico-territoriales como tipos ideales de identidad nacional: discursos, actitudes y bases sociales : una comparación entre Cataluña y el País Vasco*, Doktorego Tesia, Universidad Complutense de Madrid, hemen eskuragarri: <http://eprints.ucm.es/tesis/19911996/S/1/S1017501.pdf> (2012-08-10ean begiratu).

Serrano Pascual, Araceli (1998): “Manifestaciones étnicas y cívico-territoriales de los nacionalismos”, *REIS Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 82: 97-126.

Seton-Watson, Hugh (1977): *Nations and states. An enquiry into the origins of nations and the politics of nationalism*, Londres: Methuen.

Shafir, Gershon (1995): *Immigrants and Nationalists. Ethnic Conflict and Accommodation in Catalonia, the Basque Country, Latvia, and Estonia*, Albany: State University of New York Press.

Silveira Abrão, Janete (2006): *Nacionalismo cultural y político: la doble*

cara de un proyecto único: Cataluña, Doktorego Tesia, Universitat de Barcelona, http://www.thesisred.net/bitstream/handle/10803/1992/JSA_TESIS_CO_MPLETA.pdf?sequence=3 (2012-01-15ean begiratua).

Simmel, Georg (1977): "Digresión sobre el extranjero", in *Sociología. Estudios sobre las formas de socialización*, Madril: Revista de Occidente, 716-722.

Smith, Anthony D. (1986): *The ethnic origins of nations*, Oxford: Blackwell.

Smith, Anthony D. (1997): *La identidad nacional*, Madril: Trama [lehen argitalpena, ingelesez, 1991n].

Smith, Anthony D. (2000): *Nacionalismo y Modernidad. Un estudio crítico de las teorías recientes sobre naciones y nacionalismo*, Madril: Istmo.

Smith, Anthony D. (2004): *Nacionalismo. Teoría, ideología, historia*, Madril: Alianza [lehen argitalpena, ingelesez, 2001ean].

Smith, Anthony D. (2009): *Etno-symbolism and nationalism: a cultural approach*, Abingdon/New York: Routledge.

Solozábal, Juan José (1979): *El primer nacionalismo vasco. Industrialismo y conciencia nacional*, Donostia: Haranburu.

Soto, Mikel eta Soto, Iñaki (2006): *Miguel Unamunokoa*, Donostia: Elkar.

Soysal, Yasemin Nuhoglu (1994): *Limits of Citizenships. Migrants and Postnational Membership in Europe*, Chicago: University of Chicago Press.

Soriano, Ramón (2004): *Interculturalismo. Entre liberalismo y comunitarismo*, Kordoba: Almuzara

Sortu (2012): *Oinarri ideologikoak. Antolakuntza eredu*, hemen eskuragarri: <http://sortu.net/1eu.pdf> (2012-12-01ean begiratua).

Stolcke, Verena (1997): "The 'nature' of Nationality", in Bader, Veit (ed.): *Citizenship and Exclusion*, Londres: Macmillan, 61-80.

Suarez, Castillo eta Albite, Pedro (2005): "Immigrazioa, naziotasuna eta herritartasuna", *Bat. Soziolinguistika aldizkaria*, 57: 163-174.

Sullivan, John (1988): *ETA and Basque Nationalism: the fight for Euskadi 1890-1986*, Londres: Routledge.

Taibo, Carlos (2007) (zuz.): *Nacionalismo español. Esencias, memoria e instituciones*, Madril: Libros de la Catarata.

Telles, Edward M. eta Ortiz, Vilma (2011): *Generaciones excluidas. Mexicano-estadounidenses, asimilación y raza*, Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas [lehen argitalpena, ingelesez, 2008an].

Triandafyllidou, Anna (1998): “National identity and the ‘other’”, *Ethnic and Racial Studies*, 21 (4): 593-612.

Triandafyllidou, Anna (2000): “The Political Discourse on Immigration in Southern Europe: A Critical Analysis”, *Journal of Community & Applied Social Psychology*, 10: 373-389.

Triandafyllidou, Anna (2001): *Immigrants and National Identity in Europe*, Londres: Routledge.

Valles, Miguel S. (1997): *Técnicas cualitativas de investigación social; reflexión metodológica y práctica profesional*, Madril: Síntesis Sociología.

Weber, Max (1964): *Economía y sociedad. Esbozo de sociología comprensiva*, Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica.

Wieviorka, Michel (1992): *El espacio del racismo*, Bartzelona: Paidós.

Wieviorka, Michel (2008): “La decadència del multiculturalisme”, *Revista Catalana de Sociologia*, 23: 47-53.

Yuval-Davis, Mira (2010): “Etnicidad, relaciones de género y multiculturalismo”, in Bastida, Patricia eta Rodríguez, Carla (ed.): *Nación, diversidad y género. Perspectivas críticas*, Rubí (Bartzelona): Anthropos, 64-88.

Zabala, Mikel; Ormazabal, Sabino; Arroyo, Igor (2005): *Ikasi eta irauli. Euskal ikasle mugimenduen historia*, Tafalla: Txalaparta.

Zabalo, Julen (1998): “Euskal nazionalismo motak –nazioaren ikuskeraren arabera–”, *Uztaro*, 26: 27-46.

Zabalo, Julen (2004): “¿Es realmente cívico el nacionalismo catalán y étnico el vasco?”, *Papers*, 72: 67-85.

Zabalo, Julen (2006): “Nacionalismo vasco: el discurso teórico sobre la nación y su readecuación en la práctica”, *RIPS. Revista de Investigaciones Políticas y Sociológicas*, 5 (1): 83-94.

Zabalo, Julen eta Mateos, Txoli (2005): “Euskara euskal nazioaren funtsa, periferia erdaldunean ere?”, *Jakin*, 146-147: 165-181.

Zabalo, Julen; Basterra, Ilune; Iraola, Iker; Mateos, Txoli (2010): *Etorkinak eta integrazioa. 50-80ko hamarkadetako etorkinen integrazio moduak Hego Euskal Herrian*, Bilbo: GITE-IPES.

Zabalo, Julen; Mateos, Txoli; Iraola, Iker (argitaratzeke): “Conflicting nationalisms and immigration. The Basque case from 1950 to 1980”, *Nations and Nationalism*.

Zabaltza, Xabier (2005): *Mater Vasconia. Lenguas, fueros y discursos nacionales en los países vascos*, Donostia: Hiria.

Zabaltza, Xabier (2006): *Una historia de las lenguas y los nacionalismos*, Bartzelona: Gedisa.

Zapata-Barrero, Ricard (2002): *El turno de los inmigrantes. Esferas de justicia y políticas de acomodación*, Madril, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.

Zapata-Barrero, Ricard (2004): *Multiculturalidad e inmigración*, Madril: Síntesis.

Zapata-Barrero, Ricard (2005): “Multinacionalidad y la inmigración: premisas para un debate en España”, in Danielle, Juteau: *Inmigración, ciudadanía y autogobierno: Québec en perspectiva*, Bartzelona: Documentos CIBOD-Serie Migraciones.

Zapata-Barrero, Ricard (2008): *La inmigración en naciones minoritarias. Flandes, Quebec y Cataluna en perspectiva*, Bartzelona: Icaria.

Zapata-Barrero, Ricard (2010): “Euskal Herrian eskuin muturreko nazionalismoa sortzeko arriskua dago” (Edu Lartzanguren), *Berria*, 2010-06-03, hemen eskuragarri: http://paperekoa.berria.info/agenda/2010-06-03/028/003/euskal_herrian_eskuin_muturreko_nazionalismoa_sortzeko_arriskua_dago.htm (2012-12-05ean begiratua).

Žižek, Slavoj (1998): “Multiculturalismo o la lógica cultural del capitalismo multinacional”, in Jameson, Fredric eta Žižek, Slavoj: *Estudios Culturales. Reflexiones sobre el multiculturalismo*, Buenos Aires: Paidós, 137-188.

Žižek, Slavoj (2004): *Repetir Lenin. Trece tentativas sobre Lenin*, Tres Cantos (Madril): Akal.

ERANSKINAK

a. SAKONEKO ELKARRIZKETETARAKO GIDOI OROKORRA

Elkarrizketatuaren aurkezpena

- Zein leku du migrazioen gaiak zure erakundean?
- Zein garrantzia dauka zure erakundearen barnean Migrazioen lantaldeak?

Migrazioei buruzko diskurtso orokorra

- Migrazioak mundu mailako errealitatea izanik, zer esango zenuke direla gehiago: Beti egon den egoera natural bat edo egoera bortitz edo injustuen ondorio?
- Aurrekoarekin lotuta, zein uste duzu dela migrazioen arrazoirik inportanteena?
- Orokorrean, zein ondorio ditu migrazioak?

Immigrazioa Euskal Herrian

- Aurretik ere immigrazioa izan da Euskal Herrian. Zer irakurketa egiten duzu 50 eta 70eko hamarkadetako immigrazioaz? Zer ondorio atera behar dela uste duzue?
- Gaur egungo errealitatera etorritik, orokorrean zeintzuk esango zenituzke direla immigrazioaren ondorio nagusiak?
- Zeintzuk dira gaur egun immigrazioaren erronka nagusiak Euskal Herrian?
- Euskal Herrira datorren immigrazioak zein alde positibo dakartzkigu? Eta zein zailtasun?

Integrazioari buruzko ikuspegia

- Etorkinak direla eta, zer proposatzen du zure erakundeak (integrazioa, beste ezer...)?
- Nola gauzatu beharko litzateke zuek egiten duzuen proposamen (aurrekoan adierazten duenaren arabera) hori? (Etorkinen jatorri nazionalaren arabera banaketak egiten dira?)
- Zure erakundeak etorkinek parte hartzen al dute? Gainontzeko kideek bezala ala era berezitan, etorkin gisa?
- Lanketa berezirik egiten da etorkinei begira? Noiz? (hauteskundeetan, afiliazioari begira...)

Herritartasuna eta naziotasuna

- Zein(zeintzuk) da(dira) etorkinak euskal herritar bihurtzeko baldintzak?
- Etorkin kopuruari mugarik ipiniko zenioke herritartasuna lortzeko?
- Euskal herritartasuna diozunean, bereizketarik egiten duzu *herritar* [ciudadano/a] eta *naziokide* [nacional] artean, edo berdintzat jotzen dituzu?

Migrazioak eta kultura

- Immigrazioaz hitz egiterakoan, askotan kulturari loturiko gaiak izaten dira eztabaidagai. Kulturari dagokionez, zer proposatzen duzue?
- Zer leku izan behar du Euskal Herrian etorkinen kulturak?
- Nola elkarlotu daiteke etorkinen kultura bertakoarekin?

Nazionalismoa

- Abertzaletasunaren proiektu politikoa etorkinekin bateragarria al da?

- Etorkin kopuruaren gorakadak zailtasunik eragiten du proiektu politiko abertzalean?
- Immigrazioaren azken urteotako goranzko joera ikusita, horrek euskal nazioa eraikitzeko arazorik ekarriko duela uste duzu?

Euskara

- Zein paper jotzen du euskarak etorkinen integrazioan?
- Uste duzu Euskal Herrian integrazio osoa lortzeko euskara jakin behar dela?
- Uste duzu immigrazioak nolabait eragiten dionik euskarari? Onerako edo txarrerako?
- Uste duzu etorkinen kopurua haziz gero, euskararen biziraupena arriskuan egon litekeela?

b. FITXA TEKNIKOA

Azalpen metodologikoari dagokion atalean (ik. 5. puntua) lan honetako hautu metodologikoa azaldu eta haren ezaugarri behinenak aipatu ditugu. Jarraian, eztabaida taldeen ezaugarriak banan-banan azalduko ditugu; eta, hori baino lehen, informazioa aztertzeo prozesuaz xehetasun batzuk emango ditugu.

Lan honetan, bada, eztabaida taldeetan eta sakoneko elkarrizketetan esandakoa grabatu eta, ondoren, transkribatu dugu, diskurtso horren isla idatzia izan eta aztertu ahal izateko. Transkripzioa itzulpen prozesu bat da, eta halako prozesuek dituzten arazoak ditu. Hori dela eta, taldeetan esandakoaren literalitasunaz gain, taldeetan jasotako bestelako elkarrekintzak (barreak, partaide guztiek aho batez zerbait baieztatzea edo ezeztatzea, eta abar) ere testu idatzian sartu dira, azterketa prozesuan kontuan hartu ahal izateko (horietako batzuk, oso adierazgarriak zirenez, lan honetan mantentzea erabaki dugu). Horrekin batera, talde bakoitzean, ikertzaileak jasotako inpresioa nahiz gailendutako giroa ere, besteak beste, idatziz jaso dira. Adibidez, interes handien zein gaik piztu duen, zeinek eztabaida, edota zein gai ez den aipatu (ik. Callejo Gallego, 2002) idatzi dugu: hori guztia adierazgarria izan daiteke sektore sozial baten diskurtsoa aztertzerako garaian.

Informazio hori edukita, diskurtsoa aztertzeari ekin diogu. Taldeetan esandakoa analizatzea, prozesu konplexua da, eta ez dago berau guztiz zehazten duen biderik (ik. Callejo, 2001: 147), izan ere, diskurtsoari berari dagokion zientziarik ez dago (Bourdieu, 1985). Finean, eskuratutako material enpirikoaren azterketa ikerketaren helburuen araberakoa da; eta, gure kasuan, aurretik egindako sakoneko elkarrizketak aurrekaritzat izan ditugu, aztertzen ari ginen diskurtsoaren gako ugariaren jabe jada ginelarik. Edonola ere, lan honetan, sakoneko elkarrizketak egin dituen, taldeetan egondako moderatzailea eta informazioa aztertu duena ikertzaile bera izan da; eta ikerketaren analisi momenturako lagungarria izan ohi da prozesuaren aldi desberdinetan aztertzaile berak parte hartzea. Laburbilduz, bada, analisisa bi

mailatan egin dugu. Lehenik eta behin, talde bakoitzaren diskurtsoa analizatzeari ekin diogu, talde horretan gailendutako diskurtso egituraz jabetzeko asmoarekin. Ondoren, bigarren urrats batean, talde guztien arteko diskurtso egitura bilatu dugu, gure ikerketaren helburua zena, euskal nazionalismoak gaur egungo immigrazioari buruz eraikitzen duen diskurtsoa ezagutzea, bilatu asmoz. Izan ere, lan honetan aztertutako diskurtsoan, kontraesanen arteko aldeak baino, nagusitzen ziren joerak bilatu ditugu.

Ikerketaren diseinuaz xehetasun horiek azaldu eta gero, jarraian eztabaida talde bakoitzaren ezaugarriak zehaztuko ditugu. Alderdi esanguratsuenak azpimarratuko ditugu, orain arte emandako informazioa aberastu asmoz¹⁷⁸.

Derio (Bizkaia, 5.458 biztanle¹⁷⁹, alkatetza: EAJ)

Eztabaida talde honetan, 7 lagunek parte hartu zuten, guztiak gizonetzkoak (talde hau izan zen gizonetzkoak soilik izan zituen bakarra). Partaide gehienak Deriokoak ziren, baina baten bat ondoko herri batekoa zen (guztiak Txorierrikoak ziren, hala ere). Kide gehienak adinduak ziren, 60 urte ingurukoak, eta bat zaharragoa (75). Lagun bakarra zen gazteagoa, 25 urte ingurukoa. Talde honetan, modu argian, lider bat nabarmendu zen (EAJko kidea zen lagun hori): berak gidatu zuen eztabaida, eta, aitzitik, bi lagun oso isilik mantendu ziren. Talde honetan, estatus soziala, eta hari loturiko *kapital kulturala*, ezaugarri garrantzitsua izan zen. Hainbat eremutan lan egindakoak zeuden (asko jada erretirodunak), baina, oro har, bi profil desberdindu ditzakegu. Batetik, baserri ingurukoak eta bertan lan egindakoak; eta, bestetik, bestelako sektore batzuetakoak (administrazioa, industria...). Horrela, lehenek hezkuntza eta kultura maila apala zuten bitartean, bigarrenek eskola maila altuagoa zuten; eta, ondorioz, diskurtsoa landuagoa izan zen estatus altuagoko kideen artean, besteen artean baino.

¹⁷⁸ Kasu gehienetan herri txikiak direnez, eta partaideen anonimotasuna gorde asmoz, batzuetan zenbait zehaztapen (lanbidea, adibidez) ez ditugu eskainiko, eta taldekideen ezaugarri orokorragoak emango ditugu.

¹⁷⁹ Udalerrietako biztanleriaren datuak 2011koak dira.

Talde hau gaztelania hutsez burutu zen, nahiz eta bi kidek euskaraz ere bazekiten. Oro har, taldeko kide batzuk EAJko kideak –edo kide ohiak– ziren arren, gailendutako diskurtsoa ez zen *politizatua* izan, alderdi baten diskurtso ofizialari loturik, bederen. Aitzitik, *politikarien* aurkako diskurtsoa oso indartsua izan zen. Immigrazioari loturik, halaber, talde honetako diskurtsoa uzkurrena izan zen: gizarteko sektore batzuetan immigrazioaz dauden aurreiritzi eta estereotipoek leku handia izan zuten talde honetan, estatus desberdinei lotu gabe. Halaber, immigrazioa urruneko errealitate bat legez ikusten zen, oro har.

Finean, immigrazioari buruzko landu gabeko diskurtsoa gailendu zen, teorizatorik gabea, eta gizarteko sektore batzuetan nagusi diren aurreiritzien isla handia zuena.

Errenteria-Orereta (Gipuzkoa, 39.217 biztanle, alkatetza: Bildu¹⁸⁰)

Eztabaida talde honetan, 6 lagunek parte hartu zuten, 5 gizonetako eta emakumezko bakarrak. Guztiak Errenteriakoak ziren, eta, adinari dagokionez, erdia gazteak ziren (31 eta 33 urte artekoak), eta beste hiruak zaharragoak (bi 50 urte ingurukoak, eta beste batek 60 bat). Talde hau elebitan egin zen, izan ere, euskaraz ez zekien (ulertzen zuen arren) partaide bat zegoen, eta, beraz, eztabaidan zehar bi hizkuntzak tartekatu ziren. Estatus sozialari dagokionez, sektore desberdinetako langileak (eta erretirodun batek) parte hartu zuten.

Edonola ere, talde horren ezaugarri nagusia bere politizazio maila altua izan zen. Bertan, ezkerreko abertzaleak bildu ziren, eta gehienak (5) Ezker Abertzaleko kideak ziren momentu horretan, edo aurretik talde desberdinetan egondakoak ziren. Horrela, helduenak ezker abertzaleko eragile desberdinetako militante aktiboak izandakoak ziren (HASI, ASK edo HB bezalako erakundeak aipatu zituzten). Horrez gain, auzo

¹⁸⁰ 2011z geroztiz alkatetza Bilduren eskutan dagoen arren, 1980ko hamarkadaren hasieratik urte hartara arte PSE izan da Errenterian nagusi.

mugimenduko kide bat ere bazegoen (garrantzi handia eskaini zion horri eztabaidan zehar). Zentzu horretan, talde honetan diskurtso *militantea* nagusitu zen, eta Ezker Abertzaletik abiatutako diskurtsoa nabarmendu zen, oro har.

Talde honetan, hiru lagunek, gutxienez, gurasoak –edo haietako bat– Euskal Herri kanpokoak zituztela aipatu zuten. Izan ere, taldearen beste ezaugarri garrantzitsua, politizazio maila altuarekin batera, *immigrazio zaharrari* eskainitako garrantzia izan zen. Erreterian, 1950 eta 1980 urteen arteko immigrazioak pisu handia izan zuen (1950ean 13.000 biztanle baino gutxiago izatetik, 1980an 45.000tik gora izatera pasa zen udalerrira), eta taldean immigrazioaz egin zen diskurtsoan immigrazio hori erreferentziatatzat hartu zen momentu oro¹⁸¹. Gaur egungo immigrazioa, bere aldetik, esangura handiko gai politiko eta sozial gisa ikusten zen taldean, nahiz eta giza harremanen esparruan, urrunagoko errealitatetzat hartu.

Finean, bada, immigrazioaren irakurketa politikoa gailendu zen talde horretan, eta, gaur egungo immigrazioarentzako adibide gisa, immigrazio zaharraren *integratio politikoa* azpimarratzen zuena.

Lesaka (Nafarroa, 2.803 biztanle, alkatetza: Bildu)

Eztabaida talde honetan, 4 lagunek parte hartu zuten, erdia emakumezkoak eta besteak, gizonezkoak. Partaide kopuru murrizta izan arren, esandakoa bat dator beste taldeetan agertutakoarekin, eta balekอตat jotzea erabaki da. Talde hau egindakoetatik gazteena izan zen, guztiak 24 eta 35 urte artekoak baitziren. Horrekin batera, ikasketa maila altueneko taldea izan zen (unibertsitate ikasketak zituzten guztiek), eta ikasten jarraitzen zutenak ere baziren. Halaber, sindikalista batek ere parte hartu zuen, neurri batean diskurtsoa gidatu zuena, eta, beraz, diskurtso politizatua izan zen, oro har.

¹⁸¹1960 eta 1970eko hamarkadetan iritsitako immigrazio fluxuaren tamaina dela-eta, udalerrriaren azterketetan immigrazioaren garrantzia aipatu ohi da. Horren adibide, ik. Ramírez Goicoechea (2000).

Talde hau euskaraz egin zen, eta bertan euskara gai garrantzitsu gisa azaleratu zen. Gaur egungo immigrazioa urruneko errealitate moduan ikusten zen, bai eta, maila apalagoan, immigrazio zaharra ere. Beraz, taldean nagusitutako diskurtsoan euskararen oinarritutako immigrazioaren irakurketa azpimarratu zen: gizartean *integratuta* izateko, euskara berebizikoa ikusten zen.

Finean, talde honetan hizkuntza azpimarratzen zuen diskurtso landua gailendu zen, nolabait immigrazioaren *integrazione kulturala* nabarmentzen zuena.

Ondarroa (Bizkaia, 8.852 biztanle, alkatetza: Bildu)

Eztabaida talde honetan, 9 lagunek parte hartu zuten, lau emakumek eta bost gizonezkoak. Adinari dagokionez, oso talde anitza izan zen, eta 20 urte ingurutik 65 urtera arteko lagunak izan ziren. Oro har, lau gazteagoak izan ziren (20tik 35era), eta bost, helduagoak (45etik gorakoak). Horrekin batera, denak Ondarroakoak ziren, Berriatuko lagun bat izan ezik. Guztiak Ezker Abertzaleko oinarri sozialeko kideak edo gertutakoak ziren, militanteak ere baziren arren. Nolanahi ere, taldeko partaide guztiek asko hitz egin zuten, oro har, eta ez zen diskurtsoa gidatu zuen inor nabarmendu. Horrela, immigrazioarekiko *ardura abertzaleak* (*nola erakarri etorkinak gure proiektura?* galdera ardatz duena) eragin handia izan zuen bertan. Taldea euskara hutsez egin zen.

Talde honetan adina askotarikoa izan bazen, berdin gertatu zen lanbideei dagokienez; izan ere, ikasleak, langileak (administrazioko langileak, itsas munduari lotutakoak...) eta erretirodunak izan ziren parte hartzaileen artean. Edonola ere, ezaugarri horiez gain, taldean nagusitu zen adierazlea immigrazioarekiko harremana izan zen, talde honetako kideek erakutsi baitzuten immigrazioarekiko gertutasun handiena. Horrela, bere burua *etorkintzat* aurkeztu zuen lagun batek parte hartu zuen, Espainian jaioa, eta herrira gaztetan iritsia. Baina, batez ere, adierazgarriagoa izan

zen gaur egungo immigrazioaz erakutsitako giza mailako gertutasuna, etorkinekin, hainbat eremutan, harremanak baitzituzten: lanean, aisian, elkarteetan, eta abar.

Finean, talde honetan, aspektu politikoa nabarmentzen zuen diskurtsoa gailendu zen, eta, batez ere, immigranteen eguneroko errealitatea eta haien egoeraren ezagutza azpimarratzen zuena.